

Pedro Astarloa

**URTEKO DOMEKA
GUZTIJETARAKO
BERBALDI
IKASBIDEKUAK**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Urteco Domeca gustijetaraco verbaldi
icasbidecuac*, Pedro Astarloa. Apraizen moldategia,
1818

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00546.htm>

URTEKO DOMEKA
GUZTIJETARAKO BERBALDI
IKASBIDEKUAK,
ZEINTZUBETAN AZALDUTEN DAN
ERROMAKO KATEZISMUA

Euretan aurkituko dabe Arima-zain
euskaldunak, euren Elextar,
edo Feligresai predikadu biar deutsen ikasbidia:
Baita bere Kristinau euskaldunak, zer jakin,
eta egin biar dabeen

KONPONDUBA Aita Fr. Pedro Astarloa
S. Franziskubaren seme, Lektore Jubiladu,
Burgosko Probinzijako Aita,
eta Kantabriako Definidoriak

BIGARREN LIBURUBA

BILBON: D Pedro Apraizen moldategian
1818

Biar dirian eskubidiakaz

Salzen da lenengo liburubagaz, Bilboko San
Franziskuko atarte, edo Porterijan

JAUN TXITO ARGITU; EDO ILUSTRE DON FRANCISCO LONGA; ETA ANCHIA,

Erregeren Martitzdi, edo Ejerzitubetako Mariskal, San fernandoren Ordia Errial, eta gudatarreko Zaldun, Vitorija, eta San Marcialeko batailetako, baita bere zazpigarren Soldadi, edo Ejerzituko Labaru, Lauburu, edo kurutzez apaindu, Bilboko uriko armen agintarijai Ea, Ea.

Denpora guztijetan izan da entzute andikua Kantauritarren izena alan itsas-ibilte, eta jakiturijan, zein da gerran. Etzan oraindio zabaldu mundutik Carthago, eta Erromaren izenik, egijezean Kantauritarrak itsas-bidiak, eta ebilzean Ingalaterra, Irlanda, eta beste leku askotatik dijatu, edo gizonez beteten leku lenago ezagutu bagak, eta eregiten ikasola, edo unibersidadiak nun irakatsi jakituriya. Ez beike inok uste au buru bagako andiska, edo ponderazinoen bat dala, ez Bizkaitarrak asmaduriko ipuinen bat; itandu bekije Ingles, eta Irlandatarrai; nortzuk, edo nunquak izan zirian euren asaba ara lenengo jaun zirianak? eta eranzungo dabe ao batez euren

arteko jakitunak Kantauritarrak izan ziriala uribitarte areetara lenengo irago zirianak. Itanduten bajakue berberoi: Norzuk eregi eben Canbrigekeo irakastegi, edo Unibersidadia? Esngo dabe; Kantauritarrak, irureun, eta larogeta amar urtez, Jesu Kristo jaijo baño lenago. Auxe berau dinue euren izenak; bada ezagun da euskaldunak, eta antxinatik ifinijak diriala.

Baña nos geijago zabaldu zan Kantauritarren izena, eta obeto ezagutu zan ze gerrari errutsu zirian, izan zan arako Erroma, eta Carthagoren arteko aserriak abijadu zirianian. Ondo ekijan Anibal Carthagotarrak zelakua zan Kantauritarra, eta alan alegin guztijak egin zituzan bere aldera etxun zedin Erromatarren kontra. Beraganatu ebanian, beronegan ifini eban bere uste guztija, dino Silio Italicok. Orregaitik gura oijeban guztijen aurretik juan zedin, dino beronek. Dino bere: Anibalek Erromatarrai Canasen irabazi eutsen goitute edo biktorijan, Bizkaitarrai zir izan eutsela arerijuak birrindu, eta azpiraturik geratutia. Beronek dirausku: arako Caio Flaminiok bere martitz, edo soldadu igesi juazanak batu gura zituzanian Trasimeneko errijeta galgarri ostian,

adi erazoteko bere irmetasun, eta bildur-eza esan eutsela: eznau inok larrituko, ezteust inok atzerantz erazoko, ezta Kantauritarrak bere. Orra ze gerrari andi, eta irmetzat eukezan Cartago, eta Erromatarrak gure antxinako asaba euskaldunak.

Nok bada argitan ifini leikez gure antxinako gurasuen egitandi, edo hazaña guztijak? Ez inok: eta alan jakinik utsak urtengo leukiela nire indartte guztijak ziatz azaldu gura banirtuz, bakarrik geratuko naz zerbait, Octaviano Augustok gure jaijo-lur oni emon eutsan guda, edo gerran egin zitubezanetan. Bere anditasunaren lotsagarritzat eukan agintari, edo Enperadore arek, Kantauriko lur puskia bere menpera ez egotia, eta bera bere jauntzat ez ezagututia, izanik beste agiri zan lur guztiko jaube, eta gitxitan eukan Erromatarrak berreun urtian Españan egin eben guztija, bere eskupian ezpeukan gure jaiotz-lur au: dino Paulo Orosiok Gurari onegaz abijetan da bazter onen jaube egiteko modubak arzen. Idigiten ditu Janoren atiak, batutem ditu jentadi andiak, egiten dituz eurakaz iru Martitzdi, edo Exerzitu eskerga, eta besteri emon gura baga euren

mende, e do aginzia, bera dator Españara eura-
kaz, eta geratuten da Segisaman. Ainbat millada
gizon beukazan bere, ain indartsu, sendo eta
gerraritzat eukazan Kantauritarrak, ze agindu
eban onzidi, edo armada andi bat ifini zeila gure
kai, itsasalde, edo kostan. Au eginik, ziurtzat
eukan Augustoren arrokerijak, bertatik egingo
zala Kantauritarrena, bardin izango zalako ikus-
tia Bizkaitarrak Exerzitu, eta Onzidi ain andijak,
zein da ollotu, eta makalik bere oñetara etxunik
parka eskatutia. Baña okerretara jazo zan; dino
Veleio Paterculok Etzirian ondo ifini arerijo bi
oneek arpegiz arpegi, orra nun ikusirik Erromata-
rrak gurien sendotasun, bizkortasun, bildurrezta-
sun, eta pelietako euken poza, geratuten dirian
bildurrez ikara, eta abijetan dirian testamentu-
giñen, erijotzia begijen aurrian balekuse legez.
Elzen dira eskubetara, pelietan dabe guztijak
sendo, eta irrima. Ain modutan ekin eutsen Kan-
tauritarrak Erromatarrai, ze dinue Lucio Floro,
eta Paulo Orosiok guztiz ugari izuri zala euren
odola, euren Martitz asko geratu ziriala ilik, eta
Octaviano sarri aurkitu zala galdu aginian bere
exerzitu guztijakaz.

Erromatarrak geratu zirian gudatoki, edo batalla kanpuen jaube; bada ezaguturik Kantauritarrak askoz, eta askoz geijago ziriala arerijuak eurak baño, arma obiak eukezala eurenak baño, obeto ekijela Soldadijak prestetan; baita bere eukela eurak ez euken zaldidija, baztertu, edo erretiretan dira mendi, muru, baso, atxarte, eta basamortubera, eta abijetan dabe, Erromatarrak inos euki eben gerrarik gogor, krubel, eta luziena. Batzubetan ezarten dira beingo beinguan euren ganian, eta il, birrindu, eta zapalduten ditubez: beste batzubetan urteten deutse gitxijago uste dabenian bidetara, eta katigetan ditubez. Orain daruez engañuz lagunak eskutadurik dagozan larra, baso, okelubera, eta zatituten ditubez; Gero duaz igesi legez euren aurreti, eta darabilez jarrai mendirik mendi, murutik muru, atxartetik atxarte, eta amiletatik amileta guztiz nekatu, arikatu, arnasa baga, eta itorik geratu artian. Emengo meakan ilten ditubez berrogei, ango esturan larogei, bide zigor baten eun, beste amgi baten berreun. Modu onetan eroien Kantauritarrak gitxitubagaz Erromatarren martitzdija. Ikusirik Augustok Bizkai-barruban sarzen

zan soldaduk ozta bizirik urteten ebalá, agindu eban sartu zeila ejerzitu guztija beinguan alde guztijetatik, modu onetan amaituteko gerra ain gogaitgarri au; baña zer jazo jakon? Tito Liviok dinuana: Izanik Bizakitarrak Erromakuak baño arin, ibilkor, eta bizkorrago, jakinik ondo atxarte, bide-zigor, aldatz, eta girabirak, nos, nun, eta zelan nai eskutetan jakezan, eta alan uste ebe-nian erromatarrak, alde guztijetatik estutu, eta ingiraturik eukezala arerijuak, ez eben aurkitu-ten atx, subil, larra, sasi, edo orbela baño. Bost urte iraun eban, Augustok bertatikua izango zala uste izan eban gerra onek. Ain izan zan galgarri mundubaren ezizallentzat, ainbat martitz galdu zitubezan, ain pelleburu asko, eta bildurgarrijetan aurkitu zirian, ze dino Veleio Paterculok ezin igarri zatekiala nork nor goitu eban, Erromak Kantaurija, ala Kantaurijak Erroma. Ain naibaga gogorrez bete eban Octaviano Agintarija ezin menpetutiak Bizkaitarrak, ain atsakabe andija emon eutsan bere jentadi, edo ejerzituba zatitu, birrindu, eta gitxiturik ikusijak, ain modutan gogait erazo eutsan ainbeste irautiak bertatiko-tzat eukan gerriak, ze itxirik onen arduria Caio

Antistiori Juan zan Tarragaonara igesi lege; dino Dioneke Ainamakal eldu zan, ain motz, ain muker ze emonik gatx andi batek ifini eban il-aginian. Nai leukian amaitu gerra gogor, galgarri, eta luze au, baña ezin aurkitu al eban beste modurik, ezpada bakiak egin Kantauritarrakaz, eta itxi bizi zeitezala euren erlijinoe, euren oitura, edo kostunbre, euren lege, eta euren euskeran. Alaintxe egin biar zan arako bake zoriontsu, zeinetan jaijo zan Jesu Kristo gure Jauna.

Orra zelan jaon eben gure antxinako asabak euren jaijotz lurra Erromaren indar eskerga guztijen kontra. Bardin egin eben oneen ondorengo guztijak bere: beti izan dira ezagun gerrari errutsu, eta irmetzat, eta mundu guztijak ikusi dau, ze laztan izan dabeen euren lur, erlijinoe, lege, eta euskeria. Eztaigun uste eurakaz amaitu zala sendotasun, eta amodijo au. Geure egunetan ikusi dogu gaurko Bizkaitarrak entxinako Kantauritarren seme diriala, alan gerrari indarsu izatian, zein da, euren erri, Kristinautza, lege, eta eskubide, edo libertadien maitetasunian.

Bai, Don Francisco Longa Jauna, argi argitan ifini dau mundu guztijen begijetan, berorren

zanetan irakiten daben odola antxinako Kantauritarrena dala. Bost urte iraun eban Octaviano Augustok gure erri oneetan egin eban gerriak; eta bost urte iruan dau Napoleonek egin deuskunak; eta orduban areek Erromako Agintarijaren kontra sendo egon ziriana legez, alaitxe berori ifini da murru irme bat legez Napoleonen aleginen kontra. Batuten dituz al daizan martitzak, eta irakatsirik onei, ze gerra modu egin biar jaken Franzesai, abijetan da eurai ekiten antxina gure gurasuak Erromatarrai legez. Ezaguturik etziriala berorregaz eukazanak apur puska bat baño arerijuen albuan, ezta eurakaz arpegiz arpegi ifinten, eztituz berorrenak ateraten ibar zabal, landa zelai, eta aran andijenetara; ezkute-tan da mendi, muru, atxarre, eta oijanetan: aintxe dago zelataka Franzesik agiri bada, eta ikusirik eztiriala igaroten dirianak berorrenak baño guztiz geijago, etxuten da beingo beinguan euren gañian, birrinduten ditu, banatuten ditu, eta kenzen deutse daroiena. Jakinik zenbat konbeni dan gerran arerijuen asmu eta goguak ezagututia, ifinten da bide ondoko okelu ezkutubetan zelata, eta ikusirik Franzesen bialdu, manda-

tari, edo korreoren bat irago biar dala, urteten deutsa uste baga bidera, ilten dituz jaoliak, edo eskoltia, arzen ditu katigu postarijak, kenzen deutsez dakarrezan paperak, eta bialdurik nagusi, eta agintarijai, dakusez argitan Franzesen gogo, eta asmuak.

Eta zenbat arerijo il, zatitu, eta katigatu ezitu modu onetan? Eun da iru izan zirian Friasko zubijan birrindu zitubanak: irurogetabat Descargan: eun da largogei Cabezonon: berreun da berrogeta amar Portugalete, eta Somorrostron: laureun irurogeta amazapi Pancorbo, eta Bribiesca artian; zazpireun Sedanon: bosteun berrogeta iru Asperiletan: irureun eta amaeka Pozan. Baña nora nua? Zelan nik aituten amon neikez Franzesakaz euki dituzan errijeta guztijak, il deutsezan gizonak, kendu deutsezan ondasunak, eta egin deutsezan kaltiak? Zelan, onetarako erabili dituzan bidiak, galdu dituzan gauak, aratu dituzn mendi, baso, larra, sasitza, aldatz, meaka, eta bide zigorrak? Arraijo bizi bat eginik dabil batetik bestera; ain laster Bizkaijan, ain laster Gipuzkuan, ain laster Araban, ain laster Gastelan, ain laster Montañan, ain laster

Tobalina, Losa, Cabuerniga, eta beste leku askotan, jakin al baga arerijuak nun dan, edo nundik nora dabilen. Alanbere, ezin esan baga itxi neike Urduñoko atxeko zelatakadia.

Jakin eban berorrek andik irago biar ziriala berrogeta amairu burdi Franzesen ondasunez beterik: nai leuskijuezan kendu, baña ez jakan erraz, ez eukazalako berorregaz eun da amar zaldizko, eta irurogei oñezko baño, burdijak jauten etozanak barriz zirian bosteun eta berrogeta amar. Zer egiten dau bada berorren zurtasunak berorren goguakaz urteteko? Batuten dituz al bait isilen mendigurenian, eta bidien parian arri, eta atx pilo andijak, eta dago zelataka nos iragoten dirian Franzesak burdijakaz. Elzen dira oneek atx, eta arri pilo parera, eta abijetan dira berorrenak atx, eta arri urtika. Arri eskergak, eta atx ikaragarriak datoz mendija beera bilinbolarik. Eztakije Franzesak, ez zer jazoten dajen, ez nundik datozan arri, eta atxak, ez nok jaurtigiten dituzan, ez mendijak sustraitik urten ete dabeen ala ez, ez lu-ikararen bat izan ete dan ala ez. Eztakije zer egin, nora jua, edo ze modu artu, eta dagoz geldi delgi subil bat eginik. Atx andi

batek iruliten dituz burdi bat edo bi, eta ilten dituz euren idijak: arri bildurgarri batek daruaz beragaz mendija beera zorzi edo bederatzi zaldi euren zaldizkuakaz. Emen datzaz zaldi batzuk estiak darijuezala, an idi batzuk zapaldurik. Bate-tik ikusten dira gizonen gorputz il buru, oin, beso eta istar bagak; bestetik, dirianen enzik bere baga. Guztija da negarra; garrasija, uluba, zispuruba, aijarija, inzirija, eta diadarra. Nai leukee iges egin Francesak, baña eztauke nundik, bada alde guztijetatik dirautza esetsijaz puskak ez eben euki beste iges egiteko modurik, euren burubak aldatz beera amilka, eta girabiraka botatia baño. Laureun eta larogei Franzes geratu zirian ilik. eta itxi zitubezan berorren eskubetan zazpi milla pare zapata, bost milla martitz-soñeko, eta lau kutxa urre-galoe, eta gerrari apaingarriz beterik. Zelatakada oneekaz, bertatiko agertute,erijotza, katigatute, eta eroiena kendute oneekaz ain eukazan olloturik arerijuak, ze etzirian azartuten inora juaten, ez bidian ibilten jendadi guztiz andijak ezpazirian, antxinako Kantauritarrak Octavianoren Soldadubak bildurturik eukezana legez.

Nai leukien Franzesak kendu begijen aurretik ainbeste gatx egin, eta ain atsegin gitxigaz eukazan arerijua, eta zer egiten dabe onetarako? Erromatarrak denpora baten Bizkaitarrakaz egin ebeena. Batuten ditubez al daijezan gerrarijak, eta aginduten deutse sartu deitezala guztijak batera Longa Urigantia dabilen lekura, eta jarraitu deijuela, ilik, edo bizirik artu artian. Ain egozan seguru ezin inundik bere iges egin leikia-la, ze eldu zan euren arrokerija agindutera predikadu eijela Arimazain Jaunak Elexako Pulpitubetan: ija dago banaturik Longa Urigantia; ezin bururik jazo leike: bakar bakarrik geratu da, eta juan da igesi, inok eztakijan lekura. Eta zetan geratu zirian panparrekerija oneek? Augustoren aleginak Kantauritarren kontra geratu zirianian. Sarzen dira Longa daguala uste dabeen lekubetara al daijen isilen, duaz alde guztijetatik zarratu, eta estutubagaz, eta uste dabeenian, guztijen erdijan daukeela, eztabe aurkituten atx, larra, sasi. aranza, izerdija, eta gogaitutia.

Usteko dau benturaz norbaitek Don Francisco Longaren zelataka, eta bazterrik bazter ibilte au, bere ollokerija, eta bildurra zala; baña jakin begi

au sinisturik daganak, onetantxe asi erazo ebala bere zuhurtasun, eta jakituriya. Ekuzan batetik, ze gitxi zirian beragaz eukazanak, bestetik bere martitz, edo soldadubak sartu-barri legez sorrik, eta urduriturik egozana, eta onezaz ostian guda edo gerra-lanen apurrik jakin baga: nai eban bada modu onetan ibilijagaz batu ekijozan geijako, kendu ekijuen, edo gitxijenez gitxitu urduritasun, eta sortasuna eta ikasi egijen zelan ekin biar jaken arerijuai. Onetan ez eban beste gauzarik egin, arako gerrari andi Fabiori jarraitu baño. Ain izan zan galgarriya Erromatarrentzat Canasko guda, edo batallia, ain geratu zirian bildurrez ikara enzun ebenian, Flaminio, ainbat lenen, edo prinzipalen, eta neurriezgarri martitz, edo soldadu geratu ziriala ilik, ze uste izan eben, ekusela Anibal Erromako ateetatik barrura sarzen. Ezturalarri onetan ez eben aurkitu beste modurik euren uriko barrutijak jaoteko, Fabio andija nagusi-bakar, edo Diktadore autu, edo eskojietia baño. Eta zer egin eban gizon zuhur onek? Etzan juan artez Kartagotarrakaz pelietarra; etzan asi eurai esetsiten, etzan ifini leku zelai, eta aran zabaletan; ebilen leku segurube-

tatik batetik bestera, luzatuten ebala alegin guztijagaz eskubetara etortia, geitu zeitian modu onetan bere jentia, galdu egijen arerijuai eutsen bildurra, gitxitu zeitezana Kartagotarrak, eta eldu zeitezana gogaitutera. Nai leukeen Anibal eta beriak erromatarrek peleadu egijen. Onetara ekarteko esaten eutsen Fabiori; gizona bazan, eta zinuen lezko gerrarija, urreratu zeila eurak gana, ifini zeila ibar lau eta zelaijetan, eta neurtu egizala bere indarrak Kartagotarrenakaz: au egiten ezpeban ezagun zala olo bat zana: baña ezaguturik Fabiok ez eguala arerijuai ekiteko, ez eutsen jaramonik egiten, ez bakarrik eurai, ezta Erromatarren esamesai bere: baña eldu zanian biar eban jentia eukitera, eta oitu zituzanian bere martitzak Kartagotarren bildurrik ez eukitera, guztijai adi erazo eutsen ze osasuntsuba izan zan luzatute au, bada beronegaz bota eban Anibal Italiya guztitik.

Auxe berau egin eban Don Francisco Longak bere. Guztiz zirian gitxi lenengotik eukazan martitz, edo soldadubak, eta ez euken oneek arerijo ainbat gerratan ibili bati arpegi emoteko biar zan bildurreztasunik; baña luzatute, eta ibilte onee-

kaz ain modutan geitu eban bere gizadija, ze eldu zan eukitera zorzi milla oñezko, milla zaldizko, eta amabi kañoe euren tresna guztijakaz; eta au gitxi balitz legez, zabaldu zituzan bere ardurak itxasora bere, eta ifini eban onzidi, edo eskuadratxu bat arerijuen kontra; errijeta txikijakaz oitu zituzan franzesak ikusi eta eurakaz sendo pelietara, eta irakatsi eutsen zelan gerria egin biar zan. Artiatan, Franzesak esan eta burla egin arren: Urigante dollor, prestubez, bildurrez igesi ebilen bat zala, ez eutsen jaramonik egiten, Fabiok Anibal eta Kartagotarren burla eta esanai jaramonik egiten ez eutsena legez. Baña arako geitu jakonian bere jentia, eta gertu eguanian, aurrez aurre arpegi emon eutsen Franzesai, ikusi zana legez Bilbo, Vitorija, Tolosa, Yanci, Irun, Vera, Ascain, eta beste leku askotan, arerijuak España guztitik urten artian.

Orra ze argi irakutsi daben D. Francisco Longa Jauna, antxinako Kantauritarren seme dana, ez bakarrik bijotz andi, bular sendo, beso indarsu, eta bildurrezgarrijan, baita bere berorren Kristinautza, eta jaijotz lurraganako amodijuan; bada eztau atseginik euki egunez, ez

gauzez, ain laztan dituzan bi oneen arerijua Españatik kanpora ikusi artian. Ezaguturik gure Errege Jaun Don Fernando zazpigarrenak berorrek irago dituzan lan, eta nekiak, egin dituzan egitandi, edo hazañak, eta bere Anditasunaganako irakutsi daben amodijo erre, eta zinzua, apaindu dau Vitorija eta San Marzialeko batalletako, baita bere Zazpigarren ejerzituko Labaru, Lauburu edo kurutzia; egin dau San Fernandoren ordia errial, eta gudatarreko Zaldun, eta eregi dau bere Exerzitubetako Mariskal izatera. Guk bere berorren erritarrok ezaguturik daukaguz berorrek, eta berorren gerra lagunak egin deuskubezan mesediak. Oneen artian eztaukagu txikinentzat Erlijinoe kristinau, geure asaben fede, eta siniste katolikuban geratutia, botarik gure artetik doe zeruko au kendu, edo gitxikenez ilundu gura euskubeenak. Erlijinoe onetako misterijo, agindu, eta Sakramentubak gure erritarrak jakin daijezanen gurarijak artu erazo deust eurak aldaidan argijen azalduteko lana, Liburu onetanxe dauka euskeraz, berorrek ainbat lan, neke, izerdi, gaubela, ibilera, eta ainbat erijotzako pelleburuz zaindu daben legia. Berorri opa deu-

tsat. Ziur nago gogo on, eta borondate osuagaz artuko deustala, izanik erritar, eta auzo baten iskinija, egonik eskribidurik berorren gurasuagandik ikasi, eta berbaz asi zanian euki eban euskeran, eta izanik bere geija umetxutatik ikasi, bizi guztijan sinistu, eta berorren ondasun, zorian, eta onrarik andijenentzat euki dabena.

Berorren eginza, edo obretan adi erazo dau, ze maite izan daben liburu onetako ikasbide, edo dotrina Kristinauba; bada ez bakarrik zaindu dau berorren ezpata errutsubagaz galdu gura izan ebenen arerijuakgandik, baita artu bere dau argitara aterateko ardura, eta moduba. Eskribidurik neukan, baña Fraile pobre bat izanik eneukan zegaz moldez ifini. Ez eban ondo enzun moldian ifini edo inprimietan ezipazan, zala zegaz ez agualako, nun prestasun, eta prestutasunik andijenagaz abijadu zan argitara aterateko neurriak arzen; eta eztau atseginik euki moldepian ikusi artian. Berorigaitik izan ezipaliz, bildur izateko zan, ilunian geratuko zala liburu onetan ifini dodan lan guztija, Baduaka euskeriak bere itzkunian ifiniriko ikasbide edo dotrina au: Badauke Arimazain euskaldunak nundik predikadu emen

dagozan berbaldidak, badauke gure erritarrak nun irakurri emen daguan ikasbide, edo doktrina; berorri zor deutse. Jangoikuak bere bedein-kazinoe ugariz bete dagijala. Alaintxe itxaroten dau, eta auxe dago beti erregututen Jaunari.

Esku munakaz Berorren serbizaile ontartu, eta
Kapellau guztiz gogotsu,
Fr. Pedro Astarloa

IKASBIDE EDO DOKTRINA KRISTINAUBAREN
IRUGARREN ZATIJA
ZEIN DAN ZER EGINGO DABEN

XXVII. BERBALDIJA

*Jaungoikuaren legeko amar
mandamentuben ganian, ta zer dan
Fedia.*

Eldu zan Legejakin bat Jesu-Kristo gure Jau-nagana, eta itanduten eutsan: Maesuba, zein da legeko agindurik andijena. Eranzun eutsan Sal-bagiliak. Lenengo agindu, eta andijena da: ama-duko dozu zeure Jaun eta Jaungoikua zeure bijotz guztitik, zeure arima guztijagaz, eta zeure indar guztijagaz. Bigarrena barriz, onexen irudikua: amaduko dozu zeure urko, edo proximua zeure buruba legez. Agindu bi onetantxe dago lege, eta Igarla, edo Profetetan aurkitu al leitekian guztija, eta alan onexek bijok zaindurik jaoten dogu, agindu al leitekegun guztija. Agindu bi

oneek gorde egizan gizonak, ifini zituzan obeta azaldurik Jaunak amar agindu, edo mandamentubetan, eta inos aztu ez egizan, ifini eutsazan sillatu, edo inprimidurik bere bijotzian, modu onetan jakin leijan, zer zan ona, eta zer zan dongia. Baña alanbere aztu zituzan gizon itxubak agindu oneek; borraradu zirian bere bijotzetik. Iku-sirik Jaunak, zelako itxumendijan jausi zan gizona, atera nai izan eban iluntasun onetatik, onetarako agindu eutsan Moisesi landu egizala arri bi, eta igon eujala eurakaz Sinaiko mendira, eta agindu au Moisesek, eskribidu eban Jaunak berak bere atz guztiz alsu, edo poderosuagaz lege guztija. Au bere etzan asko izan gizon itxubak ez aztuteko lege au. Barriztetako amar mandamentu oneen gomutia, eta betiko sillaturik geratu zeitezan gizonen bijotzetan, Jaungoikua bera jatsi zan zerutik luurrera gizon eginik. Irakatsi eutseezan gizonai, eta obeto jakin egien zer aginduten zan euretan, azaldurik itxi zituzan bere Ebanjelijuan, modu onetan beti euki eijezen Kristinaubak begijen aurrian.

Amar mandamentu onetatik lenengo irurak begiratuten deutse Jangoikuaren honriari, eurretan esan, eta aginduten jakulako, zelan honradu biar dogun geure Jaun eta Jangoikua. Beste bostak dira proximuaren on, edo probetxurako, bada eurretan aginduten jaku, zer egin biar deutsegun proximuai, eta eragotziten jaku gatx egitia eurai. Etzaku aginduten amar mandamentu oneetan ezin ginaijan gauzarik, ez astunik, ez garratzik: mandamentu guztijak dira errazak, arinak, baita bere guztiz gozuak. Jasu-Kristok berak dirausku: arina da nire buztarrija, eta biguna nire kargia. Ain dira biarrekuak mandamentu oneek, ze ezin zerura eldu leiteke, eurak jakin baga; ain modutan dagoz beturik eurretan kristinau, eta gizon guztijen obligazinoiak, ze eurak jakinik, daki jakin biar daben guztija, eurretan dagualako zarraturik lege guztija. Baña izanik oneek jaoteko ain gauza biarrak Fede, esperanza, eta karidadia, lenago nai deusubedaz azaldu, edo explikadu iru onoidade, edo birtute Teologal oneek.

Fedia

Da fedia, Jaungoikuak gure arimara biladuten daben doe, onoidade, edo birtute naturalezaz gaiñetiko bat, zeinek garuazan sinistutera, Jaungoikuak Elexiari agertu, eta Elexiak guri irakasten deuskuzan egijak. Laburrago: Fedia da ikusi eztoguna sinistutia. Etzenduban ikusi, Jesu-Kristo jaijoten, ez mundu onetan biziten, ez ilten, ez biztuten, ez zerura igoten, eta alanbere sinistuten dituzuz misterijo guzti oneek, Jaungoikuak Elexiari agertu, eta Elexiak zuri irakatsi deutstuzalako. ain sendo, ain irme sinistu biar doguz egija oneek, ze munsuko gizon guztijak zebait esango baleuskube, edo usteko bagendu bere, Elexiak irakasten dabenen kontrako gauzaren bat dakuskula geure begijakaz, lenago sinistu biar dogu Fediak dirauskuna, gizon guztijak esan, eta begijak dakusena baño; bada gizonak, eta begijak engañadu leitekez, edo eurak zeu engañadu zinaije, baño Jaungoikuak ezin engañadu zinaikez. Ara zergaitik. Norbaitek engañetan bagaituz edo guzurren bat esaten badeusku

da, edo bera besteren batek engañadu dabela-ko, edo berari zerbait begitandu jakolako, edo berak gauzia zelan dan jakinik, guzurra esan nai izan deuskulako. Ezin onelako gauzarik jazo leiteke Jaungoikuagan. Da jakituria neurribaga berbera, eztago beretzat gauza ezkuturik, dakusaz gure bijotzeko bazterrik barrukuenak, eta alan ezin inok guzurra egijatzat sinistu erazo leiyo. Jakiturija auxegaitik ezin guzia dan baño beste modutan begitandu leikidijo. Da egija berbera, orregaitik ezin esn leike dakijan baño beste modutan.

Eta nori agertu deutzaz Jaunak fedeko egijak? Elexa santubari, Patriarka, Profeta, Apostolu, eta Batzar, edo Konzilijuen bitartez. Elexiak bere ezin guzurrik esan leigu; ezin engañadu ginaikez; bada irakasten deuskun guztijan, arteztu, edo gobernetan dau Espiritu Santubak, Jesu-Kristok bere esposa maite oni opa, edo prometidu eutsana legez. Itanduko deustazube benturaz: Zelan jakin ginaike, Elexiak zerbait dinuala? Arako Erromako Aita Santubak aginduten dabenian, zerbait sinistu biar dala fedeko artikulutzat, eta Obispo Jaun, eta euren aginduz, Arimazain

edo Kurak dirautsubenian, alan irakasten dabela Elexa Katoliku Apostoliku eta Erromakuak, eta arei dirautse Jaungoikuak: Zubek zanzubenak, nau nauzube; eta zubek gitxitan zaukazanak, edo desprezietan zaituzanak, neu nauka gitxitan, edo desprezietan nau. Etzaitez besterazoe billa ibili, zerbait fedeko artikulutzat eukiteko. Elexiak esan dau? Asko da: ezta geijago biar ziur ziurtzat itxu itxuban sinstuteko. Jaki-tunik argitubenak, gizonik andijenak, badirautesube, Elexa Sntubak irakasten deutesubenen kontra, ezeizubez enzun, bota egizubez ordu gaiztuan, guzurtijak dira, itxubak dira, Demoninua-ren bitarteko, edo ministruak dira, benenez beterik dagoz euren miinak. Zer dinot? Jatsiko balitz Aingeru bat zerutik, eta esango baleutsu ezer, Elexiak irakasten daben ikasbide edo dotri-niaren kontra; madarikatu izan deila: guzurra dino, bada leenago ukatuko dabe zero luurrak, Jaungoiko, eta Elexiaren esanak baño.

Dinogu: Fedia dala, Jaungoikuak gure ariman ifiniriko doe, onoidade, edo birtute naturaleziaz gaiñetiko bat; au da, ezin geuk geure indarrez ekarri, edo artu ginaike; Jaungoikuak bakarrik

emon leike; eztago luurrian, ez zeruban gizon, ez aingerubetan, birtute Jaungoikozko au emon al leijan indarrik. Jaungoikuak emoten dau birtute au bautismuan grazijagaz batera, baita bere esperanza, eta karidadiagaz. Bautismuan emoten da grazija, eta au ezin aurkitu leitekiana legez iru birtute Teologal, edo Jaunogikozko oneek baga, emonik grazija bautismuan, emoten dira iru birtute oneek bere. Baña grazija baga aurkitu leiteke ariman fedia, bada ez edozein pekatu mortalagaz galzen da, ezpada bakarrik bere kontrako dirian pekatubakaz. Baña orduban ezta izango fede bizija, eztaukalako grazijaren bizitzarik, eta izango da ila, ariman dagualako pekatubagaz batera, zeindan arimako erijotzia. Ain da preminazkua, edo biarra fedia, ze bera baga, ezin inor salbadu leiteke. Alperrik egingo dituz gizon batek limosnarik andijenak; alperrik zeruba irabazterren iragoko dituz neke, eta lanik gogorrenak, alperrik egingo dituz obrarik oneenak, ezteutse ezer balijoko, federik ezpadauka. Orregatik, ez Jentilak, ez Mauru, eta Turkubak, ez Judegubak salbadu leitekez, euren itxumendijan dagozan artian, federik eztaukelako. Egija da

Judegu, eta Herejiak sinistuten ditubezala Kredoko artikuluben batzuk, baña eztauke orregaitik biar dan leezko federik, au da, eztabe sinistuten fede naturalezaz ganetikuagaz, ezpada berez gizonak euki leikianagaz, eta au ezta asko, fedeko artukulubak biar dan moduban sinistuteko.

Modu askotakua izan leiteke fedia. Lenengo oitarra, oiturakua, edo habituala, eta eginzakua, edo aktuala. Habituala da, lenegotik esan doguna berbera. Fede au aurkitu leiteke ariman, ordu berian ezer sinistuten ezpada bere. Esaterako: Bateatuten dabe umetxu bat. Onek eztau orduban ezer sinistuten, alanbere, bere ariman dago fede oiturako, edo habituala. Lotan zagoz, eztozu ezer sinistuten ordu berian; orregaitik bere daukazu zeure ariman fedeko birtutia. Eginzakua, edo aktuala da, zerbait sinistutia bera, esango baneu legez: Sinistuten dot, Jesu-Kristok igon ebala zerubetara. Fede onek eztau irauten sinistuten dan artian baño, bada bertatik iragoten da. Bigarrenko: izan leiteke fedia banakakua, eta guztijentzakua, edo argijago esaterren; modu bitan sinistu giniakez fedeko artikulubak; Lenengo; banaka, bakoza berez, edo partikular-

mente. Esaterako: Dinot: Siistuten dot, Jesus-Kristo daguala bene benetan Altarako Sakramentuban. Fede au da berezko, edo parikulara Altarako Sakramentubaren ganian. Modu onetan sinistu biar dituguz, Kreduan dagozan, artikulu guztijak; baña guztijen ganian, Aragiginza, edo Enkarnazinoekua, Trindadekua, Erredenzinoekua eta Jaungoikua dala Sarizaile, sari emoile, edo Errenumeradoria. Bigarren moduban sinistuten doguz artikulu guztijak batera, bat bere izentadu baga. Esango baneu legez: sinistuten dot Kreduan dagan guztija. Modu onetan sinistu biar sogu, Jaungoikuak Elexiari erraz au guztijau jakitia, eta guztijk banaka sinistutia, eta alan zubentzat asko da Kreduan dagozanak ondo jakin, eta duda, eta bildur baga sinistutia.

Kristinau guztijak dauke biar, edo obligazinoe estuba, fedeko eginza, edo aktuak egiteko. Lenengo: errazoeko argitara, edo errazoen usura eldu deitezanian. Onetarako gurasuak, edo umien arduria daukenak egin biar dabe alegina denporaz irakasteko eurai, baita bere azaldu, edo espliketako orduban jakin biar ditubezan misterijuak; baita bere fedeko aktuak erazoteko.

Bigarrenengo: Fedien kontrako tentazinoien batek estututen dabenian, eta bera goitu edo benzieta-ko, bere kontrako aktuak egin biar badira. Esate-rako: tentetan zaituz Demoninuak, eztaguala Infernurik pekatuban ilten dirianentzat; bada biar bada au goituteko. esan biar dozu: Sinistu-ten dot daguala infernuba txarto ilten dirianen-tzat. Irugarrenengo: erijotzako orduban, bada iza-nik orduko Demoninuaren rentazinoiak inos baño gogor, eta krudelaguak, ordubantxe geu, bere sendatu biar gara inos baño geijago fedeko armakaz, irrimpe pelietako: Laugarrenengo: Sakra-mentuben bat arzera guazanian; bada ezin biar dan moduban artu ginaike Sakramentu dana sinistu baga, ezta artu bere nai geunkian gazija, eta beste onak, sinistuten ezpadogu emoten dituzala. Bostgarrenengo: sarri geure bizijan. Ezta-gi izentadurik noizik nora egin biar dituzan Kris-tinaubak, bakarrik dago kondenaturik esatia: Asko dala, bein bakarrik egitia bizi guztijan. Baita bere dago kondenaturik esatia: eztala ziur ziur, edo ziertuba, bost urterik, bost urtera egin biar daben, ala ez. Orregaitik onen oneena da, ainbat sarrijen egitia. Ezagututeko nos pekatu

egiten dan fedien kontra, lenago jakin biar da ze aginduten jakan Kristinau bati fediak aginduten deutzazanak, edo egin biar dituzanak. Lenengua da: jakitia fedeko misterijuak, au da jakitia ikasbide, edo dotrina kristinauba. Bigarrena: sinistutia geure bijotzian misterijo guztijak, edo egija ziurtzat eukitia geure barruban fediak irakasten daben guztija. Irugarrena: esatia kanpotik, edo miinagaz, egijazkotzat daukagula fediak irakasten daben guztija. Laugarrena: ez guzurtzat eukitia misterijo fedekuak. Bostgarrena: ez ukatutia kanpotik miinagaz, edo beste modutan Elexiak, edo fediak irakasten daben egijarik. Emetixek ezagutuko dogu, nok pekatu egiten daben fedeko aginduben kontra. Lenengo egiten dau pekatu fedeko Misterijuak eztakizanak. Bigarren-go, fedeko egintza, edo aktuak, biar danian egiten eztituzanak. Irugarren-go: kanpotik, edi miinagaz, bizr danian konfesetan eztituzanak. Esaterako dator Hereje, edo beste Elexa, eta fedien arerijo bat zeinek eztaben sinistuten, Jesu-Kristo hostijan daguanik; Itanduten deutzaz askoren aurrian sinistuten dozun Jesu-Kristoren gorputz benetakua hostijan daguan, eta zukm edo lotsa

zarialako, edo burla egingeztaizun, etzara azartu, edo atrebietan, misterjijo au konfesetan; pekatu mortala egingo dozu zeure barruban sinistuten badozu bere.

Irugarrenko: ez bijotzian, edo barrutik ez kanpotik, edo auagaz, fedeko misterijuak, sinistu nai dituzanak. Modu askotan au jazo leiteke. Gizon edo Kristinau batek bateatu ezkeru, itxi leike Jesu-Kristoren fede guztija, eta ukatu onelako legerik daguanik, edo esan, guzurra dala Elexiak dinuan guztija. Oni dei egiten jaka fede-ukailia, edo fede guztija ukatuten dabena, edo apostatia. Beste batzuk. Bautismua artu ezkeru sinistu, eta konfesetan baditubez bere, fedeko artukuluben batzuk eztitubez sinistu, ez konfesadu nai beste batzuk; onei dei egiten jake herejiak. Laugarrenko: egiten dau pekatu mortal, bere bijotzian sinistu arren fediak irakasten daben guztija, kanpotik, edo miinagaz bakarrik, artikulu, edo misterijuen bat ukatuten dabenak. Esaterako: Elduten jatzu hereje bat eta dirautsu: Esaizu ortxe, eztaguala infernurik, eta ezpabere ortxe bertan ilgo zaitut. Zuk zeure barruban sinistuten dozu sendo sendo, infernuba daguana, baña eri-

jotzien bildurrez dinozu minagaz bakarrik: Ezta-
go infernurik; pekatu mortala egin zenduban,
bada ezta asko fede benetakua izateko, bijotzian
bakarrik eukitia, auagazbere konfesadu biar da.

Bostgarrengo: egiten dau pekatu bere bijo-
tzian, edo barruban fedeko artikuluben bat sinis-
tuten eztabenak, kanpotik esan arren sinistuten
dabela. Deritzu, ezin inundik bre donzella, edo
birjina batek umerik sortu, eta egin leikiala; eta
orregaitik eztozu sinistu nai Marija guztiz santu-
bagandik sortu, eta jaijo zala Jesu-Kristo, bere
Amaren osotasuna, edo birjinidadia galdu bagaz;
baña dakutsulako guztijak sinistuten dabeela
misterijo garbi, eta gozo au, etzara azartu, edo
atrebietan aora ateraten zeure siniskera ori, eta
nosbait orren ganian berba egiten bada, hereje-
tzat euki etzaijezan, dinozu: sinistuten dozula,
Jesu-Kristo jaijo ezkeru, bere Ama donzella. edo
Birjina garbi geratu zala: Pekatua mortal egin zen-
duban, bada biar dan mosuko fedea izango bada,
ezta asko miinekua bakarrik izatia; izan bere biar
da barru edo bijotzekua. Seigarrengo: dudan
daguana, fediak irakasten daben artikuluben

bat, egija ete dan, ala ez; edo deritzanak, eztala guztiz ziur ziur, edo ziertu ziertuba. Ifiniko deustubet larregi jazo oi dan esagei edo ejenplu bat. Gizon loi, atsitu, eta arima galduko batek, eruan nai zeunkez bere gurari zitaletako laguntzat, eta ikusirik eztozula nai infernuben bildur zarialako, dirautsu: Eztago infernurik, orreek eztira Abade, Fraile eta Predikadorien asmubak baño. Au zuri sinistu erazoteko, ifinten deustuz errazoe oker batzuk. Zuk, ezin eranzun deutsezu errazoe onei, eta abijetan zara esaten, eta pensetan: Egija ete da, onek diraustana, emetik sarzen zara dudetan infernurik ete dagan, eta azkenez dinozu: ezta gauza ziur ziur, edo ziertu ziertuba infernurik daguana. Duda au, neure kristinaubak, pekatu mortala da. Onetarako ezta biar duda onek denpora luzian irautia; bada bein uste izan ezkerro eztala ziertuba fediak dinuana, eta dudan geratu ezkerro alan dan ala ez, egin zan pekatu, gero damaturik atzera biurtuten bada ere.

Erazoginza

Enzun dozube, neure Kristinaubak, zelakua izna biar dan zuben fedia, ze sendo, eta irme sinistu biar dozubezan berak irakasten deustubezan egija, eta misterijuak: baña au ezta asko fedia biar dan modukua izateko; ezta au bakarrik fede bizija; bada egitade, edo obra onakaz lagunduten ezpada fede ila da, eta au ezta asko, bera daukana zori oneko egiteko. Eta oriaindio bere edan ginaike oba lizatekiala, federik ez eukitia, fediaz obra onik ez egitia baño; bada jakinik Jaunaren borondatia bera jaoten eztabenak, pena, eta neke andijagua eukiko dau, federik ez eukija gaitik eztakijanak baño. Arrituteko gauzia fededun Krsitinau askogan ikusten dana. Dinue: sinistuten dabeela infernu bat daguana, nun dagozan beti betiko iraungo dabeen inok esan, eta uste bere ezin leikezan su, neke, min, ala, eta tormentuarik ikaragarrijenak; ara duazala pekatu egiten dabeen guztijak, benetako penitentzia egiten ezpadabe; eta alanbere dakuskuz Kristinaurik geijenak pekatubetan saturik. eurak gaitik penitentzia egiteko, ardurarik artu baga;

beti atzera konfesetako. Nok usteko dau, oneek sinistuten dabeela infernurik daguanik? Nok esango dau, ziur, edo ziertutzat daukeela, ez begik ikusi, ez belarrik enzun, ez gogora eldu al leitekiala, Jaungoikuak bere legia gordetan dabeneztat daukan beti betiko gloria, atsegin, poz, eta zoriona, ikusirik ze gitxi egin nai daben au dinuenak, ara elduteko? Ez inok, neure enzula maitiak, ez inok. Zegaitik ezagutu, eta sinistuko balira egija oneek, ez litzatekez ikusiko ainbeste juaten infernuko bidetik, ez ain gitxi zerukotik.

Ez egizube bada esan, benetako fedia daukazubela; ez egizube esan kristinau zariela. sinistuten dozubelako fediak irakasten dabena; fede modu au demoninuak eurak bere badauke, bada sinistuten ditubez misterijo oneek; eta siniskera onek daukaz bildurrez ikara. Nai badozue, fedia- ren doe miragarriak eruan zagizan zeruko aita- ren etxera, etzaitez kontentadu jakinagaz berak dinuana; bada eztira santutuko legia dakijenak, ezpada legiak dinuana egiten dabeenak. Azkenengo egunian askok, eta askok esango deutse Jasu-Kristori: Jauna berorren esana sinistu genduban, fedia auki genduban, Kristinau izan

ginian; baña esango deutse Jaunak, etzaitudaz ezagututen, etzara niriak; zuaze madarikatubok betiko infernura. Zorigogorreko sentenzija au enzun eztaizuben, biztu zaitezte fede bizi bat eukitera, bizi zaiteze, fediak aginduten daben moduban, esan aldeijozun Jaunari: berorrek agindu eustan guztija egin dot, artu dagizun egi-tade, edo obra onen sarija. Amen.

XXVIII. BERBALDIJA

*Itxaromen, edo Esaperanziaren
gania.*

Bigarren onidade, edo birtute teologala da, itxaromen, edo esperanzia; eta da Jaungoikuak gure ariman ifinten daben doe, onidade, edo birtute naturalezaz gañetiko bat, zeinek garuzan itxarotera, edo itxaron erazoten deuskun Jaungoikuagan, emongo deuskula glorija bere erruki, edo miderikordijagaitik, eta bere grazija, eta laguntasunagaz egin daikeguzan obra onak-gaitik. Dinogu: itxoromen, edo esperanzia dala doe naturaleziaz gañetiko bat, eztagualako naturalezan, edo geugan birtute au, eta biar dan moduko esperanzia eukiko badogu, Jaungoikuak emon biar deuskulako; orregaitik eukiko badogu benetako esperanzia, Jaungoikuagandik etorri biar jaku; bada geurez ez gara duin esperanza au eukiteko. Iru gauza begiratu biar dituguz itxaromen, edo esperanza biar dan modukua izango

bada; zer itxaroten dogun, nogandik itxaroten dogun, eta zelan itxaroten dogun.

Lenengo: begiratu biar dogu, zer itxaroten dogun, edo zer esperetan dogun. Itxaron biar doguna da, zeruban Jaungoikua arpegiz arpegi ikustia. Auxe da gura itxaromen, eta esperanza guztija; baña onetara elduteko biar dituguzana legez obra onak, oneek bere sartuten dira esperanza onetan, eta alan esperetan dogu Jaungoikuagandik, zerura elduteko biare dogun guztija, zelakuak dirian, ber grazija, eta laguntasuna, Sakramentubak, pekatuban bagagoz, euren parkazinoia, eurak parkatu ezkerro atzera ez biurtuteko grazija, tentazinoiak eta ekandu deungak goitu, edo benzietako indarra, eta berba baten zerura elduteko niar dogun grazija. Baña ez gara geratu biar onetan, bada geuk ber geure aldetik egin biar dogu alegina betiko bizitzara alzeko; eta bitarteko onekaz balijetako; bada bestelan ezta itxoromen, edo esperanza benetakua izango. Itxaron bere ginaikez Jaungoikuagandik, gorputzeko onak, zelakuak dirian, bizitza, osasuna, janari, edari, eta jaztekua, ondasunak, eta bizitza au iragoteko biar dituguzan beste gauza guz-

tijak; baña izan biar da, Jaunaren onra, eta geure arimien onerako izango badira; bestelan ezin itxaron ginaikez Jaungoikuagandik. Sarri itxaroten dogu emongo deuskula Jaunak osasuna, bizitzia, ondasunak, edo beste onelako gauzaren bat, usterik geure arimien onerako izango jakuzala; baña ezteuskuz Jaunak autortu, edo konzedietan, dakijalako emongo baleuskuz geure kondenagarri izango litzatekezala; eta orduban guk beragandik itxaroten doguna ukatutia da bere erruki, edo miserikordiarik andijena.

Bigarren itxaromen, edo esperanza begiratu biar doguna da nogan itxaron, edo esperetan dogun. Jaungoikuagan bakarrik ifini biar dogu geure uste guztija; bada ezin bestek emon leikeguz geure arimako onak, ezin inok parkatu leikeguz geure pekatubak berak baño, ezin bestek ifini leike grazija gure ariman, berk baño, ezin inok zeruba emon leikegu, berak baño. Gorputzeko onak beragandik datorkiguz, bada gizonen batek mesederen bat egiten badeusku, lenengo mesede onen iturri, edo sustraija Jaungoikua da, eta gizona ezta bere bitarteko bat baño, eta alan edozein-bere on, edo mesede arzen dogunian,

beti beti ezagutu biar dogu, Jaungoikuagandik datorrela. Ifini bere ginaike geure ustia, Ama Birjina, eta Santubetan, eta eskatu eurai pekatuben parkazinoia, ondo konfesetako grazija, demoni- nuagaz irrime pelietako indarra, gorputzeko osa- suna, bizitzia iragoteko biar doguna; baña ezto- gu sinistu biar eurak emongo deuskubezala geure eskarijak, ezpada eurak gure bitarteko eginik, erregutuko deutsela Jaungoikuari, eta Santubak Jaunaren adiskide ain maitiak izanik, emongo deuskula euren erreguz, itxaron, eta eskatuten doguna. Bardin munduko gauzetan bere. Gizon batek beste bati mesederen bat egi- ten badeutsa, aberats batek pobre bati limosna emoten badeutsa, da Jaungoikuak bere bijotza ukutu, edo jo deutsalako, eta alan sinistu, eta konfesadu biar dogu, daukaguzan, eta euki al daiguzan on guztijen emoilia, dala Jaungoikua, datozala nundik datozan; eta orregaitik beragan bakarrik ifini biar dogu geure uste guztija.

Esperanzan begiratu biar dogun irugarren gauzia da, zelan esperetan dogun. Gure esoe- ranzia, ziur ziur, edo ziertu ziertuba izan biar da; bildur baga, dudatzaka uste biar dogun bere gra-

zija, eta laguntasuna. Berak dauka esanik, etzakula ukatuko biar dogun gauzarik; jo daiguzala atiak, eta idigiko jakuzala, eskatu daigula, eta emongo jakula; eta ain da leijala emoniko baija jaoten, ze lenago uts egingo dabee zero luurak, bere esanak baño. Baña esperanziaren ziurtasun, edo seguridadia ezta ain andija, zein da fediarena; zegaitik fedia alde guztijetatik da ziur, edo ziertuba, dagualako sendatu, edo fundadurik Jaungoikuaren esanian bakar bakarrik; eta orregaitik fediak dinuana alaintxe da, alaintxe izango da, eta ezin beste gauzarik izan leiteke. Esperanzien ziurtasuna, ezta onelakua; bada eztago Jaungoikuaren iskini, edo promesan bakarrik, biar bere dalako, geuk geure aldetik egitia alegina artuko badogu itxaroten doguna; eta ziur, edo seguru egon arren ezabela faltaduko Jaunaren aldetik, ezin ziurtasun au euki ginaike, eztakigulako guere aldetik ukatuko badogu. Orregaitik gure esperanza au beti dago nastadurik ziuertzasunez, eta bildurrez. Alde batetik, jakinik, ze leijala dan Jauna bere esanetan, ze neurri bagia bere ontasuna, eta ze azken bagia bere erruki, edo miserikordija, esperanza oso

oso bat euki biar dogu beragaz: baña ezaguturik bestetik gure argojaren argaltasuna, gure ekan-
du zitalen indarra, demoninuaren asmubak, eta
mundu onetako pelleburubak, ezin jakin ginaike
eranzun gurako badeutsugu Jaungoikuaren dei-
jai, eta onexek euki biar gaitu bildurrez ikara.
Uste oso. eta bildur onen artian ibili biar gara
izango bada biar dan modukua gure itxaromen,
edo esperanzia, jausi ez gaitezan deseseperazi-
noian, edo speranza larregijan.

Onexek bijak dira esperanzien kontrako
pekatubak. Lenengua: deseserazioia, eta da,
uste izatia ezin salbadu leitekiala, edo naita nai
ez kondenadu biar dala, edo eztaguala beretzat
erremedijorik, ain dirialako andi, eta ikaragarri-
jak bere pekatubak, ze ezin euretatik urten leija-
la, ezteutsalako Jaungoikuak emon gurako eure-
tarik urteteko biar daben grazija; edo grazija
onegaz bere ezin urten izango dabelako. Eta
baderitza, ain diriala andijak bere pekatubak, ze
eztaukala Jaungoikuak eurak parkatuteko biar
dan erruki, edo miserikordijarik, au herejia izan-
go da. Pekatu onetan jausi oi dira, arako pekata-
ri itxutu Jaungoikuaren bildur baga edozein tran-

pa, edozein engañú, eta edozein guzurragaz aldaijezan ondasunak irabazten ditubezanak; aragijen gusto zitalez mando zaldi legez aseten dabilzanak; añañaijen guztijan ordituten dirianak, eta beste edozeinbere pekatu ura legez edaten ditubeezanak. Esarten ditubeez pekatubak pekatuben ganian, igoten deutsee oneek bururaño, makurtuten ditubez euren pisubak luurreraño, bildurtuten dituz euren ezintasunak, dagoz indar baga ain ikaragarritzko karga jasoteko, eztauke podererik, datzazan lupatzatik jagiteko. Tristetuten jake bijotza, ilunduten jake errañoia, etxuten dira jaso ezin daben karga eskergiagaz, eta jausten dira desesperazioan. Kontu bada, kristinaubak, zeuben gurari zitalak lenengotik, eta ezagutu orduko ezi, eta kendutiagaz, bada itxiten badeutsube indarra arzen, desesperazioera eruango zaitube. Gozo dira lenenguan, bigun sarzen dira bijotzian, eta beti abijetan oi dira nosbait itxi, eta Jaunagana biurtuteko esperanziagaz, baña azkenian desesperazioera eruan oi dabe.

Esperanziaren kontrako bigarren pekatubada, esperanza larregija, edo presunzioia. Modu

askotan egin leiteke pekatu au. Lenengo: egiten dau pekatu uste dabenak bere algin, eta indarrakaz bakarrik, eta Jaungoikuaren grazija, eta laguntasuna baga, eldu leitekiala zeruko glorijara, edo sinistuten dabenak eztala biar grazijarik, obra onak egiteko. Bigarrenengo: deritzanak, ain dala andija Jaungoikuaren miserikordija, ain ugarijak Jasu-Kristok guretzat irabaziriko merezi-mentubak, ze eurakgaitik bakarrik salbaduko dala obra onik egin baga, eta pekatubak parkatuteko asko dala Jesu-Kristoren erijotza, eta pasinoia penitenzija eta damu biarrij baga: Oneek bijotz herejiak dira. Irugarrenengo: uste dabeenak eztiriala ilgo konfesadu baga Ama Birjina, Santa Barbara, edo beste Santuben bati deutesen debozinoia gaitik, egnian egunian Aita gure, eta Abe Marijen batzuk errezetan deutsezalako; uste zoro onegaz nai daben moduban, eta pekatubetan saturik bizi diriala. Laugarrenengo: pekatubaren pelleburu, eta mugaldi, edo okasinoiak itxi nai eztituzanak sinisturik eurretan ifini arren ezta- la pekatuban jausiko. Ez leuke batek pensamendu loi, orasa zikin, eta berba atsitubetan jausi gura; baña ez leuke itxi nai erromerija, jolas,

danza, eta berbaldi, edo konbersazinoek arin eta alegria; eztau alderatu, edo apartadu gura laz-tan daben mutil, gizon, neskatilla, edo emakumiagandik, deritzalako, eztala orregaitik pekatuban jausiko. Ez leuke bestiak orditu gura; baña eztau itxi nai tabernia, ez beste lagun norzukaz orditu oi dan. Ez leuke onek maldizinoe, birao, ez añañeniorik ezarri gura, baña eztau itxi gura jokua nun botaten dituzan usterik ara juan arren eztituzala botako.

Bostgarrengo: egiten dabe pekatu euren ekandu, eta oitura zitaletatik urten nai eztabee-nak, sinisturik gero egingo dabeela euren pekatuben penitenzija. Onelakuak luzatu oi dabe konfesetia, eta penitenzija egitia egunerik egunera, ilerik ilera, eta urterik urtera. Onelakuai itanduten bajakue, zergaitik ainbat lasterren urteten eztabeen euren pekatubetatik? agiriko da, euren bide bagako esperanza laarregi, edo presunzioia. Oraindio gaztia naz,eranzun oi dabee, denporiari emon biar jaka beria; ezta orain txotxakerijetan ibilteko denporia. Arako urtiak aurrera duazanian, aragijaren suba amatadu deinian,

eta ekandu zitalak ezi daitezian izango da denporarik onena penitenzija egiteko. Artiatan enaz ilgo, osasun ona daukat, gorputz sendua, eta indar andikua, eta ezta Jaungoikuak gurako, penitenzija egin baga, eta kofesadu baga il naitian: andija da bere miseriakordija, eta ezta gura, inor galdu deitan. Oraindio bere geijago estutu gura badituzuz eranzungo dabe gauza andi bat esango balebe legez; zertako egin dau Jaungoikuak zeruba, lastoz beteteko ala? Zenbat onelako esperanza zoro ete dagoz infernubetan! Seigarrengo: egiten dau pekatu bein pekatu egin ezkeru, aurrera pekatu eginagaz doianak, dinuala: bein pekat uban nagan ezkeru bardin da pekatru bat konfesetia zein da asko; etzako Jaungoikuaren errukijari geijago kostetan pekatu asko parkatutia, zein da bat. Ez eikezube esan dino Espiritu Santuak; andija da Jaungoikuaren miseriakordija, berak eukiko dau nire pekatuben errukija, eta uste onegaz etzaitez egon zeure pekatubetan, bada ain laster etpri oi da bere aserria, zein da bere errukija. Zazpigarrengo:

egiten dau pekatu: Nai leukianak Jaungoikuak mirari, edo milagruen bat egin dagijan premina, edo nezesidade baga, eta berak ezer egin baga, Esaterako: Dago gexorik, eta esanik medikubak osasungei, edo medezina onegaz, edo bestiagaz osatuko dala eztai nai egin medikubak dirautsana, nai leukiala, Jaungoikuak mirari, edo milagro bategaz osatu dagijan. Bardin da nai baleu batek Jaungoikuak emon deijon janari, jazteko, edo beste biar daben guztija beretzat eta bere seme, eta alabentzat berak ardurarik artu baga, biarrik egin baga, eta alperrik daguala. Ara, Kristinaubak, egizu zueben eldetik alegina osasuna gaitik, eta beste biar dozuna irabazteko, eta onegaz btera erregu egijozube Jaunari emon deizubela osasuna, eta beste bizitza iragoteko biar dozubena, eta ordubantxe izango da biar dan esperanzia. Baña onetarako esperetan dozuna bide onekua izan biar da; bestelan, Jaunagandik itxarotia pekatu izango da. Esaterako: daukazu auzi oker bat, zeinetan eztaukazun errazoerik, eta badaukazu bere ezteutsazu jarraitutenm zeuriagaz

urte, eta bestiari gastadu erazoterren baño; bada itxarotia orduban Jaungoikuagandik auzi au irabaztia, izango litzateke gauza deunga bat itxarotia Jaungoikuagandik, eta au ezin egin leiteke pekatu baga.

Esperanzako egintza, edo aktuak egin biar dira fedekuak egin biar dirianian. Lenego: Kristinauba errazoen udura eldu deinian. Bigarrenego: desesperazinoe edo esperanza larregiko tentazi-noiak estututen dabenian. Irugarrenego: Penitentzijaiko Sakramentuba artu biar danian, bada izanik Sakramentu au gure pekatubak parkatuteko, ezin onek euren parkazinoia esketu leio Jaunari, espadauka parkatuko deutesenen itxaromen, edo esperanzarik. Laugarrenego: erijotzako orduban, bada izanik zeruba lenen itxaroten dogun gauzia, eztoigu inos obeto sendatu biar bertara elduteko esperanzia, bertan sarzeko ain urrian gagozianian baño. Bostgarrenego: orazinoe egin biar dogunian, edo zerbait Jaunari eskatu biar deutesagunian; bada eztau inok ezer eskatuten, itxaroten ezpadau emongo jakala. Seigarrenego: sarri

geure bizijan, fedeko aktuak gaitik esan dana legez.

Erazoginza

Ain dago zabaldurik mundu guztitik esperanzia, ze eztozu aurkituko kristinaurik zerura elduteko uste, edo esperanzarik eztaukanik. Betor pekataririk itxu, eta galdubena, eta prkatubak ura legez edaten dituzana. Bebil lapurreta, ordikerija, loikerija, eta gogora eldu al leitekezan pekatu guztijetan sarturik daguana, eta bere arimia eta Jaungoikua gomuta bagia: itandu bekijo daukan ala ez, zeruban Jangoikua arpegiz arpegi ikusteko esperanzarik? Bertatik eranzungo dau baijez. Baña au badinue bere, deritzat, oneetatik geijeenak eztaukela benetako esperanzarik, bada baleuke ez litzatekez ain nagi, ain otz egongo zerura elduteko biar dan biarra egiteko; pazienzija andi bategaz irago, edo eruango litukez mundu onetao nekiak, eta ez leuke ain ardu-ra andija aukiko munsuko ondasunak batuteko. Egija au ezagutuko dogu jakinagaz, zer egiten

daben benetako esperanziak, bera daukanagan, e do zelakuak dirian bere egintza, edo efektuak.

Lenengo: emoten dau itxaroten dan glorijara elduteko biar dan guztija egiteko gogua. Au irakasten deusku Santiago Apostolubak nekezale baten irudijagaz. Ze pozik daruazan onek, solo baten egiten dituzan biarrak? neguko otzak, udako beruak, goxetik jagi, egun guztijan makurturik, laijia, atxurra, edo beste gauzaren bat eskuban dabela, lan, eta biar ain neketsu oneek poz andi bategaz? Labore, gari, arto, edo beste biar dabena arzeko ustiak, jakinik biarrak egin baga, eztabela solo atan ezer artuko. Auxe berau egiten dau benetako esperanzia daukanak: poz pozik iragoten dituz zerura elduteko biar dirian nekiak, jakinik ez bakarrik biar dala Jaungoikua-ren miseriakordija, baita bere geure obra onak; eta egiten ezpadituz ezin esan leike benetako esperanzia daukala. Esan egidazu: balego nekezale bat elperrik bere etxian solua atxurtu baga, erin baga; eta esango baleu esperetan dabela Jaungoikuagan, gari, edo artua ugari arzeia sinistuko zeuzkijo, benetan daukala esperanza au?

Ezetz deritzat. Bada auxe berau da zerura elze-ko Kristinau askok dauken esperanzia. Eztabe ezer egin gura, eztabe obra onen azija erin nai, eztabe nekatu nai, eztabe euren aragija ezi gura; alperkerija, gurari zital, eta goguak emoten deutezan buruera guztijetan sarturik egon nai dabe; eta lanbere dinue, itxaroten dabeela glori-jako frutu gozua arzeia. Nok au sinistuko deutse?

Esperanziak egiten daben bigarren gauzia da, sendatu bijotza mundu onetako gatxak pazienziagaz eruateko. Neke, eta lan andijen artetik irago biat dau zerura eldu nai dabenak, dino San Paulo Apostolubak Eztago beste biderik ara elduteko. Ain da gauza biarra bide latz, eta garratz au iragotia, ze ezta inor beste bidetik ibili, ezta Jesus-Kristo bera bere. Orain bada, zelan esan zinaike itxaroten dozula zerura eldu-tia, ibili gura ezpazara bide onetatik? Kontu egizu, uri eder, zoragarri bat daguala mendi guztiz eregi, edo altu baten ganian, norako ezta-guan bide bat bakarrik baño. Esango bazendu eztozula irago gura bide atatik, sasi, arantza, eta abarrez beterik dagualako, eta onezaz ostian, aldatz andijak daukazalako; eta alanbere itxaro-

ten dozula uri eder atan bizi izatia, nok sinistuko leukezu? Ez inok: edonok esango leuke, zure esperanza ori eztala benetakua. Ara ada, uri eder ori da zeruba; bide garratz, eta arantzaz bete ori, da mundu onetako gatx, neke, lan, atsakabe, eta naibagiak. Gura badozu bada uri orretara eldu, naibadozu bertan bizi izan, pazien-zijagaz irago biar dituzuz; bestelan ezin esan zinaike, daukazula benetako esperanzia ara elduteko.

Irugarren bentako esperanziak egiten dabena da, kendu mundu onetako ondasun, anditasun, eta beste gauza guztijen ardura laarregija. Norbaitek zerbait alkanzadu nai dabenian kenzen dituz, bera eukitera elzeko galazoten deutezan estropezu guztijak, eta ezta euretan, edo euren arduraren geratuten; izanik bada ardura larregi ar estropezu andi bat zerura elzeko, balego benetako esperanzia, ez litzateke einbeste ardura, einbeste alegin, ainbeste gurari eukiko mundu onetako gauzak gaitik. Ze ondo irakutsi eben santubak benetako esperanzia eukena? Ez egunez, ez gabez egozan geldi; orazinoia bateti, baruba bestetik, emetik mortifikazinoia, andik

pobrezia, guztija garbitasuna, guztija humiltasuna, eta guztija alegijen biarra egitia; eta alanbere beti bildur santuz josirik. Eta guk nagitasun, alperkerija, eta munduko gauzetan emonik denporia, deritzagu artez artez guazala zerura. Kristinaubak, auki daigun esperanza oso osua Jaungoikuagan, jakinik, andijak badira bere gure pekatubak, andijagua dala bere erruki, edo miserikordija, baña lagundu daigun esperanza au geure obra onakaz, irago daiguzan pazienzija nadi bategaz datorkiguzan nekiak, eta artuko dogu sari zeruba. Amen.

XXIX. BERBALDIJA

*Karidadiaren ganian, eta zelan
amadu biar doguzan arerijo, eta
gatx egin deuskubezanak.*

Onoidade, edo birtute guztijetik andijena da karidadia, diño San Paulo Apostolubak. Bera baga eztago benetako birtuterik, eta bera daukanak birtute guztijak daukaz. Ezin obeto adi erzo leiteke karidadiaren mirarizko anditasuna, San Juan Ebanjelistiak dirauskunagaz baño. Jaungoikua karidadia da; bera daukana Jaungoikuagan dago, eta Jaungoikua ametia gauza guztijenganian, eta geure proximua geure buruba legez. Birtute, edo onoidade onen lenengo parte, edo zatija adi erazoko da Jaungoikuaren legeko lenengo agindu, edo mandamentuba azalsu, edo explikadu daikegunian; eta orain esango dogu, zer aginduten deuskun bigarren parte, edo zatijak. Da bada karidade au geure proximua ametia geure buruba legez. Proximuen izenian aituten dira betiko zorioneko izan leitekezan guztijak,

nai dala kristinaubam nai dala Jentik, Mauru, Turku, edo Judeguba; izan deila aidia nai kanpokua, andija nai txikija, on nai dongia, adiskidia nai arerijua. Baita bere dira zeruban dagozan Santu, eta Aingerubak, eta alan amadu biar doguz, eta poztu biar gara Jaungoikuak emon deutesen zorion Parebagiagaitik. Amadu bere biar dituguz Purgatorijoko arimak, eta erregutu Jau-nari eruan daizala ainbat lasterren zeruko atseginetara; kondenadubakaz bakarrik ezin euki ginaike karidaderik.

Onexek guztijok maitetu, edo amadu biar dituguz geure burubak legez, au da, amadu biar doguz nai geunkiana legez eureak geu amadu gaijezan, gura izan biar deutsegu geuretzat gura geunkian on guztija, eta ezteutsegu nai izan biar geuretzat na ezgendukian gatzik: edo egin biar deutsegu, eurak geuri egin deiguben nai gendukian on guztija, eta ezteutsegube egin biar eurak geuri egin deiguben nai ez gendukian gatzik. Amodijo au izan biar da barrukua, edo bijotzekua, eta kanpotikua; bada ezta asko kanpotikua bakarrik, edo bijotzekua bakarrik izatia. Lenengo izan biar da barrutikua, eta alan ez bakarrik

ezteutsagu gatzik nai izan biar proximuari, ezteutsagu gorrotorik euki, ez poztu datorkiozan gatzakaz, edo nekatu Jaungoikuak emoten deutzazan onakaz, ezpada armadu biar dogu bijotz oso osuagaz, poztu biar gara, Jaungoikuak emoten deutzan zorionagaz, tristetu jazoten jakazan gatzakaz, eta guztijen gañetik nai izan biar dogu, emon deijola Jaungoikuak gloriya zeruban. Bigarreno: izan biar da kanpotikua: au da emon biar dituguz geure bijotzian deutsegun amodijuaren ezaugarri, edo señaalik, eta alan gure biar bada lagundu biar deutzagu, gose bad emon biar deutzagu janariya, egarri bada edariya, billoxik badago jaztekua, eta beinguan esateran egin biar dogu eurakaz, eurak geugaz egin daijen nai gendukian guztija.

Ezin alderatu, edo apartadu ginaikez amodijo onetatik geure arerijuak, edo gatz egin deusku-benak, bada dira geure proximuak, eta daukagu obligazinoe estuba pekatu mortalen beian, ez bakarrik gorrotorik eukiteko, ez gatxen bat nei izateko, bai ta bere ametako, eta nesediak egiteko. Jesu-Kristok berak bere aotik emon euskun agindu au. Berak dirausku: neuk dirautsubet,

amadu egizubez zeuben arerijuak, mesediaj egijozubez gorroto deutsubenai; eta erregutu egijozube Jaunari zuben jarrai dabilzan, edo persegietan zaitubezanak-gaitik. Onetan eztago dudarik, alperrol esango dau nai dabena gizonen antuste, edo soberbijak, eta bakotxaren beraganako ondo guriak. Amodijo onek, edo arerijuak-ganako karidadiak zer aginduten deuskun ezagututeko, deritzat modurik onen oneena dala nok pekatu egiten daben onetan edi erazotia. Egiten dau bada pekatu mortal. Lenengo: nai leukianak gatxen bat etorri dakijon bere arerijuari gorputzian, ariman, edo ondasunetan. Bigarrenengo: jazoten jakozan kalte, gatx, edo nekiakaz poztuten danak. Irugarrenengo: Jaungoikuak emoten deutsalaz ondasun, osasun, eta zorionak gaitik nekatu, eta tristetuten danak. Laugarrenengo: egin deutsalaz gatx, edo kaltia bengetako gogo, edo gurarija daukanak, okasinoe billa dabilela nundik nora beste ainbeste gatx, edo kalte egin al leijon, bere barruban dinuala: etzat beste mundurajungo pagadu baga egin deustan prestubezkerija. Neuk irakatsiko deutsalaz etzakola egin biar ni lezko bati alango txatxarkerijarik. Bostgarrenengo:

ofizijo batekuak, zapatari, dendari, joskila, errementari, arotz, argin, eta beste edozeinbere ofizijokuak egiten dabe pekatu bata bestia ikusi ezin badabe, ezin onian eruan al dabeela, bestiak ainbeste salzeia, ainbeste biargei eukitia, ainbeste irabaztia, eta nai leukela jausi daitezana dauken izen on, edo famatik, usterik areek ezpalegoz, edo ain fama edo izen ona ezpaleuke eurak geijago irabaziko leukiela. Seigarrenge: gatx egin deitsanari gorroto deitsanak, edo ezin ikusi dabenak, Zazpigarrenge: bre arerijuari parkatu nai ez deitsanak.

Engañu guztiz andijak jazo oi dira, neure enzula maitiak, arerijo, ta gatx egin debenan parkatutiaren ganian. Kristinau guztiz asko dira gatx, edo kalteren bat egiten deitsenian, esan oi dabeenak: Jaungoikuak bakarrik daki orrek egin daustazan kaltiak, baña orregaitik ezteutsat gorrotorik, ezteutsat gatxik nai, parkatuten deitsat, baña au badino bere, auzotegi guztijak dakus, eta dino aserraturik daguala beragaz, eta erri guztijak da ezagun eztaguala ondo beragaz. Orregaitik guztiz da biarra jakitia, nundik ezagutuko dan nos daguan gorrotua bijotzian, eta par-

katu etxakan benetan gatx egin dabeneri, eta onetarako ifiniko ditudaz gorroto onen ezaugarri, edo señaliak. Lenengo: daukazu aserre, edo auzijen bat leen adiskide zirianen bategaz; egin deutsu kalte, edo egikera txatxarren bat, eta ordutik aurrera ez bakarrik urratuten dozu adiskidetasuna, ezpda ezteutsazu inundik bere berba egin nai: badakutsu zuk daruazun bidetik dorrrela, okertuten dozu bidia berari agur edo berbarik ez egiterren. Au egin ezin badozu bestera biretan dozu arpegija bera ez ikusterren, edo berari agurrik ez egiterren, eta egiten badeutsazu bere da modu motz, eta astunagaz. Onek guztijok asi erazoten dabe eztaguala ondo zure barruba leen adiskide zenduban orregaz. Bigarrenengo: gurata gura ez aurkitu biar zara beragaz batera, baña ifinten deutsazu bekoskua, edo arpegi iluna, egiten deutsazun mespresa, edo menosprezjua, ifinten deutsazuzala begi okerrak, eta zeure begiraune, buru erabilte, eskukada, eta beste gorputzeko egitadiakaz ezagututen jatzula zeure bijotzeko aranzia aren kontra.

Irugarrenengo: dauka zure arerijo, edo gatx egin deutsun orrek entieru, erijotza, eskonza,

edo beste onelako gauzaren bat, zegaitik juan oi dirian zure ideak atsegin, edo norabuenia, damu-aldia, edo pesamia emotera, eta aserratu zarialako, auzija asi dalako, edo gatxen bat egin deutsalako etzuaz milla atxakija bide bagako ifinten dituzuzala ez juateko. Laugarrenengo: daukazu eskonzaren bat, edo zeure etxadi, edo familijako barri onenbat, zein adi erazo, edo parte emoten oi dan gatx egin deutsunen edukuai, eta guztijai esanik ezteutsazu berari ezer esaten: konbidetan dituzuz bestiak, baña ez bera. Bostgarrenengo: zagoz berbaz beste batzuzkaz azten dira, gatx egin deutsun, edo zeure ofizijokua danen kontra zerbait esaten, eta zuk isilik bazagoz bere adi erazoten dozu zeure bijotzeko poza; arpegi, begi, irribarre, eta gorputz guztijagaz, ezagututen emoten dozula zeuk barruban artuten dozun atsegina. Baña alabetan badabe, zeure arpegiko iluntasunagaz, motz motzik egonagaz, eta beste modu askogaz agertuten dozu alabanza areek emoten deutsuben atsakabe, edo pesadunbria. Egitade, edo akzi-noe guzti oneetan ezagututen da bijotzeko gorrotua, eta ezteutsazula parkatu oraindio gatx

egin deuntsunari; alperrik esango dozu parkatuten deuntsazula, ezteuntsazula gatxik gura, amentan dozula bijotz guztitik. Ez bakarrik egiten dozu pekatu mortal bat zeure arerijo ari deuntsazun gorrotuagaitik, ezpada egingo dozu beste bat emoten dozun eskandalubagaitik, eta aide, edo senidien artian bada, andijagua izango da pekatuba, edo izango da beste bat, eta zenbat eta urkuaguak dirian, ainbat eta andijagua izango da pekatuba.

Ze negargarri, ze arrigarri, eta ikaragarrija dan, neure Kristinaubak, egunian egunian ikusten dana. Dakusguz aserraturik batzuk bestiakaz; etxadi, edo familijak familijakaz, aidiak aidiakaz, leengusubak lengusubakaz, anaijiak anaijiakaz, gurasuak semiakaz, eta semiak gurasuakaz. Ezin alkar ikusi dabe, eztabe alkarregaz berbarik egiten, ezтира bata bestien etxian sarzen, eta gexorik badagoz ozta ozta duaz bisitetara, eta orduban bere, ez Jaungoikiak egindubagaitik, ezpada munduko esanagaitik. Ezin itxi albadabe alkarregaz berba egitia, alkarregaz egotia, edo alkar bisitetia, duaz, edo balegoz legez, guztijak ezagututen daben moduban gogo

deungiagaz duazala, edo dagozala. batak berba-
txu bat badino. edo deskuidotxu bat badauka,
auxe da asko aserratuteko bestia, aora datorki-
jon guztija esateko; aldaijen guztijai esateko
egin, edo esan deutsen gatxa, eta benturaz ezer
balijo eztaben gauziaren ganian auzi bat emote-
ko. Erri guztijak dakus familia areek, senide
areek, guraso seme areek ikusi ezin diriana; guz-
tijak dagiz eskandalizaturik euren bidean eta
burubagako auzi, eta aserriakaz; guztijak dagoz
dongaro esaten, eta eurak bakarrik dagoz esku-
pulu baga, eta sinisturik, guztiz ondo egiten
dabeela. Esan eijezu, zegaitik bakiak egiten ezti-
tubezan, zegaitik bata bestiari berbarik egiten
ezteutsen, zergaitik bata bestien etxera juaten
eztirian leen legez, eta alkarregaz onien eztago-
zan? ikusiko dozu zelako atxakijak ifiniko ditu-
beezan. Baña atxakija guzti oneek burubagak
dira, ikusiko doguna legez.

Lenengo: batzuk esan oi dabe, ezteutsat nik
gorrotorik, ezteutsat gatxik gura, edo desietan;
neuri etorri dakidala nai deutsadan gatx guztija;
uxala Jaungoikuak ondasuna andijak emongo
baleutsaz, eta zorioneko egingo baleu. Baña

zelan au esan zinaike zuere motztasun, zeure berba ukatute, zeure esakune, eta zeure gauza guztijak aserratuten zaitubezala? Baña alan balitz bere, arerijua biar dan moduban ametako, ezta asko bijotzian, edo barruban ondo gura izatia, emon bere biar dira kanpotik bijotzeko amodijo onen ezaugarri, edo señaliak; baña zuk one-lako ezaugarri, edo señaliak emon biarrian okerrrekuak emoten dozuz, eta alan eztozu beteten karidadiaren aginduba. Bigarren: beste batzuk eranzun oi dabe: Ezin nik orregaz tratadu neike; ain da erria, ain zitala, ain burueretxija ze ezin inundik beragaz euki leike bakerik; eta alan beragaz batuten banaz, edo adiskide agiten banaz bertatik ostera aserratuko gara. Esan egidazu: aserre au euki baño leenago, etzinian orregaz adiskide izan? Etzinian alkarregaz ibilten? Etzinian bata bestien etxera juaten? Ez zeuntzan modu onagaz, arpegi onagaz berba egiten? bada zelan esan zinaike daukan jenijuagaitik ezin beragaz adiskide izan bazara, eta aserratu ezpazara? Egin deutsun gatzak ezteutsa aldatu leen eukan jenijua, eta alan leen emoten bazeuntsazan zeuntzan amodijuaren ezaugarri, edo seña-

liak, ezteutsu orain balijo atxaija orrek. Guraso bat, nagusi bat, igazaba bat, egon leiteke egunen batzubetan, berbarik egin baga, arpegi astunagaz, dongaro egin daben seme, otsein, edo bere ardurakuak bere txarkerija ezagutu dagian, ondu dedin, eta ostera biurtu eztedin, eta eztinot onelakuak, baita bere adiskide batek bestiari, gizon batek bestiari, au egin leikijo, baña orduban ezta gorrotua izngo ezpada ondo guria.

Irugarrengo: beste atxakija bat izan oi da. Nik parkatuten deutsat egin deustan gatx guztija, baña ezin nik neure honra, eta haziendia galzen itxi neike; honria gldu deust biurtu begit, eta orra ni geldi: biurtu begit neure diru, ondasun, edo haziendia, eta orra amaitu, edo akabadurik auzijak. Gauza bi, edo atxakija bi daukaguz onetan; bata honriena, bestia ondasunena. Deritzat, Kristinaubak, eztaguala zorakerija bat gaitik auzitan ibiltia baño. Eztago kerellia baño beste modurik esan deutsun berba, edo egin deutsun prestubezkerijaz kendu deutsun honria osotuteko? Au nai ezpadozu, eta auzi, edo kerelliari jarraitu nai badeutsazu ezaugarri, edo señaile

ziur, edo ziertuba da bengetako goguan errerik daukazula zeure buruba. Eta deritxazu auzi orregaz biurtuko jatzula galduriko honria? Lenago esnago neuke geijago galduko dozula. Ara zelan. Emoten dozu auzi edo kerellia, bestiak lapurra, ordija, edo, esa daigun artez, putia esan deustulako, eranzuten dau bestiak, eta bere berbia jaoterren, ateraten dituz argitara zugaitik dakizan utsune, edo falta guztijak. An urteten dabee argitara isilian egoteko obe zirian gauza askok; leen bein bakarrikdei egin beutsuben lapurra, edo ordija, paperian datz amar, ogei, edo eun bidar; leen iru, edo lauk anzun beeben izen ori, orain danzube erri, eta probinzija osuak. Eta zetan geratu oi dira auzi modu oneek? Geijen geijenetan lenenguan egin biar zanian; adiskiden bitartez konpondutian; eta geratuten zara polsia murriturik, zeure honria obetu baga, eta zeure arima zauritubagaz. Lenengo lenenguan eginbaltz geri egin zana, gatx guzti oneek aurreratuko zirian.

Beste atxakija izan oi da ondasunena. Auzija ifintia bere gauzia artuteko, edo beria dana birutu dakijon ezta pekatu; baña geijenetan izan oi

da pekatu askoren sustraija. Orregaitik baderitzu zeuria dala bestiak daukana, edo bestiak eskatuten deutsuna, eta nai badozu erabagi dedin, kontu zeure bijotzagaz, begira isio eztein bestia-ganako aserrakunza, edo gorrotuan. Zeuria dana kobradu, edo zeuretu al badaizu ainbeste gastadu erazo baga bestiari, alaintxe egin biar dozu, eta gastadu erazoten badeutsazu biar leukian baño geijago, pekatu mortala egingo dozu, eta osotu biarko deutsazu geijago gastadu erazo deutsazuzana. Ardura andi bat euki biar dozu gorrotorik ez eukiteko. Dakuskuna da ez oi dala ikusi aserre bagako auzirik. Egon bediz errazoe andijak batetik, eta bestetik, egon bediz gizonik jakitunenak dudan, nori datorkijon; onegaz guztijonegaz bere, ikusiko da, zelako epeltasunagaz begiratuten dirian auzija daukenak. Leen adiskide andijak bazirian bere abijetan dira otzitzen, eta geroarerijo legez begiratuten dira. Orregaitik guztiz da gatx, auzija daukenak ez arerijo izatia. Orregaitik onduen litzateke auzirik ez eukitia, eta biar biarrekua bada, eta ezin itxi baleiteke, kontu andi bat euki bere auziko laguna, edo are-rijua ametako bijotz guztitik, eta indar guztija

egitiagaz aserre, gorroto, edo ezin ikusirik sartu eztedin inundik bere.

Erazoginza

Nai badozue ezagutu, neure enzula maitiak, ze bide, eta burubagak dirian, arerijuari zor jakazan amodijuaren ezaugarri, edo señaliak ez emoteko ifinten oi dirian atxakijak, eztaukagu begiratu baño egunian egunian jazo oi dana. Dagoz adiskide bi alkarri guztiz asko gura deutesenak, btera dabilz, ezin bata bestia бага egon dira. Dirautsa batak bestiari berbaren bat, egiten dau bestiak nai eleukiak gauzaren bat, eta orregaitik sarzen da euren artian aserrakunza guztiz andi bat. Ezin alkar ikusi dabe, ezteutse alkarri barbarik egiten, eztira alkar bisitetan. Dagoz bat bestien kontra txakur amorratu batzuk legez. Sartu bediz eruen artian adiskide, Saerdote, edo gizon andiren batzuk bakiak egitera, etzitubez enzun gurako, eta emongo ditubez oi dirian atxakijak. Eztago jaungoikuaren legerik, eztago alkar maitetu, edo ametako obligazinoerik, ezta-

go beste Kristinaubak euki biar dabeen karidade-rik: beti dagoz sendo euren alkar ezin ikusijan, alkarri ez berba egitian, alkarregaz ez batutian. Elduten dira oneek bijok bata bestien biar izate-
ra, ondasun andijen batzuk irabazteko, edo bijai ondo datorkijen ofizijo, diñade, edo honrraren bat alkanzetako, euren etxe, edo familijak aurre-
ratuteko, edo bijai emoten deutsen auziren bati jarraituteko; bertatik batuten dira; egiten dira adiskide. Eztago leengo etxakijarik, eztago jenijo dongarik, eztago bestiagaz adiskide ezin izanik. Guztijak goituten dira, guztijak laututen dira. Emetik dakusku, Jaungoikuaren agindubak ezin al izan dabeena, al izna dabela mundu onetako irabazi, ondasun, eta anditasunak.

Ze gauza argijagorik egunian egunian jazo oi dan aldanza, edo mudanza au baño, ezagutute-
ko gizon, eta familia osuak ifini oi ditubezan atxakijak, alkarregaz ez berba egiteko, alkarri agurra bere ukatuteko, eztiriala demoninuaren asmubak baño, guztijen arimak galzeko? Duda-
tzaka, neure Kristinaubak, bageunka geure ari-
mia mundu onetako ondasun, irabazi, eta andi-
tasunen bestian, egingo geunke bere salbazi-

noiagaitik, ondasun ezin iraun leijen onekgaitik egiten doguna. Begiratu daigun ze anditasun arrigarrira eregiten gaituzan geure arerijuak ametiak, gatx egin deuskubenai mesediak egitiak, eta dongaro nai deuskubenak gaitik erregututiak. Jesu-Kristok berak dirausku, amasu egizubez zeuben arerijuak, ondo egijozube gatx egin deustubenai, izan zaitezzen zeruban daguan Aitaren seme benetako, eta zeruko ondasunen herederu. Ze honra andijagorik? Ze diñade eregijagorik? Ze ondasun ugarijagorik? Neure enzula maitiak, sensunik badaukagu, Kristinau bagara, errazoe obiagaz goitu biar dituguz zeruko ondasunakgaitik geure antuste, edo soberbijak ifinten deuskuzan atxakijak arerijuai ez parkatuteko, mundukuakgaitik goitu edo benzietan doguzan baño. Mundu ontako honria utsa da, ondasunak simaurra, anditasunak autsa. Erregerik andijena gur bada, bijar ezta. Egin daigun, bada, ezer ezterian gauza onekgaitik egingo geunkiana, zeruko erreinu betiko iraungo dabenagaitik, ezagutu gaizan geure Aita zerukuak bere semetzat. Amen.

XXX. BERBALDIJA

Jaungoikuaren legeko lenengo agindu, edo mandamentubaren ganian.

Jaungoikuaren legeko lenengo mandamentu-bak aginduten deusku Jaungoikua ametia gauza guztijen gañetik. Amadu eikezu zeure Jaun, eta Jaungoikua, zeure bijotz guztitik, zeure arima guztitik, zeure zenzun guztijakaz, eta zeure indar guztijakaz. Jakin naiko dozube zer dan Jaungoikua maitetu, edo ametia gauza guztijen gañetik, edo gauza guztijak baño geijago. Da bada naijago izatia galzeia ondasunak, osasuna, aidiak, gurasuak, eta bizitzia bera bere pekatu egin baño leenago. Etzaku mandamentu onetan aginduten eztaiguzala amadu guraso, seme, alaba, anaije, senide, lagun, eta adiskidiak. Etzaku aginduten itxi daiguzala ondasun, diru, hazien-da, eta etxiak. Etzaku galazoten, seme, alaba, guraso, eta beste etxekuen ardura eukitia, bada dakuskuz, asko. eta asko izan diriala santu andi,

batzuk ondasun ugarijen erdijan, beste batzuk seme, alaba eta etxekuen arduren artian; oneek munduko arazu, eta zereginen erdijan, areek gerrako juan etorri, lanza, ezpata, zauri, eta erijotza artian. Oneek guztijok amadu dabee Jaungoikua gauza guztijak baño geijago. Aginduten jakuna da eztaigula pekatu egin, edo eztaigula ausi Jaungoikuaren legeko agindu, do mandamenturik, ez guraso, seme. aide edo adiskidiakgaitik, ez ondasun, eta dirubak batuterren, ez pobrezien bildurragaitik, ez osasun, edo bizitza galzeko pellebururik urteterren; eta prest egon biar gariala mundu onetako neke, pena, gatxik andijenak iragoteko, eta bizitza bera galzeko pekatu egin baño leenago. Ezagutu dagizuben zelan dan pekatu, beste bat Jaungoikua baño geijago ametia, ifiniko deustubet esangei bat. Seme batek gura deusta guztiz asko bere amari. Aginduten deusta onek, ostu dagijala polsa bat diru, orra nun dagan seme au Jaungoiko, eta amaganako amodijo biren erdijan; Jaungoikuari deustan amodijuagaitik egin nai ezpadau ama ain maite dabenak aginduten deustana, Jaungoikua amtean dau ama baño geijago; baña amari

deutsan amodijuagaitik ostuten badau diru polsia, ama ametan dau Jaungoikua baño geijago, eta egiten dau pekatu.

Orra zetan dagan Jaungoikua gauza guztijen ganian ametia, edo bijotz guztijagaz, arima guztijagaz, eta indar guztijagaz, eta alan eztago amodijo bizijago bategaz maitetu, edo ametian. Jazo leiteke gizon batek, amodijo samur, erriago, edo isijuago bategaz ametia bere emazte, guraso, edo semiak, eta atsakabe andijagua arzeia, onen erijotza, edo gatxetan, pekatu egiten dabenian baño: ezin orregaitik esan leiteke, Jaungoikua baño geijago ametan dituzala, edo ezabela Jaungoikia maite gauza guzti onen ganian, eta pekatu egiten dabela onetan, prest badago oneek guztijok galzeko, pekatu egin baño leenago. Exenplu bategaz au argijago ifiniko deustubet. Kristinau on, eta Jaungoikuaren bildur santuban bizi dan bati, kenzen deutseez bere ondasunak lapur batuzk, eta itxiten dabe guztiz aberastik, narru gorrijan, eta zer jan, zer janzi, nun bizi eztaukala. Onek artuten dau guztizko atsakabe, edo sentimentu bat, eta ain andija, ze nosbait pekatu mortalian jausi bada, eztau beste ainbes-

te naibage artu, eztau ainbeste negar egin, ezta ainbeste tristetu. Esan leike, gizon onek geijago ametan dituzala ondasunak Jaungoikua baño; neke, tristeza geijago irakutsi dabelako, eurak galdu dituzanian Jauna galdu ebanian baño; baña sentimentu andijagua irakutzi arren, eurak galzeian, ezta au geijago ametia eurak Jaungoikua baño. Ezpabere: esan beijue lapurrak gizon oni, guzurrezko juramentu, blasfemija, loikerija, edo beste pekatuben bategin daijala, eta kendu jakozan ondasun guztijak biurtuko jakazala: eztau gurako; eta erantzungo dau: Naijago dot pobre, eta bilox biloxikegon neure bizi guztijan, Jaungoikua pekatubagaz aserratu baño. Orra zelan gizon onek ametan daben Jaungoikua, bere ondasun guztijak baño geijago. Emetik eza-gutuko dozu, lenengo mandamentu au jaoteko, eztaala biar Jaungoikua ametia amodijo bizi, erriago, eta samurrago bategaz, guraso, seme, eta anaijak baño.

Modu askotan pekatu egin leiteke agindu onen kontra. Lenengo: egiten dau pekatu, guzurrezko Jaungoikuen taiju, edo irudijak Jaungoiko benetakotzat daukazanak, eta adoretan dituzta-

nak. Jaunari eskerrak, eztagi onelako pekaturik Kristinauben artian. Bigarrenko: Jaungoiko, edo bere Santubai dagokijon onen bat ukatuten deustanak, edo eztagokijon gatxen bat eurakgaitik dinuanak: esango baleu legez, gogorregija da Jaungoikua, bada merezi baño gatx, eta neke geijago bialduten deustaz. Ezta arteza, bada eztituz emoten, edo errepartietan mesede, eta kastiguba bakotzak merezi dabena legez. Ernegetan dot Jesu-Kristo, eta Maria Santisimiagaz. Esakera oneek, eta onelakuak, blasfemijak dira, eta pekatu guztiz ikaragarriak: ez oi dira entzuten Kristinauben aotik. Geijagotan enzuten oi dira beste blasfemija modu batzuk; Kristoren buruba, Birjiniaren sabela, San Pedroren kalbia, Jaungoikuak berak bere ezin galazo leiket, au edo bestia egiten: ez Ama Birjiniak, ez Jaungoikuak libraduko zaitu nire atzamarretatik. Esakune oneek, eta beste onelako asko blasfemijak dira, eta pekatu mortal, zeuben ez jakin, edo ez aditutiak eskusetan ezpazaitube. Orregaitik onelako itzkunia daukanak, alegina egin biar dau bera kenzeko. Beste esakune bat guztiz sarri enzun oi da. Dinodana, ain da ziertuba, ain egija

zein da Ebanjelijua bera, edo zein da Jaungoikua zeruban daguan. Badakit au andizkaz, edo ponderazinoez esan oi dana, eta pekatu mortal ezta-na; baña alanbere deungaro esanda dago; bada ezta inundik bere bardindu biar Jaungoikuaren egijagaz, edo berak dinuanen ziurtasunagaz gizonak dinuana.

Bigarrenago, egiten dau pekatu, Jaungoikua biar eztan moduban adoretan dabenak, edo zer-bait beragandik eskatu, eta itxaroten dabenak. Esaterako: Meza ateraten dabenak zazpi kandelagaz, modu onetan agertu dedin gauzia ostu deusana, edo gatx egin deusana. Goxian goxian Pater-noster bat, eta Abe-Marija, bat errezetan deusanak Santa Barbarari, segurutzat eukirik ezta egun atan ilgo Sakramentu baga au egiten dabena. Santuben erlikiak beragaz darabilzanak, ziertutzat daukala eurak aldian euki ezkeru ezta konfesinoe baga ilgo nai daben moduban bizi arren. Ama Birjiniaren irudi, edo estanpia, eskapularijo, edo orazinoen bat aldian darabilenak, ziertutzat daukala pellebururik andijenian sartu arren, nai dala gerran, nai dala itxasuan, nai dala surtan, etxakala gatxik

egingo. Gauza guzti oneek berez onak, eta santubak dira. Ondo da Mezak ateratia, Santa Barbarari errezetia, Santuben erlikijak, Ama Birjinia-
ren irudi, eta eskapularijua aldian erabiltia, baita euren bitartez Jaungoikuak mesediak egingo deuskuzala ustia eukitia. Baña debozinoe au gaitik nai dan moduban bizi izatia Jaungoikuaren bildur baga, eta edozeinbere pelleburutan sarzeia, bide bagako debozinoia da. Bardin; egiten dau pekatu, nai dabena berak bere aldetik ezer egin baga. Dago bat gexorik, eta eztau osasungei, edo medizinarik artu nai, sinisturik Jaungoikuak osatuko dabela. Gastetan dau bestiak bereztat, eta bere umientzat biar leukiana, eta esaten bajako, zegaitik modu orretan gastetan daben? erantzuten dau Jaungoikuak emongo dau. Eztau bestiak biarrik egin gura, eztau ardurarik artu nai bere semiak ofizijo, edo bizi moduben bat ikxi, edo artu dagijen, esanagaz, Jaungoikuak konponduko dituz, berak emongo deutse biar dabeena. Au ezta beste gauzarik guraso eta semiak lapur, tranposo, eta angaňalari izateko bidian imintia baňo. Ondo da Jaungoikuagan ifin-

tia gogo osua, emongo deuskula biar doguna, baña au izan biar da geure aldetik alegina egin ezkeru.

Irugarrengo: egiten dau pekatu, gauza isil, eta eskutubak bide bagako moduban jakingura dituzanak. Galduten da zer bait, ostuten dabee gauzaren bat, eztakije nun dan senarra, semia, nebia, edo senidia; bertatik dinue, guazan aztubagana, sorginagana, edo familiarijak daukazanagana, arexek esango deusku artez artez; eztago, berak igarten eztaben gauzarik. Ze zorakerija andijagorik baño! Ze itxumendi gogorragorik! Nundik nai zenduke jakin dagijan aztubak, sorginak, edo familiarijak daukazanak nun daguan zuk galdu dozuna, nok ostu deusun, edo nun dan zure senar, seme, anaije edo senidia? Berez ezin igarri leike ain ezkutuban, ain isilian, edo ain urrin daguan gauzia. Beraz besteren batek esan biar deusna, eta ezin bestek Jaungoikuak, edo demoninuak baño. Eta sinistu zinaike Jaungoikuak esango deusala nun dan galdu dozuna, ostu deusubena, edo zure senar, edo semia? Uste zinaike Ainguruben bat etorten jakala zerutik, eta esaten deusala ain isilik daguana? Ezetz

deritzat; bada edonok dakus euren bizi moduban, eztala au merezi leikian lezko Santuba. Beraz ezin bestek esan leijo demoninuak baño, eta beti igarten badau, esan oi dana legez, demoninuaren bitartez jakin biar dau. Orregaitik eurai onelako gauza isilik, eta ezin inok jakin leijanik itanduten badeutsazube pekatu mortala egingo dozube, zeuben ez jakinak, edo fede onak atxakijetan, edo eskusetan ezpazaitube. Bakizube zer dirian aztubak, eta igarzailletzat salzen dirian orreek? Gizon lapur, galdu, eta asmularijak: zuben leptik dan, eta edan nai dabe, ezer nekatu бага, biarrik egin бага. Zuaz eurakgana zerbait itandutera, eranzuten deutsube urrengo burubak emon deijuena, guzurra, eta abarra, onegaz kenduten deutsube biarren dozubena. Betetan ditubez euren etxiak biar daben guztijagaz, eta dagoz zubei burlaz, eta barrez zabal zabalik. Onelako gizon, eta emakumiai elitzatekijue itxi biar errijetan egoten. Onen lagun bene benetakuak dira zaurinak. Ezin oneek ikusi leije dirurik, zirarrik, urrerik, ez beste gauzarik luurpian, eta alan dira gizon alper, guzurti, eta enbusteri batzuk: ez ezer sinistu eurai.

Laugarrenge: egiten dabe pekatu gexorik dagozarian bide bagakko medizina, edo gauzen batzuk osatu nai dabeenak. Iterizija, edo laruba dauka? Ea bada ebagi oin, edo zapatien neurriko intxaur azala, esegi zugateko laratzuban, eta zelai doian sikatubagaz intxaur azala, alain-txe juango da osatubagaz gexua. Eten da mutil-txuben bat? Bada erdibidu bedi arbolatxu gazte bat, ifini bediz alde bijetatik gizon bi, baña kontu, batari dei egin biarko jako, Domingo, bestiari Francisco, eta onek bijok emongo deutse batak bestiari iru bidar umetxuba arbola erdibituben erditik; au guztijau egingo da San Juan bispera gaberdijan, eta onegaz osatuko da umia, edo mutiltxuba. Dauka beste batek, beso, esku, solbarda, oin, edo kaderako mina? Bijua aztubagana, esan deijozan agin arteko murmurija moduko orazinoe batzuk, egin deijozan kurutze batzuk, eta bota deijon bere aoko arnasia; one-xegaz kenduko jakoz bere min, eta ala guztijak. Gexo luze bat dauka? Erkindu, kadendu, eta guztiz argalik dago? Ea, sazkina daukaz, emon bekijoz konjuru sendo, eta fuerte batzuk. Zenat onelako zerakerija, eta seniskerija ero, eta buru-

bagako ete dagoz? Neure entzula maitiak, oneek guztijok demoninuaren asmubak dira; eta zeuben ez jakinak, edo isiltasun, edo sinplizidiak eskusetan ezpazaitube, pekatu mortalak. Bada-
kit Jaungoikuak bedar, arbola, eta beste gauza askotan itxi deuskuzana geure gatxen osasun-
gei, edo medizinak; baña au izan oi da, edo artu-
rik aotik, edo ifinijagaz min dan lekuban. Baña,
zer duka zer ikusi, laratzuban daguan intxaur
azalak, zure iterizija, edo larubagaz? Ze indar
geijago euki leike, oin, edo zapatien neurrikua
izanak, geijago, gitxijago, andijago, edo bedarra-
go izatiak baño? Bardin dinot, beste artu oi dirian
ganora, eta buru bagako osagei, edo medizinak-
gaitik. Ondo da norbait gexorik daguanian; Jau-
nari osasuna eskatutia, berari erregututia, Ele-
xiak onetarako ifinirik daukazan orazinoiak erre-
zetia, Ebanjelijo santubak euren ganian esatia,
Abade, edo Sazerdotiak gexuen ganian eskubak
ifintia. Au guztijau ontzat, eta gauza probetxu
andikotzat dauka ezagaturik Elexiak. Baña zer
dira orrako konjuru fuertiak, ez bigunak? Asmu
zoruak.

Bostgarrengo: egiten dabe pekatu agindu, edo mandamentu onen kontra, sorginak, hetxi-zerubak, familijarijak daukezanak, eta demoninuagaz pautua daukenak; eurai bestelan ezin jaikin leitekian gauzaren bat itanduten deutesnak; euren bitartez geri jazoko dan, edo etorteko daguan gauzaren bat jakin nai dabenak; eurakaz balijoten dirianak joko, saldu-erosi, edo tratuban irabazteko, fortuna on bat eukiteko; euren gatx, min, ala, edo gexuetan osasuna eskatuten deutesnak: bardin da, idi, bei, ardi, edo egaztijak geitu, azi, edo osatutia eskatuten bajake; bada onelako osasuna emoten badabe, isilik daguana, orindio jazo eztana, edo urrin daguan gauzia igarten badabe, ezta demoninuaren bitartez baño. Ementxe esan gura deutesubet gaua bat, pekatu dala esatia, sinistutia, edo uste izatia, dagozala sorginak; au, edo bestia egin dabeela; oni, edo bestiari gatx egin deutesela; au ezta pekatu: dakigu sorginak aurkitu leitekezala, edo gizon, eta emakume galdu, eta itxu askok demoninuagaz pautua eginik, sorgin egin diriala. Gauza bat da sorginak dagozana sinistutia, eta beste bat sorginai sinistutia. Lenengua ezta

pekatu, bigarrena bai; bada sorgin, hetxizera, eta majikuagan sinistutia da eurakgana juatia, eta eskatutia osasuna, ondasunak, edo beste nai dan gauzaren bat. Beste pekatu bat egin oi da guztiz sarri, eta da ikusten danian atso argal, kadn, edo erkinen bat sinistutia sorgina dala. Baita bere, arako umeren bat gexorik daguanian, sinistutia urlijak, edo urlizijak emongo eutsazala gazkinak, beragaz aserratu zalako, limosnia ukatu eutsalako, edo berak ogi, arto, edo beste gauzaren bat umiari emon eutsalako.

Eneuke amaituko esan nai banitu, askok eta askok daukezan siniskera buru bako, eta fundamentu bagakuak. Batzuk uste dabe itxuski, edo ginarrria ate ostian ifini ezkerro, ezin an sorginik sartu leitekiala. Beste batzuk gatza maijan jausten bada, kañubita, edo kutxilua auaz gora geratuten bada, edo ogija biar dan moduban, edo azal azpikubagaz gora ifinten bada, gatxen bat datorrela etxera. Elexako kanpaiak zoli ots egiten badau, erri atan laster norbait ilgo dala. Martitzen, eta Barikuba, zori deungako egunak diriala, egun oneetan egiten dan gauza andi, edo nagusik ezin ondo urten leikiala. Gexua daguan

etxian katubak miauka, edo txakurak zaunkaka badagoz, laster il biar dabela; umiai, askonarren erpia, eta onelako beste gauzaren batzuk ifintia, begizkoz egineztaijuen. Oneek eta onelako siniskera eruak, demoninuaren asmibak dira. Baña ez eikezube nastau ona txarragaz. Ezta pekatu begiratutia, ilargi barri, ala zarra dan zerbait eriteko, landarak ifinteko, egurra, edo zurak ebagiteko, arbolak estituteko, bada gauza guzti oneetan dakigu, eztaguana berezko, edo naturalezko eztan gauzarik. Bardin, ifini leijue, eta guztiz da gauza ona, ifintia umiai erlikijak, kurutzia, ebanjelijuak, edo santuben irudi, edo imajinak fediaz, euren bitartez jaongo dituzala Jaungoikuak gatxetatik; bada au ezta beste gauzarik ezpada erregututia Jaunari santu, kurutze, edo ebanjelijuen bitartez gorde dagizala umetxu areek.

Erazogintza

Ze agindu erraza! ze gozua! ze biguna! geure Jaungokiko maitiak ifinten deuskuna lenengo mandamentu onetan! Egin deuskuz neurtu ezin

leitekezan mesediak. Egin genduzan ezeberze-
tatik, atera genduzan bere pasinoe, eta erijotzia-
gaz demonino, eta pekatupetik, eta au guztijau
gitxi balitz legez, oraintxe bere da gure aita
arduratsuba; berak emoten deusku bizitzia, jan-
rija, janziya, arnasia, eta beste biar dogun guzti-
ja. Eta zer eskatuten deusku mesede parebaga
guzti oneen sari? Amadu daigula. Ezteuskuz
eskatuten geure ondasunak, ez dirubak, ez
haziendak, ez osasuna, ez bizitzia, ez neke, gatx,
ibelera andijak; amodijua bakr bakarrik nai dau.
Agindu au beteteko, edo kunplietako, eztaukazu
zer itxi zeure etxia, eztaukazuz ze aztu zeure
guraso, seme, alaba, senar, edo emaztia, eztau-
kazuz zer itxi zeure ofizijua: zeure etxian, zeure
biar, arazu, eta zereginak itxi baga, ondo, eta
ondo emon zinaijo Jaunari eskatuten deusun,
egin deusuzan mesedien sari au. Onetarako nai
dabena da izan zaitezala seme, edo alaba umila,
senar eta emazte leijala, aita arduratsuba, neke-
zala biargina, ugazaba ona, krijadu obedizailia,
edo obedientia: berba baten, egin dagizula zeure
bizi modu, edo estadubari dagokijona. Onetara-
ko etzaituz isten bakarrik, emoten deusku bere

grazija, lagunduten deutsu. Eta alanbere ezteutsazu biurtuko aita maite oni eskatuten deutsun sari apur puska au, egin deutsuzan mesedien orde? Astun egiten jatzu eskari au?

Zer egingo zeunke bada? Zer esango zeunke? Zer usteko zeunke, eskatuko baleutsu egin daizula beragaitik, berak zugaitik egin daben beste? Itxi dagizuzala zeruko ondasun, eta atsegin guztijak, eta jatsirik luurrera bizi zaitezala pobrezarik andijenian, neke, izerdi, gose, egarri artian, bizi zaitezala atsegin baga, etxe baga, eta gizon batek irago al leikezan atsakaberik andijenen erdijan, eta azkenez iragorik pasinoerik krubelena, eta emonik zeure zanetako odol guztija, galdu dagizula bizitzia urkamendi batren erijotzarik lotsagarrijenagaz? Baña, ez Kristinaubak ez, ezteutsu onelako agindu astun, eta garratzik ifinten. Berak bere ganian artu gura izan eban agindu pisutsu, eta eskerga au, zuri emoterren agindu bigun, arin, gozo, eta atsegin-suba. Nundik nora bada egin zinaitekezu ain latz, ain aldatz gora, ain pisutsu amodijo, eta gozatasunez beteriko agindu au? Zeure ekandu zitaletatik, zeure gurari okerretatik, zuere itxumendi

ilunetik; onexek zaukaz loturik, onexek zoraturik, eta onexek zenzuna galdurik. Itxi egizubez bada nos, edo nos, urten egizube euren azpitik, urratu egizubez euren kateiak, idigi egizubez zeuben arimako begijak, eta ikusiko dozube ze gozua dan Jaungoikuaren legeko lenengo mandamentu au; ze biguna agindu au. elduten bazare au eza-gututera, naijagoko dozube amodijo au mundu onetako ondasun, diru, erreinu, eta zorionik andijen guztijak baño, eta gitxitan eukiko sozube bera irabazterren iragotia gizoni burura etorri al leikijozan ala, eta tormenturik ikaragarrijen guztijak, bada jakingo dozube bera bakarrik dala zerurako bidia. Amen.

XXXI. BERBALDIJA

*Jaungoikuari zor deutsalun
adorazinoiaren ganian, eta zelakua
dan Santubai emon biar
deutsegubena euren irudi, edo
inajina eta erlikietan.*

Lenengo Jaungoikuaren legeko mandamentu-
bak ez bakarrik aginduten deusku, Jaungoikua
ametic gauza guztijen ganian, baita bere bera
bakarrik ezagutu, eta adoretia Jaungoikotzat.
Esan gura dau, eztogula inorbere besterik eza-
gutu biar ez zeruban, ez lurrian Jaungoikotzatm
ez adorado atakotzat, bera bakar bakarrik baño.
Modu bitakua da adorazinoe au, bata da barru,
edo bijotzekua, bestia kanpotikua, edo gorputze-
kua. Barruko, edo arimako adorazinoia da bera
ezagututia geure Jaun, geure ongile, eta egila-
tzat, eta geu bere eskubakaz eginiko kriatura-
tzat. Da beragan bakarrik sinsitutia, beragan
bakarrik itxaron, edo esperetia, eta bera baka-
rrik edoretia geure Jaungoiko benetakotzat, eta

konfesetia gu, eta beste izatia dauken guztijak bere menpeko gariala, eta eztaguala guztijen artian beragandik izatia artu eztabenik. Izan biar da kanpotikua, edo gorputzekua, au da, adi erazo biar dogu gorputzagaz bere, bera dauka-gula geure Jaungoikotzat. Au egingo digu, Altara-ko Sakramantuben aurrian belauniko ifinijagaz, Meza entzunagaz, Sakramentubak artubagaz, Elexan debozinoe, eta humiltasun andi bategaz egonagaz, eta berba baten esaterren, geure Erlijinoe katolikubak irakatsi, eta egiten aginduten deuskuzan gauzakaz. Izango bada biar dan leez-kua adorazinoe au, izan biar da barrukua, eta kanpokua, edo arimakua, eta gorputzekua; bada kanpokua, edo gorputzekua bakarrik arimakua baga, ezta benetako adorazinoia, ezpada guzurr-a, eta hipokresija. Barrukuak bakarrik eztau adi erazoten gure errelijinoia, ez gaituz batuten, edo gorputz bat egiten beste Kristinaubakaz, ez Elexa ikusgarri bat.

Lenengo mandamentu onetan aginduten jaku, eztaigula Jauna bera baño besterik adorado Jaungoikotzat; baño etxaku orregaitik galazoten, Santu, eta Aigerubak adoretia. Onetarako jakin

biar dogu, iru adorazinoe modu dagozala. Bata al daigun andijena. Au egingo dogu sinistubagaz bijotzian, eta konfesadubagaz miinian, adoretan doguna dala gauza guztijen asijeria, berak baka- rrik egin zituzala zero luurra, dala neurri baga, eta kabu baga, jakinsu, alsu, edo poderoso, artez, edo justu, eta santuba: izatia dauken guz- tijak bere biar diriala. eta berak eztaukala inoren biarrik. Adorazinoe onegaz adoraduko dogu Jaungoikua bakarrik. Bigarrena da, zeinegaz ado- retan dogun Ama Birjina; au da, Jaungoikua baño txikijaguagaz, baño beste santu guztijak baño andijaguagaz. Au egingo dogu konfesadu, eta sinistubagaz eztala Jaungoiko ezpada kriatu- ra utsa, eta alan eztogula adoretan Jaungoiko- tzat; baño Jaungoikuaren ama benetakua dala beste santu, eta Aingeru guztijak baño andijago, adoragarrijago, eta emoten deutsalagula beste guztijai baño andijagua. Irugarrena da beste Santubai emoten deutseguna Jaungoikuaren adiskidiak dirialako, eta Jaungoikuak eurretan ifini daben grazija, eta santidadiagiatik, eta alan eurak honradu, eta adoratubagaz Jaungoikua bera adoretan gogu eurretan; sinistuten dogula,

beragandik datorkijuela eurretan daguan anditahun, eta grazija. Ezin kanpotik bereztu, edo distingidu leitekez geijenetan iru adorazinoe oneek; eta alan barrutik, edo geure intenzinoiagaz egin biar dogu bereztu, edo distinzinoe au. Ara zelan. Ifinten gara belauniko Altarako Sakramentubaren aurrian; ifinten gara Ama Birjiniaren aurrian, baita bere Santuben baten aurrian. Begiratuten badeutsagu kanpotiko adorazinoe, edo belauniko oni, bardin bardina da guztijetan, eta ezin gorputzeko belauniko onetatik ezagutu leiteke Jaungoiko, Ama Birjina, edo beste santuben bat adoretan digun. Baña geure borondatia dalako Sakramentuben aurrian belauniko jarten garianian Jaungoikua adoretia, Ama Birjinarennian Ama Birjina, eta santubak santuben aurrian, bereztu, edo distingietan dira iru adorazinoe oneek, eta emoten deutsagu bakotxari dagokijona.

Etxaku lenengo mandamentuban eragotziten, Jesu-Kristo, Maria guztiz santu, eta beste santuben irudi, edo imajinak adoretia, nai dala pinturia, nai dala taiju, edo bultuba, nai dala paperezkua; edo obeto esaterren pintura, edo

taiju oneetan edoreetia santubak eurak, noren irudi dirian. Onetan zebait luzatuko naz, zubei aldaidan argi, edo klaruben ifinteko zelan adoratu biar dituzuben irudi, edo imajina oneek. Iru gauzatarako nai dau Elexiak euki daiguzan, Jesu-Kristo, Ama Birjina, Aingeru, eta Santuben irudi, imajina, edo estanpak. Lenengo: izan deitezan liburu orde irakurten eztakijanentzat, eta pinturan ikusi daijen, irakurri ezin dabeena. Esterako: Ikusten dau batek Jesu-Kristo kurutzian josijaren irudija eta bera ikusijagaz ezagututen dau, ze lotsagarri, ze neketsu, e minberia izan zan irago eban erijotzia; eta modu onetan irakurten dau Jesu Kristo kruzifikadubaren irudija, irakurten dakijanak liburuban ikasten dabena. Bigarrenengo: euren bitartez barriztetako, Jesu Kristo, bere Ama, eta santuben bizitza, mirari, eta exenplubak. Dakusku Jesu Kristoren irudija kalbarijora doiala kurutzia lepuan dabela, bertatik datorikigu buru, edo memorijara zelako nekiak, zelako lanak iragoko zituzan bide garratz, eta latz atan; zelako izerdijak emongo zituzan, eta zelako zaurijak egingo eutsazan pisu ain eskerga arek. Dakusku Ama Birjiniaren irudija, bertatik gomuta

dogu Jaungoikuaren ama benetako dana, eta zelako mesediak artu ginaikezan bere erregubakgaitik. Ikusiagaz San Franciskubena satorkigu gogora bere humiltasuna. Ikusirik Marija Magdaleniena gomutetan jaku bere penitenzija; eta alaintxe beste santuben irudijak ikusijagaz: Iru-garrengo: irudi onekaz nai dau isio gugan Santubaganako amodijo, debozinoe, eta erreberenzija. Begiratuten deusagu Jesu Kristo kolumna bati loturikuen irudi, edo pinturiaru, eta bertatik gurata gura ez legez, sentietan dogu geure bijotzian artu zituzan azote, eta zaurijen errukija.

Orra zenbat on datorkiguzan Santuben irudi, edo imajinetarik. Orregaitik nai leuke Nizea, eta Trentoko Batzar edo Konzilijuak euki daijezan Kristinaubak, ez bakarrik Elexa, eta Altaretan baita euren etxe, sala eta gela, edo aposentubetan bere santuben irudi, edo estanpak. Emetik jakingo dogu zer adoretan dogun irudi orreetan. Elexa, altara, edo etxian daukazuzan irudi, pintura, taiju, edo bulto orreek eztira eurenez zur, ol arri, urre, zirar, miesa, paper, edo pintura zati bat baño; eta orregaitik eztabe merezi beste edozeinbere zur, ol, edo urrek baño adorazinoe,

edo erreberenzija geijago; bada eztago euretan ez Jaungoikotasunik, ez dantidaderik, ez grazijarik, ez eureka lagundu leikegube ezetan , ez erregutu leijue Jaunari gugaitik. Ara obeto aitu dagizuben. Dago altara baten Ama Birjina Errosarijokuaren irudi, taiju, edo bulto bat. Zer da ori? Zur zati bat. Ori ezta Jaungoikuaren Ama bera. Ez eban zur orrek sortu bere erraijetan Jesu Kristo; etzan zur orrengansik jaijo Salbagilia, ez eutsan zur orrek ugatza emon Jaungoikuaren semiari, ez eban zur orrek igon zerubetara; eta ez eutsan emon Santo Domingori errosarijua; eta alan ez esan, ez uste ginaike, zur zati ori dala Jaungoikuaren ama, et Ama Birjina errosarijokua berbera. Zer da bada zurezko taiju,e do bulto ori? Da zeruban daguan Jaungoikuaren Ama benetakuaren irudi bat, eta dago altaran guri gomuta erazoteko zeruban daguana. Orregaitik irudi orren aurrian belauniko ifinten garianian, bera adoretan dogunian, berari mun egiten deutsagunian, edo zerbait eskatuten deutsagunian, gauza guzti oneek irago biar dituguz zeruban daguan Jaungoikuaren Ama benetakuagana, eta ez geratu zur orretan. Alanbere irudi, edo imaji-

na oneek, ez izan arren arri, ol, zur, edo paper zati bat baño, zor jake begiraune, eta errespeto andi bat, eurak adi erazo, eta dirudijenagaitik, eta euki biar dira on dirudijan moduban, edo dezenzijagaz, bada eurai emoten jaken erreberenzija dirudijenai emoten jake.

Izen askoren beian daukaguz, eta adoretan dituguz, Jesu Kristo, Ama Birjina, eta Santubak. Daukaguz Kristo Lezoko, Kristo Brugosko, Ama Birjina Errosarijoko, Karmengo, Begoñako, Aranzazuko, Arrateko, Antiguako, San Antonio Urikiolako, eta beste asko. Baña oneek guztijok eztira Kristo asko, Ama Birjina asko, edo santu asko bat bakarrik baño. Esaterako Ama Birjina Aranzazukoa, berbera da zein Begoñakua, edo Arratekua. Au da: Jaungoikuaren Ama benetako zeruban daguana da, Aranzazu, Begoña, eta Arrateko irudi orreetan adoretan dana, eta alan eztauka santidade, grazija geijago bata, zein bestiak, eztauka mirarijak egiteko eskubide geijago, edo ezta milagrosuago bata bestia baño. San Antonio Urkiolako berbera da, zein beste altara baten dagan San Antonio, eztauka arek onek baño eskubide geijago, mirari, edo milagruak egiteko.

Egiten badira mirari, edo milagroren batzuk, eztituz egiten Begoña. Aranzazu, Arrate, edo Urkiolan dagan irudi, taiju, edo bultuak, ezta eurak adi erazoten ditubezan santubak bere; Jaungoikua da bakarrik mirari, edo milagruak egiten dituzana bitarteko diriala, edo erregutu-ten deusela arako Santu, noren irudi dirian imajina, taiju, edo bultu altara orreetan dagozanok. Jakin gurako dozu, zegaitik Jaungoikuak mesede, eta mirari geijago egiten dituzan Alexa baten bestian baño, Santu baten aurrian eskatuten jakonian bestenian eskatuten jakonian baño? Au egiten dau Jaungoikuak irudi onen aurrian, Alexa onetan, edo bestian eskatuten dogunian, debozinoe andijaguagaz, fede bizijaguagaz, eta esperanza senduaguagaz orazinoe egiten dogulako, eta Jaungoikuak debozinoe andijago, eta fede bizi-jago onen sari, emoten deusku santu aren bitartez eskatuten deusaguna.

Au obeto ezagutu daizuben ifiniko deusubet egunian egunian jazo oi san gauza bat. Enzunik San Antonio Urkiolakuak egiten dituzala mirari-jak, artuten dozu beragaz debozinoe andi bat, Jausten-jatzu gexorik idi, bei, edo zaldi bat. Eskat-

tuten deutzazu San Antoniori zeure etxian, edo Elexan daguan bere irudijaren aurrian zeure abere orren osasuna, baña ez deutzu emoten. Erregututen deutzazu San Antonio Urkiolakuari, eta osatuten jatzu. Zegaitik zeritzube, au jazo oi dala? Ara bada. Ezta au San Antonio Urkiolakok eekubidee andijagua daukalako zeure etxian, edo zeure erriko Elexan daguanak baño, ezpada ari eskatu zeuntzarian fede bizijaguagaz, eta uste osuaguagaz zeure orazinoe, eta eskarija egin zeuntzalako bestien bitartez baño. Auxegaitik enzun eban Dan Antonio zeruba daguanak, berari bere irudijen bitartez egin zeuntsan eskabidia; erregutu eutsan Jaunari, edo opa eutsan edo ofrezidu eutsan Jaunari zure orazinoia, eta Jaunak artu, eta enzunik zure eskabidia San Antonioren merezimendubakgaitik emon eutsun Santu aren bitartez eskatu zendubana. Orra zer dan Ama Birjina Aranzazuko. Begoñako. Arrateko, Antiguako, edo San Antonio Urkiolako nai beste Santuben bat mirarigile, edo milagroso izatia.

Ez bakarrik adoretan dituguz zeruko santubak euren irudi, edo imajinetan, baita euren erli-

kijetan bere. Santuben erlikijak, zelakuak dirian euren gorputz, azur, odol, eta autsak beneragarriak dira, eta orregaitik honradu, eta adoradu biar ditugu, dirauzku Trentoko batzar edo Konziliuak. Lenengo: Santubak bizi izan zirian artian Esapiritu Santubaren bizi leku, edo tenplu bizi izan zirialako. Alaintxe dirausku San Paulo Apostolubak. Bigarrenengo: Santubak mundu onetan egozan artian gorputz orren bitartez egitade, edo obra on asko egin zitubezalako; baita bere euretatik askok mirari guztiz andijak. Irugarrenengo: gorputz, azur, odol, eta auts orreek nosbait zeruko glorijan aurkituko dirialako; bada guzti guztijok biztu, edo errezuzitaduko dituz Jaunak, bapere faltatzaka, ezta uletxu bat bere; eta batu, edo unidurik leen euki eben arimiagaz, igongo dabe zerubetara betiko zorioneko izatera. Laugarrenengo: Jaungoikuak nai dabelako zeruban dagozan bere adiskidiak honradu dagiguzan. Au jakin daigun, sarri, eta sarri egin dituz mirari andijak santuben erlikijen bitartez. Ez bakarrik adoradu ginaikez Santuben gorputzak, edo euren azur, odol, eta autsak, baita bere euren gauzak, zelakuak dirian euren soñekuak,

eurak erabiliko gauzak, euren martirijoko instrumentubak. Esaterako: Ama Birjiniaren erroparen bat, berak euki eban plater, edo katiluben bat; San Pedro loturik euki zitubezan kateiak, edo euren malla, edo zatiren bat; San Paulori buruba ebagi eutsan ezpatia. Baña erlikija oneek adoretan doguzanian eztoгу adoradu biar erlikija au. Esaterako: Ama Birjiniaren erropan adoradu biar dogu Ama Birjina bera; San Pedroren kateian San Pedro bera, eta bardin beste Santuben erlikijetan. Bardin da erlikijen aurrian orazinoe egiten dogunian, ezteutsagu eskarija egin biar erlikijari berari, bada eztauka belarririk enzuteko, ez begirik ikusteko, ez beste zenzunik ezer egin, edo sentietako; eta lan euren aurrian egiten sogun eskabidia arteztu, edo dirijidu biar dogu santubagana, noren erlikija dan. Erlikijak betigorde, eta euki biar dira modu onian, eta erreberenzijagaz.

Sarri, eta sarri ofrezidu, eta atera oi dituzubez Mezak Santubai zeuben premina, eta esturetan, eta eskatuten deutzazube osasuna, bizitzia, eta beste nai zeunkian gauzaren bat. Dago emakumeren bat seiná egiten, ofrezietan deutsa,

edo ateretan deutsa Ama Birjiniari meza bat; ateraten deutsa meza bat San Antoniori. Au ezta gauza txarra, ona, eta santuba da, jakin ezkerozelan meza au ofrezidu, eta atera biar dan. Jaungoikuari bakar bakarrik, eta ez besteri, ez Santurri, ez Aingeruri, ez Ama Birjiniari ofrezidu leiyo Mezia; bada sakrifizio onen bitartez emoten dan adorazioa, da emon al leitekian andijena; ezta go, eta ezin aurkitu bere leiteke, beragaz emoten dana baño adorazioe andijagorik, eeta au ezin besteri emon leiyo Jaungoikuari baño. Orregaitik Abadiak, edo Sazerdotiak Meza esaten dabenian eztau esaten, opa deutzut, edo ofrezietan deutzut sakrifizio au zuri Jaungoikuaren Ama, zuri San Pedro, edo zuri San Paulo, ezpada zuri geure Jauneta Jaungoikua. Egija da Elexa Ama Santubak ifinirik daukazala Santuben Mezak euren egunetan esateko; baño Meza oneek ez jakez opa, edo ofrezietan Santu arei, ezpada Jaungoikuari, santu aren gomuta, eta memorijan eskerrak emoten jakazala, oneek bere grazija, eta laguntasunagaz demonino, mundu, eta aragijagandik irabazi zitubezan goitute, edo biktorijakgaitik; eta euren bitartekota-

suna gaitik emon deigun Meza areetan eskatuten doguna. Orregaitik Mezan esaten dirian eskari, edo orazinoe guztijak arteztu, edo dirijietan jakaz Jaunari, eta Santu areek noren honra, eta gomutian esaten dirian, arzen dira bitartekotzat. Orra zer esan gura daben Santubai mezia ofrezietiak, edo ateratiak, eta zer aitu biar dozuben.

Beste mezak ateretako modu bat daukazube, eta konbeni da jakin dagizuben zelan aitu biar dozuben. Zagoz gexorik, eta ateraten deutzazube purgatorijoko arimai meza bat osasuna artu, edo alkanzetako. Meza au ezin izan leiteke purgatorijoko arimen honra, ez gomutian beste Santuben mezak legez, ezpada eurak iragoten ditubezan pena, eta neketatik atera dakizan Jaungoikuak, beragaz pagetan diriala bere justizijari deutzeezan zorrak. Izanik bada au alan esan nai deutzubet, zelan purgatorijoko arimakgaitik ateraten dozuben meziagaitik artuko dozuben gura zeunkien osasuna. Ara bada zelan da, eta zelan atera biar dozuben: Meza opa, edo ofrezietan deutzazube Jaungoikuari Purgatorijoko arimak deutzen zorra sakrifizijo onen bitartez pagetako,

eta onetan egiten dozube obre errukisko, edo miserikordijazko bat. Au gustiz da Jaungoiko onaren gogo, edo borondatekua, eta erregutu-ten deutzazube Jaunari emon deizubela egitade, edo obra onen sari eskatuten deutzazuben osasuna. Egizu kontu, gexo orretatik Jaungoikuak atera zaizan, emoten deutzazula limosna bat pobre bati, alaintxe da bada mezia ateratia purgatorijoko arimai, osasuna alkanzetako.

Esan doguna legez, Mezia Jaungoikuari bakarrik opa, edo ofrezidu al leijola, dalako emon al leitekian adorazinoerik andijena; auxe berau esan biar dogu Elexa, eta altarakgaitik bere Ezin besteti eregi, eta santutu, edo konsagradu leijoz Jaungoikuari bakarrik baño. Dinogu Ama Birjina Soledadeko, Errosarijoko, edo Konzezinoekoaren altaria; San Juan, San Pedro, edo San Migelen Elexia, bata bestiagandik bereztu, edo distingietako, ete ez berari eregi, edo konsagradu jakolako, eta santu onei dei egiten jake Altara atako, Elexa atako, edo urlija erri, edo uriko Patroia; eta Patroiak esan nai dau bitartekua, adi erasoteko, Elexaren bat egiten danian, edo altaren bat ere-

giten jakonian, bera artuten dala bitartekotzat Jaungoikuaganako.

Erasogintza

Ikusi dozube, neure enzula maitiak, zelan adoradu biar dogun geure Jaun eta Jaungoikua, Jesu-Kristo gure Jauna, Ama Birjina, eta beste Santu, eta Aingerubak, zelan euren irudi, edo imajinak, eta zertarako nai daben Elexa Ama Santubak euki daiguzan Altara, Elexa, eta geure etxeetan. Nai leuke, eurak ikusijagaz gomuta daigun euren santidadia, bera jakinagaz egin daigun alegina eurai jarraituteko, eta eurak eruan eben zerurako bidetik ibilteko. Onetarakoxe dira hermitetan dagozan santuak. Baña beti euki bizr bageunkez bere geure begijen aurrian eurak emoniko ejenplu miragarriak, geijago, eta geijago barriztadu biar doguz euren egun, eta jaijetan; bada onetarako ifini zituzan Elexa Ama Santubak santuben egunak. Baña noraiño eldu da Kristinauben itxumendija! Egun oneetan begiratu biarrian eurai jarraituteko gogua, eta jakin

biarrian zer egin ebeen Jaungoikuagaitik, eta zelako bidetik ibili zirian zerura elduteko; euren egunak irago oi dira arimia galzeko pellebururik andijenetan. Orduban jan edanak, orduban ordi-kerijak, orduban danza zoruak, orduban erromerijak, orduban loikerija atsitu, soñu ero, ibilte zoro, eta eskubide, edo libertade inos arzen ezti-rianak; berba batem: Santuben egunetan arimia glzeko dirian demoninuaren asmu guztijak. Eta alanbere, ainbestera elduten da Kristinauben itxumendija, ze zorakerija, loikerija, eta Errilij-noiaren kontrako ezainasun onekaz uste dabe honretan ditubezala santubak, eta adi erazoten dabeela eurai deutseem debozinoia. Au, Kristi-naubak, ezta Santubai debozinoe eukitia, au ezta Santubak honretia, au ezta Santubai jai egi-tia. Modu onetan izango bada zuben debozinoia, onelakuak izango badira santuben jaijak, uxala ezpalego hermita, Elexa, ez altarrik, pekatu gitxiago egingo litzatekez, ez litzatekez ainbeste arima galduko. Ez, ez Kristinaubak, ezta au San-tubai fiesta egitia ezpada demoninuari. Nai badozubez zeuben Elexa, zeuben hermita, eta zeuen debozinoeko Santuba honradu, eurak

adoradu, euren jai, eta egunak gorde, begira ze
bizi modu euki ebeen, zelako bidetik ibili zirian,
eskatu Jaunari eurai jarraituteko indarra, eta gra-
zija; ifini onetarako eurak zeuben bitarteko, egin
egun aretan limosna, eta beste al daizubezan
obra onak: auxe da benetako fiestia, auxe San-
tubak nai daben debozinoa, eta auxe eurak zeu-
ben patroetzat eukitia. Modu onetan, eta bestian
eukiko dozube benetako fiestia. Amen.

XXXII. BERBALDIJA

*Jaungoikuaren legeko bigarren
aginduben ganian.*

Jaungoikuaren legeko bigarren mandamentu-bak aginduten deuskuna da, Jaungoikuaren izen santuba ez utsian arzeia, edo bardin dana, juramentu uts, edo faldorik ez egitia. Juramentuba da esaten dan gauziaren egijen ganian, Jangoikua testigutzat ekartia. Modu askotan juramentu egiten da: kurutzari, justiziako zigor, txuzo, edo beste ezaugarri edo señaleri mun eginagaz; Ebanjelijo, kurutze, edo justiziako zigorrian esku-ba ifinijagaz, esanagaz, juramentu egiten deutsat Jaungoiko, Trinitade, Jasu Kristori. Da bere juramentu testigutzat ekartia arako kriatura norzuzgan argijago, edo klarubago agiri dan Jaunaren ontasun, eta anditasuna: esango balitz legez: Ama Birjiniagaitik, zeruko Santubakgaitik, edo zerubagaitik. Baña au esaten bada arako gauzakgaitik, zeinzubetan eztan ezagututen, edo eztan ain argi agiri Jaungoikuaren guganeko

ontasuna; ezta juramentu izango: esango balitz legez eskuban daukadan ogijagaitik, auxe emen-txe naguana legez, Kristinau nazana legez, edo qq, gizon prestu nazanez, neure konzienzian, bada itzkune oneetan ezta Jaungoikua testigutzat ekarten. Beste esakune modu-bat guztiz sarri euki oi da auan. Ondo daki Jaungoikuak egija dinodana, edo guzurrik ez tinodana. Jaungoikuaren aurrian nago, eta daki zer dinodan, oneek dudazkuak dira. Esan gura badozu, ezin Jaungoikuaren jakiturijagandik ezer ezkutadu leitekiala, ezta juramentu izango. Baña, esan gura badozu Jaungoikua dakartzula, dinozun egijaren testigu, juramentu izango da.

Iru gauza aurkitu biar dira juramentuban ona, eta biar dan lezkua izateko. Egija, arteztasun, edo justizia, eta premina, biar, edo nezesidadia. Lenengo: egija; au da, ziur ziur egon biar zara dinozuna, dinozun moduban dala. Artuten deustube juramentu, Domeka gixoan Pedro Elexan egon bazan, ala ez: bada juramentu egiteko an egon zala. ziur ziur egon biar zara an eguala itanduten deustuben denporan; bada dudan bazagoz, baeguan ala ez, pekatu mortal egingo

dozu. Orregaitik juramentu arzen danian, bako-
tzak esan biar dau gauzia dakijan moduban, ziru
dakijana ziur, dudan dakijana dudan, ikusija iku-
sija kegez, eta enzuna enzuna legez, ezerbere
gitxitu. geitu, eta aldatu baga, bere gogo,
memorija, edo ustian daukana legez, bada auxe
da juramentu egijagaz egitia. Esan gura dot:
juramentubaren egija dago juramentu egiten
dabenak bere memorija, edo ustian daukan
moduban gauzia esatian, ez berez dana legez.
Esaterako: itanduten deustube, beguan ala ez
Juan urlija egunetan jazo zan errijetan; zuk uste
dozu ez eguala an, baña benetan an aurkitu zan.
Zuk juramentu egiten dozu etzala an aurkitu.
Juramentu au egijagaz da, bada zuk dinozuna
deritzun moduban da. Bestera. Eritzun zuri Juan
errijetan ikusi zendubala, baña benetam ez
eguan an, arzen deustube juramentu an bee-
guan; eta zuk gatxen bat etorri eztakijon, jura-
mentu egiten dizu ez eguala; guzurrezkua da
juramentu au, eta pekatu mortal; bada egija
bazan bere, an ez eguana, etzan au zure iritzija,
eta ezta zuk dinozuna zuri deritzunagaz bardin.

Ain da gauza biarra egija juramentuba ona, eta pekatu baga izateko, ze ezin inundik bera baga egin leiteke, gauzarik txikijen txikijenen ganian bad bere; eta alan txantxetan, burlaz. edo jolasian bada bere, pekatu mortala izangoda guzurragaz eginiko juramentua. Eta alan ezta atxakija one guzurragaz juramentu egiteko, etzakala inori kalterik etorri, bada pekatu mortala izateko asko da guzurragaz izatia. Jauna zer egingo neban? Neure adiskide andi baten kontrakua zan eskatuten eusten juramentuba; mesede andijak deustaz eginik, berak eskatu eustan, arren enengijala salatu; eta nekijan beste aldetik, nik guzurragaz jurmentu agiten ezpaneban kalte guziz ikaragarriak etorriko jakazala, eta bera, eta bere etxia betiko galduko zala; bada sartuko ebeen presondegi, edo karzela baten, edo betiko presidijo batera botako ebeen; salduko eutseen eukan guztija, eta bere emazte, eta umiak geratuko zirian kalien erdijan. Au ikusijak errukitu ninduban, eta nekijana legez etzakola inori etorten nire juramentutik, orrexegaitik uste izan neban, enebala pekaturik egiten guzurrezko juramentu agaz; edo obeto esaterren

uste neban obra miserikordiazko bat egiten nebala gizon, eta bere familia koitadubagaz. Bai nai ez, neure Kristinaubak. Bazenki zuk guzurrezko juramentu bat ez eginagaitik, mundu guztija galdu, erre, eta amaitu, edo akabaduko litzakiala bere, ezin orregaitik juramentu ori egin zinaike. Bazenki zuk guzurragaz eginiko juramentu bategaz zerura juango litzatekezala munduban dagozan, eta jaijoko dirian gizon guztijak, eta urtenik infernutik an dagozan gizon, ta demonino guztijak zerura betiko atseginetara iragoko litzatekezala, ezin orregaitik egin zinaike, eta pekatu mortal ikaragarri bat egingo zeunke; bada lenago da Jaungoikuaren honria, eta bere izen santubari zor jakan itzal, eta erreberentzija, mundu, zeru, mundutar, eta zerutar guztijen zoriona baño. badakizube zer dan guzurragaz juramentu egitia? Da, Jaungoikua guzurtizat eukitia, edo esatia Jaungoikua guzurtija dala; zegaitize norbait guzurren baten testigutzat dakargunian guzurtizat daukagu, bada bestelan ez geunke ekarriko bere testigutzat. Ze lotsabagakerija andijagorik egin leiyo Jaungoiko egija bera danari?

Juramentubak ona izateko bigarrena euki biar daben gauzia dam arteztasun, edo justizia, au da juramentubagaz zerbait eginduten bada, edo esaten bada zerbait egingo dala, modu onetan aginduriko gauzia ona izan biar da. Onenganian ze jakin biar dan, gero esango dogu. Iru-garrengo: juramentubak euki biar dabena da, premina edo nezesidadia: baña au baga eginiko juramentuba bakarrik izango da pekatu beniala, beste bijakaz, au da, egijagaz, eta justizijagaz bada. Alanbere ardura andi bat euki biar dozube juramentu egiteko ekandu, edo kostunbrerik ez arzeko, eta artu badozube kenzeko. Espiritu Santubak dirausku: Ez egizube euki juramentu pitian pitian egiteko oiturarik, guztiz dira andijak ekan-du onetatik datozen pekatubak. Sarri juramentu egiten dabena, ezta pekatu baga egongo. Juramentu asko egiten daben gizona pekatuz beteko da, eta ezta bere etxian gatxa faltako. Egija au ikusi, eta enzun oi dogu arako saldu-erosi, edo tratuban dabilzan askogan. Beti dagoz juramentu urtika. baneuka zeruba, esan oi dabee, opa deustazun beste, edo geijago ori kosta iatana legez. Eztaidala alderik egin ori baño geijago opa

ezpadeuste. Eneuke zerura juan gura irabazirik geratuten bajat. Onelako jurmentuak ezarteko oitura, edo kostunbria daukenak geijenetan egi-jagaz ezarri arren, ezta erraz noxian bein guzurragaz ez botatia, eta bein abijetan badira guzurragaz ezarten, eta badakuse sinistuten deutseta, eta irabazi ona ateraten dabeela, bildur baga ezarten oi ditubez; bada erraz da irabazi andi batek itxututia arimako begijak, eta ez ikustia pekatu onen anditasuna.

Izan ezkerro juramentuba iru gauza oneekaz, ez bakarrik ezta pekatu, baña dago biar, edo obligazinoe estuba egoteko justiziako nagusi, edo agintarijak eskatuten dabeenian; eta alan ezin ezkutadu zinaitekez, ezin iges egin zinaike artu eztaizuben eta onelako gauzarik egiten badozu, noribait badatorkijo kalte andiren bat zuk juramentu ez eginagaitik, askok dinue osotu, edo errestituidu biarko deutzazuzala, zuk juramentu egin ez guragaitik datorkijozan kaltiak. Errazoe andijaguagaz osotu, edo biurtu dituzuz zure guzurrezko juramentutik datozeanak. Pekatu mortal ikaragarri bat egingo dau, besteri guzurrezko juramentu erazoten deutzanak, edo erre-

gututen deitsanak bere aldera, edo fabore egin
daijala juramentu guzurrezko, edo falsua. Guztiz
dago zabaldurik oitura bat. Prestadu deitsazu
noribait diru, edo gauzaren bat, zor deitsu zer-
bait, saldu deitsazu baitura zerbait: elduten da
emona biurtu, edo pagetako denporia; eskatuten
deitsazu prestaduba, zorra, edo saldu deitsazu-
nen balijua; ukatuten deitsu. Eta bada zertatik
juramentu egin daijala, biurtu badeitsu, ala ez:
pagadu badeitsu, ala ez. Esan egidazu, badaki-
zu guzurragaz juramentu egingo daben, ala ez.
Bada badakizu, edo baderitzu guzurrezko jura-
mentu egingo dabela, ezin erzo zinaijo. Eztinot
au nik, ezpada San Agustinek: Euki eizube dirau-
tsudana zeuben ariman irrime eskribidurik, dino
Santu andi onek: Inori juramentu erazoten deu-
tsanak, jakinik guzurragaz egingo dabela, peka-
tu andijagua aegingo dau gizona ilgo baleu baño.
Kontu bada, Kristinaubak, arima bi galdu eztaiz-
ubezan diru, edo ondasun puska batgaitik: bata
zeuria guzurrezko juramentu erazoten deitsazu-
lako, eta bestia guzurrezko juramentu egiten
dabenena.

Lau modutakua da juramentuba, baijeztua, edo baijezkua, zematugina, edo amenazankua, biraozkua, eta aginduzkua. Lenegua da; jazo, edo irago dan guzaren baten ganian, alan dala, edo eztala juramentu egitia. Esaterako: Juramentu egiten deusat Jaungoikuari, eztodala ezer ostu. Auxe da oraingino azaldu, edo explikadu dogun juramentuba. Bigarrena da norbait gatx, edo gatxen btegaz zematu, edo amenazetia juramentubagaz. Egiten dau mutil batek gestakerijen bat, eta dirautsa bere aitak Jesu Kristoren kurutzari mun egiten deusala: auxegaitik ezteubat parkatuko galantak emon baga. Irugarrena da birauagaz egiten dana. Esaterako: enaila emetik jagi dinodana egija ezpada. Juramentu au izan leiteke iragoriko gauzaren batem ganian, eta orduban izan biar da leenago esan dirian gauzakaz: ian leiteke etorteko daguan gauzaren baten ganian, eta orduan izan biar da geri esango digun leezkua. Esaterako: Enaila bijar gabera bizirik eldu, orduko pagetan ezpadeusut deusudn zorra. Laugarrena da, aginduzkua, eta da izkini, prometidu, edo berbia emotia jurmentubagaz zerbait egingo dala. Iru juramentu oneek

baten sartuten dira, edo obeto esaterren, zema-
tutiagaz egiten dan juramentuba beti da agin-
duzkua; birauzkua izan leiteke, edo irago dan
gauziaren ganian, eta orduban da baijezkua ber-
bera, eta izan biar da bera leezkua; edo izan lei-
teke etorteko daganen gauzaren baten ganian,
eta azalduzik zer dan aginduzkua, dago esanik
zer dan, eta zelakua izan biar dan.

Juramentu egiten danian, zerbait aginduba-
gaz, nai dala zematuten danian, nai dala biraua-
gaz berbia emoten danian, iru egija, do uste euki
leikez. Bata da juramentu egiteko benetako
gogo, edo intenzinoiagaz egitia; eta irugarrena
agindu, edo esana egitia. Ara esangei bat. Zara
gizon aberats bat, zuaz zeure bidian, baña diru
baga. Urteten deustube lapurrak, eta ikusirik
eztaukazula ezer, juramentu erazoten deustube
iru egun barru bialduko deutsezubezala sei milla
errial, zematuten zaitubezala erijotziagaz jua-
mentu au egiten ezpadeutsezu. Zuk erijotzien
bildurrez egiten dozu. Iru modutan egin zinaike
juamentu au; lenengo benetako juramentu egi-
teko gogo edo intenzinoe baga, edo aoz, edo
berbaz bakarrik: modu onetako juramentuba

pekatu mortala da. Bigarren: euki arren juramentu egiteko intenzioia, etzara lotu gura, eta alan eztaukazu sei milla errialak oagadu, edo emoteko gogo, edo borondaterik. Juramentu modu au bere pekatu moratala da. Irugarren: egiten dozu juramentuba benetan, edo egiteko intenzioiagaz, baita bere daukazu sei milla errialak iru egun barru eruateko gogua, baña eztozu jaramonik egiten, edo irugarren eguna eldu arren ezteutsezuz eruan, edo bialduten. Juramentu au egin zendubanian etzenduban pekatu egin, baña egingo sozu benetan ezpadozu juramentubagaz emoniko berbia. Beraz lapur arei pekatu mortaeln bian bialdu, edo emon biar-ko deustedaz sei milla errialak: esango deustazu. Ez Kristinaubak. Onelako gauzarik jazoten bajatzu, zuaz zeure konfessoriagana, esan egijozu zer jazo jatzun, eta eskatu egijozu askatu zai-zala juramentuben bitartez artu zenduban biar, edo obligaziinoetik.

Itxi daiguzan gitxitan jazo oi dirian juramentu oneek eta begiratu daiguzan egunian egunian egin oi dirianak. Zerbait inori aginduten deustazunian, edo berbaren bat emoten deustazun-

nian, bardin da kastiguben bategaz zematu, edo amenazetan dozunian; bardin, birao egiten dozunian, euki biar dozu gogo, edo intenzinoia agindu, zematu, edo birao egin dozun gauzia egiteko, nai dala andija, nai txikija, nai dala onea, nai dongia; bada ezpadaukazu gogorik, edo borondaterik, pekatu mortala egingo dozu. Egiten dozu juramentu pobretxu bati lauzuri emongo deutzazula; bada ezpadaukazu emoteko gogo, edo intenzinoerik, pekatu mortala egiten dozu, gauza txikija bada bere. Dakutzu zeure semia gestakerijetan dabilela, eta dirautsu, milla demoninok eruan naijela afaririk emoten beubat; au esan zendubanian bazeunkan afaririk ez emoteko gogo, edo intenzinorerik, etzenduban pekatu mortalezko juramenturik egin; baña bazeunkan afarija emoteko, edo ez kenzeko usterik, pekatu mortala egin zenduban. Eskatuten deutsu batek esan daizula guzurtxu txiki bat, bildur dalako egiraken bat egin ezteijuen, eta zuk gauza au estaldu daizun, gurarijagaz, esaten deutsu egin deijozula juramentu, guzur au esango dozula, eta zuk egiten deutzazu juramentu. Bada juramentu au egin zeuntsanian bazeunkan

gogo,edo intenzinoia guzurra esateko, pekatu beniala bakarrik egin zenduban, baña ezpazeunkan guzurra esateko usterik, pekatu mortala egin zenduban. Zure juramentuba bada pekatu mortalen bat egingo dozula, pekatu mortal egingo dozu nai euki daizula juramentubagaz agindu dozuna egiteko goguam nai euki eztaizula. Badaukazu, egiten dozu pekatu mortal, bada eztauka juramentu orrek biar leukian arteztasun, eso justizija. Ezpadaukazu, egiten dozu pekatu mortal, bada eztauka juramentu ori guzurrezko, edo falsa dalako. Exenplu bategaz au argituko dot. Esaten deutsuz lagun batek berba astun batzuk, emoten deutsazu kerella bat, ezagututen dau arek deungaro egin dabena, eta bialduten deutsu adiskide baten bitartez parka eskatu, eta bakiak egitera, eta zuk dinozu: eztaidala Jaungoikuak zeruba emon, orri parkatuten badeutsat: pekatu mortala egin zenduban: ez parkatuteko intenzinoiagaz bazan, ez eukalako biar zan arteztasun, edo justizija, eta bazeunkan, etzalako egijagaz.

Jakinik ze gogo, edo intenzinoe, eta uste euki biar dan aginduzko juramentuban, ikusi daigun

zelan bete, edo kunolidu biar dan, eta ze pekatu dan ez kunplietia. Agindu, edo prometidu dozu-na, nagusi, edo grabia bada, pekatu mortal izango da, ez jaotia. Egiten dozu juramentu, ogei errial emongo deutzazuzala pobre bati, emoten ezpadeutzazuz pekatu mortal egingo dozu. Aginduriko gauzia txikija bada, pekatu egingo dozu. Aginduriko gauzia txikija bada, pekatu benial izango da, ez emotia. Juramentuba bada pekatu egingo dozula, eztozu eukiko juramentu au zer zaindu; nai izan deila mortala, nai izan deila beniala. Egiten dozu juramentu eztozula meza enzungo jaijegunen baten, eztozu gorde biar juramentu au, eztozu pekatu barririk egingo meza enzunagaz, eta egingo dozu pekatu ez enzunagaz. Egiten dozu juramentu guzur txiki bat esango dozula, eztozu pekatu egingo ez esanagaitik. Bardin da egiten badozu juramentu eztozula egingo gauza onen bat. Egiten dozu juramentu eztozula meza enzungo astegunian, eztozula errosariorik errezaduko, limosnarik emongo; eztaukazu onelako juramenturik jaoteko biar, edo obligazinoerik. Jazo bere leiteke juramentu ona, edo modu onian egina ez betetia

edo kunplietia, eta orregaitik ez pekatu egitia, eta eu izango da arako juramentubagaz emoniko berbia, edo pbeto esaterren ain modutan aldatu, edo mudetan danian, ze edonok ezagutu leike, ez ebalá euki goguan gauza au egitia oran dagan moduban. Esaterako: egiten dau zure semek okerkerija bat zegaitik merezi daben zuk kastigetia. Egiten dozu juramentu kastigu au emongo deutzazula. Ezagututen dau zemiak bere gatx egitia, humilduten jatzu, parka eskatuten deutsu, emoten deutsu berba sendua ezta-beña osterá elako gauzarik egingo; bada, parkatu zinaijo, eta eztozu pekaturik egingo, badakizu jaongo dabela deutsun baija, edo berbia. Baña, leenago bere emon badau onelako berbia gorde baga, eta baderitzu aurrera eruango dabela bere ekandu zitala, bete biarko dozu zeure juramentuba, eta ezin parkatu zinaijo.

Erazoginza

Arritu, gogortu, eta mututurik geratutekua da ikustia ain zabaldurik juramentuba. Alde guztije-

tatik etxian, eta kanpuan, soluan, eta bsuan, plaza, eta kalia, jokuan, eta tabernan, ezta entzuten juramentuba baño. Ugazaba, eta krijaduak, guraso, eta semiak, senar, eta emaztiak. Zer dinot? Oraindio luurrian ozta ozta agiri dirian umetxubak eztakije berbarik egiten juramenturik ezarri baga. Baña zelako juramentubak? Zelako birauak? Ezin sinistu leiteke Kristinauben artian ain ikaragarriak ezarten danik, egunian egunian, eta ordurik ordura enzungo ezpalira. Batek dino milla demoninok infernura eruan naijela, au alan ezpada; bestiak enaila bizirik jagi dinodana alan ezpada. Beste batek esaten dau: enaijala Jaungoikuak salbadu dinodana alan ezpada. Ain dira bildurgarriak enzuten dirian biraozko juramentubak, ze egijagaz izan arren bere guztijak dagoz ikaraturik, eskandalizaturik, eta arriturik. Baña ezta au deungen dana. Bein ekandu zital au artu ezkeru ezta begiratuten, esaten dana egija dan. ala ez, alan dan, ala ez, egiten dan juramentuba bete, edo kunplietako gogo, edo intenzinoerik dagan, ala ez. Eta zer aurreratuten dabe oneek euren birao guztijakaz? Ezerbrez: bada ain moduatan dago zabaldurik

birauak ezartia, ze egiten dabenian, zein da eztabenian; eta esan oi dabe; Ez jaramon orri, bada guztiz da biraokarija, biraorik andijena botaten dabenian ordunbantxe dino guzurrik andijena. Alan neure Kristinaubak, ezta mirari Jaungoikua ain aserraturik egotia; ainbat gatx. ainbat lan, ainbeste neke, ainbeste gerra gura ganera bialdutia, bere izen santuba oin azpijan zapaldurik darabilenen ganegarri au, oraindio bere dakuskuzan, eta ikusi dituguzan baño kastigu andijaguak ikusiko dira. Kendu begi fedia dauken Kristinauben ertetik ekandu madarikatu au. Ezpedi artu auan izen benegarri au itzal, eta bildur santu bategaz baño, eldu gaitez an gero Aingerubakaz batera alabetara zero, luur, eta infernuko guztijak adoretan dabeen izena. Amen.

XXXIII. BERBALDIJA

*Jaungoikuaren legeko irugarren
agindubaren ganian.*

Jaungoikuaren legeko irugarren mandamentubak aginduten deuskuna da, Jaijak santututia, edo gordetia. Gauza biaginduten jakuz onetan: bata ez biarrik egitia, bestia Meza anzutia. Orain bakarrik berba egingo sogu Elexako agindu, edo mandamentubak adi erazo daiguzanian. Aginduten jaku bada, ez biarrik egitia Domeka, eta Jaijetan, ez guztijetan, ezpada Elexiak ez biarrik egiteko aginduten dabenetan; bada Jai-arintean edozein biar egin leiteke. Ezagututeko zer dan emen galazoten jakuna, jakin biar dogu biar modu bi dagozala. Batzuk dira zeinzubetan arimiak, edo bere zenzunak egiten daben lanik andijena, eta daukan alde, edo parterik geijena. Onelakuak dira irakurri, eskribidu, kontubak, atera, kantadu, eta beste onelakuak. Oneek egin leitekez Jaijegunetan. Beste batzuk dira zeinzubetan neke, eta lanik andijena daroian gorpu-

tzak. Onelakuak dira, argin, arotz, nekazale, errementari, eta beste ofizijokuak egin oi ditubezan lan, eta biarrak. Onexek dira bada, Jaijegun eta Domeketan galazoten jakuzan biarrak, eta alan egiten dau pekatu mortal argin, erotz, jostun, errementari, atxulari, nekazale. urregin, ikatzgin, edo beste edozeinbere onelako bere ofizijo, edo lanian biar egiten dabenak. Onezaz ostian, dago eragotzirik Jaijegunetan saldu-erosi, edo tratubetan ibiltia, eta zaldi, mando, edo burdijakaz batetik bestera ibiltia; eta alan egiten dabee pekatu euren dendak jaijegunian zabalik daukezanak, eurretan salzen dabeela, bardin zein da astegunian, edo geijago. Egiten dabee pekatu zaldi, mando, edo burdijakaz daroienak zimaaur, edo karia solora, arrija obrara, egurra edo otia etxerz, ikatza olara, edo lorren bat, edo biajeren bat eurakaz, edo eurak kargadurik abijetan dabeenak.

Dago bere eragotzirik Jaijegunian auziren baten juramentu, edo pruebak arzeia, sentenzia emotia, eta egiten dabee pekatu testigubai juramentu erzen deutseen Juez, eta Eskribauak, sentenzija emoten dabeenak, eta onen ganian

euren ofizijoko gauzaren bat egiten dabeen Eskribau, Prokuradore, Notarijo, eta Juez Letradubak. Ez bakarrik egiten dabe pekatu modu onetan biarra egiten dabeenak, baita bere besteri biarra erazoten deutesenak, eta alan egiten dabe pekatu gurasuak aginduten badeutse semiai onelako biarrik egiten: bardin euren agindura dagozan semiai galazoten ezpadeutse onelako biarrik egin nai dabeenian. Egiten dabe pekatu dendari, zapatari, edo beste lan, edo ofizijoko bateko ugazabak eginduten badeutsee euren krijadubai, jaijegunian biarra egiten eurak egin ez arren bere, eta bardin egingo dabee galazoten ezpadeutse eurak egin nai dabeenian.

Lau gauzagaitik egin leiteke biarra jaijegunian pekatu egin baga, edo ezta pekatu mortal biarra egitia jaijegunian. Lenengo: biarrian egiten dan denporia gitxija izanagaitik. Bigarrenengo: Jaungoikuaren onra, eta Elexiaren onerako egiten dan biarra izanagaitik. Irugarrenengo: karidadiagaitik; eta laugarrenengo: premina, edo nezesidadiagaitik. Lau gauza onexek azaldu, edo explikadubagaz, agiriko da artez, ala okerrak dirian jaijegunian biarra egiteko ifini oi dirian atxakijak.

Lenengo: ezta pektau mortal denpora puska baten biarra egitia Jaijegunian. Eztago gauza jakinik, edo ziurrik. zenbat denpora edo ordu emon biar dirian biarrian pekatu mortal izateko. Batzuk dinue ordu beterik aurrera iragoten bada pekatu mortal dala: beste batzuk ordu birik aurrera iragoten ezpada eztala pekatu mortal. edo bakarrik dala benial. Auxe da geijenak dinuena. Jauna jaijegin baten adobazain bat ezarri neuzan erropiari; esango dau emakume batek. Eta esaizu bazeunkan ori egiteko premi-na, edo nezesidaderik? Ez Jauna. Eta zenbat denpora emongo zenduban orretan? Apur apur bat. Esaizu zenbat. Eztakit bada, Jauna: izan zatekian orditerdi, edo iru geijen bere. Emon zenduban arratsalde guztija adobazain orregaz? Guzti guztija ez, baña izan zatekian benturaz geijena. Onelakuak geijenetan pekatu mortal egin oi dabee, Abijetan dira adobazain bat ezarten usterik bertatik amaitu, edo akabaduko dabeela, agertuten da beste zulo bat; augaitik ezin itxi neiho; zarratuten dau au bere: dakusee gero beste urratu bat, augaitik bada ezin itxi neiho, eta modu onetan iragoten jakee arratsalderik

geijena, edo benturaz guztija, nundik, eta nos eztakijela. Izan bere leiteke pekatu moratal izatia, edo pekatu mortal egitia biarrian denpora gitxi emon arren, eta da eskandaluben bat emoten danian. Esaterako: nekazale bat ifiniko balitz biarrian soluan, guztijak dakusela, argin, edo arotz bat kalien erdijan, ezpalebe ordu beteko biarra baño bere egingo, pekatu mortala egingo leukee emoten dabeen eskandalubagaitik.

Bigarrenago: egin leiteke biarra piedadiagaitik, au da, Jaungoikuaren onrarako dirian gazuetan, eta alan ezta pekatu kanpaiak jotia, altarak konpondutia, Elexia apaindutia, kandeleru, lora, edo santu, eta beste jai andijetarako biar dirian gauzak batutia, eta euren lekubetan ifintia; bardin da Elexia egun aretarako garbitutia. Beste biar modu batzuk dagoz zeinzuk Jaungoikuen honrarako, eta Elexien onerako izan arren ezin eeuretan biarririk egin leitekian jaijegunian. Zirarginak egiten daben kaliza, kandeleru, edo lanparia, Jaunaren honra, eta Elexien onerako da; arginak egiten dituzan ormak Elexa barrija egiteko, edo zaarra konponduteko; jostunak egiten ditubezan kasulla, eta albak; arotzak egiten daben

erretablua Jaunogikuaren honra, eta Elexia apainduteko dira, baña alanbere ezin oneek egi-ten ditubezanak egin leikee biarrik, bada eztira egun berekuak, ezpada denpora luzekuak. Irugarren-engo: egin leiteke biarra Jaijegunian karidadia-gaitik, eta alan egin leitekez gorputzari dagokijozan, edo gorputzeko obra errukizko, edo miseri-kordiazkuak, neke andijak irago biar badira bere, eurak egiteko. Euki leiteke gexuen arduria, eta egin onetarako biar dan guztija. Janzi leitekez billoxik dagozanak, nai dala erropa barrijak eginagaz, nai dala zaarrak konpondubagaz: luurpetu, edo enterradu leitekez ilak, atera leiteke premina, estura, larritasun, edo troka, eta lupatzen dagan proxima; baita bere atera, edo lagundu ateraten bere idi, bei, zaldi, nai mandua. Berba baten egin leiteke jaijegunian proximuaganako karidadiak eginduten daben guztija, dan neke-tsubena, eta luziena izan arren.

Laugarren-engo: egin leiteke biarra jaijegunian biar, edo premina benetakua daganian. Onetan bai aurkitu, edo obeto esaterren billatu, eta asmau oi diriala atxakijak! Orregaitik luzatuko naz, azaldu, edo expliketan nos dagan biar, edo

premina benetakua, eta nos eztaguan. Gauza batzuk dira egunian egunian biar dirianak, edo zein角度 egitia ezin luzatu leitekian, zelakuak dirian, edatia, jatia, zauriak kuretia, gexuai osasungei, edo medizinak emotia, eta beste onelako asko. Onetarako biar dan guztija egin leiteke Jaijegunian, eta alan konpondu, edo gisadu leiteke jatekua, ekarri edatekua, egin oiak, garbitu etxia, egunian egunian oi dan moduban, baña ez arako denporarik denporara, edo urterik urteraneke andijagaz egin oi dana legez. Mediku, eta osagile, edo Zirujaubak egin leije euren ofizijuari dagokijona, kuradu, sangradu, aiudak emon, eta prestadu onetarako biar dan guztija. Botikarijuak konpondu leije edateko, enplastu, edo beste osasungei, edo medizina bertatik biar dirianak, eta ezin luzatu leitekezanak, baña ez arako denpora luzaroko egin, eta gordetan dirianak. Epaille, edo karnizerubak aragija, tabernerubak ardaua, ogiginak ogija, abazerubak orijo, sardina, eta bakallaua, emon, edo saldu leije, Baña epailiak errijan preminarik ezpadago, ezin il leije aberem edo ganadubak, ez ogiginak uruna eralgi, ez labia isio, ez ogia egin, ez erre leije;

bada gauza guzti oneek, epia emoten dabe, eta egin leitekez egun baterik besterako.

Premina, edo nezesidade modu bi jazo leitezke, bata inundik eperik emoten eztabena, eta bertatik erremedijetan ezpada, kalte andiak ekarriko dituzana. Su arzen dau etxiak, sabaijak, basuak, edo ikastogijak; dator urol andi bat, daukazuz ibai bazterrian ol, zur, gari, lasto, edo beste gauzaren batzuk; ainbat lasterren alegina egiten ezpada suba amatetako, edo erreka onduan dagozan gauzak andik kenzeko, guztiz andiak izan leitekez jazoko dirian kaltiak: orduan berbertatik asi leiteke suba amatetan, edo pelleburuban dagozan gauzak andik kenzen jaijeguna izan arren, eta au ez bakarrik egin leike euren jaubiak, baita beste edozein lagundu nai deusanez. Beste premina, edo nezesidade batzuk eztira ain epe gitxikuak, zelakuak dirian, gal-ebaria, galjotia, matsa batzeia, edo bindimiania. Oneek egiteko arako bildurra daguanian galduko ete dirian eguraldi txarragaitik, onduen onduen da egotia Arima-zain, edo Kura Jaunagaz, eta artutia bere itundute, edo konseju, eta lizenzija; eta ez erabagi zeuben burutik Jaijegu-

netan biarra egiteko gal-ebaten, gal-joten, edo bindimina, edo beste edozeinbere biarretan. Beste batzuk eztauke premina, edo esturarik asteko, baña bein asi ezkerro ezin itxi leikez kalte andi baga. Onelakuak dira ikastobija, karobija, arragoa, eta onelakuak. Jauna, esango dau onetarik batek: Jaijegin baten, bi, edo irutan biarra egin dot, baña ezin neikian besterik; ikastobija, edo karobija neukan subagaz, eta itxi baneu ikatz guztija erreko jatan, eta etzatan karia ondo egosiko. Eta nos asi zenduban karobija, ikastobija, edo arragoe orren suba? Edo nos su emon zeuntsan? Barijaku, edo Zapatuban. Bazeinkijan orduban su emon ezkerro Domekan biar egin biarko zendubana? Ori bai Jauna. Zegaitik bada itxi etzenduban asteleneraño, edo ze kalte etorkizun orduraño itxitetik? Ze kalte etorkizun zuri, edo ugazabari luzatubagaz? Ez etorren kalterik, baña ainbat lasterren egin edo amaitu gura neukian neure lana. Esaizu egija: Domekia aprobe txatarren, eta eukiterren orduban biarra egiteko atxakija, su emon zeuntsan Bariku, edo Zapatuban. Au pekatu mortala da.

Nok esan leikez edozeinbere ofizijotan billatu oi dirian atxakijak Jaijegunetan biarra egiteko? Bakarrik esango ditudaz ezaunenak. Zapatari, eta jostun, edo dendari asko abijetan dira biarrian zapatuban, edo jai besperan, eta dagoz eurak, eta euren krijadubak biarrian Domeka, edo Jaijegun sentira artian. Esaten bajake onei: Eztakizu gaberdijan asten dana Jaijeguna? Eranzuten dabe. Bai Jauna. Zelan bada egon zara biarrian egun sentiraño? Zer egingo neban ernzuten dabee, egun artako agindu nituzan zapatak, edo soñekua, eta akabetarren egon nintzan biarrian. Bada zetarako agindu zeuntsazan egun atarako? Etzenkijan ezin ordurako egin zinaikezana? Bai Jauna: baña bezeruba zan, eta egin ezpaneutsa, edo agindu ezpaneutsa, beste batengana juango zan, eta ni galduko neban bezeruba. Beraz zuk naijago dozu galdu Jaungoikua, bezruba baño, zeure arimia, zeure irabazija baño. Oneek orduterdi, edo bi baño geijago egiten badabe biarrian, edo aginduten badeutse euren otsein, edo krijadubai, pekatu mortala egingo dabe. Eta zer egin leije onekuen krijadubak, eta semiak? Noxian bein, edo berandurik

berandura baño eginduten ezpadeutse onelako biarrik, eta badaki eurak biarra ez eginagaitik errijeta, eta aserria izango dana eztabe pekatu-rik egingo: baña sarri bada, eta nai badau ugazabak aurrera juan bere teman, itxi biar dabe onelako ugazaba, eta ezpadauke besterik noragana juan, billatu daijen artian biarra egin leije jaijegunetan. Seme alabak barriz esan beijue euren konfesoriarri zer jazoten jaken, eta oneek esango deutse ze egin biar dabeen.

Begiratuten badogu erri askotan dendakaz jazoten dana, ikusiko dogu ezin ezagutu leitekiala jaijeguna, ala asteguna dan. Denda guztijak dagoz idigirik, guztijak jentez beterik, eta guztijetan euren saldu erosi, eta tratubetan. Enzun daiguzan denderuben atxakijak, eta igarriko dogu pekatu mortal aegiten dabeen, ala ez. Jauna, dinue, erri onetan oitura, edo kostunbria dago jaijegunian dendak zabalik eukitia. Ez ta oitura, edo koztunbria, ezpada usadijo gestua. Obispo, Arima-zain, eta Predikadoriak beti dagoz bere kontra. Obispo, eta Batzar, edo Konzilijuak daukez deskomunioiak ifinirik au egiten dabeenen kontra; orregaitik ezin esan leiteke oitura,

edo kostunbre dana, ezpada irabazi gurarijak
asmaduriko ekandu zitala, eta usadijo dongia.
Jauna, beste guztijak bere dendak zabalik dau-
kez, eta nik salzen ezpadot, bestiak salduko
dabe. Esaidazu, bestiak infernura duazalako, zuk
bere jarraitu nai deutsezu? Bestiak guzurra
dinuelako, engaletan dabeelako, dongaro neur-
tu, edo pisetan dabeelako, zuk bere egin zinaike
beste onenbeste? Edo deritxu bestiak pekatu
egiten dabeelako, eztozula zuk egiten? Bestiak
salzen badabe dendia idigirik daukelako zuk sañ-
duko zeunkiana, egiten bere dabe zuk egingo
zeunkian pekatuba, eta obe da diruba galdu, edo
ez irabazi, arimia, eta Jaungoikua galdu baño.
Jauna, jaijegunian baño eztatoz baserrikuak
kalera, eta orduban salzen ezpajake, obra txarra
egiten jake. O baserrikuakganako onguria! Nok
ori erazoten deutsu? Baserrikuai deitsezun amo-
dijuak, ala irabazi guriak? Egija esn nai badozu,
ezteutsu zuri ardura andirik emoten baserrikuari
egiten jakan kaltiak, ezpada ezin saldubak. Eta
zegaitik eztatoz astegunian biar dabeena eroste-
ra? Dakijelako jaijegunian bardin, zein astegu-
nian dagozala dendak zabalik, eta salduko jakee-

la biar dabeena. Balekuse jaijegunian eztala ezer salzen, zarraturik dagozala denda guztijak, eurak artuko leuke moduba erosteko astegunian biar dabeena. Baña esan eztagizuben laarregi estututen dodala: emon daigun ezin baserrikuak jatsi leitekezala astegunian kalera, edo Elexondora, eta orregaitik oneek erosi leikeila biar dabeena jaijegunian, eta zubek saldu eurai pekatu egin baga; esaidazu, nori salduten oi deutzazu jaijegunian? Baserrikuari bakarrik? Dakusku-na da guztijentzat daguala zabalik dendia erbes-tekuentzat, nai errikuentzat, baserrikuentzat, nai kale, edo Elexondokuentzat. Edonori salzen jaka, ez bakarrik janari, edari, edo beste eguneko biar dana, baita bere oijal, ari, miesa, seda, eta beste edozeinbere gauza. emetik ikusten da agiri agirijan utsak diriala denderuben etxakijak, dendak zabalik eukiteko Jaijegunetan.

Jauna, sarri Jaijegun arratsaldetan biarra egin dot, esango dau emakume batek, josten egonaz, baña enau inok ikusi. Pekatu mortala izateko ezta biar inok ikustia. Isilik ostuten dabenak, isilik, eta inok ikusi baga bere aragijagaz loikerijak egiten dituzanak, ezin esan leike eztabela peka-

tu egin inok ikusi eztabelako. Bardin da bada, jaijegunian biar egitia inok ikusi baga. Jauna, senarrak, semiak. edo krijadubak bijaramonian biar eban erropia adobetan egon nintzan. Astegunian egon deitezala jaijeguneko soñekuagaz, bestrik ezpadauke, zuk bestia adobetan dozun artian, bada au geijen geijen bere egun erdi bat izango da. Ay Jauna, astegunian eztaukagu astirik adobetan ibilteko; soluak, basuak, etxeko arazubak, eta beste ardurak daruagubez astegunak, eta ezteuskube beste gauzatarako astirik isten, eta orregaitik jaijegunian egiten ezpadogu joste puskia, geu, eta geure etxekuak alsi eginik ibili biar gara. Onegaz uste dabe eranzuten deusela esan al leikijen guztijari; baña, artu gura balebe astegunian lanbian zerbait adobetako moduba, ondo, eta ondo konponduko leijez euren, eta etxekuen soñekuak. Beste gauzarik da krijadu, krijadetan euren ugazabak astirik, edo denporarik emon gura ezpadeutse, josi, adobadu, edo konpondu leijez euren erropak jaijegunetan. Onelako preminan aurkitu ezteitezan, ugazabak itxi biar deutse arratsalde bat, edo beste, egun bat, edo beste euren jastekua konpondu, edo

adobetako, aurkitu ezteitezan jaijegunian josten egiteko preminan: baña nagusijak eurak euren borondatera daukezalako egunak, nai ezpadabe eztira egongo Jaijegunian biarra egiteko nezesidadian.

Erazoginza

Begiratuko balebe Kristinaubak biar leukiena legezm zetarako ifini zituzan Jaunak jai, eta domekak, ez litzateke aurkituko eurretan biarrik egingo leukianik. Egun guztijak dira Jaunarenak, eta nai izan baleu agindu leikegun guztijak gordetia: baña ain da andija bere guganako amodijua, ze asteko zazpi onetatik bat bakarrik gorde eban beretzat, eta beste seirak itxi euskuzan geuretzat. Eta alanbere ain izango gara zekenak ainbat mesede egin deuskuzan Jaun onegaz, ze ezteutsagu emongo eguntxu au bere? Ukatuko deutsagu eskari puskatxu au? Nok sinistu leike, einbestera eldu leitekiala Kristinaubaren bere Jaunaganako gogortasun eta esker deungia egunian egunian ikusiko ezpalitz! Itxumendi bildur-

garrija benetan! Baña oraindiao bere geijago, eta geijago arrituko gaitu Kristinauben fede gitxijak, begiratuten badogu zetarako nai daben Jaunak jai eta donmekak santututia. Eztau Jaunak bereztat biar egun au. Zer geitu, edo azi ginai guk bere honra, bere gloriya, eta anditasuna? Ezerbere ez, ezta apur puskatxu bat bere. Ain zan andi, ain honradu, ain gloriyaz betia mundu au egin baño lenago, zein da mundu, zeru, Aingeru, eta gizonak egin ezkeru. Nai badau bada jaijak jaoitia, da geure onerako. Ara zelan.

Guk gorputza, eta arimia daukaguz? Gorputza luur zati bat, zimaaur puska bat baño ezta; gaur bada, bijar ezta; gaur oñen ganian benturaz arrorik, etxe, edo jauregi ederretan, erropa ederez apaindurik, bijar obija, edo sepultura baten lurrez estaldurik, arrak janik, eta usteldurik. Arimia barriz beti betikua da, Jaungoikuaren alabia, zeruko herederu, eta Aingeruben lagun. Bijoen arduria euki daigun gura dau Jaungoikuak; gorputzarentzat biarra daigun, emoten deuskuz asteko sei egun, eta bat bakarrik arimiagaitik biarra egin daigun. Eta alanbere egun bakar au bere kenduko deusagu gorputzari? Aste guztija,

goxak, arratsaldiak, egunak, eta gabak iragoko dira gorputzagaitik, edo biarrian, edo lanian, edo arduran, edo lotan. Elduten da jaijeguna, zeintetan euki biar dogun arimien arduria, egin biar dogun alegina beretzat orabazteko zeruko ondasunak; eta orduban bere eztoгу ezer egin gura-ko geure geure arimiagaitik? Ardura guztija eruango deusku gorputzak? Eztira asko asteko sei egun oso? Itanduten Bajtzu zein dan lebnago, gorputza ala arimia? Bertatik eranzuten dozu: lenago dala arimia gorputza baño. Nok sinistuko deusku alan uste dozula, ikusirik zer egiten dozun gorputzagaitik, eta zer arimiagaitik? Kristinaubak, idigi daiguzan nosbait fedeko begijak, ikusi daigun zenbat geijago balijo dabeen gure arimiak gorputzak baño, eta ezauera onegaz santutu daiguzan gitxienez Domeka, eta jaijak. Astu daiguzan orduban gorputzeko biarrak, aurreratu, eta geitu daiguzan arimako ondasunak; bada oneek ez bakarrik izango dira arimien onerako, baita bere gorputzenerako; bada elduten bada arimia zorioneko izatera zeruban, araxe juango da gorputza bere. Amen.

XXXIV. BERBALDIJA

*Jaungoikuaren legeko laugarren
Mandamentuben ganian, nun
azalduten dan, zer zor deutesen
samiak gurasuai.*

Jaungoikuaren legeko laugarren mandamentubak aginduten dabena da, gurasuak honretia. Iru gauza dira mandamentu onetan semian aginduten jakezanak, euren gurasuai obeditia, lagundu, edo sokorru emotia, eta erreberenzija eukitia. Auxe da benetako honretia. Lenengo zorra da obediencia; au da, seme, alabak egon biar dira euren gurasuen agindura, humiltasun andi bategaz, laster, eta bertatik egiten dabeela eurak aginduten deutesena, erremuskada, eta mukerkerija baga, eta ez egin gura ibili baga; bada aginduten dabeena bada arima, gorputz, etxe, edo etxekuen onerako, izanik gauza nagusi, edo grabian, pekatu mortal egingo dau seme, edo alabiak, obeditan ezpadeutse. Egiten dau pekatu mortal mandamentu onen kontra

semiak: Lenengo: bere gurasuen etxetik iges egiten badau, edo esten oi dana legez, txarritan badabil, bere, gurasuen eginduba ez egiterren.

Bigarrngo: obeditu nai ezteutsanak gurasuari, eginduten deutsanian ez juateko taberna, joko erromerija, edo jolasera; ezteila batu urlija lagun ekandu zitalak daukazanagaz, itxi daila urlija neskaila, edo mutilegaz daukan adiskidetasuna.

Irugarrenko: agindu arren gurasuak jua deila Meza nagusi, Doctrina, Sermoe, edo beste Elexako gauzetara, inos jua nai eztabenak: bialdu arren konfesadu, eta komulgetara ilabeterik ilabetera, edo konbeni dan denporan jaramonik egiten ezteutsanak, modu onetan urterik urtera luzatuten dabela konfesinoe, eta komunioia. Egiten dabe pekatu mortal seme, alabak egindu arren gurasuak denproaz batu deitezala etxera, berandu artian etxetik kanpora dabilzanak, edo dagozanak. Pekatu onetan jausi oi dira seme alaba azijak, zeinzuk ikusirik zarturik dagozala euren gurasuak, eta ezin kastigadu leijazala, euren esan, euren itundute, edo conseju, eta bentura euren negarrai jaramoan baga, egiten dabeen goguak emoten deutseen guztija.

Laugarrenge: egiten dabe pekatu mortal, arako seme euren gurasuak emoten deutsezan ofizijuak ikasteko ardurarik artuten eztabenak. Bialduten ditubez gurasuak euren semiak, batzuk estudietara, beste batzuk eskribietan, eta kontetan ikastera, oneek arginza, edo arotzilara, arek errementari, zapatarari, edo dendaritzara, eta beste ofizijo, edo lanen bat ikastera: seme alabak barriz gastetan dabee euren gurasuen izerdija, eta arrastaka irabazi aldaijena, eta estudi-jau, kontubak, ed ofizijua ikasi biarrian, iragoten dabe denpora guztija alperkerija, ibilera, joko, jan edan, eta benturaz deungagoko gestakerijetan, eta uste dabeenian gurasuak daukela seme jakitun bat, eurai lagunduteko izango dan bat, aurkituten dira seme alper, nagi, jokolari, ordi, eta ezer ezta kijan bategaz. Eta zenbat gatx ez ete datoz gaztien alperkerija, eta artutem daben ofizijua ikasi biarrian, ekandu zitaletan sarturik ibiltetik? Eztakije ezer, eztauke ogija irabazteko modurik, ez konduten dira, ezin irabazi dabe eurentzat, eta semientzat biar dabeena, eta urtetan dabe guztijak lapurrak, ordijak, tranposo, eta engañalarijak. Bostgarrenge: egiten dabe

pekatu mortal euren gurasuai ostuten deutse-
nak, gaur garija, bijar artua, orain diruba, gero
aragi, urdai, edo beste gauzia, ez bakarrik lapur-
kerija dalako, baita bere modu onian, eta santu-
ban gastetako, ezpada ardai, joko, erromerija,
merijenda, edo benturaz txarraguetarako, eta
gurasuak nai ez leukienerako. Seigarrengo: egi-
ten dabe pekatu mortak seme alabak euren
gurasuen borondate baga, eurai ezer esan baga,
eta benturaz jakinik eurak deungaro eruanao
dabeela, ezkonzako berbia emoten dabeenak.
Kontu onegaz mutil, neskatilak itxutu etzaizan
zeuben aragijak. Onelako ezkonzak ezin zorionik
ekarri oi ditubez aserre, atsakebe, eta alakr ezin
ikusijak, beste deungagorik eztanian.

Gauza bitan ezteutse obediui biar semiak
gurasuai: bata da, pekatu egitian, bada lenago
da pekatuba galazoten daben Jaungoikuari obe-
dietia, aginsuten daben gurasuari baño. Dirautsa
gurasuak bere umiari, zuaz urlija solora, eta ostu
egizu garija, arbija, bedarra, edo frutia; eztabe
umiak egin biar onelako gurasuen aginduba, eta
egiten badabe pekatu mortal egingo dabee.
Aginduten deutsa gurasuak bere umiari, guzu-

rren bat esan daijala; ezteijola parkatu etxiari gatxen bat egin deutsanari; ezteila beragaz inos adiskide izan; bengadu daijala arek eginiko kaltia, ezteutsa onetan obediu biar semiak gurasuari. Aginduten deutsa gurasuak alabiari doiala urlija etxetara; edo ugazabagana serbietara, bildur da alabia, ara badua, eztala garbi biziko, bere arima, eta osotasuna galzeko pelleburuan ifinteko. Beste gauza, zeinetan eztauken zer obediu seme alabak gurasuai, da bizi modu, edo estaduben aukera, edo elezinoian; bada onetan baxotxa da bre borondatien jaube. Baderitza semiari, edo alabiari, ezteutsala Jaungoikuak deituten eskonzara, bere gurasuak aginduten badeutsa bere ezkondu deila, eztauka berari obediu biarrik. Gurasuak nai leukee euren seme, edo alabia, ezkondu deila urlija mutilegaz, edo urlija neskatilagaz, dote ona daukalako, ondasun andijen, edo hazienda zabalen jaube dalako. Daki semiak, daki alabiak. etzakala konbeni, bake onian biziteko gurasuak nai leukien orreekaz ezkondu, bada eztauke zer obediu euren gurasuai. Alanbere beti izango da ondo. semiak estaduba autu, eskojidu, edo artu nai dabeenian

gurasuai esatia, eta baija, eta bendizinoia eskatutia.

Bigarren semiak gurasuai deutesen zorra da euren laguntasuna, edo sokorruba, au da, emon biar deutse, al daijela. janarija, jaztekua, eta beste biar dabeen guztija, ez bakarrik azkenengo premina, edo nezesidadian dagozarian, ez bakarrik esturan dagozarian, baita bere edozein biar, edo nezesidadetan aurkituten dirianian. Laguntasun au aituten da, ez gorputzeko biar, edo nezesidadeetan bakarrik, baita arimakueta bere; eta alan egiten dau pekatu mortal semiak: Lenengo: bere gurasi pobriai emoten ezpaseutse janari, soñeko, bizi leku, etxe, edo estalija. Bigarreno: eureak gexorik dagozarian, ikusi, edo bizitetan eztituzanak, osasunera biurtuteko, alegina egiten ezteutsanak, osasungei, edo medizina, eta medikubak aginduten dabena emon gura ezteutsanak, edo beste biar dabeen gauzarik ukstuten deutesanak. Irugarreno: jakinik euren gurasuak erijotzako pelleburuan dagozala, ardurarik artuten eztabenak, eurai esateko, edo besteren baten bitartez adi erazoteko dauken pelleburua, eta elegin egiten eztabenak Sakra-

mentu santubak denporaz artu daijezan. laugarrengo: egiten dabe pekatu mortal arako seme, zeinzui itxi eutsezan gurasuak euren ondasun, edo haziendak, onenbeste emoteko pensu, edo obligazinoiagaz, ziatz pagetan ezpadabe; eta emoten badeutse bere, beti da aserre, gogo deunga, arpegi ilun, eta garraztasunagaz; egunerik egunera, ilerik ilera, eta benturaz urterik urtera luzatuten dabeela zor au pagetia; atsakabez betetan ditubezala euren gurasuak, zeinzuk bere estura, eta premina artian dauken zer ibili biarren dabeenen billa, lotsaririk andijak daukadaz ganian; semiak daukadaz, eurak gaitik begiratu biar dot, ezin kalien erdijan itxi neikez, ezin billoxik egon leitekez, eta ez jat guztirako elzen. Enzuzube seme fede gitxikuak, zerdirautsuben Jaungoikuak berak: Gurasuak honretan daituzanen ganian Jaunaren bendizinoia jatsiko da; geitu, eta azijagaz juango dira bere ondasunak; atsegin andi bat artuko dau bere semeetan, eta betiko iraungo dau bere ganera etorriko dan Jaunaren bedeinkazinoe ugarijak.

Ezta gruasuen erijotziagaz amaitu, edo akabetan semiak deutsen zor au, aurrerago iragoten

da; bete, edo kunplisu biar ditubez euren testamendubak bere, ateraten ditubezala eurretan aginduriko meza, eta honrak, emoten ditubezala euretam aginduriko meza, eta honrak, emoten ditubezaka limosnak, eta au aldaijen lasterren; bada egiten ezpadabe gurasuen testamendubak dinuana, edo luzatuten badabe, lasterm edo beinguan al daijela, pekatu mortala egingo dabe. Baña, gurasua pobre izanik, ezpadau ezer itxi bere, eztabe orregaitik aztu biar euren semiak; atera biar deutsez honrak, euren edukuai atera oi jakezan modukuak. Ain pobriak badira, ze ez jaken elduten onetarako bere, egin biar dabe alegina ainbat lasterren purgatorijotik urten deijen. Au egingo dabe, Jaungoikuari eurakgaitik erregutubagaz, mezak enzunagaz, induljenzijak irabazijaz: Purgatorijuan badagoz zuben gurasuak, benturaz zubekgaitik dagoz; zubei euki eutsuben amodijo larregijagaitik.

Semiak gurasuai deutseen irugarren zorra da errebenrenzija, edo begiraune on, eta umila. Modu bitakua izan leiteke begiraune, edo erreberenzija au, barruko, edo bijotzekua, eta kanpotikua. Barruko, edo bijotzekua da benetan ame-

tia, estimetia, askotan eukitia bijotz osotik. Goprutzekua da, emotia kanpotik, edo gorputzagaz bijotzeko erreberenzija, edo bagiraunien ezagarri, edo señaliak, lana berbaz, zein da egi-
tez, edo obraz. Bijok euki biar deutsez semiak gurasuai. Lenego: bijotz, edo barrukua, eta alan maitetu, edo amadu biar dau semiak bere gurasua ai modutan, ze ezteutsa inori bere, Jaunagoi-
kuari ezkerro ainbeste amodijo zor, zein da bera-
ri; bada eztau inorgandik einbeste mesede artu, zein da beragamdik; bada izatia emonagaz egin eutsan bestek egin ezteutsan, eta egingo bere ezteutsan mesedia. Euki biar dau askotan, eta euki biar deutsa lotsa, itzal, eta errespeto guztiz-
ko bat. Bigarrengo: emon biar dituz bere bijot-
zian deutsan lotsa, itzal, eta errespetuaren ezaugarri, edo señaliak, nai dala beragaz berbaz daguanian, nai dala beragaitik zerbait dinuanian, nai dala beragaz daguanian, edo dabilenian, ain modutan, ze edonok ezagutu biar dau, lotsa itzal, eta errespeto andi bat deutsana. Errebe-
rentzija, edo begiraune au edozein semek euki biar deutsa bere gurasuari; eldu deila gizonik eldu al leitekian diñaderik eregi, edo altubenera,

beragan eukiko dau zor au, txikijak, nai andijak, libriak nai ez kondubak, Sazerdotiak, nai Obispuak, Erregek nai Aita Santubak. Jesu Kristo gura Jauna Sazerdotien Sazerdote zan. Jaungoiko benetako zan, Jaungoikuaren semia zan, Jaungoiko benetako zan, eta alanbere beti beti euki eutsen guztizko begiraune, edo erreberenzija andi bat bere Amari, eta Aitari ordeko San Joseperi: beti egon zan euren agindura.

Agindu onen kontra egiten dau pekatu mortal; Lenengo: bere gurasuari gorroto deutzanak; bera ezin ikusi dabenak; erijotzia, edo gatxen bat gura, edo desietan deutzanak; euren ondatsun, diru, edo hazienden jaube izatera eldute-rreren, nai leukienak, ainbat lasterren il deitezan, luze egiten jakela euren bizitzia. Bardin: egiten dau pekatu bere gurasuaren erijotziagaz poztuten danak, edo berak eukazan pensuba, bere erijotziagaz amaitu, edo akabetan dalako. Bigarrenengo: egiten dau pekatu mortal bere gurasua gitxitan daukanak, edo desprezietan dabenak, kanpotik adi erazoten ezpadau bere gitxitan eukite, edo desprezijo au. Irugarrenengo: burla, eta barre egiten deutzanak, berbaz, edo obraz; ber-

baz, esanagaz ez izenak, edo izen gestuak, dei eginagaz begi bakotxa, belarri bakotxa, errena, trakua, edo onelako izen, utsune, edo faltaren bat adi erazoten dabenagaz: obraz, siñuka, edo kinuka eginagaz, bera legez errenka, alboka, edo beste modu barregarrijen baten ibilijagaz, bada oneek guztijok besteren bategan pekatu mortal benturaz ez izan arren, semiagan geijenetan, beti ez esaterren, izango dira pekatu mortal. Dakuskuna da, gizonak nosbait ontzat bedarue bere besteren batek modu onetan dei egitia, onelako siñubak egitia, edo ez izenak esatia; guztiz asko sentidu oi dabeela semien aotik enzutia, eta eurak modu onetan burla egitia. Ara zelako maldizinoia ezarten deutseen Espiritu Santubak onelako gurasuen burlarijai: Belak atera deijuezala begijak, eta arranuak jan daijuezala ama, eta aitari burla egiten deutsenai.

Laugarrengo: egiten dau pekatu mortal bee gurasuagaz aserratuten danak; berari agiraka egiten deutsanak; berba garratz, eta astunak esaten deutsazanak; aserrien aserrez eurakgantantz eskubetan daukana botaten dabenak; luurren kontra ostikoka egiten dabenak; begi oke-

rrakaz, edo solbarda ganetik begiratuten deustan; txistu, edo gorrua beraganuntz botaten dabenak, edo beste onelako edozeinbere desprezijosko egitate, edo akzinoerik egiten dabenak. Bada, Jauna, etzako gurasuari agirakarik egingo, edo etzaka erreprendiduko, dongaro egiten dabenian? Ez Kristinaubak. Ara zer dirautsan San Paulo Apostoluibak bere ikasla edo discipulu Thimoteori. Zarraguari ez egijozu egirakarik egin, ezpada erregutu eijozu zure aita bazendu legez. Thimoteo obispua zan, Kristinauben aita zan; eta alanbere ez eban gura San Paulok zarrai agiraka eijuen, ezpada humiltasun, eta biguntasunik andijenagaz erregutu eijuen, emendadu zeitezala. Zenbat, eta gitxijago gurako eban seme batek agiraka eijon bere aitari? Konbeni bada, gurasua daukan ekandu dongen bateti ateratia, edo beste egin daben gatxen batgaitik zerbait esatia, au egin biar da erregubagaz, modurik oneenian, humiltasunm eta biguntasunik andijenagaz, zor deustan lotsa, eta errespetorik galdu baga. Bostgarrengo: egiten dau pekatu mortal, bere gurasua jotzen dabenak, nai dala eskubagaz, nai dala makiliagaz, nai dala

beste gauzagaz, eta ain andija da pekatu au, ze aginduten eban Jaungoikuak antxinago legian, il eijela bere ama, edo aita jo eijan semia. Seigarrengo: egiten dau pekatu mortal, bere gurasua zematuten dabenak, nai dala atza, edo ukabila ifiniagaz, nai dala besua eregijagaz, nai dala arri, makilla, edo beste edozeinbere gauzagaz jotera eginagaz. Zazapigarrengo: egiten dau pekatu mortal semiak, euren gurasuak gurasotzat eza-gutu nai ezpaditu, edo lotsatuten bada guraso legez tratetan izatia emon eutsenak. Au egin oi dabe arako gizon arro, eta soberbijo, pobretxu batzuben seme izanik, ondasun andijen jaube izatera, edo leku eregijen batzuketara elduten dirianak. Oneek eztabe traturik euki gura euren gurasuakaz; eztabe nai inok jakin dagijan noren seme dirian; ezteutse euren gurasuai ezer emon gura; ezteutse barbarik egiten, eta begiratu bere beste batzuk balira legez, edo beste ezagun batzui berba egingo balijakue legez. Onelakuak eztabe bete, edo kunplietan mandamentu onetan semiai aginduten jakeena. Jauna, emoten jake biar dabeen guztija: eranzungo dabee benturaz. Ezta ori asko. Gaua bi dira lagundu edo

sokorridu, eta erreberentzija, bijak zor deutzaz semiak gurasuari, eta batagaz kunplidu arren eztau bestia jaoten.

Gurasuen izenian aituten dira nagusijaguak bere, nai dala urte, edo edadian, nai dala diñaduan, nai dala agindute, edo gobernuban; eta alan guztijai zor jake lotsia, begiraune, eta errespetua. Onelakuak dira, Arima-zain, edo Kurak, beste Sazerdotiak, ordendurik dagozanak, Alkatte, Fiel, eta beste Justiziako guztijak; ugazabak, Maesubak, eta beste gure ganian eskubidia dauken guztijak. Onei guztijoi dei egiten jake Eskritura Sagraduban gurasuen izenagaz, eta guztijai aginduten jake guztiz estu, ob ediu dakijala, ain modutan, ze erijotziagaz kastigetan dau Jaungoikuak erriko nagusijari obediu nai ezteutsana, eta bardin Sazerdotiari.

Erazoginza

Jakin gura badabe semiak ze zorioneko, ze subertetxu, ze doatsu, eta bedeinkatu dirian euren gurasuak honretan ditubezanak; eztauke

begiratu baño Eskritura Sagradia. Eneuke denporarik eukiko esan nai baneutsuz, onelako semientzat dagizan bedeinkazinoe ugarijak. Moisesi Jaungoikuak legia emon eutsanian, zinuan modu onetan: Honradu egizuz zeure aita, eta zeure ama, urte luzietan bizi zaitezán, eta bedeinkatuba izan zaitezán Jaunak emongo deutsun luurrian. Espiritu Santubak dirausku: ondasun andijak batuten dituzana legez da, bere aita honretan dabena. Aita honretan dabena atsegin, eta poz andi bat eukiko dau bere semeetan, eta Jaungoikuak enzungo dau bere eskabidia. Zeure izkune, edo berba, zeure egitade guztijetan, eta pazienzija guztijagaz honradu egizu zeure aita, berak ezarri deizun bere bendizinoia, eta bedeinkazinoe onek iraun dagijan betiko, bada aitaren bendizinoiak sendatuten dituz semien etxiak, ez bakarrik eurentzat, baita euren seme, eta semien semientzat bere. Gurasuari eginiko ona eztau Jaungoikuak inos aztuko, beragaitik sari andi bat emongo deutsa semiari, eta neke, naibage, estura, edo gatx andiren baten badago, aterako dau andik, eta ifiniko dau atsegin onian, eta izotza eguzki beruagaz urtu,

eta desegiten dana legez, alaintxe kenduko dira bere pekatu guztijak. Ze ondasun ugarijagorik? Ze mesede endijagorik nai zeunkee semiak zeuben gurasuak honretia gaitik Jaungoikuak emen izkiniten deusuzanak baño? Eztakit, Jaun onek opa deusuzan zorion onek baño andijagorik nai iza zinaikezan mundu onetan, ez bestian, ez gorputzearentzat, ez arimiarentzat.

Begiratu daigun orain beste aldetik, zelako gatzakaz zematuten dituzan Jaun onek beronek euren gurasuak honretan eztitubezan semiak. Izen, edo fama txarrekoa izango da bere aitari jaramonik egiten ezteutsana, eta madariktuba bere ama aserratuten dabena. Bere gurasuak honretan eztituzan semiari, amataduko jaka bere kandeliam eta ilunian geratuko da: au da, galduko jakaz haziendak, ilgo jakaz semiak, eta geratuko da neketan, eta gatz andijen gau ilunian. Ain modutan zainduten eban Jaungoikuak antxinako legian semiak gurasuai, zor deutseen honria, ze aginduten eban, il egijela bere aita, edo ama joten eban semia, eta bardin zan maldizinoerik botaten beutsen. Nor arrituko ezta enzunik ze gogortasunagaz agiraka egiten

eutsen Jesu Kristok Fariseuai, euren gurasuak honretan etzitubezalako? Dei egiten deutse hipokrita, enbusteru, guzurti, eta zorigalduak. Begira orain, Kristinaubak, ze maldizinoe ikaragarriak daukazan ezarririk Jaugoikuak bere gurasuak honretan eztitubezan semien ganera. Gizonari berez, edo bere naturalezaz datorkijo gurasuak emadu, eta honretia, eta alan onetarako ez leuke biar, ez legerik, ez agindurik; bada dakusku abere, edo animalijetan onelako agindu, edo lege baga maitetu, edo ametan ditubezala euren gurasuak. Baña gure Jaungoiko andi-jaren ontasunak, ez bakarrik ifinten deusku lege, eta aginduba, baña izkiniten bere deusku sari guztiz ugarija, geurez egin nai ezpadogu, edozeinbere abere zenzun bagak, bere gurasuakaz egin oi dabena, daigun gitxienez, ifinirik dagozan zori on, eta ondasunakgaitikç Onetarakoxe zematuten gaituz ainbeste kastigugaz; opetzijak asko ezpadira gure astuntasun, eta sortasunari zirkinik erazoteko, kastiguben bildurrak eruan gaizan, ain biar, edo obligazinoe estuba bete, edo kunplietara. Biztu zaiteze bada, semiak, zeuben gurasuak honretara, euki dagizuben mundu

onetan bizi luze, eta zorionekua, honradu zaijezen zeuben semiak, eta eldu zaitezzen guztijok zeruko honra, eta atseginetara. Amen.

XXXV. BERBALDIJA

Gurasuak euren umiakganako daukezan biar, edo obligazinoien ganian.

Jaungoikuaren legeko laugarren mandamentubaj, ez bakarrik aginduren deutse semiai gurasuak honretia, ezpada aginduten bere deutse gurasuai, euren semien ardura eukitia. Lau dira mandamentu onetan aginduten jakezan gauak: janari, edo mantenimentuba, kastigu, edo korrekzioia, ikasbide, edo doktrinia, eta exenplu ona. Lenengo: emon biar deutse gurasuak euren umiai, ezin eurak irabazi al daijen artian janari, jasteko, etxe, edo bizileku, eta euren bizitzia igaroteko biar dabeen guztija. Zaindu bere biar ditubez galdu eztaijen bizitza, osasun, edo goputzeko alde, edo parteren bat, eta alan egiten dabee pekatu mandamentu onen kontarako guraso euren alperkerija, eta nagikerija gaitik biarrik egiten eztabeenak, edo ardurarik arzen eztabeenak euren umiak biar dabeena

dauken ofizijuagaz irabazteko; naijago dabeela aterik ate eskian ibili, eurak biarra egin, eta umiai erazo baño. Bardin; egiten dabe pekatu mortal euren ofizijuagaz irabazten dabeena, eta euki aldaijen guztija, taberna, joko, jan, edan, eta beste ekandu zitaletan gastetan dabeenak, euren umiak ortozik, billoxik gosiak ilik dabilzala. Bigarrenago: egiten dabe pekatu mortal arako guraso miskin, eta zeken euren seme alabai ezer emoten ezteutsenak, edo euren polsak ez gaste-tarren euren umiak, euren jaijatza, edo estaduak eskatuten daben moduban, janzi deitezana, edo jan daijen nai eztabeenak; naijago dabeela euren emazte, euren alabak alsi bat eginik, eta munduko barregarri izan deitezana, euren diruba gitxitutia baño. Irugarrenago: egiten dabe pekatu mortal gurasuak, galzen badabe umiak esku, oin, begi, edo beste gorputzeko parteren bat euren erruz, edo osatuteko arrdurarik ez artuba gaitik, baita bere gexorik dagozanian, emoten ezpadeutsez biar ditubezan, edo mediku, eta osagile, edo zirujaubak aginduriko osagei, edo medizinak, edo dei egin ezpadeutse onei ez gaste-tarren.

Ez bakarrik emon biar deutse gurasuak umiai bizitzia iragoteko biar daena euren agindu, edo ardurara daukezan artian; ezpada emon bere biar deutse moduben bat, geri euki daijen zegaz bizi, edo ofizijoren bat irakatsijagaz, edo ondasunak bide onetik irabazijaz, edo haziendaren batzuk batubagaz. Agindu onen kontra egiten dabe pekatu mortal: Lenengo: euren hazienda, tratu, edo ofizijuagaz bizi dirian askok, eta askok. Onelakuen artian, batzuk gastetan dabee daukena baño geijago, jan, edan, eta eurai ezta-gaokijuen soñeko, eta beste zorakerijetan, banidadia batetik, olgura, eta jolasa bestetik, ez biarrik egitia emetik, bide bagako gastubak andik. Zerbait enparetan bada errenta, edo irabazijan, bertatik asmetan dabee zetan gastadu: ezta ardurarik arzen geroko aurreratuteko, ezta ardurarik arzen semiak bizi moduren bat artu dagijen; eta seme alabak azi deitezanian, ez doterik dago alabentzat, ez semiak dauke zer jan, ez zer janzi, ez modurik irabazteko. Zenabt gatx ezta-toz guraso askoren soberbija, banidade, eta burubako gastu onekuetatik? Onelako guraso asko jausi oi dira kontuban; baño noz? etxia

zorrez beterik dakusenian, eta erremedijorik eztaguanian. Bigarren: egiten dabee pekatu mortal dendari, zapatari, errementari, eta beste onelako ofizijoko askok, zeonzuk ez bakarrik gasetetan dabe euren irabazi guztija ardao, joko, eta beste ekandu zitaletan, ezpada eztabe ardurarik artu nai, euren umiai irakasteko euren ofizijua, edo besteren bat. Irugarren: egiten dabe pekatu mortal, arako gizon alperrak, zeinzuk eukirik etxagunza, solo, edo beste haziendaren bat nun biarra egin leijen, eukiteko eurentzat, eta semientzat biar dabeena, salduten ditubezan; naijago dabeela aterik ate eskian ibili, solo, eta basuetan biarra egin baño, ardura gitxijagogaz bizi izaterren, eurakaz darabilzela euren seme alabak. Zer izango dira oneek? Zer izango dira oneen semiak? Lapur andi batzuk. Itxiko ezpaleutsee gurasuak euren umiai alperrik ibiltzen, emongo baleutse ofizijo, edo bizi moduren bat, ez litzatekez aurkituko ainbat lapur, eta gizon galdu bide orreetatik.

Bigarren gurasuak semiak zor deutsena da, kastigu, edo korrekzioa. Au da, kastigadu, edo ezi biar ditubez gauza deungen batzuk esan, edo

egiten ditubezarian; eta alan egiten dabe pekatu mortal gurasuak euren umiai deuten amodijo laarregijagaitik, kastigetan ezpaditubez, berba deungen bat esaten dabeenian, eta itxiten deutenak nai dabeen guztijagaz urtetea, negar eztaijen, edo tristetu ezteitezaan. Au, Kristinaubak, ezta umiai asko gura izatia, ezpada gorroto eukitia, dino Espiritu Santubak. Kastigadu egizu zeure semia umetxu danetik; ekandu zitaletan gogortuten asi dedin baño leenago. Baña, zer eranzun oi dabe gurasuak? Oraindio gastia da, eztaki zer egiten daben bere; edadiak ekarriko dau. A guraso galdubak, edo obeto esaterren zeuben umien borregu krubelak! Gaztia da oraindio zure umia eziteko. Ezta bada gaztia irakusteko Adanen pekatubaren seme dana; adi erazoteko bere bijotzeko gorroto, eta aserria; begi okerrakaz begiratuteko beriagaz urten ezin dabenian, eskubetan daukana jaurtiteko, luurren kontra ostikoka egiteko; eskuba zeure kontra eragiteko, eta beste milla modutan bere soberbija, eta aserria irakusteko. Itxi egijozu nai daben guztijagaz urteten, itxi egijozu ekandutxu txiki orri indarra artuten, ikusiko dozu denbora gitxi

barru, zelan ezin eziko dozun. Arbolatxubat jaijo barri dan artian, erraz da sustrai eta guzti ateraten, baña bein erruak zabalduen badituz guztiz gatx izango dozu sustraijak ateratia. Auxe berau jazoten da zuen semiakaz bere. Ekandu zitala euren bijotzeko luurrian jaijo barri danian, erraz da luur bigun, eta samur atatik sustrairik geratu baga, zeinek gox, edo berandu buruba aterako daben. Alperrik agiraka egingo deutzazu, alperrik jo eta azotaduko dozu, ebagiko dozu benturaz kanpora urten nai daben ekanduba, baña aintxe bijotz barruban geratuko da sustraija, zeinek gox, edo berandu urtengo daben kanpora arako zure bildur baga daguanian. Orregaitik, gurasuak, zagoze kontu andi bategaz begira zeuben umetxu gaztien ekandubai, eta buruba atera orduko ebagi egizu; ez inos itxi euren temiagaz urteten; ezi egizuz euren okerrune guztijak, Indarrik artu eztaijen onegaz aziko dituzuz eurak baga.

Irugarren gurasuak semieai zor deutzena da, doktrina Kristinauba irakastia. Ardura au artu biar dabe euren umiak berbaz asi orduko, ordutixek irakasten deutzela Jesus, eta Marijaren izen

dantu, eta gozuak esaten. Eztabe itxaron biar umiak errazoen udura eldu deitezan doktrina kristinauba irakasteko: bada orduban egin biar ditubez fede, esperanza, eta karidadeko aktuak. Eta ezin egin leijez lenagotik ezpadakijez; eta egiten ezpaditubez gurasuak ez irakatsijagaitik, oneen ganian jausiko da euren pekatuba, Irakatsi bere biar deutse ainabat lasterren señatuten aldaijen debozinoerik andijenagaz, kurutze santuba dalako Jaungoikuak emon euskun aramarie senduena demoninuen tentanzinoetatik jaoteko. Irakatsi bere biar deutsez, Aita guria, Abe Marija, amar mandamentubak, eta beste errazen dirian gauzak, modu onetan ainbat lasterren erin dedin euren bijotzeko luurian Jaunaren ezauera, eta bildur santuben azija, demoninuak pekatu, eta ekandu zitalena erin daijan baño leenago. Odol malkoz negar egitekua da guraso askoren euren umiai doktrinia irakasteko daukeen arduraeza, edo deskuidua, Ikusten dira sei, zazpi, eta zorzi urteko seme alabak soktriniaren apurrik jakin baga. Esaten bajake oneen gurasuai, zegaitik doktrinia irakasten ezteutsen? Bertatik eranzuten dabe; oraindio gaztiak dira, eztauke orreta-

rako edaderik. O gurasko madarikatubak! Gaztiak dira zuben umiak doktrinia jakiteko? Eztira bada gaztiak euren okerkerija, mukerkerija, eta gestakerijetarako. Eztakije Aita Guria, eta Abe Marija, eta dakijez milla soiñu gangar, loim atsi-tu, eta lotsagarri. Ez jake enzungo Jesus, eta Marijaren izen gozorik. eta pitian pitian botaten ditubez demoninua, diabruba, maldizinoe, eta biraua. Eztakije señatuten, eta badakije berba garratz, eta astunak esaten. Oraindio umekondo gaztegiak dira konfesatara bilazeko, eta eztira, inoen solo, baso, edo ortura ostuten bialzeko. Egongo dira benturaz urte osuetan pekatu mortalian jakin baga, eta benturaz inos enzun baga, zenbat gauza biar dirian konfesinoe on bat egiteko. Onelakuen gurasuak pekatu mortalian bizi dira.

Mandamentu onetan gurasuai einduten jaken laugarren gauzia da, euren umiai ejenplu ona emotia. Au da, ez bakarrik berbaz, ez bakarrik korrezinoe edo kastigubagaz, ez bakarrik doktrinia irakatsijagaz, baita bere euren ejenplu onagaz arteztu biar ditubez zeruko bidetik, eta alan egingo dabe gurasuak pekatu mortal, egiten

badabe euren umiak dakusela, ez bakarrik pekatu moratal dan gauzaren bat, baita pekatu erazo leijuena bere euren umiai. Emetik ezagutuko dabe gurasuak, pekatu mortal egiten dabeela. Lenengo: egun guztijan taberna, joko, edo jan edanian egon ezkeru euren umien aurrian ordirik ifinten badira. Bigarrenengo: euren aurrian, edo eurak danzubela esaten baditubez berba lijak, kontetan baditubez ipuin ez garbijak; kantetan baditubez soñu arin, gangar, eta estaldurik baño ezpada bere loi moduko dirianak. Irugarrenengo: eurai, edo eurak danzubela birao, maldizinoe, demonino, eta añeninuak botatem ditubezanak, edo Jaungoiko, eta Santubakgaitik blasfemetan dabeenak. Laugarrenengo: euren aurrian murmuretan dabeenak, euren bijotzeko gorroto, ezin ikusi, edo aserrakunza noribait deutsena irakusten dabeenak, esaten ditubezala eurai egin deutezan gatx andijak: bada au ezta beste gauzarik, ezpada esatia, nosbait albadaije bengadu daijela egin jaken kalte, edo txarkerija. Berba baten: egiten badabe gurasuak, edo esaten badabe euren umiai pekatu erazo, edo pekatu

mortalian jausteko pelleburuban ifini al leizan gauzarik, pekatu mortala egingo dabe.

Ezin ementxe itxi neike gauza bat esan baga; badakit oba litzakiala, leku dantu onetan ez esatia, isilik itxi albaleiteke, baña jakinik zenbat pelatuben sustrai izan oi dan guraso askoren ardura, eta begiraune gitxija, ezin esan baga itxi leiteke. Kontu senar emaztiak zeubekaz umiak ez eratzotiagaz, edo zeubekaz gela baten, urte bi, edo geijenez irutik irago ezekero; bada eurak an dagozala pagetan badeutsazube alkarri deutsazuben zorra, edo artuten badozube bakarrian baño ezin zinaikian eskubide, edo lizenzija, idigi zinaikez gatxerako euren begijak. Jauna, oraindio umiak dira, eztauke maliziarik. Ezta inport. Zubek ikusi, edo sentidubagaz egin leije beste ainbeste euren artian, eta orduban ez jakin arren zer egiten dabeen, artu leije ekandu zitala, eta gero elsuten dirianian jakitera zer dan, ezingoiturik bein arturiko oitura txarra, aurrera iraun leike: Jauna, lotan egoten dira, eta iratzarririk badagoz, eztoigu inos olako gauzarik egiten. Zubek uste arren lotan dagozala, benturaz iratzarririk egozan, eta adi zubek zer egiten zendu-

ban, eta eurak ezagutu baga erretan infernuko su loijan. Sinistu egidazube, gatx guztiz negargarriak etorri dira gurasuak auren umien aurrian eskubide artubagaitik. Ez eikezubez eratzo oe baten zeuben semiak alabakaz, txikijak, eta gatzijak izan arren, ezta euren oiak bere bata bestien albuari ifini; andijak dira demoninuaren asmubak, eta edozein edadetakuak dakiz tentetan.

Ez bakarrik egingo dabe pekatu mortak gurasuak ejenplu dongia emonagaz euren seme alabai, baita bere ardura andi bat ezpadauke, besteetan ikusi, edo enzun eztaijen, pekatu erazo al leijuen gauzarik; eta alan begiratu biar dabe pekatu mortalen beian zelako lagunakaz batuten dirian, eta zelako etxeetan sartuten dirian, ze lekutara jua oi dirian, eta zelako adiskidiak daukeezan, eta jakinik lagun, edo adiskide oneek, ekandu txarrekuak diriala. ez itxi eurakaz batuten. Badauke bildurrik, leku, edo etxe atara jua nagaz galdu leitekezala, galazo ara elzen bere. Orregaitik pekatu mortal egiten dabe gurasuak, itxiten badeutse seme alabai nai daben guztija egiten: gaur erromerijara, bijar jolasera, orain

tabernara, gero jokora; konbersazinoe, edo berbeta luziak semiak maite daben neskatilagaz; edo berbeta luziak semiak maite daben neskati-liakaz; egote andijak alabiak laztan daben muti-lagaz: batzubetan errondan gau guztijan, lagun buru arinakaz; beste batzubetan gaberdi, edo goxaldian etxera, nun izan dan, edo nundik dato-rreren itandu baga. Onelako gurasuai esaten baja-ke, zegaitik itxiten deutseen euren seme alabai nai daben guztija egiten, gabez ibilten, lagun txarrakaz batutem, guztiz diriala pelleburutsuak darabilezan bidiak, buruko min andi bat emon leijuela? bertatik eranzuten dabee: eztago orren ardurarik, guztiz dira onak, humildiak, biarginak, eta Jaungoikuaren bildurrekuak gure semiak. Alabia barriz eztago zer esan bere: ezta bera modu orretakua. Ez ez eztago bildurrik eurakaz. Gauza orreek edadiak dakarzanak dira. Gazteta-sunari beria emon bira jaka. Geu bere alaintxe ginian. Gero nai eztana jazoten danian, semiak, gurasuak nai ez leukien ezkonzia egiten dabee-nian, alabien pekatu isilak guztijez begietara urteten dabenian: negarra, zizpuruba, zotina, eta atsakabia. Ez neukian sinistuko onelakorik

egingo eustanik neure semiak, edo alabiak. Nok esango eban su egingo ebala? Nok usteko eban onelakuak urtengo ebala? Nok? Edonok esango eban ezin beste gauzarik jazo zatekiala zure seme, edo alabiagaz, ikusirik nogaz ebilen, nora joian, nun sarzen zan. Edozeinek igarriko eban, ikusirik zubek emoten zeunzen eskubidia, edo lizenzija nai ebeen lekutik ibilteko nai egunez, nai gabez, ezin onian geratu zeitekezala. Zeuben burubai ezarri bia deutsezube orain daukazuben naibagiaren erruba.

Erazoginza

Ze zorionekuak izango litzatekezan etxadi, edo familia, erri, uri, probinzija, erreinu, baita bere mundu guztija, gurasuak bete, edo kunpliduko balebe Jaungoikuaren legeko mandamentu onek aginduten deutsena; bada gizon, eta emakume guztijak izango litzatekez onak; baña bete, edo kunplietan ezpaditubez, guztija dua galdurik. Ifini bediz lege, eta kastigurik gogorreenak gestuenkontra: diadar beije Predikadoriak ekan-

du zitalen kontra: bebil justizija algein guztija egiten, ardurarik andijena arzen erbestetu, edo desterrateko erritik pekatu, eta oitura, edo kostunbre txarrak; alperrik dabilz guztijak, gurasuak ondo azten ezpaditubez euren umiak. Mundu onetako gatx guztijak datoz azikera dongatik. Esango dabe benturaz, eztala au munduban ikusten dirian gatxen sustrai bakarra, bada jazo leiteke gurasuak euren umia ondo azi arren, onek gestuak urtetia. Ezteutsut au autortu, edo konzediduko. dino San Juan Krisostomok. Gizona txarra, edo dongia bada ezta onelakua berez, edo naturalezaz, ezpada bere guraz, edo borondatez: gurasuak etxun, edo inklinadu leije euren umien borondatia gauza santu, eta onetara, txikitxu, edo gaztetxu diranetik ardura andi bat eukijagaz euren azikeran. Dakuskuna da, leoe, katamotz, artz, otso, eta abere, edo animalijarik uzu, edo ferozenak otzandu, edo amansetan diriala, eta eukirik gizonak euren ganian ardura andi bat, oitu edo akostunbretan ditubezala mila ablidade, eta arrigarrizko gauzetara. Zelan bada, gurasuak ezingo dabe egin euren ume zenzundunakaz, abere zenzun bagakaz egiten dana?

Onetatik agiri da, ezpadira gizonak etxinak gauza on, eta santubetara, ezpadeutse jarraituten onoidade, edo birtutien bidia, dala txikitxu zirian artian ardurarik euki ez ebelako gurasuak euretara oitu, edo ekostunbretako, eta urteten badabe galdu, gesto, eta okerrak dala, arako ekandu zital oneek buruba lenengo ateraten ebenian, gurasuak ebagi ez eutsezalako aziera on, agiraka, edo kastigu, ejenplu on, eta beste al leijen modu askogaz.

Baña zer diot? Guraso askok, eta askok, ez bakarrik etauke ardurarik, euren umiak onera etzinteko, edo akostunbretako, ezpda emoten deutse umiai gaztetxu dirianetik, donga ezpada emoten deutse umiai gaztetxu dirianetik, donga izateko aurrerapidia. Ozta ozta idigiten ditubeez euren begi, belarri, edo beste zenzunak, nun dakusen, danzuben, edo sentietan dabeen guztija eztan euren erimak ilteko benenorik gogorre-na baño. Etxe batzuketam eztakuse ezpada banidade, arrokerija, edo soberbija, gorputzak soñeko ederrakaz apainsutia, eta au ez bakarrik besteetan, baita bere euren burubetan, eta one-gaz ordutixek zaletuten dira apaindurik ibiltera,

eta buru eritzi izatera. Beste etxe batzuketan eztanzube seintxu dirianetik, ezpada euren etxadi, edo familijaren anditasunak, extaguala erri areetan auren odolari eldu al leikijonik; guztija da antuste, edo arrokerija, beste etxadi, edo familijen oben edo tatxak ateratia, eurak gitxitan eukitia; eta alan ordutixek aseten dira arrokerija, edo soberbijaz, eta geratuten dira ain pusturik, ze uste dabe beste guztijak eztabeela merezi eurak berba egitia, ezta begiratutia bere. Beste ume batzuk eztanzube etxian, ezpada demoninua, diabrua, arraijua, eta arrabija. Beste batzuketan eztakuse euren gurasuetan debozinoiaren izpirik, ezta errosarijo bat errezetan, ezta Kristinauben usainik bere ikusten; enzuten da meza bat jaijegunian arrastaka, eta beste denpora guztija darua tratubak, edo saldu erosijak, janak, edanak, jokuak, eta alperkerijak. Zelakuak, nai dozube izan deitezan ume oneek? Ara neuk esago deustubet.

Sarri ikusi dozube etxadi, ado familia batekuak diriala debotuak, edo Jaungoikuaren dauzatarakuak, bestekuak limosnarijak, bestekuak ordijak, bestekuak lapurrak, eta bestekuak tran-

posuak, eta alan esan oi dozube, agia dauka etxe orrek. badakizube zer dan aga au? Guraso antxinakuen batzuk izan zirian olakoxiak; ikusi zitubezan euren umiak, artu ebeen oitura au, jarraitu eutseen berari, eta modu onetan dator oitura on, edo dongia, antxinako asabetatik. Auxe da benetan, etxeetan dagan agia. Zeuben soluetan jazo oi dana, jazoten da semetan bere: eriten dozubena artuko dozube; eriten badozube exenplu, eta doktrina txarra, artuko dozube pekatubaren aranzia, baña eriten badozube exenplu ona, artuko dozube frutu gozua, eta betiko atsegina. Amen.

XXXVI. BERBALDIJA

*Jaungoikuaren legeko bostgarren
mandamentuben ganian.*

Jaungoikuaren legeko bostgarren aginduba da, ez inor iltia. Ez bakarrik aginduten jaku berba oneetan, ez inor iltia; baita bere ez inori gatxik egitia, ez obraz, ez berbaz, ez gurariz, edo deseoz. Lenengo: aginduten jaki ez inori gatxik egitia obraz; eta alan egiten dau pekatu, ez bakarrik norbait ilten dbenak, baita bere borondatez, edo guraz eparen bat egiten deutsezanak, arrikada, makilakada, ukabilkada, edo ostikadaren bat emoten deutsnak, edo beste gatx andiren bat egiten deutsanak; eta ez bakarrik egingo dau pekatu mortal, baita bere osotu, edo erresistidu biarko dituz ein daben gatx onetatik datoza kalte guztijak. Esaterako: ilten dozu gizon ezkondu bat, zeinek bere biar, edo irabaziaz emoten eutsen bere emazte, eta semiai biar eben guztija; bada biurtu biarko deutsezu, il dozun gizon onen etxadi, edo familijari erijotza

onetatik datorkijozan kalte guztijak. Egiten deutzazu zeuren erruz epai bat biargin bati, edo zauri andi bat, eta onek ezin biarrik egin dau egunen batzubetan, bada biurtu biarko deutzazuz, ez bakarrik epaija osatuteko egin dituzan gastubak; ezpada biarrik egin eztaben egun areetan irabaziko ebana. Egiten dau pekatu mortal ama, edo inudiak, ardura andi bat ifinten ezpadau beragaz eratzoten daben umia lozorruan ez ito, edo galzeko, edo au egiten badabe, ardura ez ifinagaitik. Egiten dabe pekatu mortal gurasuak, euren umiak modu baga, eta gogortasun larregijagaz kastigetari ditubezarian, arako aserraturik euren umiakaz, eztakijela arrabijen arrabijaz zer egiten dabeen bere, edo nun jotari ditubezarian, nai buruban, nai auan, nai begijan, nai belarrijan, eta edozein gauzakaz, ukabil, ostiko, makila, burdina, edo urrengo eskubak emoten deutesen gauziagaz; ain modutan ze epai, zauri, eta anditubak eginik, egun osuetan oian egon biar dabeen. Kastigadu begije gurasuak euren umia, ezi begije, baña ez arako aserrien aserrez zeregiten dabeen bere eztakijenian,

ezpada atsegin onian, ez euren arrabijua aseterren ezpada semia onduterren.

Egiten dabe oekatu mortal, arako neskati la seindun geraturik seina galduten dabeenak, edo galzeko aleginak egiten ditubezanak, euren honria ez galzerren, nai dala sangradubagaz, nai dala edatekuen bat artubagaz, nai dala karga pisutsubak eruanagaz, nai edozeinbere beste modutan. Ez bakarrik egingo dau pekatu au egin daijan neskatiliak, baita bere onetara lagunduten deutsanak, edatekua aginduten deutsan medikubak, sangrija emoten deutsan barberubak, edatekua konponduten daben botikarijuak, eta beste edozeinbere modutan seingalzeian alde, edo parterik daukanak. Jauna, au jazo jakana etxe on bateko alabia da, eta errijan jakiten bada galdurik geratuko da; ezin ezkondu leiteke seinaren aitagaz, bestek au jakinik eztau emaztetzat artuko, eta alan bera honra baga geratuko da; guraso, etxeko, eta senidetasun guztijak atsakabe, eta naibage andi bat artuko dabe. Bai nai ez. Neskati la ori balitz errege baten alabia, eta baleki bere sabelian daukan umia ez galzerren erreinu guztija erre, eta kiskilduko litzate-

kiala, edo bera galdubagaz, bake, zorion, eta ondasun guztiz andiak etorriko litzatekezala erreinu guztikuentzat, ezin olako gauzarik eginleike, eta beti egingo leuke pekatu mortal ikaragarritzko bat.

Egiten dabe pekatu mortal Mediku, eta Barberu errijetan ifinten dirianak ezerbere jakin baga, ezerbere estudijadu baga. Eztakije gatxa ezagututen; eta ezagutu arren eztakije zelan osatu; aginduten dabe itxumustuan sangrija batetik, purgia besteti, jakin baga on, ala gatx egingo deutzan. Ez bakarrik egiten dabee pekatu mortal onelako Mediku, eta Zirujaubak, baita estudijetan eztabeenak bere, aztuten itxiten dabeela lenago ekijen guztija. Euren ofizijuan ikasi, edo estudijaduten eztabeen Mediku, eta Barberu, edo Zirujaubak beti dagoz pekatu mortalian. Egiten dau pekatu mortal laarregi jaten dabenak. Bardin, ezaguturik janari onek, edo edarriak gatx egiten deutzala, itxi gura ezteutsanak. Egiten dau pekatu karia, ikatza, luurra, autsa, edo beste onelako gauzaren bat jaten dabenak, jakinik eurak jaterren daguala erkindu, argaldu, eta ezetarako bere indar, eta poder

baga. Berba baten: jakinik janarijen batek gatx egiten deutsalara, edatekuen batek gexorik ifinten dabela, fumetiak galduten dabela, laregi janak, edo edanak gatx egiten deutsalara, onelako gauzarik egiten badau, pekatu mortal egingo dau. Pekatu mortal egiten dau laaregi edanagaitik, edo bere borondatez ordituten danak. Onen ganian beste berbaldi baten luziago esango dogu.

Mandamentu onetan bigarrenago aginduten jakuna da, ez inori gatxik egitisa berbaz. Modu askotan gatx egin leikijo proximuari miinagaz, baña orain bakarrik esango dot norzuk pekatu egiten dabeen berba astun, edo lotsabagak esanagaz. Lenengo bada: egiten dau pekatu mortal, bere proximuari dei egiten deutsalara aserre, eta garratztasunagaz lepurra, sorgina, ordija, dongarro jaijua, edo beste onelako izen dongaren bat, jakinik atsakabe andi bat artuten dabela au entzunagaz. Onetan jakin biar da nori esaten jakon, bada batzui esatia pekatu mortal ez izan arren, izan leiteke beste batzui dei egitia. Gizon galdu, tabernarik taberna dabiken lotsia galdurik daukan bati, ordja dei egitiam pekatu mortal ez

izan arren, izango da auxe berau Sazerdote, gizon honradu, edo Kaballero bati esatia. Txarri, edo urdia dei egitia edozein modutan bizi dan anra, edo emakume bati ezta pekatu mortal, baña beste onenbeste esatia emakume honradu, etxandera, edo Señora bati, pekatu mortal izango da. Esaten dan gauzia bada bere egija, pekatu mortal izango da badakizu ori zuk esanagaz atsakabe andi bat artuko dabela, lotsaturik geratuko dala, eta bardin da dirautsazun oben, utsune, edo tatxia danzuben guztijak badakije bere. Esaterako: dei egiten deutzazu zuk beste bati sasikume, dongaro jaijo , edo beste onelako lotsatuten daben izen gestoren bategaz, pekatu mortal egingo dozu egija izan arren, eta danzuben guztijak alakua dana badakije bere. Eta zuk esaniko gauzia inok ezpekijan, eta guztijak beuken beste modutakotzat, biurtu, edo errestituidu biarko deutzazu kendu deutzazun honra, edo familia.

Bigarrenago: egiten dabe pekatu mortal, edo obeto esaterren, beti dagoz pekatu mortalian arako gizon (baña geijago emakumiak) arrabijoso, irritu, eta erre inogaz bakerik eztaukenak,

eta auzotegi guztija goikuaz beera darabilenak; orain aserratuten dira bategaz, gero beste bategaz; berbatxu txiki bat enzutia, begiraune bat egitia da asko, edo benturaz eurai goguak emotia, edo begitandutia zerbait egin deusela, berbarik gogor, garratz, eta lotsabageenak, eta aora datorkijuen guztija esateko. Eztau inok eurakaz berbarik egin gura, guztijak dabilz eurakgandik igesi; eztauke adiskiderik. Onelakuak ezin absolbidu leitekez euren ekandu zitala ezi daijen baño leenago. Irugarrengo: egiten dabe pekatu mortal arako senar emazte euren etxe, eta etxadi, edo familia guztija dardaganian darabilenak leoe amurratu batxuk balira legez, guztija da agirakia, guztija diadarra; gauzarik txikijenagaitik ifinten dira aotik bitsa, begijetatik suba, eta alde guztijetatik gara darijuela. Ezta enzuten ezpada berbarik garatz, astun, eta lotsabagienak, senarrak emaztien kontra, eta emaztiak senarren kontra, gurasuak eta umiak alkarren kontra. Etxia infernubaren irudi bene benetako bat da; auzo guztijak dagoz bertara adi, guztijak esakandalizadurik, eta ikusten da aserre, errijeta, diadar, eta agirakia. Bada Jauna,

ez jekee agiraka egingo seme, alaba, eta otsein, edo krijadubai. dongaro egiten dabeenian? Bai, Kristinaubak; baña eztago beste modurik agiraka egiteko, edo erreprendietako diadar, berba astun, eta lotsabagakaz baño? Ezin agiraka egin leijue, ezin erreprendidu, edo kastigadu leitekez, auzotegi guztija adi ifini, eta eskandalizadu baga? Zenbat obago izango litzateke, zeuben seme, eta alabatxuak dongaro egiten badabe, eta berbaak asko ezpadira, lau azotetxu emotia zeuben bake onian, eta isil islik, edo afari, eta jatekorik ez emotia? Onexek bai obeto onduko dituzala, zure diadar, eta berba astunak baño.

Askok eta askok ifini oi dabe atsakijatzat esatia: ain daukat jenijo bizija, ain lasterra, eta erria, ze berbertatik iragoten naz; berbatxu bat enzun orduko, eztakit nun nagan bere, bertatik guztijau iragorik, eta isiorik geratuten naz, ain modutan ze eztakit zer dinodan bere. Badakizube, Kristinaubak, zer dan atxakija au? Da zeuben pekatuben erruba Jaungoikuari ezartia; bada da esatia, ain laster aserratuten banaz, da Jaungoikuak emon eustalako daukadan jenijo txarra, ze beste oba bat emon baleust eninzan ni onelakua

izango. Baña atxakija au utsa da, guzurra da, herejija da. Espiritu Santubak dirausku: Jaungoikuak arteza egin eban gizona, baña gizona bera da okerrunetan sarzen dana. Zeuk zeure ekandu zitalai emon zeuntsen indarra, arako lenengo ezagutu zenduzanian ezi etzenduzalako. Ezpabere esan egidazu: zer egin dozu zeure jenijo orren bizitasun, eta suba amatetako? Ezerberez. Arako ikusi zendubanian zeure bijotza isioten zala aserrian egin autsuben gatxen bategaz, artu dozu al daizun moduba sutxu ori indarrik artu baño leenago amatetako? Alderatu, edo apartadu zara aserratuteko pelleburutik? Arako jakin, edo asmadu dozunian norbait daguala zerbaz zure kontra, egin dozu andik iges ez jakiterren zer dinuan? Norbaitek errazoe, edo berba astuntxubago, edo garratzagoren bat esan deutsunian, egon zara isilik ez beste ainbeste eran-zuterren? Egin dozu alegina, edo indara pazien-zijatan iragoteko, aurrerabiderik artu eztagijan abijetara doian aserriak?

Ay neure Kristinaubak, dakuskuna da, onelako gauzarik egin biarrian, okerretara egiten dala. Jakiten badozu norbaitek ezer esan dabela zure

kontra, bertan beera itxi biarrian, jakin nai dozu esan daben guzti guztija berbarik txikijenaikua, baita bere albazinai ze gogo, edo intenzinoe euki daben. Zerbait enzuten badozu, etea baderitzu zerbait dinuela zure kontra, aldendu biarrian ez enzuterren, zurrako ifinten dozu belarrija zer dinuen enzuterren. Berba astun, edo garratzen bat esaten badeutsube, astu biarrian beti zagoz barriztetan, adiskide, eta lagun guztijai esaten deutsezu, eta nai zeunke eurretan isio zeuk zeure bijotzian daukazun suba. Eta nundik etorri oi dira aserrerik andijenak? Ezerberetzetik geijenetan. Esaten deutsu benturaz zeure adiskiderik andijenak berbatxu bat intenzinoe donga baga, zuk bertan beera itxi bazendu, antxe geratuko zan; baña ez puska-bat eziterren zeure jenijua eranzuten deutzazu beste bat; bestiak dirautsu gogortxubago bat; zuk dirautsazu astunago bat; aurrerago, eta gogorrago; azkenian aserria, diadarra, eta berbarik lotsagaldukuenak. Berotuten da miina, eta ezta begiratu-ten esaten dana guzurra ala egija dan; honria kenen bada ala ez; inok bekijan, ala ez. Irrituten zara, aserratuten zara, karramatuten zara, eta

leen adiskide zinianak zagoz aserraturik, eta are-rijo. Lenenguan jaramonik egin ezpazeuntsa enzuniko berbiari, eraz zendubana legez, etzenduban ainbeste aserre eukiko, zein da gero; etzian adiskide zinianen arerijo izango. Orregaitik zeure jenijo erre, eta bizijaren atxakija utsa da; bada orrelakua badaukazu, zeure erruz daukazu, zeuk ezin nai eztozulako. mugaldu, edo okasi-noietatik iges egin nai eztozulako.

Jauna, bera asi jatan dongaro esaten, eran-zun oi dabe beste askok: niri ezer esan ezpaleust ni isilik egongo ninzan. Zegaitik esan biar eustazan ainbeste pikardia, ainbeste lotsabakerija, eta ainbeste txatxarkerija? Beraz, bestiak dongaro egin ebalako, zuk bere egin biar dozu; bestiak pekatu egin ebalako, zuk bere egin biar dozu, eta bestia infernura doialako, zuk bere jarraitu biar deutzazu. Eta zer aurreratu dozu orregaz? Zer erremedijau dozu? Ezerberez: dongago ifini dozu, irritu zara, aserratu zara, eta leneguan bein bakarrik esan beutsuben enzun nai etzendubana, gero lau, bost bidar, edo geijagotan enzun biar izan dozu. Lenenguan jaramonik egin ezpazendu, isilik egon bazina, eta erra-

zoe txarra esan eutsunagandik alderatu, edo apartadu bazina, bake obian egongo zinian, etzenduban enzungo benturaz uste etzendubana, edo zeritsuna inok ezekijala. Eta Jaunari milla esker onetan geratuten danian. Zenbat auzi galgarri, zenbat kerella ikusten eztira onelakoxe berbatxu bat baño beste sustrai, edo asijerarik eztaukenak? Sarzen da Eskribaua batetik, Letraduba bestetik, emetik Prokuradoria, andik Alguazila; egiten dira prozesuak, ateraten deutsez batak bestiari jakin al daijezan utsune, edo falta guztijak; egiten dira gastu andijak, eta azkenez ezagututen daniain, pazienezija puska bategaz erremedijau zatekezala gatx, eta gastu guzti oneek, eztago erremedijorik. Orra zer dakarren berbatxu axiak daroian bati jaramon egitiak, eta bertan beera ez istiak.

Baña oraindio bere andijagua da beste batzuben itxumendija. Askok eta askok, ez bakarrik eztabe artuten egin daben pekatuben damurik, ez bakarrik eztira lotsatuten aora etorri jaken lotsabakerija guztija proximuari esan deuteselako, ezpada alabadu oi dira au egin dabeelako, gauzarik miragarrijena izan balitz legez; eta txa-

rren dana, urte luzietan iraun oi dau euren buruben alabanza onek. A zelakuak enzun dituzan, esan oi dabe Kristinauben izena baño eztauken oneek; zelakuak esan deuntsadazan; enzun biar baditu, enzun ditu. Zelan berotu deuntsadazan belarriak. Bela bat baño balzago ifini dot. Ezteutsat ezer parkatu. Benetan, Kristinaubak, alabanza andi batr emoten deuntsazu zeure burubari. Pekatu mortal ikarragarri bat egin dozu, berba astun, eta garratzak esanagaz zeure proximuari; eta Kristinau batek alabaduko dau bere buruba pekatu mortal egin dabelako? Benetako Kristinauba bazina, lotsatu, eta mututurik geratuko zinatekez, ikusirik zenbat pekatu egin zenduzan, zeure proximuari utsune, edo tatxa orrek atera zeuntsazanian. Onelakuak, ez bakarrik pekatu egin eben aserria euki ebenian, baita bere euren burubak alabeetan ditubezانيا; eta onelako goguan dirauben artian, edo onelako moduban euren burubak alabetako gogo, edo ustia dauken artian ezin absolbidu leitekez; bada onelakuak ez bakarrik eztauke gogarre, edo propositurik ez ostera egiteko, ezpada barriren barri

kenzen deutse honria proximuari, eta dagoz murmuretan, edo deungaro esaten beragaitik.

Erazoginza

Eztauka gizon batek gauza oberik, ez txarra-
gorik miina baño: bera ondo badarabil bedeinka-
tuten dau Jaungoikua, konfesetan dituz pekatu-
bak, egiten dituz skramentubak, prediketan dau
Jaungoikuaren legia, irakasten dau doktrina Kris-
tinauba, irakusten dau zerurako bidia, poztuten
dituz nekatubak, edo tristiak, zainduten dau Ele-
xia, eta ain dira andijak beste miinak dakarzan
onak, ze eztago guztijak adi erazo leikijanik.
Baña, nok esan leikez miin batek dakarzan
gatxak? Guztiz da pellebusua miina, dino Santia-
go Apostolubak: beragaz pekatu egiten eztabe-
na, eta bera eziten dabena gizon santuba da;
bada oni erraz txikija dan zaldi bati ifinten jakan
freuba? Bada beragaz eruaten da nora nai zaldi-
jaren gorputza. Eztakutsubez, ze andijak dirian
onzijak? etxe andi bat dira; eta asko uri bat leez-
kuak; eta izanik ain andijak, nogaz, edo zegaz

arteztuten dira norabait eruan gura dirianian? Ozta ozta agiri dan gauza bategaz: lema txiki bategaz. Auxe berau jazoten da gura miinagaz bere, dino Apostolu onek. Gorputzeko alde, edo parte txiki bat da, eta alanbere bera da gure gorputz guztija gatx, edo onera daroiana. Miin txar batek subak egiten dabena egin oi dau. Begira ze kalte ezin esan leitekezanak egiten dituzan subak. Su apur batek erretan dituz basorik zabalnak, mendirik andijenak, erri eta uri osuak: miina barriz suba da, gatx guztijen tegija: dago beneno ilgile, edo mortalez beterik. Da geldirik ezin egon dan gatxa, eta infernuko gar bizijan dago goriturik. Orregaitik eztago bera otzandu leijan gizonik. Abererik krubelenak, txoririk uzubenak eziten dira, baña ez min zitala.

Nor bildurtuko ezta Apostolu andi onek dinuana enzunik? Nok aleginik andijenak egingo eztituz bere miina ondo ondo gordetako? Baña ikusten dana da, eztala ezetan ardura gitxiago ifinten, miina eziten baño. Guztija da berbetia, edozein gauza esatia, ez ezer perkatutia, ez ezer isilik eukitia. Zelannai dozube bada auzirik izan eztedin, aserre, errijeta, gorrotorik aurkitu ezte-

din, zeure miina geldirik euki nai ezpadozu, eta gustijen iturria zabalik badaukazu? Sinistu nai ezpadeustazu niri gatzik geijenak datozala miin zitaletik, sinistu egijozu Espiritu Santubari. Miin dongiak aserratuten ditu bakian egozanak, arerijo egiten ditu adiskide zirianak, erre dituz urijak, iruli dituz etxerik senduenak. Miin txarra daukanak eztau bakerik eukiko, eztau adiskiderik izango, eta madarikatuba izango da, Jaungoiko, eta gizonakgandik. Asko il dituz ezpatiak, baña guztiz dira geijago euren miin gestuak il dituzanak. Berak emoten daben erijotzia da guztiz zorigogorrekua, eta infernuba bera baño bere txarrago da. Begira bada jausi etzaitez an gatz onetan; ezi egizu zeure miina. Etzaitez lasterra izan edozein gauza esaten, begira bein, eta birritan zer dinozun, gero damutu eztakizun, erremediorik eztaguanian. Baña inos baño kontu andijago bat euki biar dozu, arako aserratu aginian zagozanian, gatxen bat egiten deustubedian, berba gogorren bat dirautsubedian, eta zugaitik dongaro esaten dagozanian. Ezta suba amatetako moduba orduban orrekaz berbaz abijetia, ezpada alderadu, edo apartetia, eztana legez modu

ona suba amatetako egur geijago ezartia, ezpada lenago daguan egurra kenzeia. Au egiten badozu, eziko dozu zeure miina, biziko zara bakian mundu onetan, eukiko dozuz adiskidiak, artuko dozu Jaunaren bendizinoia, eta iragoko zara bizitza baketsutik, beti iraungo daben bake-ra. Amen.

XXXVII. BERBALDIJA

*Birao, madarikazinoe, edo
maldizinoiaren ganian.*

Bostgarren jaungoikuaren legeko aginduban galazoten jakuzan gauzetatik bat da biraua. Au berez pekatu mortala da; bada dirausku San Paulo Apostolubak, biraotijak eztiriala zeruban sartuko. Zagoze adi esatera noian doktrinara, bada ain dagi zabaldurik ekandu donga au, ze deritz Kristinau guztiz asko kondenetan diriala birauagairik. Ezin esan leikez birao modu guztijak, eta alan bakarrik azaldu, edo explikaduko dodaz ezaunenak, jakin daizuben nos dirian pekatu mortal, eta nos benial. Lenengo: egiten jake birao zenzun bagako gauzai. Dago bat biarrian kanubita bategaz, egiten jaka epai bat, eta dino: diabruak eruan biar leuke onelako kutxilua, edo diabruaren kanubita. Au ezta pekatu beniala baño. Bigarrengo moduba da, noribait demonino, edo diabrua dei egitia: esango balitz legez: ator ona demoninori, ua ortik diabruori.

Onelako birauak berez pekatu benial dira, baña esaten bajaka guraso, Sazerdote, Obispo, edo itzal, nai errespeto andija zor jakonen bati, mortala izango da: baita bere gurasuak umiari, uga-zabak otseinari lanzian lanzian ezarten badeutsa, emoten deutsan ejenplu txarra gaitik. Irugarren moduba da, utsian eta beste baga esatia: demonino demoninua, diabrubu, arraijua, edo beste onelako izenen bat. Laugarren: gauzia oker datorrenian, gauzia egin ebanari izentadu baga, eta nor dan jakin baga gauza txarren bat esatia. Urteten deutsu motzak axkoriak, eta dinozu: esku bijak ebagi biar leuzkijoz au egin ebanari. Bostgarrena da, atzetik esatia: demoninuaren jenijua, diabruaren miina, arrejuien kastia, isilduko al-az nos, edo nos. Birao guzti oneek pekatu benial dira eurenez, eskandalu, edo beste gauzaren bat gaitik mortal eypadira.

Azkenengo moduba da: noribait gatxen bat etorri dakijola eskatutia, esango balitz legez: milla demoninok eruan daijela, min gogorak garbitu daijela, arren bada beso bijak igartu dakijozala; lupu gogorak jo daijela, korronzija gogorak eruan aijala, ez eila bizirik etori, eta

beste onelako einbat modu. Eskatuten dan gatxa andija bada, eta jazo dakijon gogo, edo deseorik badago, pekatu mortala izango da. Jauna, esan oi dabe geijenak, maldizinoe asko bota dodaz, baña eztira inos bijotzetik izan, eztot etorri daki-juen intenzinoerik euki. Baña au ezin beti sinistu leikezube. Gura dozube jakin zuben birao orreek intenzinoiagaz izan dirian ala ez? Ara bada: biraua egin deutzazun ori bada laztan dozun senar, emazte, seme, alaba, edo adiskide, nogaz bakian zagozan aserre baga, arrabija baga, des-lai, uste baga legez, eta deskuido moduban; ezaugarri, edo señalia da etzendubala euki gogo, edo borondate dongarik. Baña birao ori egin badeutzazu zeure arerijo bati, nogaz zagozan guztiz aserraturik, eta ezarri zeuntsanian irriturik bazengozan noribait esan, edo kontetan, ezaugarri, edo señalia da intenzinoiagaz ezarri zendubala, eta pekatu mortala dala. Esaterako: ostuten deutzun gauzaren bat, eta irritu, eta aserraturik guztijori, dinozu: arren bada beso bijak igartu dakijozala, neure diruba, edo ainbeste falta egiten deustan gauzia kendu deustanari. Emoten deutzube auzi bat, eta zuri eritzi arren

eztaukadala emoten deutsunak errazoién gerizarik bere, irabazten deutsu, eta ifinten zaitu, esan oi dana legez kalien erdijan ondasun baga, diru baga, eta zer jan eztaukazula. Irriturik guztijori abijetan zara birao urtika: arren bada ni ifini nabena legez ikusi deila; eztakijola luzidu lapur-zarrari niri jendu deustanak; aterik ate ikusi daidala. Onelako maldizinoiak bijotzetik izan oi dira, eta pekatu mortal.

Baderitzu eztiriala onelakuak ezarten oi dituzunan birauak, esan egidazu: Nos ezarten oi dituzuz? Ez oi dira izaten arako gatx egiten deustubénian; gatxak estututen zaituzanian, bera gomuta dozunian, edo noribait esaten deustuzanian? Bada ikusirik zer jazo oi dab orduban, gurata gura ez konfesadu biar dozu gogo, edo intenzinoiagaz izan diriala. Begiratu daigun zer jazoten dan noribait ezarten deustuzanian. Abijetan zara zeure adiskide bati kontetan bestiak egin deustuzan kalte, eta gatxak; andizkatu, edo ponderetan dituzuz al daizun guztija; zenbat eta minago atsakabia, ainbat eta erriago zure arrabi-ja; zenbat eta gogorrako biraua, ainbat gogozkuago, eta orregaitik pekatu mortal. Ez Jauna

olakorik, esango dozu; Ain dira andijak egin deustazan kaltiak, ain gogorrak ekarri deustazan gatzak, ze dakijen guztijak dagoz arriturik, guztijak deuste erruki, guztijak dirauste errazoia daukadala; baña alanbere ezteutsat gatzik nai. Egija da arako gomuta dodazanian, edo euren ganian berbaz naganian, neure bijotza erdibituten jatan sentimentu, eta atsakabien poderez, eta ordu berian aurrian baneuka, eztakidana zer egingo neuskijon, eta ordubantxe birao, eta maldizinoiak botaten deustadazana; baña ez oi dira gogotik izaten, bertatik iragoten jat, eta aztu ezkeru ezteutsat jaramonik egiten, eta damututen bere jat.

Ay neure Kristinaubak, nok au sinistuko deustu? Arrabija andija zeuntsan, irritu, ta aserraturik zengozan egin eutsuzan gatx, eta kaltien anditasunagaz, eztakizu zer egingo zeuntsan aurrian euki bazendu; modu onetan zengozala birao, eta maldizinoe ikaragarrijak bota zeuntsazan; eta etziriala bijotzetik izan dinozu? Nok nai dozu au sinistu dagizun? Ez inok. Edonok esango dau borondate guztijagaz, bijotz osuagaz, eta gogo, edo intenzinoe betiagaz ezarri zeuntsala.

Bertatik irago jatzun. Ara Kristinaubak, pekatu mortal egiteko denpora apur puska bat da asko; berbertatiko baija, edo konsentimentuba baño ezta biar. Berbertatik damutu jatzun. Ondo da damututia, baña beindunik bein gatxa egin zan. Emon egijozu su polbiraz beteriko barrika bati zeure arrabijuagaz, jaurtigi egijozu gizon bati balazo bat zeure aserriagaz; esan zinaike esteutsazula zuk su emon barrikiari, edo eztozula il gizona arrabijuagaz izan dalako, bertatik irago jatzulako, edo laster damutu jatzulako? Zeuk ezagutuko dozu au zorakerija dala. Bardin da bada biaruagaitik ifinten dozun atxakija. Orregaitik, zeure arerijo, edo gatx egin deuntsunen kontrako maldizinoiak, pekatu mortal dira.

Beste batzuk esan oi dabe: birao asko egotzi ditudaz, baña ezta daukadan ekandu. edo kostunbria baño. Ekandu txarra daukazu? Ainbat eta dongago. bada oitura, edo ekanduzko pekatuba andijagua da bestelakua baño. Au dakusku beste pekatubetan. Andijagua da ekanduz eginiko pekatu loija ekandu bagia baño; bardin lapurretia, guzurrezko juramentu egitia, eta beste edozeinbere pekatu. Ekandu dongiak ezteutsa ken-

zen borondatiari bere eskubide, gogo, edo kon-
sentimentuba, eta alan ondo eta ondo ian leite-
ke ekanduz egiten dna borondatiak nai izatia.
Eta esn egidazu, zer egin dozu ekandu zital ori
goitu, edo benzieta? Ze indar egin dozu? Ze
modu artu dozu zeugandik kenzeko? Ezerberez.
Ezerberez. Dakuskuna da, ez bakarrik zeubenez,
ezta Konfesorik agindurik bere egin nai dozula
ezerm ekandu zital au kenzeko. Ikusirik Konfeso-
riak ekandu au aurrera doiala, emoten deutsuz
ber kenzeko penitenzija oneen deritzanak. Kon-
fesadu zaitezala ilabeterik ilabetera, birao egiten
dozun baktorian luurrari mun egin deijozula, dan
lekuban dala. Belauniko ifinirik Abe Marija bat
errezadu daizula, eztaizula egun atan afaldu,
edo beste onelako batzuk. Bete,edo kunpletan
dozuz penitenzija oneek? Ainbat atxakija billatu
oi dozuz ez egiteko; bertan beera itxi dozuz, eta
ekandu ori badaukazu zeure erruz daukazu, zeuk
nai dozulako, bera kenzeko ezer egin gura ezto-
zulako, eta atxakija orrek ezteutsu ezer balijo.

Baña emon daigun zure birao orreek gogo,
edo intenzinoe donga бага izan diriala; alanbere
jazo leiteke pekatu mortal izatia; eta da arako

exenplu txarram edo eskandaluba emoten danian, edo beste gauzaren bat gaitik; eta alan semiak gurasuari, gurasuak semiari, senarrak emaztiari, eta emaztiak senarrari botaten deutzazanak geijenetan pekatu mortal dira, aserre, eta arrabijaz badira. Seme alabak gurasuai botaten deutsezanak pekatu mortal dira, ukatuten deutsalako zor deutsen lotsa, eta begiraune, edo errespetua. Gurasuak umiai, edo seme alabai egozten deutseznak, pekatu mortal dira, ezteutsalako emoten zor deutsen azikera, eta exenplu ona. Senarrak emaztiari, eta emaztiak senarrari egiten deutsezanak pekatu mortal dira, ukatuten deutsalako alkarri zor deutsen amodijua, eta austen dabeelako alkarregaz jaon biar daben bakia. Ezta erraz birauak botateko ekanduba dagan etxian, ez pekatu mortalian egotia. Baderitzube larregi estuten dodala dinodanian pekatu mortal diriala etxe artekuen bata bestien kontrako maldizinoiak, zabilzaz edozein lekutatik, nai dala uri, eta errijetatik, nai dala baso, eta soluetatik, nai dala mendi, eta bideetatik, eta ezagutuko dozube errazoerik daukadan ala ez. Arritu, mututu, eta odol malkoz negar egitekua

da ikusten dana. Alde guztijetik ezta entzuten, ezpada birao, edo maldizinoe ikaragarrija. Umetxu ozta berbaz dakijenak, eta luurrian agiri ezterianak, beti dauke auan birao, eta maldizinoia; eurengaz ezin urten dabeenian, lagunakaz aseraturaten dirianian, edo jokuak dongaro urten daijuenian, nai eurak gura ez leukien gauzarn bat jazoten jakenian, ze berba astunak! Ze birao gogorak! ze madarikazinoe ikaragarrijak! Baña zelako arrabijagaz? Zelako subagaz? Esan leitekete infernuko subagaz errerik daukela euren barruba, eta ango garrez goriturik euren miina. Et nundik dator ikaragarritzko gatx au? Euren etxeak, euren gurasuak emon deutseen exemplu txarretik.

Ezpabere begira zer jazo oi dan etxadi, edo familia askotan. Ezta entzuten ezpada diadarra, agirakia, errietia. aserria, demoninua, diabruba, biaro, eta madarikazinoia. Eztirudi euren etxiak, eztinot Kristinauben bizi lekuba, ezta gizoneena bere; Danzuben guztijak dagoz bertara adi, arritu eta konkorturik. Auzotegi guztija dago eskandalizaturik. Zer nai dozube bada ikasi daijen onelako eskolan? Zelan birao, eta maldizinoeka-

rijak izango eztira eguneko ordu guztijetan badanzube infernuko lekzinoe au? Edonun dira agiri noren semiak dirian. Eta alanbere nosbait konfesetara datozean esan oi dabe otz otzik: Jauna, birao asko bota ditudaz, baña eztira bijotzetik izan. Eta etxian, eta kanpuan emon dozun eskandaluba? Seme alabai emon deutsezun exenplu dongia? Zer egingo dot Jauna? dinue: seme lotsa galduko batzuk daukadaz; eztabe nire esanik egin gura: lanzian lanzian lotsia galzen deuste, neure arimia galdu erazoten deuste, eta birao erazoten deuste; baña ezta beste gauzagaitik ezpada bildur pudka bat euki deiden. Esan egidazube guraso madarikatubak, zer aurreratu dozube birao orreekaz? Ondu dira eurekaz zuben semiak? Dira leen baño humilago? Egiten dabe obeto zure esana? Deutsube bildur, edo lotsa geijago? Eztakit azartu, edo atrebiduko zarian baijez esaten.

Baña zetan nago? Zuben semiak ain gestuak badira, zuben esanik egin nai ezpadabe, lotsia galduten badeutsube, bildurrik ezpadeutsube, zeuben birao, eta maldizinoiak gaitik da. Eta oraindiobere, dirian baño bere gestuago izango

dira birauak ezarteko ekandu zital ori kenzen
ezpadozube. Eztozube gauza onik izango, ez
semeetan, ez alabeetan, ez ondasunetan, ez
osasunian, ez beste gauzetan. Espiritu Santubak
dirausku: amaren birao, edo maldizinoiak etxe
guztija irulten dau sustrai edo zimentubetaraino.
Eztago semientzat beneno gogorragorik, eztao
ezpata zorrotzagorik, eztago arraijo bildurgarri-
jagorik gurasuen birao, eta maldizinoia baño.
Orregaitik eutsen antxinako legian ein bildur
andija. Ekusen ze gatx bildurgarriak, ze gatx
ikaragarriak, ze kalte eskergak etozan beragai-
tik, ez bakarrik euren semien ganera, baita bere
semien seme, onen urrengo, eta onekgandik jai-
joko ziriakgana. Au ekusen Canaanegan: Ezarri
eutsan bere guraso Noek maldizinoia? bada ez
bakarrik etorri zan bere ganera, ezpada eldu zan
beragandik etorri zirian jenerazinoe guztijetara,
eta beti iraun eban eurretan. A gurasuak, gura-
suak! Ze bildur izateko dan zuben birao, eta mal-
dizinoetatik datozala zeuben semietan, eta ben-
turaz eureetatik datozan ostekuetan ikusten
dirian gatx, lan, auzi, pobrezia, eta lanak. Ezta-
kuskus zubek bota, eta bertatik jazoten; baña

ezin ukatu zinaike egija dala Jaungoikuak berak dinuana: Amaren birauak etxe guztija iruliten dabela.

Bildurgarriak dira benetan birao guzti oneek; baña oraindio bere guztiz dira ikaragarriaguak askok, eta askok euren burubai ezarten deutseezanak. Sinisezgarritzat eukiko geunke Kristinau batek, bere burubari egotzi al leijozala birao ain arrabijadubak, ze aserreren bat badauke, nai eztabeen gauzaren bat jazoten bajake, auziren bat emoten bajake, bertatik abijetan dira euren burubai birao urtika. Baña ze birao, eta madarrikazinoe ain gogor, ain ikaragarriak enzuten ez dira? Enenduke arraijo batek ementxe bertan erdibituko? Enenduke luurrak irunziko? Eztago demonino bat, ni infernubetara eruateko? Eztago niretzat erijotzarik bere? Ustr leiteke ezin gizon, edoemakume onelako gatxik gura, edo deseasu leijala. eta alan eztabeela bijotzetik urteten, eta orregaitik intenzinoe baga diriala; baña sarri, eta sarri alako bizitasunagaz, alako arrabijagaz esan oi ditubez, ze edonok sinistu leike bijotz bijotzetik diriala; eta dudatzaka sarri, eta sarriintenzinoiagaz izango dira; ezin uste lei-

teke gizon, edo emakume batek benetan nai leuzkijola bere burubari onelako zori galdurik; baña dakusu asko, eta asko ibaira bota diriala, kutxilo bategaz il diriala, urkatu diriala. uste baleiteke bere ezin inok onelako gatxik bere burubari nai izan leikijola. Baña ezpadaike bere, inoren aurrian esaten baditubez, beti izango da pekatu mortal, emoten dabeen eskandaluba gaitik, bada edonori laztuten jakoz uliak onelako birao, eta maldizinoiak enzunagaz.

Erazoginza

Ondo, eta biar dan moduban begiratuko balebe Kristinaubak zer egiten dabeen euren proximuari birao egiten deutsenian, ez litzatekez enzungo ainbeste maldizinoe; bada ikusiko leukee batetik eztabeela ezer aurreratuten, eta bestetik euren burubai gatx, eta kalterik andijena egitn deutseela. Batetik: eztozu ezer aurreratuten, bada eztozu birauagaz egin jatzun kaltia osotuko, etzara gatx egin deuntsunagaz bengaduko. Kenduten deutsube diru, edo ondasunen bat,

ezteutsube zure birauagaitik biurtuko. Emoten deutsube auziren bat, eztozu maldizinoiakaz irabaziko; egiten deutsube epai, edo zauriren bat, ez jatzu maldizinoiakaz osatuko bazenki zeure maldizinoiakaz biurtuko seutsubela ostu, edo kendu deutsubena, irabaziko dozula auzija, osatuko jatzula zauri, edo epaija, atxakiren bat euki zinaike birao egiteko; baña jakinik etzatzula onelako gauzarik jazoko, ez beste onik etorriko, zeri ezarri zinaijoz birao, eta madarikazinoe orreek? Etzara ostu deuntsunagaz, kalte, edo gatx egin deuntsunagaz bengetan. Zuk esan arren milla demoninok eruan daijela, eztabe orrgaitik eruan-go. Zuk esan arren auzija emon deuntsunagaitik, arren bada aterik ate ikusi dagidala, eztozu orregaitik eskian ibilten ikusiko. Eta alan zu etzara orregaz bengetan, ezteutsazu gatxik egiten.

Bestetik, zure burubari bene benetan gatx egiten deuntsazu, eta au ez edozein modutakua, ezpada egin zinaijanik andijena. Erbestetuten zara zerutik, ilten dozu zeure arimia, galzen dozuz zeru, eta grazijako ondasunik andijenak, egiten zara demoninuaren menpeko, edo esklabo, eta kondenetan dozu zeure buruba infernuko

presondegi, edo karzelara. Orra zer orabazi dozun zeure birao, edo maldizinoiakaz. Zer dauke ze ikusi zuri zeure arerijorik krubel, eta gogorrenak egin al leikezuzan gatx, eta kalte guztijak, zuk zeure burubari egin deutsezuzanakaz? Eztira onen gerizia bere. Ze zorakerija andijagorik au baño? Gatx egin deustubelako, beste andijago bat egin zeure burubari. Ondasunen batzuk kendu deustubezalako, erijotzarik krubelena emon zeure burubari. Ze gizon zenzudunek egin leike onelako erakerijarik. Esaidazu; esan deustuben berbatxu garratz bat gaitik sartuko bazendu zeure bularretik ezpata bat, eta geratuko bazina ilik: edo ostu deustubelako siru zatiren bat, botako bazenduz itxasuen erdira zeure ondasun guztijak; zer esango litzateke zugaitik? Edo zer esango zeinke zeuk beste bat gaitik beste onenbeste egingo baleu? Etzeunke esango burutik daguala, zenzuna galdu dabela, eta zoratu jakala? Bada auxe berberau, eta geijago egiten dozu birao, eta maldizinoiak botaten deustuzuzanian gatx, edo kalteren bat egin deustunari. Modu onetan zeure ganera datoz bestientzat eskatu dituzuzan gatxak, eta zeure ganian jausi

da bestiari ezarri deutzazun birao, eta maldizi-
noia, eta jausi zara zeure arerijujarentzat idigi
dozun trokan.

Orra gizon aserre, eta irrituba, zer atera
dozun zeure birao guztijakaz. Eztozu artu kendu
deutsubena, ez jatzu osotu egin deutsuben kal-
tia, etxako gatxik etorri zeure arerijo, edo gaixki-
nari, zure ganian jausi da zuk beretzat eskatu
dozun gatxa, eta ondatu dozu zeure buruba zori
gogorrik andijenetan. Idigi egizuz nosbait zeure
arimako begija, ezagututeko egija guzti oneek,
eta etzaitez izan zeure burubaren arerijo ain
gogor, eta krubela. Kendu egizu ekandu zital ori,
bete zaitez pazienzijaz, eta jakin egizu, zeure
arerijuakgandik bengetako modurik onena dala
ez bengetia, eta Jaungoikuari istia. Zure areri-
juak gatx egiten badau, berak pagaduko dau
mundu onetan, edo bestian, eta zuri emongo
deutsu zure pazienzija, eta malsotasunaren sari
oso, oso, eta betia, zein daukan gorderik zeru-
ban. Amen.

XXXVIII. BERBALDIJA

Ordikerijaren ganian.

Bostagrren Jaungoikuaren legeko mandamentubak galazoten deuskuzan gauzetatik bat da orditutia. Onexen ganian izango da nire gaurko berbaldi, edo platikia. Badakit probetxu gitxi aterako dodana, dakusdalako ekandu galgarri onetan jausten dirianetatik guztiz gitxi obetu, edo emendadu oi diriala. Baña alanbere esango dot, edo oraindio jausi eztirianak jausi ezteizan, edo itxi nai eztabeenak atxakirik euki eztaijen. Da bada ordikerija ardao laarregi, eta zenzuna galdu artian edatia. Askok eta askok uste dabe esan ala edan arren, eta zenzuna galdu arren eztala orditutia, ezta pekatu bere estamangutik bota, edo bomitetan ezpada. Baña ez Kristinaubak, ezta onelakorik biar pekatu mortal izateko. bein zenzuna galdu ezkerro larregi edanagaitik pekatu mortal da, eta sarri jazo oi da edaniko ardaua botetia pekatu egin baga, edo estamanguba otzik dagualako, edo gatxen bat daukala-

ko, edo beste gauzaren bat gaitik. Zetan bada ezagutuko dogu ordirik gagozana, edo orditu gariana? Itanduko deustazube. Ara bada. Arako bijaramonian gomuta eztozunian, zer egin zenduban edan ezkeru, eta gomuta badozu bere ezta ilunabarrian baño. Bestetan etxian baketsuba izanik etxe, eta etxeko guztijak goraberatu, edo errebolbietan dituzanian. Maldizinoe, birao, juramentu, eta blasfemijak ezarten dituzuzanian onelako ekandurik euki baga. Etxera zatozانيا onelako ekandurik euki baga, emen larrapastadu, an estropezadu, biderik zabalenak bedar dituzuzala, emeko ormia jo, ango munian etxun, saso onetan jausi, beste lupatzen etzin jakin baga goxian, nun loitu dozun zeure soñekua. Onelako gauzarik jazoten jatzunian ordirik zengozan. Eta ifini zara zu modu onetan? Bertatik eranzun oi dabe geijenak: ez Jauna. Orra demoninuaren itxumendija.

Obeto ezagutu daizuben noraino elduten dan ordijen itxumendija, esan egidazube: ikusi dozube inos ordirik? Jesus Jauna, eranzungo deustazube, laarregi, uxala ainbeste ikusiko ezpagentuz. Bada guztiz gitxi dira konfesionarijuan agiri

dirianak, eztira ikusten banak bat, edo beste baño. itandu bekijo ordirik endijenari; ardauak nosbait gatzik egin badeutsa, edo orditu bada? Bertatik eranzungo dau: ondotxu edan, eta alegretxu ifini bai, baña orditu inos bere ez. Mundu guztijak dakusaz ordirik, etxequak dagoz lotsaturik, euren ganora bagako berba gangarrak, oñen ganian ezin egonak, adi erasoten deutse guztijai ardaoz aserik dagozana samaraino, eta orregaitik bere eurak dinue: edan ondotxu, eta alegretxu bai, baña orditu ez. Onelakuak jakin daijen zelako pekatuba dan orditutia, esango dot norzuk pekatu egiten dabeen. Lenengo: egiten dau pekatu konbeni jakan baño ardao geijago edaten dabenak; eta orregaitik bere zenzuna ilundu, edo galzen dabenak. Gauza bi dagoz ordikerijan, bata da, konbeni jakan baño ardao geijago edatia, eta alan edango baleu bestetan edaten oi daben beste orditu baga, eta beste gatzik egin baga, eta usterik ardao oran edaten dabena bestetan lezkua dala. eta senduago dalako berak igarri baga, buruba eruango baleuzkijo, ez litzateke pekatu izango. Bardin da, edozeinbere beste gauzagaitik bere erru baga, eta laarregi

edan baga, buruba, edo zenzuna aradauak galduko baleuzkijo. Bigarrenengo: ordituteko pelleburuban ifinten dirianak euren guraz, edo borondatez, zelakuak dirian ardandegi, edo tabernara duazanak jakinik ara duazanian gitxi, edo gei ardaauan irago oi diriala, eta sarri ordituten diriala. Irugarrenengo: ardaua edateko mugaldi, edo okasinoe billa dabilzanak, prest dagozala daukenian al daijen guztija edateko ase ase egin artian. Laugarrenengo: joko, erromerija, jolas, honra, edo konbitera duazanak aldaijen ardao guztija edaterren.

Bostgarrenengo: ordijakaz batuten dirianak, onelakuakaz lagunduten dirian guztijan, edo geijenetan orditu oi diriala, edo bildur badira eurakaz badabilz, eurak lezko ordi urtengo dabeela: bildur au beti euki biar dau ordijakaz batuten danak. Seigarrenengo: norbaiti larregi edarazoten deutzanak bere porfijakaz, aserratuten dala bere eskutik artu nai ezpadau. Bardin egiten dau pekatu inor ordituten dabenak, esan dagijan isilik daukan , eta agertu nai eztaben gauzaren bat; edo egin dagijan, bere zenzunian daguala egingo ez leukiana. Zazpigarrenengo: egiten dau

pekatu ardaua emoten deutsanak, beragaz ordituko dala dakijanari. Modu onetan egiten oi dabe pekatu tabernarijak, zeinzuk jakin arren norzuk dirian ordituten dirianak, orregaitik bere ezteutsen ukatuten onelakuai eskatuten dabeen ardao guztija. Bardin egiten dabe pekatu, itxiten badeutse tabernan egoten berandu artian jokuan, eta edaten. Gauza bi gaitik euki oi ditubeez tabernarijak onelakuak; bata, ardao geijago edanagaz sisiari datorkijona geijago izan dedin: bestia, ura ardao orde salduterren; bada edanik dagozarian ezteutsena legez igarten ardauak ura daukan ala ez, naiko beste ur ezarten deutse. Baña, ez bata, ez bestiagaitik onelako gauzarik egin leije. Ez bata gaitik; bada badinue ezin bestelan pagadu al leijela sisiagaitik emon biar dabeena, bertatik eranzuten jake, jakin biar ebela sisia erremetadu ebenian, ezin onakorik egin leitekiala, edozein Kristinauk jakin biar dabena. Ez bestiak: bada ezin saldu leiteke ura ardao orde, eta ardauaren prezijuan. Jakinik, ardaua eskatuten dabenak ordituteko dabela, eta ezpadagi beste modurik ukatuteko, nastadu leijo ardauari ura, orditu eztedin, baña ezin

eruan leijo emon jakan ardauak balijo daben baño geijago. Eskatuten deutsu azunbre bat ardao, zuk ifinten dozu azunberdi ardai, eta urez beteten dozu enparaduba, ezin eruan zinaijo zunberdijen diruba baño.

Ay neure Kristinaubak, zenbat gatx, zenbat lan, eta zenbat atsakabetatik iges egingo zeun-kee, taberna, eta ordituteko pelleburubetatik alderatu, edo apartaduko bazinate! Badakit askori eta askori astun, eta gogor egingo jatzuna tabernia, jokua, eta zeuben lagunakaz daukazun gozaldija, edo dibersinoia istia; baña esan egidazu; bazenki tabernako etxia jausi aginian daguala, sartuko zinaiteke bertan? Bazenki an saldu-ten dan ardauak benenua daukala, edango zeun-ke? Edonok esango dau, zoro batek bere olako erakerikarik egingo ez leukijala. Nun da bada zure errazoia? Nun da zure fedia? Obija, edo sepultura baten aarrak janik, usteldurik, eta auts biurturik geratuko dan gorputzagaitik, izanik au Jesu Kristoren erijotza, eta pasinoiagaz erosija, bere odolagaz garbituba, zeruko herederutzat artu edo eskojiduba? Ze zorakerija andijagorik zu baño? Ze itxumendi gogorragorik? Baña badan-

tzut zer eranzungo deustazun. Jauna, esango deustazu. Egija da, ni tabernara juan oi nazana, baña neure bizijan bere ez naz juan ara ordituteko ustiagaz. Sinistuten deustut egija dinozula; baña ezin ukatu zinaiket sarri eta sarri jazo jatzula, taberna, edo beste ardao edaten batuten zarian lekuban, jazo jatzula zuk usten izan eztozuna, eta damutu izan jatzula an aurkitutia.

Obeto ezagutu daizun ze pelleburuz betia dan olako lekubetan egotia: kontu egizu topetan zaitudazala tabernara zuazala. Itanduko baneutsu, nora zuazan? Bertatik eranzungo zeusket: Jauna, gaur jaijeguna da, aste guztijan ego-naz biarrian, eta alan nua tabernara kuartilutxu bat ezarru, berbaldi bat egin lagun, eta adiskidiakaz, eta gaberako etxera. Orra zure gogua, ona eta errazoezkua. Sarzen zara tabernan, ateraten dozu kuartilu bat, topetan dozu adiskide bat. Bestiak, zu baño gitxijago ez izaterren, ateraten dau beste kuartilu bat, emoten deustu zeure eskutik trago bat. Bestiak, zu baño gitxijago ez izaterren, ateraten dau beste kuartilu bat, emoten deustu trago bat bere eskurik. Zu ikusirik bestiak egin dabena eztozu gitxijago izan gura,

eta ateraten dozu beste beat, eta emoten deusazu trago bat. Trago bat dua, trago bat dator: kuartilu bat dua, kuartilu bat dator. Onetan batuten dira beste adiskide batzuk, eta denpora emoteren asten zara jokuan. Berotuten zara joko, eta ardauagaz; ardaua dua, eta ardaua dator; jokua dua, eta jokua dator. Eztakizu ez zer edaten dozun, ez ze ordu dan. Urteten dozu tabernatik gaberdijan (goxaldian ezpalitz). Artuten dozu etxerako bidia estropezuka, oñak loka, burubarin, eta orra infernuba. Emaztiak berbatxu bat badagi, guzija da diadarra, demoninua, diaburuba, berba astuna, eta agirakia. Bijaramonian barriz? Buruba astun, gorputza nagi, eta biarrerako alper. Orra zetan geratuten dan kuartilutxu bat edan, eta etxera denporaz juateko gogua. Eldu ezpazina tabernara, bake obian egongo zinian etxian, eta denporaz jagiko zinian biarerra.

Ukatu zinaike, Kristinauba, sarri eta sarri aujazo jatzula? Ezetz deritz. Eta Jaunari milla eskergeijago ezpada; bada taberna, eta ardao artian jazo oi dira aserre, errijetan, eta auzirik gogorrenak. Espiritu Santubak dino, Ardauan daguala

aserria, pobrezia, zerba astuna, eta gatx guztijen sustraija. Asko galdu dituz ardauak, dino Jakinsubak. Egija au ikusi nai badogu, eztaukagu begiratu baño egunian egunian jazo oi dana. Baduaz lagun, edo adiskide batzuk trago bat ezartera, eta edaten dabe uste ebeen baño puska-bat geijago. Berotuten dira, eta ardaua berbatsuba dana legez, esaten dau eurretatik batek bestiari gogua betetan ezteutsan gauzaren bat. Aserratuten jaka orregaitik, eta esaten deutsa beste gogorragotxu bat: berbarik berbara, errazoerik errazoera, aserratuten dira, eta dirautsa batak bestiari mingotstuten daben gauzaren bat. Zenbat eta aurrerago. ainbat eta aserriago. zenbat eta aserriago, ainbat eta berba astunago, ezarten deutsez alkarri eskubak, edo au baga, ezin enzun gura leukian berbaren bat gaitik emoten da kerella bat. Sarzen dira, emetik Eskribauak, endik Letradubak, batetik Prokuradoriak. bestetik Alguazilak, betoz testigubak, bijuaz enzun dabeenak. Egiten dira prozesu andijak, ateraten dira bakotxak dakizan, eta jakin al daizan bestia- ren falta, edo obenak. Gastetan dabee dauken guztija, eurak dabilz batetik bestera biarrik egin

baga, euren zereginen jaramonik egin baga. Eskribau, Letrau, eta Prokuradoriak darue dauken guztija, eurak geratuten dira alkandora utsian, zer jan, zer janzi eztaukela, ez eurak, ez euren umiak.

Orra zer jazo oi jaken ardao edaliai. Orregaitik dirausku Espiritu Santubak: nori datorkijoz gatxak, nekiak, aserriak, auzijak, pobrezia, ez eukija, eta neke guztija? Ardai zaliai, dino, edo eranzuten dau Jaunak berak. Nun egiten oi dira buru bagako tratu, eta fianza galgarrijak? Geijenak tabernetan, eta ardao artian. Eztot zeubek baño beste testigurik nai. Zenbat etxagunza ikusten dituzubez saldurik, edo zorrez beterik? Zenbat etxagun, eta euren familia euren etxetatik kanpora burubako fianza onelakuak gaitik? Jakin nai badogu nun, zelan, eta ze modutan sartu zirian fianza oneetan, ikusiko dogu geijenak egin ziriala tabernetan, eta ardao artian. Orrako gizon galdu, zeinzuk ezin inundik aurkitu al eben euren tratu okerren fijadorerik, konbidadu eben etxagun ori trago bat edatera. Emon eutseen ondotxu edaten, eta arako berorik eguanian erregu, palagu, eta berba labanakaz sartu

erazo eutsen fianza galgarri orretan, eta orain dakutsu bere etxalde baga, zer jan, eta janzi eztaukala, alsis beterik, erdi billoxik, eta benturaz aterik ate ogi kopau bat jango badau. Zeubek sarri eta sarri ikusi izango dozube beste onenbeste. emetik ezagutuko dozube, ze egija andija dan, Espiritu Santubak dinuana: Nekezale ordija ezta inos aberatsizango.

Andijak dira benetan ordikerijak dakarzan kalte, eta gatxak; baña andijaguak dira pare baga emakumienak dakarzanak, gizonenak baño. Emakume ordija, aserre andija, dino Jakin-subak, lotsari andija senarrarentzat, eta senide guztijentzat; ezin eskutadu leiteke bere ezaintasuna; edonun agiriko da ze itsusi dan. Lenago galduko dau etxia emakume, edo emazte ordijak, gizon, edo senar ordijak baño. Errazago jaka emaztiari senar ordijagandik etxeko gauzak eskutetia, senarrari emaztiagandik baño. emazte ordi batek salduko dau etxian dan guztija, senarrak ezer jakin orduko; bere erropak, umienak, senarrarenak, izara, zamau, urdai, zezin, eta ordituterren; bada gauza guzti oneek euren ardurara dagozana legez, inok jakin, eta ezagu-

tu baga juango da saldubagaz, eta senarrak uste dabenian etxe betia daukala, eurkituko dau uts utsik. Baña ez jaka ain erraz senar ordi bati au egitia; bada nundik edo andik ezagutuko dau emaztiak zer falta jakan, eta egingo dau alegina bere senarragandik ezkutetako. Auxe da Jakinsuak dirauskuna: emakume jakitunak etxia eregiten dau, edo etxia aberastuten dau; eta emakume zenzun bagiak, zelakua dan ordija, etxerik aberatsena iruliten dau bere eskubakaz. Baña ezta emen geratuten emakume ordi baten lotsabakerija: beste gauzarik ezpadauka zegaz erosi ardaua, bere gorputza emongo dau ardaiz aseterren. Zenbat bidar ikusi izango dozube au jazoten?

Baña geijen bildurtu biar gaituzana da, ordi-jak dauken pelleburuba infernura jausteko. Ain da gatx ordi bat salbetia, ze, dino Juan Krisostomok, ezin leikian gauzia dala. ordi bat, dino Santu andi onek, ezin ezek bere atera leike daukan ekandu zitaletik. Ifini bekijoz begijen aurrian Jaungoikuak beragaitik egin dituzan mirarijak; irago dituzan neke, pena, zauri, eta erijotzia, egin deutzazan mesediak, eta bere ediskidien-

tzat gorderik daukazan glorija, atsegin, eta ondasunak, eztau zirkinik bere egingo. Idigi bediz bere aurrian infernuko pena ikaragarri guztijak, ango su, arrabija, alkar kopauka jaate, erre, eta kiskildutia, ango neke, min, eta alan beti betiko, eta inos bere amaitu baga irautia, eztau jaramonik egingo. Berba baten, eztago, dino Santu onek, ordi bat salbadu al leijam gauzarik. Zeubek dakutsube zaarrago, eta gozuago egiten jakela ardaua; aurrerago, eta zaliago; indar gitxiago, eta naijago. Eta zelan geratu oi dira ordirik geijenak zaartu deitezanian, edo benturaz leenago? Kokoturik, zenzun baga, adin baga, podere baga, abere, edo animalija zenzubagak legez, edo obeto esaterren. subil bat dirudijela. Ez konfesetako dagoz, ez Jaungoikuari parka eskatuteko, ezta bera gomuta izateko bere. Euren gogo guztija, euren gurari guztija, eta euren amesa bere, ezta besterik, ezpada nundik nora ardaua edango dabeen. Ez egizube uste au nire burueraren bat dala. Espiritu Santubak dino, auxe jazoten dala. Ez egijozu begiratu ardauari basuan daguanian, dino, ez egizu esan: ay ze kolore ederra daukan: gozo, eta bigun ira-

goko da zure estarririk, baña guenian sugiak legez jango deutsu zeure barruba, eta ersuge, edo basiliskuak legez, beteko zaituz benenoz. Egongo zara losorro astunian daguana legez: azotadu arren eztozu minik artuko; narraz erabili arren, eztozu sentiduko, eta amestean baño ezpada bere, egongo zara esaten: nos iratzartuko naz, eta edango dot ardaua. Auxe izan oi da ordijen bizi moduba, eta alaintxe ilten bere oi dira; batzuk bertatiko aldi gesto, edo akzidentia-gaz, konfesadu baga, eta beste Sakramenturik artu baga. Beste batzuk konfesetan dira, baña zelan? ganora baga, zer egiten dabeen jakin baga, erdi kokoturik, eta abaseruan, eta itxumustuban.

Erazoginza

Ikusi dozube, Kristinaubak, zenbat, eta ze ikaragarritzko gatxak dakarzan ordikerijak, alan gorputzian, zein da ariman, alan gorputzeko ondasunetan, zein da arimakuetan. Etzaite bada miraritu, edo admiradu Konfesore, eta Predika-

doriak beti beti badagoz aleginak egiten zubek jausi etzaitzen ekandu onetan, eta jausi bazare, andik aterateko. Dakuse erri guztijetarik zabaldurik pekatu au, etxe, kale, eta bidetan aurkituten ditubeez ordijak; batzuk oñen ganian ezin egon diriala; beste batzuk berba ero, gangar, eta ganora bagak esaten ditubezala, eta benturaz loi, eta atsitubak; oneek eztaukela bakerik inogaz, areek euren emazte, seme, eta etxeko guztijak darabilzela uxaturik. Auxegaitik ainbeste bidar prediketari oi dabe ordijen kontra. Zer deutse geijago bere kontra, edo beste pekatuben kontra prediketia? Zer emoten jake au gaitik? Zer irabazten dabe? Ezerberez. Eta alanbere beti zagoze esaten, onek predikadoriok, Kura onek beti beti ordijen kontra, ezpalego legez beste pekatuak, edo beste gauzarik zeren ganian predikatu. Eztaukentian zer esan, edo akabetan jakeentian sermoia, ekin ordijai, eta taberniari, beti dauke eginik sermoia. Ez Kristinaubak, ezta au zegaitik ain sarri prediketari dan ekandu onen kontra. Zubei deutsuben amodijo, eta ondu guriak, zuben errukijk au erazoten deutsee. Nai dozube onen ganian barbarik eztaijen Arima-

zain, edo Kura Jauna, eta Predikadoriak? Kendu egizube enkandu zital au, eta orra eztozube enzungo ordijen kontrako sermoerik: baña zube aurrera ordikerija, eta ez predikadu bere kontra, ori ezin izan leiteke.

Beste gatx guztiz andi bat ikusten da ordijetan. Ez tira agertuten konfesetara urtian bein baño. Elzen da aste Santuba: zelako esturak? Zelako izerdijak? Zelako larrijak? Eztira konfesetara juango lenengo egunetan, ezpada ararko geijago luzatu ezin leikezan azkenenguetan. Eta orduban zelan elduten dira? Urkamendi batera balijuaz legez. Begiratuten dabe ze Konfesore dagozan, an ete dagan bera eztazaunen bat, modu onetan angañadu al daijan, eta agindu ezteijon ezteila tabernara jaun, eta alan ezta juango igaz, edo leengao konfesadu ebanagana: modu onetan dabil zer egin eztakijala. Orra zegaitik dirian ordijak ain ezagun aste Santuban. Konfesorik aginduten badeutsa ezteila tabernara eldu bere, berak zabalduten dau emon jakan penitenzija. A ze gogorra dan urlija Konfesorem enauka urrenguban artuba. Ezaizu gizon itxubam zer nai zeunke egin deizun Konfesorik,

badakus tabernara juatia bardin bardin dala zuretzat, zein da orditutia? Orditutia bardin dala, zein da zeure etxe, eta auzuak eskandalizetia? emon deutse Konfessoriari diru poltsaren bat, zuri agindu deizun tabernara ez juateko? Zelako konfesinoiak izango dira onelako ordijenak? Alaintxe darue aurrera auren ekandu zitala; beragaz elduko dira erijotzako ordura, eta Jeungoikuak jakin zelakua izango dan orduban egin daijen konfesinoia, egiten badabe. Idigi egizubez nos-bait zeuben begijak, eta ikusi egizube infernuban beti betiko jausteko daukazuben pelleburuba, eta ezauera onegaz artu egizubez Konfessoriak emoniko penitenzijak, goitu dagizuben ekandu ori Jaungoikuaren laguntasun, eta grazijagaz. Amen.

XXXIX. BERBALDIJA

*Jaungoikuaren legeko seigarren
agindu, eta lenengo, pensamentu
lijen ganian.*

Jaungoikuaren legeko seigarren mandamentuan aginduten jakuna da, aragijazko pekatuak ez egitia. Poz pozik itxiko neuke agindu au azaldu, edo explikatu baga, dakidalako, ezta erraz leku santu oni dagokijon garbitasungaz argitan ifintia beronen kontra egiten dirian peketaubak; baña ikusirik ain daguala zabaldurik munsu gutitik pekatu itsusi au, ze arrainak amuban, eta txorijak sarian jausten diriana legez, arzen dituzala demoninuak gizonak pekatu onetan, ezin isilian itxi neike. Egingo dot alegina al daidan garbitasunik andijenagaz bere ganian berba egiteko.

Mandamentu onetan aginduten jakuna da, garbi izatia gogo, edo pensamentu, berba, eta eginza, edo obretan; eta alan iru modutan pekatu egin leiteke mandamentu onetan. Lenengo:

gogo, edo pendamentubagaz. Bigarrenago berbaz, eta irugarrenago egitez, edo obraz. Ezin irurok berbaldi, edo platika baten adi erazo leitekez, eta alan gaur bakarrik izango da gogo, edo pensamentu loijen ganian. Egiten dau bada pekatu gauza loijetan pensetan daguanak bere borondatez, edo berak nai dabela. Pensamentu loija burura etortia ezta pekatu, bada au etorri leiteke geuk gura baga, eta alan eztago geugan. Pekatuba dago pensamentu loija sentidu, ezagutu, edo adbertidu ezkerro bertatik botateko elginik ez egitian, edo pensamentu atan egon gura izatian. Esaterako: egin zenduban nosbait aragijazko pekatu bat, jatorzu gogo, edo pensamentura orduban euki zenduban limuriya, edo zeure aragijan euki zenduban gozua, edo gustuba; bada pensamentu au sentidu, edo ezagutu eta bertatik egin bazenduban alegina zeure gogo, edo pensamentutik kenzeko, eztago pekaturik. bada etorri bajatzun pensamentu au, eta zuk egin arren alegina, iraun beban denporaren bat, etzan zure borondatez izan, eta borondaterik eztaguan lekuban eztago pekaturik. Baña etorri bajatzun pensamentu au, eta zuk egin arren ale-

gina, irauñ bebañ ðenporaren bat, etzañ zure borondatez izan, eta borondaterik eztaguañ lekubañ eztago pekaturik. Baña etorri, eta sentidu, edo ezagaturik pensamentu ori, geratuten bazara ordubañ euki zendubañ gozo, edo gustuari ado, bera ikusten, edo barriztetan bazengo legez, ordubañ pekatu mortala egingo dozu, zeuk bere borondatez, edo guraz daukazulako, eta onixe dei egiten jaka pensamentu konsentiduba.

Ara irudi bat obeto aitu daizuben. Zagoz negu baten sutonduañ lagun batzukaz, eta sentietan dozu erropa erre usaina; jagiten zara beinguañ, eta ikusten dozu txingartxu bat itsatsi jakola zure erropiari; bada ikusijaz batera abijetan bazara erropia irardausi, eta alegina egiten badozu txingarra andik kenzeko, ezin esan leiteke zure erruz erre dala erropia. Alaintxe bada gogo, edopensamentu txarra, edo loija sentidu, eta bertatik alegina egiten badozu kenzenko burutik, eztago pekaturik. Kontu egizu ain modutan itsatsi jakala txingarra zure erropiari, ze egin alak egin arren, ezin kendu dozula zeure erropatik ðenpora luziañ; ordubañ bere ezin esan leite-

ke zure erruba dala. Modu onetan zuk alegina egiten badozu pendamentu loija kenzeko, luzaro iraun arren bere, eztozu pekatu egingo. Okerretara: sentidurik erre usaina, eta jagirik ikusten dozu zure erropan daguala, baña ikusi arren eztozu ardurarik arzen txingarra andik kenzeko, eta zagoz berari begira. Orduban zuk ikusi zendubanetik aurrera, zure erruz, edo kulpaz erreten da. Aux berau da gogo, edo pensamentu loijagaz jazoten dana, ezagutu ezkerro ezpadozu alegina egiten kenzeko, eta bazagoz berari adi, edo begira legez, ordubantxe da pekatu mortal; zegaitik lenenguan zure guraz, edo borondatez etorri ezpajatzun, sentidu zendubanik aurrera zure borondatian dago nai izatia, edo ez izatia, edo bardin dana konsentietia, edo ez konsentietia.

Jauna, denpora puska bat baño etzan izan, bada gero errezadu neutsan Ama Birjiniari, dei egin neutsen Jesus, eta Marijen izenai, eta agin neban alegina kenzeko. Ezta inport. Lenenguan borondatez, edo zeure gustoz egon bazinian pekatu loijari adi, egin zenduban pekatu. Onetarako denpora apur puska bat da asko. Bolbora

barrika bat erre, eta kalte andijak egiteko beingo beingo bat da asko, eta su emoten deutzanari ezteutsa balijoko esatiak bertatik suba alderatu, edo apartadu ebalu; alaintxe zuri bere ezteutsu balijoko esatiak, laster asi ziniala pensamentu loija kenzen. Ondo da gero bere au egitia, baña beindunik bein egin zan pekatuba. Jauna, eneban onelako pekatu egiteko gogo, gurari, edo deseorik euki, eta ez tot beste gauzarik euki, pensamentuban gozatutia baño. Etzaitez engañadu, Kristinauba. Gogozko pekatu izateko, edo pensamentu loija pekatu izateko, ezta biar gomutan, edo buruban darabilen leezko loikerijarik egiteko gurari, edo pensamentubagaz gozatutia. Esaterako. Egin zenduban aragijazko pekatu bat, eta andik denpora luzian datorkizu gomuta, edo memorijara orduban euki zenduban gozo, edo gustua; bada au pekatu izateko, eata biar zuk eukitia ostera pekatu egiteko gurari, gogo, edo usterik; asko da orduban euki zenduban gozo, edo aragijaren gustuan pensetan egitia, eta bazeunka bere propositurik senduena ez pekatu atara biurtuteko, alanbere pekatu mortal

egingo zeunke orduko gozuan oensamentuba zeure guraz aukitiagaz.

Oraindio bere obeto au ezagutu dizuben, nai deustubet argi, edo klarubago ifini irudi bategaz. Zuaz ferija batera, eta ara ona zabilzaz zer dagan ikusten: elduten zara denda txitoko eder batera. Alde batetik dagoz ebilla, ereztun, eta arrakada diamantezkuak, bestetik espadin, bastoe, eta botoe arri balijosoz betiak. Emendik urregorri, eta zirarrezko kollara, plater, eta tresnak: andik sedaz, urrez, eta zirarrez ordaturiko jastekuak. Zagoz arriturik ainbat gauza ain zoragarri begira, eta eurak ikusijagaz eurai begira egonagaz arzen dozu poz, gozo, eta gusto andibat, eta orregaitik zagoz begijak andik kendubaga. Itanduko baleutzube zerbait erosi nai badozu; bertattik eranzungo zeunke, ezetz. Eta esango baleutsube, zer egiten dozu bada or? Esango zeunke, begijai gusto emon. Auxe berau bada jazoten da pensamentu ezainakaz bere. Gorputzeko begijakaz denda bat ikusten dana legez, alaintxe adin, edo entendimentubagaz begiratuten jake aragijari gozo jakazan loikerijai, eta nai ezpadau bere erosi, au da, egin boronda-

tiak an dakusana, alanbere nai dau gusto artu. an dakusanagaz, eta auxe da asko pekatu mortala egiteko. Jakinik zer dan gurari, edo deseolojan pensamentu, edo gomuta loijan borondatez egon, edo geratutia, ikusi daigun norzuk egiten daben pekatu modu bi oneetan.

Lenengo: egiten dau pekatu mutil, edo gizon, neskatila, edo emakumeren bategaz pekatu egin gura leukianak, baña edo emakumiak nai eztabelako, edo lotsa dalako bere gurari loija edi erazoten, edo bildur dalako euki leijan gatxen bat itsatsi ezteijon, eztau beteten bere gurarija.

Bigarrenengo: ikusirik ezkonduben batzuk, edo norzubenbazuk ezkonduten diriala, pensetan dagozanak, eurak alkarregaz tratu ezaina euki ezkeru, aurrera ezin eruan aldabeenak, guraso, ugazaba, edo Justiziak, alkarregaz egoten itxiten ezteutselako, baña beti dagozanak alkarregan pensetan. Laugarrenengo, alargunak badagoz penseetan. eta gozatuten euren senar, edo emaztiakaz, euki oi zitubezan eskubidetan. Bostgarrenengo: egiten dabe pekatu ezkongejak, ezkondu ezkeru egingo al ditubezan, edo egiteko eukiko dabeen gauzetan pensetan, eta gozatuten badi-

ra. Zenbat pekatu egiten ete dira onelakuen artian! Orregaitik alegin guztija egin biar da alakrregaz bakarrian ikusi ezteitezana, alkarregaz berbaldi, edo konbersazinoerik euki ez taijen, eta onduen izango litzateke alkar ez ikustia ezkondu artian. Seigarren: egiten dau pekatu, norbait loikerija ezainen bat egiten ikusten dabenak, eta berari bere guraz adi daguanak, edo ikusi arren andik alderatu, edo apartetan eztanak, edo gitxijenez begijak kenzen eztituzanak. Bardin da pintura loi, zikin, eta atsitubai begira daguanak, bada onek bere pekatu mortal egingo dau. Zazpigarren: egiten dau pekatu libruru, edo paper loijak irakurten dituzanak bere guraz, edo gustoz, eurak irakurteko premina, edo nezesidaderik euki baga, daukena legez mediku, barberu, edo zirujau, eta besteren batzuk.

Askok eta askok esan oi dabe, eneuke gura onelako pensamentu loirik etorri dakidan, baña eztitubeez itxi gura pensamentu zikin oneen sustriajak. Eztitubeez itxi nai danzak, erromerijak, itzkune, edo berba arinak, kanta ero, gangar, eta loijak, urlija, edo urlijagaz dauken adiskidetasuna. Ezagututen dabe, edo ezagutu biar leuke,

pelleburu onetatik datorkijuezala pensamentu orreek, eta alanbere nai leukee eurretan ibili, eta ez euki pensamentu loirik. Ara. Arzen dau adiskidetasuna mutil batek neskatila bategaz; alkarregaz duaz ibiltera, edo pasietara, alkarregaz erromerijara, alkarregaz jolasera, alkarregaz egote luziak. Esaten bajake onelakuai, zegaitik alkar-gandik alderatu, edo apartetan eztirian? Bertatik eranzuten oi dabe, ediskide andijak gara, asko gura deusagu alkarri. Ainbat eta deungago: Amodijo ori eztator Jaungoikuagandik, ezta karidade benetakua, aragijarena da, infernutik urtena, eta demoninuaren putzagaz isijua; uxala onelako adiskidetasunik ezpazeunka, uxala alkar ain laztan ezpazendu, ez zeunke ainbeste pekatu egingo. Ez Jauna olakorik. Ezteusagu oraindio alkarri ukututxu bat bere egin, ezteusagu alkarri berba arinagotxu bat bere esan. Baña, arako beragaz zagozarian, eztozu sentietan zeure barruban unetaraño erretan zaituzan suba? Ezta isioten zure bijotzian, guztijori gorituten zaituzan gar bizi bat? Egija da, sarri euki ditudazala orrelako pensamentu loi, eta berotasunak; baña ezitudaz inos konsentidu, ez neuke etorri dakidazan

bere nai. Nok sinistuko deutsu? Ez inok. Ifini zaitetz sutondoan, eta esaizu eztozula berotu gura. Edonok esango deutsu: zelan esan zinaike eztozula nai subak berotu zaizan bere albuan ifinten bazara? Nai badozu sinistu deizudan, ken zaitetz ortik, eta sinistuko deutsu egija dinozula. Auxe berau dirautsut nik bere. Erre nai ezpazara aragijaren pensamentu loijetan, itxi adiskidetasun ori, iges subagandik, iges pelleburubetatik; bada bestelan alperrik esango dozu eztozula nai loikerija oreek gogo, edo pensamnetura etorri dakizuzan, zeure erruz etorriko jatzuz, eta pekatu mortal egingo dozu.

Beste askok esan oi dabe: Beti beti jaokuz Arima-zain, edo Kura, eta Predikadoria diadarez, erromerija, fiesta, danza, eta jolasen kontra; baña nik neure bizijan eztot pendamentutxu loi bat euki. O gizon! O emakume zorioneko, eta bedeinkatubak! Zubek etzare luurrian bizi zeruban baño; bada autortu, edo konzedidu deutsu-be Jaungoikuak Santurik andijenari egin ezteutsan mesedia. Dakuskuz gizon miragarri asko, beti baru, mortifikazinoe, penitenzija artian, beti negarrez, beti orazinok, eskari, eta erregu artian,

mundutik igesi, basamortubetan sarturik, eta alanbere ezin ezi ditubez euren aragijaren tentazinoiak: eta zubez nai dozuben moduban bizirik, jan edanetan, olgura artian, erromerija, jolas, eta danzarik galdu baga, eztaukazube pensamentu-txu bat bere. San Paulo Apostoluba ainbat mirari egin ezkerro, ainbat gizon Jesu Kristoren ezaue-rara ekarri ezkerro, ainbat neke, lan, ibilera, ekatz, eta zauri irago ezkerro, eta mundu guztija bere santidade miragarrijagaz arritu ezkerro, beti jaken bildur bere aragijen tentazinoiai, beti iratzarrik ainbat lasterren kenzeko, eta alanbere beti bildurrez beterik zinuan: neure aragijan sentietan dot gerra krubel bat neure arimiaren kontra: eta zubez zeuben bizi guztijan ezer egin baga aragija eziteko, alperkerija, nagitasun andijan bizi izanik, guztija ikusi, guztija enzun, guztija esan, eta goguak emoten deuntsun guztija egin da bere, eztaukazube aragijaren tentazinoe txikitxu bat bere? Sa Geronimok dino: Basamortu baten nago abererik uzubenen lagun eginik; eztaukat neure gorputzian azur, eta azala baño; arri gogor bategaz urratuten dot neure bularra, nire janarija ezta ogi, eta ur puska bat baño. luur

gogorra da nire oia; ezteutsat inundik bere atseginik emoten neure aragijari, eta alanbere estu estuban narabil bere tentazinoiakaz. Dakarkidaz burura, arako antxina Erroman ikusi nituzan emakumiak, eta euren gomutiagaz egiten deust gerra ain bizija, ze beti nauka bildurrez ikara. Eta alkarregaz mutil neskatilok ibili, alkarri ukutu, alkarri begira, alkarregaz berba, alkarregaz ordu luzietan egon arren, eztozube ezer sentietan? Nok sinsitu leikezube? Da benturaz zuben aragija santu areena baño beste modutakua? Jaijo zare pekatu orijinal bagoa? Ezi dozube areek baño obeto? Daukazube areek baño grazija geijago, indar geijago, zeuben aragija azpiraturik eukiteko? Ezin olakorik esan, ezta uste bere zinaike. Beraz guzurra dinozube dirauskuzunian eztozubela ezer sentietan.

Baña deritz egija dinozubela. eta eztozubela ezer sentietan. Baña onetantxe dago zuben zori gogor guztija; onetantxe zuben kondenazinoia. Onenxek zaruaze infernubetara. Zegaitik deritzube eztozubela sentietan pensamentu loirik? Da benturaz eztaukazubelako, Santurik andijenak euki oi ditubezanak? Ez neure Kristinaubak.

Zuben gomutia, edo memoriya, eta gogo, edo entendimentuba, pensamentu atsituz beterik dago, eta benturaz euren subagaz erretan dago zuben aragija, eta eztozube sentietan Santubak sentietan oi-jebena legez; eta zergaitik? Irudi bategaz enzungo deustubet. Kontu egizube dagozala etxe bi; bateko atiak eztagoz inos idigirik, ugazabak gura dabelako idigirik egon deitezana. Dator lapur bat etxe bi oneek ostutera. Dua atia itxirik dagan etxera, baña ezin sartu da. Joten dau irrima atia idigi deijuen, enzuten dau ugazabak, eta enzun orduko artuten dau arduririk endijena lapurra barrura sartu eztekijon, eta dauka guztija ostu ezteijon. Elduten da atia idigirik dagan etxera, eta guztija daguana legez zabalik, sarzen da nora nai, kenzen dau dagan guztija, eta eztaki ugazabak inor sartu danik, eztaki ostu dabeenik; eta usterik etxe betia daukala, guztija geratuten da utsik. Auxe bera jazoten da Santubakaz, eta zubekaz: eurakgana, eta zubekgana bardin bardin elduten da tentazinoe, edo pensamentu loijen lapurra; baña areek zarraturik daukena legez euren bijotzeko atia, ezin sartu da atia jo, edo otsik egin baga, eta

auxe da tentazinoia sentietia. Dator zugana, eta aurkituten dau zure bijotza alde guztijetatik zabalik, eta sarzen da barrura nundik nai; nai begijetatik, nai belarrijetatik, nai miinetatik, nai beste edozeinbere lekutik, deirik, ez otsik egin baga: orregaitik eztozu zuk sentietan pensamentuben, edo tentazinoe loijaren lapurra, eta zuk sentitzaka, kenduten deutsu zeure arimako ondasun guztija, zein dan grazija, eta itxiten zaituz pekatu mortalien. Orra zegaitik sentietan zitubezan Santubak ain laster euren aragijen tentazinoe, eta pensamentu loijak, eta zegaitik bertatik bildurtuten zirian; eta orra zergaitik pekataririk itsusijenak eztitubezan, eta bildurrik ezteutsen.

Erazoginza

Deritz, neure enzula maitiak, pekatu euxe dala, Kristinau geijen infernura daruazana, eta itandu an dagozanai, zegaitik dagozan? Kondenadurik geijenak ernzungo leukee, aragijazko pekatuba gaitik. Ain da labana, ain da pelleburuz

betia, ze gixijago uste dabenian dago katigu gizona bere sareetan. Orregaitik pekatu onetatik iges egiteko egin biar dau Kristinaubak aleginik andijena. Baña, alanbere andija bada edozeinbere aragijazko pekatutan jausteko daukagun pelleburua, guztiz da andijagua pendamentu, eta gurari loijetan jausteko daukaguna. Berbazko, edo obrazko pekatubetan jausteko, badauka gizonak zek atzeratu dagijan. Edonor lotsatuten da berba loija esateko, eta alan, ze esango dabeen danzubenak, atzeratu leike esan nai arren. Atzeratu bere leike danzubenak egin leijuen agirakiak, edo emon al leijuen kastigubak. Obrazkua barriz egoteko, zenbat gauzak atzeratu leike? Edonor dan lotsagalduko, azartu, edo atrebidubena bada bere, zerbait atzera egongo da, bere barruko gurari zitala esan edo adi erazoteko. Eta elsuten bada bere lotsia, eta bildurra galzera, ezin beti eldu leiteke bere gurarija betetera. Baña eztauka onelako galazo leikijon gauzarik pensamentu, edo gurarizko pekatu egiteko; bere bakarrian inok ikusi baga, inok jakin baga, inori adi erazo baga, euki leike onelako gozamen galgarrija.

Orregaitik edozeinbere aragizko pekatutik iges biar badogu bere, ardura andijaguagz pensamentu, edo gurarizkuetatik; bada bestietan baño errazago da eurretan jaustia, eta gatxago eurretatik urtetia. Alaintxe dirausku Trentoko batzar, edo Konzilijuak. Ze gauza errazagorik pensamentu loi bati, gurari zital bati, sarzaijera borondatiak emotia baño? Denpora apur puska bat da asko onetarako. Eta ekanduba lasterrago sartu leiteke. Baña geure biziko denpora guztijetan badaukagu bere pelleburu andi au, guztiz da andijagua erijotzako orduban. Eztau inos alegin andijagorik egiten demoninuak gu galzeko, orduban baño. Benturaz denpora estu atan ez gagoz berba egiteko, eta alan ez gaituz tentetan loikerijak esatera; ez gagoz orduban beste pekatu-ekin ginaijan moduban, baño gure gogua, gure pensamentuba dago loikerijari sarzaijera emoteko eskubidiagaz. Eta zer izango da orduban, lenagotik ezpadago eginik onelako pensamentu zikinak botatera? Zelan pelasuko dau prduban, lenago badauka ekandu zitala eurretan gogua eukiteko? Bada, Kristinauba, egizu alegina gerra onetan irrime, eta sendo pelietako. Ezez etzaitez

euren azpijan jausi; ez eijezu itxi zeure barruban sarzen; sarratu eijezuz zeure arimako atiak. Argala da zure aragija, senduak zure arerijuak, baña eskatuten badeutsazu Jaunari bere laguntasuna, berak sendatuko zaitu bere grazijagaz, goitu, edo benziduko dituzuz zeure arerijuak, eta alduko zara Aingerubakaz batera kantetara goitute, edo biktorija. Amen.

XL. BERBALDIJA

Seigarren mandamentubak aginduten deuskun bigarren gauzia da, garbi izan gaitezala berbetan, edo eztaigula esan, ez enzun berba loirik. Eta alan egiten dabe pekatu mandmentu onen kontra. Lenengo: berba loijak esaten dituzanak, gusto, edo gozo loija arzen dabela eurak esana-gaz, inok enzuten ezpadeutsaz bere. Bardin, egiten dau pekatu besteren aurrian esaten dituzanak; bada bildur izan biar da pekatu erazo leijola enzuten dituzanari; ezpadauka bere pekatu eruateko gogo, edo intenzinoerik, beti izango da pekatu mortal berba loi, eta zikinak esatia: bada beti dago pelleburu au. Bigarrenengo: egiten dau pekatu mortal noribat berba laban, bigun, eta amodijozkuak esaten deutsazanak, bere gurari zitaletara eruateko gogo, edi ustiagaz. Onelakuak beti pekatu mortal egingo dabe, berbak eurak ain loi, eta ezainak ezpadira bere; bada izango da pekatu, bestiak pekatu legundu nai ezpadeutsa bere, eta ezta enzun bere alako berbak. Irugarrenengo: egiten dabe pekatu mortal,

arako jente askoren aurrian berbaldi, edo konbersazioe loi, eta luziak daukezanak: Batzen dira neguko gabetan sukaldian, soluan, biarrian, basuan, egur egiten, edo beste lekuben baten mutil, neskatila, ezkondu, eta atso, egurak; abijetan da euretatik bat berba arinak esaten, bestiak eranzuten deutsa loijago bat, berotuten dira miinak, eta dagoz gauzarik ezain, eta lotsagarri-jenak esaten; benturaz egura buru zurijak aurre-rengo diriala; modu onetan idigiten ditubezala an dagozan gaztien begijak. Infernuko eskolak izan oi dira onelako batzarrak, nungo maesuban dan demoninua bera.

Laugarrengo: egiten dabe pekatu mortal, kanta loijak kantetan ditubezanak; bada eurak borondate txar, eta gogo, edo intenzioe okerrik ezpadauke bere, eztakije nok enzun leikezan; eta alan pekatu erazo leijue danzubenai. Onelako kantikak pelleburuago dira, arako mutil, eta neskatikak bazter, eta okelubetan sarturik euren soñuban danzetan dabenian, barre, eta algararik gozuenan egiten dabeela, arako gauzarik lotsagarri-jena esan, edo kantetan danian. Bostgarrengo: egiten dabe pekatu mortal, jazo dan gauza,

edo ipuin loi, eta ezainak kontetan ditubezanak, ain modutan pintadu, edo apainduten dabeela, ain argi, eta klaruban ifinten dabeela adi erazo nai dabeen loikerija, zein da gorputzeko begijakaz ikusiko balitz. Ezta berba lotsagarritzorik esango, ezta izen loirik enzungo; baña ain modutan adi erazoko da, edo azalduko da esan gura dan loikerija, ze edozeinek aituko dau zer esan nai daben. Onelako ipuinak, onelako kontubak pekatu mortak dira. Ay zenbat gazteri ekarri ete deutse euren kondenazinoia onelako ipuinak! Seigarrengo: egiten dabe pekatu mortal, mutil neskatila, eta gizon, emakume, bata bestiarri amodijozko berba laztanak esaten deutsezanak; baita onelako kartak eskribietan ditubeezanak bere. Jauna, gauza orreek esan arren, soiñu orreek kantadu arren, ipuin orreek kontadu arren, eta karta orreek eskribidu arren, eztoz neure bizijan deseo loirik euki, ez inor galzeko bere, edo inori pekatu erazoteko intenzinoierik euki. Itxirik orain intenzinoe okerrik bazeunkan ala ez: Esaidazu: Zer dakizu zuk zer egin daben bestien barruban zure berba, zure kanta, zure ipuin, zure karta orrek? Ezin jakin zinaike: pelle-

buru auxe da asko, berba guzti oneek pekatu izateko. Egija au ezagututeko, begira zer egin oi daben demoninuak.

Asko daki gure arimen arerijo onek, eta sarri goitu oi ditu berba, kanta, eta ipuin oneen bitartez bere tentazinoiak ezin benzidu al izan dituzanak. Asten da malizijaz beteriko satanasa gizon, anra, mutil, edo neskatilen bat pekatu loira tentetan; baña Jaungoikuen bildurtija dala-ko ezin goitu dau, ezin irago deutzaz bere tentazinoiak borondatera. Zer egiten dau bada? Arzen dau moduba aurkitu dedin lagun batzukaz, eta egiten dau eurretatik batek esan daijala berba arintxu bat. Erantzuten deutsa oni beste batek beste lotsarizko bat, eta bein onetan abijau ezkerro, aurrerago eta loijago, loijago eta gozuago. Au enzun arren, badauka lenenguan bildur puska bat, eta lotsaren bat bere bai areek lezko berbak sateko; baña ikusirik guztijak diriala modu batekuak, dua galdubagaz eukan lotsia, eta dua gitxitubagaz bildurra. Ostera, biurtuten bada eurakgana galzen dau leen geratu jakan lotsa, eta bildur puskia, eta ez zaterren bestiak baño gitxijago, egiten da eurak lezko. Orra ze

modutan galdu oi dituzan demoninuak miin loijen bitartez, berez ezin izan dituzanak. Betoz aragizko gurarijetan samaraino ondaturik dagozan guztijak; esan beije nundik asi zirian pekatu orretan sarzen, eta geijenak esan biarko dabe berba, kanta, eta berbaldi, edo konbersazinoe loijetatik asi zala euren ekandu galgarrija. Jauna, eranzun oi dabe; orrelako berbak ez oi dituguz esaten txantxetan baño: ipuinak barriz denporia emoteko; baño eztira inos izaten gogo, edo intenzinoe txarragaz. Eta zeure barruban sentietan zenduban gozamen, edo gustua? Bestiak egiten eban algaria arako gauzarik ezainena esaten zendubanian? Infernuko subagaz goriturik daukazu zeure bijotza, eta benturaz baita zuere aragija bere, eta txantxetan dala dinozu? Nai txantxetan zuazala infernura, nai benetan zuazala, bardin bardin erreko zaituz ango subak.

Ez olakorik; esan oi dabe miin atsitu oneek; bada guk olako berbak eztaukaguz pekatutzat. Ainbat eta deungago. Zegaitik deritzube eztaukazubela? Guztijok atsitu, eta usteldurik zagozelako. Sartu zaituz jente atsitu bat daguan leku baten; lenenguan ezin sufridu dozu an daguan

atsa, eta usain astuna; goranzkuak emoten deutsu, eta barruban daukazun guztija botetako larriak. Zuaz sarri leku atara, egin zaitez bat an dagozanakaz, eta eztozu usain dongarik bere sentiduko. Auxe berau jazoten jatzube zubei bere berba loijakaz. Lenenguan, enzunak baka-rik bildurtu, eta lotsatuten zenduzan; baña gero eurak esatera egin ezkeru, eztozu sentietan euren usain gogor, eta atsituba, eztozu sentietan eurak bijotzian egiten deutsuben zaurija. Baña zelan esan zinaike eztaukazuzala pekatutzat? Esaidazu: orrelako berbaldi, edo txantxa loijetan zagozala eldu bada zubekgana Arimazain edo Kura Jaun, Sazerdote, edo beste Kabiliaero, nori lotsa, edo itzal deutsazun, etzara bertatik isildu? Eta zeuk, edo besteren batek ikusi badau, eta zuben artekoren bat badago olako berbak esaten, ipuin kontetan, edo soñu kante-tan, ezteutsazu esaten, isi, urlija dator? Eta onelako gizon itzal, edo errespeto deutsazunak enzuten badeutsu onelako loikerijarik, etzara gorri gorri, eta lotsaturik geratuten? Zegaitik da bada au ezpada berba, eta kanta orreek gauza deungatzat daukazuzalako? Beraz pekatutzat

daukazuz, eta guzurra, eta utsa zure atxakija ori, eta pekatu mortal egiten dozu orrelakuak esan, edo kantetan dozuzanian.

Ez bakarrik egiten dau pekatu mortal berba loijak esaten dituzanak, baita enzuten dituzanak bere, guraz, edo nai dabela enzuten badituz; bada dirausku San Paulo Apostolubak, berba dongakaz galduten diriala oitura, edo kostunbre onak. Jauna, enzun ditudaz berba loijak, baña eneban nik esaten olakorik, eta eneban nai bere esan eijezan. Zeuk esan ez arren, gustoz edo gogoz enzuten egon bazinian, pekatu egin zenduban. Esaidazu: orrelako berbaldi, edo konbersazinoietan aurkitu zarianian alderatu, edo apartadu al zinaitezan? Eukirik agindu, eta eskubidia esaten zitubeezanen ganian, agindu zeuntsen isilik egozala, edo galazo zeuntsen olako berbarik esaten? Ara bada. Enzun bazenduban berba loija beingo baten zeuk enzun nai baga, eta loikerijatan konsentidu ezin zinaitekian moduban, eta esanik zuk isilik egozala, edo agiraka eginik zinuezalako, zeuk konsentietan ezpadozu loikerijatan, orduban bere eztago pekaturik. Baña bazagoz onelako berbaldi, edo konbersazinoie-

tan zeure guraz, eta alderatu, edo apartadu al zaitezala bertan geratuten bazara, pekatu mortal egingo dozu; bada zeure borondatez zagoz pekatu egiteko pelleburutan. Bardin egingo dozu pekatu. jakinik zure lagunen batzuk alkarregaz dagozala, eta ezaguturik batuten dirian guztijan edo geijenetan berba zikinak esaten ditubezala, euren artera bazuaz; bada ezta beste gauzarik ezpada pekatu egiteko pelleburuban sarzeia. Badakizu, zure agindura daukazuzanen batzuk, zure seme, eta alaba, zeure otsein, edo krijaduben batzuk, edo beste zure menpera dagozanen batzuk, onelako berba zikinak esaten ditubezala, galazo biar deutsezu, agiraka eginagaz, edo konbeni jaken kastiguba emonagaz, bestelan pekatu mortala egingo dozu.

Egitade, edo obra loijen ganian.

Seigarren mandamentubak azkenengo aginduten deuskun gauzia da, garbi izatia egitade, edo obretan. Ze itsusijak, ze ezainak dirian agindu onen kontra egiten dirian pekatubak! Obe

litzateke isil isilik istia Esapiritu Santubaren ber-
bategi, edo katedria eurakaz loitu baño: baña
beste aldetik dagoz gizon, eta emakume ain sor,
ain astun, ain euren arimiaren ardura gitxikuak,
ze uste dabe eztaguala beste pekaturik gizon
emakumiak alkarregaz bete betian egiten
dabeena baño. orregaitik deritz guztiz dala biar,
edo preminazkua azaldu, edo expliketia norzuk
egiten dabeen pekatu agindu onen kontra. Jaun-
goikuak emon deidazala berbarik garbijenak
mandamentu au adi erazoteko. Lenengo bada:
egiten dabe pekatu mortal gizon, eta emakume,
senar emazte izan baga alkarregaz nastetan
dirianak. Pekatu au, eta gero esango dirianak,
biar dan moduban konfesetako ezta asko esatia,
egin dot pekatu gizon, edo emakume bategaz,
esan bere biar da zelakua dan, ezkonduba, aidia,
boto garbitasun, edo kastidadekua daukana;
bada onelakuen bategaz egitia, pekatu mortal bi
dira. Bigarengo: egiten dau pekatu, auxe berau
abere, edo animalijaren bategaz egiten dabe-
nak. Irugarrenko, gizonak gizonakaz, edo emaku-
miak emakumiakaz egiten badabe. Laugarren-
go: egiten dau pekatu mortal, gizon, emakume,

eta mutil, neskatilla alkarregaz moduka, laztanga, orakadaka, eta ukutute, edo tokamentu zikinetan dabilzanak. Bostgarrenengo: onelako loikerijarik bere gorputzian egiten besteri itxi, edo permitietan dautsanak. Jauna, tokamentu loijak egin eustazan mutil, edo gizon batek, mosuka, oraka ibili jatan, baña neuk nai enebala egin eustazan. Eta lenagotik egin oijezuzan olako loikerijak? Ori bai, naña eneban uste osterara egingo ebanik, bada esan neutsan etzatazala gustetan dauza orreek. Zegaitik bada alderatu, edo apartadu etzinian beragandik? Bada jakin egizube, au jakinik alderatu al zaitezala apartetan ezpazara, pekatu mortala dala.

Seigarrenengo: egiten dabe pekatu mortal euren aragijan ukututen, edo tokemantu loijak daukezanak, modu onetan gozo zital, eta gusto loijak artuten ditubezala. Ze negargarrizkuak dirian pekatu onek dakarzan kaltiak! Zenbat ete daruaz demoninuak infernubetara! Zenbat gazte, mutil, eta neskatila galduten ez ete dira pekatu au gaitik! Artuten dabe ekandu au guztiz gaztetik, eta benturaz oraudio ez eikejela zer zan bere, eztauke orduban pekatutzat, konfese-

tan badira eztabe au akusetan, eta alan dua ekandu zital au gogortu, eta sendatubagaz; gero ezagutu daijenian pekatu dala, ain modutan aurkituten dira azpiraturik, ze eztauke indarrik bere kontra pelietako. Modu onetan gizon, eta emakume askotan euren bizi guztijan irauten dau ekandu infernuko onek. Zazpigarrengo: egiten dabe pekatu bestiai pekatu egiten irakasten deutesnak, edo dala bestien aurrian eurak eginagaz, edo dala eurai zelan egiten dan esanagaz, edo dala alkarregaz eginagaz. Kontu mutil, eta neskatilla gaztiak pekatu bi onekaz; jakin egizube bein demoninuak arzen bazaitube sare onetan, guztiz gatx izango jatzubela andik urte-tia. Aurrerago eta barrurago sartuko zara, zarrago, eta senduago izango da. zorzigarrengo: egiten dabe poekatu arako mutil, eta neskatilla, edo gizon eta emakume, alkarregaz adiskidetasuna artu ezkeru alkar baga ezin egon dirianak; alkarregaz ibiltera, alkarregaz fiesta, eta erromerijara, alkarregaz egote luziak, alkarregaz merijenda, eta jan edanak, eta alkarrehaz nai ditubezan eskubide, edo lizenzija guztijak. Bederatzigarrengo: egiten dabe pekatu, biar dan moduban

jazten estirianak, edo modia dalako euren aragijak agirijan darabilzenak, eta azkenez egiten daupekatu gizon, edo mutil emakume bilosari begira daganak, edo emakume gizonari begira daganak.

Izanik ain andijak pekatu onek dakarzan kaltiak, eta neurribagak berak infernura daruazanak, gura neuskezubez emon erremedijuen batzuk onelako pekatu galgarrijan jausi etzaitzen. Lenengua da: Jaungoikuari eskatutia bijotzeko garabitasuna, bada beragandik etorri biarjaku, bestelan ezin inor libradu leiteke pekatu zikinetatik. Garbi izan gura badozu, eskatu egijozu Jaungoikuari al daizun sarrijen, bitartekotzat ifinten deutzazuzala bere Ama, eta zeure debozi-noeko santubak, zaindu zagizala pekatu atsitu onetatik, Bigarren erremedijua: ez alperrik egotia, eta beti zetan, edo atan zerbait egitia. Alperrik, eta nagirik egotiak gatx asko irakatsi ditu. Irugarren: lenengo tentazinoe, edo pensamentu txarra sentietan danian alegin guztija egitia kenzeko; bada onei bijotzeko atia idigiten bajake, laster eruango dabe gizona pekatu andijaguetara, Laugarrena: sarri konfesadu, eta

komulgetia. Sakramentu oneek emoten deutsa indarra gizonari demoninuen kontra pelietako, eta benturaz nosbait jausten bada pekatuban, konfesinoien bitartez jagiko da; baña zer egingo dau berandurik berandura baño konfesetan eztanak, eta komulgadu baga daguanak? Eztauka indarririk pelietako, gosiak ilik, kadenik, eta argalik janari faltaz goituten dau demoninuak, jausten da pekatuban, pekatu onek luzaro ego-
nik ariman darua berau bere pisubagaz beste pekatubetara, eta modu onetan elduten da gizona pekatu ikaragarrikuetan jaustera, Bostgarren: jan edanetan ez ibiltia, edo ez laarregi jan eta edatia; bada oneek eta geijago ardauak, isio eta erretan dau aragija pekatu loijan.

Azkenengo erremediojo biarren dana, baita bere gitxijen arzen dana da, pekatu onetan jausteko pelleburubetatik iges egitia. Jakin gurako dozube, ze pelleburu dirian oneek? Nik esango deustubet; baña dakit, askok eta askok, ezteustazuela sinistuko pelleburu diriana. Dira pelleburu, erromerija, danza, eta jolasak, nun dabilzan mutil neskatilla, gizon, emakumiak, alkarregaz nastadurik, emen jo, an ukutu, orain oratu, gero

arpegijak urreratu, eta gero berbatxu alegre bat esan. Da pelleburu, lagun loijakaz, eta berba zikinak esan oi ditubenakaz batutia, eta eurakaz berbaldi, edo konbrsazinoian egotia; bada eura-kaz batuten danian, onelako gauza ezainik esaten ezpadagoz bere, nundik, edo andik, etzako faltako bati edo bati, berba arinen bat esateko moduba, eta asten bada guztijak jarraituten deute, eginik dagozalako onelako berba atsitubak esatera. Garbi izan nai dabenak, ez beiteke onelakuakaz batu onelako loikerijak esaten ezpada-goz bere, bada dago esango ditubezalako pelleburuba. Da pelleburuba, neskatilla mutilak alkarregaz berbaz denpora luzian egotia, jaijegin arratsaldetan jazo oi dana legez, eta guztiz izango da andijagua badago euren artian mutil lotsabaga, irabijatu, eta min txarreken bat, edo neskatilla barretxu edozein gauza esan oi dabenen bat; bada onelako bat bakarrik da asko beste guztijak galzeko. Da pelleburuba, emakume, eta gizonen batek alkarregaz adiskidetasun andi, eta estuba arzeia gauza deungarako ez izan arren bere. Onelako adiskidetasuna lenenguan ez oi da izan dongia, baña guztiz da erraz gauza

txarrian amaitu, edo akabetia; Santu asko, emakume on asko galdu dituz onelako adiskideasunak. Onelako pelleburubetatik iges egiten eztabenak, ezin garbi iraun leike denpora luzian. Iges egizube bada euretatik galdu gura ezpazare.

Erazoginza

Eneukez larregi idigi gura askoren begijak; baña nor isilik egongo da edonun ikusten danagaz? Mundu guztija dauka atsiturik infernuko pekatu onek. Edonun daukaz ifinirik demoninuak bere sariak. Kale, etxe, gela, edo aposentu, sala, eta sukaldetan: mendi, solo, baso, eta larretan: denda, plaza, suteגי, eta biar lekubetan daukaz ifinirik demoninuak bere lakijuak. Nabilen bide onetantxe ifini dituz estaldurik lakijuak, dino David erregiak. Eta alanbere eztabe ezagutu nai egija au gizon itxubak. A zelan jazoten dan onekaz gure lenengo ama Evagaz jazo zana. Dirautsa Jaungoikuak, ez eikezu jan Paradisuben erdijan daguan arbolako sagarrik, bada jaten badozu bertatik ilgo zara. Dator gero demoninua, eta

dirautsa: jaizu ez bildurrik euki ori jan arren etzara ilgo. Jaten dau Evak eragotziriko sagarra, eta dakaz beretzat, eta bere seme guztijentzat geugan dakuskuzan gatxak. Auxe berau jazoten da Kristinau askogaz bere. Dirautsa Jaungoikuak Eskritura Sagraduban: Begira zelan zabilan bada alde guztijetatik zagoz lakijoz ingiraturik. Dirautsa demoninuak: ez bildurrik euki zabilz nundik nai, eztago olako lakijorik, Dirautsa Jaungoikuak: etzaitez ibili danzan emakumiakaz, bada bestelan ilgo zara. Dirautsa demoninuak; ez orretan ardurarik euki, bada eztago pellebururik. Etzaitez ibili anra eder, eta apaindubai begira, bada guztiz asko dira orregaitik galdu dirianak, dino Jaungoikuak, Eztago orretan gauza txarrik, dino demoninuak. Dirautsa Jaungoikuak, ez egizu adiskidetasunik euki emakumiakaz, etzaitez luzaro egon eurakaz, bada bestelan ilgo zara, Dirautsa deoninuak etzara orregaitik ilgo. Eta zer egiten dau Kristinaubak? Eztau jaramonik egiten Jaunak dirautsanari, eta ezta sinistu bere, jarraitzuten deutsa demoninuaren esanari, dabil bildur бага lakijuen erditik, jausten da sarian, eta geratuten da demoninuaren menpeko. Zenbat

modu onetan geratu ete dira betiko galdurik? Zenbat gorputzian gatx, eta enfermedade lotsagarrik beterik, eta ondasunak galdurik? Zenbat arimetan ekandu zital, eta zikinez beterik, ozta ozta euren burubak zerurunz eregi al ditubezala? Bada, Kristinaubak, iges egizube pekatu onetatik, betiko galdu etzaitezen, itxi egizubez bere pelleburubak; bada bestelan ezin egon zinaitekez pekatu loijetan jausi baga, Sinistu egijozube zeuben Konfesoriarri, baita Predikadoriarri bere dirautsubenian pelleburu diriala zubek atakotzat eztaukazuzanak, eta iges egizube eurretatik, seguru ibili zaitezen zeruko bidetik. Amen.

XLI. BERBALDIJA

Jaungoikuaren legeko zazpigarren mandamentuben ganian.

Jaungoikuaren legeko zazpigarren mandamentubak aginduten deuskuna da, inori ezer ez ostutia; au da, ezteutsagu inori ezer kendu biar, eztoigu inoren gauzarik euki biar jaubiak nai eztabela, eta ezta inoren gauzarik nai bere. Lau gauza eragozten jakuz mandamentu onetan. Lenengua: inori zerbait ostu, edo kenzeia. Bigarrena: inoren gauzarik eukitia, Irugarrena: kalteren bat inori egitia bere gauza, edo ondasunetan, Laugarrena: inor engañetia sadu erosi, edo tratubetan. Edozeinbere modu oneetan egiten dan kaltia nagusi, edo andija bada izango da pekatu mortal, baña txikija baño ezpada bakarrik izango da benial. Ezta erraz izentadu, edo señaletia zenbatera eldu biar dan pekatu mortal izateko; geijenak dinue, lau errialera elzeia gitxi bat gora bera dala grabe, edo andija, eta pekatu mortal; baña batentzat kalte txikija dana, izan

leiteke andija beste batentzat. Gizon aberats batentzat, ezta gauza andija errial-zirar bat; baña da, andija pobretxu egun atan ogija erosteko biar dabenentzat. Kenzen dan gauzia txikija izan arren, bera kendubagaz kalte andirik bada-torkijo jaubiari, pekatu mortal izango da bera kenzeia. Jostorratz bat berez gauza txikija da, baña alanbere jakinik zuk bera kendu arren ez leukiala irabaziko jaubiak egun atako alogera, ostuko bazeuntsa, pekatu mortala egingo zeunke, andija dalako egiten deutzazun kaltia.

Au jakinik. Lenengo: egiten dau pekatu mortal, bere proximuari gauza nagusi, edo andirik kenduten deutzanak, nai dala diruba, nai dala erropia, gari, arto, edo beste edozeinbere gauza. Modu bitan gauzia ostu leiteke; edo beingo baten kendubagaz gauza nagusija, eta pekatu mortal izateko asko dana, edo puskaka puskaka ostubagaz, gaur lauzuri, bijar laumarai, etzi zor-zimarai, orain ogija, gero sagarra, bein artua, beste bein ardaua. Modu onetan ostuten abijetan danak, beukan orduban gauza andira elduteko gogo, uste, edo borondatia, orduban egiten dau pekatu mortal; baña ezpeukan onelako

gogorik, izango da pekatu mortal, arako lapurreta txiki oneek eldu deitezanian gauza andija izatera, Baña puskaka osturiko gauzia pekatu mortal izateko, zerbait geijago biar da beingo baten ostuten danian baño. Esterako: beinguan ostuten danian lau errial kenzeia bada pekatu mortal, sei errialera legez eldu biar dira puskaka eginak. Eztago ikasbide, edo doktrina au baño ziur, edo ziertubagorik; baño añanbere etzake falta askori, eta askori atxakijarik modu askotan ostuteko. Ikusi daiguzan zelakuak izan oi dirian.

Krijadu askok kendu oi deutsee euren ugazabai gaur lauziri, bijar zorzimara, orain erropia, gero artua, edo garija, betzubeta, aragija, beste batzubeta, egurra, Esaten bajake au ezin leijela, eta alan biurtu daijela modu onetan kendu dabeena, eranzun oi dabe: guztiz da gitxi emoten deusten soldatia daukadan neke, edo trabajurako, nik enekijan ainbeste biar eguanik. Esai zu: pagetan jatzu agindu jatzun soldatia? Bai Jauna; bada ezteutsu geijago zor ugazabak. Baderitzu gitxi dala soldatia, esan ugazabari geitu deizula, eta ezpadau nai, billatu beste ugazaba bat. Jauna, nik uste neban probetxu andijak

eukiko nituzala, baña eztago bapere ni naguan etxian, eta alan etxat elzen soldatia zapatatarako bere. Probetxubak eztira sodatan sarzen, eta ez jatzuz zor; eta alan eztauka ugazabak eurak emoteko biar, edo obligazinoerik. Zegaitik etzatzu zapatatarako bere elzen soldatia? Amasei errialeko zapatia asko dozula, ogeta laukua nai dozu, eta au bere polit polita, eta laster urratuko dana. Ogei errialeko pañuelua asko dozula, berrogei, edo berrogeta amarrekua gura dozu, Berogeta amar errialeko mantilia asko dozula, irurogeta amar, edo larogeikua nai dozu, eta alan ezin eldu leiteke soldatia zuk nai dozunera; baña eztauka ugazabak zu janzi biarrik. Zabilz Maaxtxubago, eta eldiko jatzu. Jauna, ikusi deustez ugazabaak soñeko orreek, baña ezteuste ezer esan. Eta badakije ugazabaak nundik daukazun gauza orrek erosteko? Itanduko baleutsu-be nundik, edo zegaz erosi dozuzan, eranzungo zeuskije eurai ostu deutzazubela puskaka, edo lauzuri laumaraika? Lenago sinistuko neuke, bertatik asmaduko zeunkiala guzur bat, esanagaz gurasuak edo senideren batek emon deutzula,

Beraz utsa da atxakija au, eta alan ezin ezer kendu leijue otseinak euren ugazabai.

Atxakija auxe emon oi dabee alogereko asko bere. Jostunak kenzen dabe arija, sedia, oijal atala, miesa zatija, edo beste gauzaren batzuk; atxurlarijak sagar, madari, ogi, arto, egur, edo beste gauzaren batzuk, Esaten bajake, ezin olako gauzarik egin leijela. eranzuten dabe; alogerak balijo daben baño biar geijago egiten dogu: baño ezteutse atxakija onek balijo, bada etxake zor alogera baño geijago. Beste batzuk kenzen dabe auzuan azia, sagarra, bedarra, artua, garija, egurra, eta aldaijen guztija. Esaten bajake, ezin onelako gauzarik egin leijela, bertatik eranzuten dabe: berak bere beste orrenbeste egin izango deust. Au buru bagako atxakija da, eta zure ustia bakarrik ezta asko inoena kenzeko. Modu onetan kenzen dabeenak, nai dirirala otseinak, nai diriala alogerekuak, nai auzotegikuak, pekatu mortal egiten dabe, eta biurtu biariko dabe modu onetan kendu dabeena. Ziur ziur, edo ziertu ziertu bazengoz bere zerbait kendu deustubena, etzara orregaitik azartu, edo atrebidu biar beste ainbeste kendutera; bada guztiz da

pelleburutsu au egitia, eta gatx andijak etorri leitekez onetatik. Itundu, edo akonsejadu zadiz zeuben Konfesore, edo gizon jakitun, eta Jaungoikuen bildurtijakaz, eta eurak esango deutsu-be zer egin biar dozuben.

Mandamentu onetan galazoten jakun bigarrrena da besteren gauzia eukitia, Modu bitan gugana etorri leiteke geuria eztana. Etorri leikegu bide txar, edo okerretik. Esaterako: ostuten dau norbaitek besteren gauzen bat; bide txar, edo okerretik etorri jako au ostu dabenari, Onek gauzia artu, edo ostu ebanetik, pekatu egin eban, eta ordutixek asi zan jaubiari biurtu, edo errestituidu biarra. Etorri leikegu inoena bide artezetik, edo onetik, edo uste izan ginaike onetik datorkigula, eta ez alan izan. Esaterako. Aide batek itxiten zaituz bere ondasunen herederu: zuk uste dozu ondasun areek modu onian irabazi zituzala. Orra zelan uste dozun zuk artez etorri jatzuzala. Jakiten dozu gero etziriala beriak, ezpada besteren batenak, orra zelan daukazun zuk inoena bide onetik. Modu onetan inoena daukanak, eztau pekaturik egiten; baña jakin daijanetik inoena dala, euki biar dau gogo, edo

borondatia jaubiari biurtuteko; bada jakinik ezta-
la beria, edo inoena dan, badauka ez biurtuteko
uste, edo proposituba, ordutixek egingo dau
pekatu mortal. Askok eta askok pekatu egiten
dabe modu onetan. Lenengo: egiten dabe peka-
tu euren guraso, anaije, senide, edo besteren
batzuk gandik heredadu ezkerro etxe, solo, baso,
diru, urre, zirar, edo beste gauzaren batzuk; jaki-
nik gero, besteren batzubenak, ostubak, donga-
ro erosijak, edo ostubak ziriala, euren jaubiai
biurtu nai ezteutsezanak. Onelakuak eztabe itxa-
ron biar jaubiak eskatu deijuezan; bada jakinik
ziur ziur eztiriala eurenak, edo noenak dirian,
berbertatik biurtu biar deutsez, Naijago badabe
auzi bat emon deijuen, ez bakarrik egingo dabe
pekatu inoena daukelako, ezpada osotu, edo
errestituidu biarko deutseez jaubiari auzitik
datorkijozan kalte guztijak. Bigarrenengo: egiten
dabe pekatu herederubak, euren guraso, eta
herederutzat autu, edo eskojidu zitubezanen
zorrak pagaduten ezpaditubez itxirik zegaz
pagadu, edo ateraten ezpaditubez eurek agindu-
riko meza, eta ofizijuak, edo emoten ezpaditu-
bez limosnak. Irugarrenengo: egiten dabe pekatu

topetan dabeena eurentzat artuten dabeenak, aleginik egin baga jakiteko nok galduko eteban, edo nor ete dan jaubia berari biurtuteko. Jakinik nor dan, bertatik biurtu biar jaka, eta ezin indarririk egin leijo billasarija emon daijan; bada borondatezkua da emon nai badau, ala ez. Jauberik agiri ezpada, ezeikezube zeuben burutik erabagi, eta zeubentzat artu; esaijozube konfessoriarri, berak esango deutzube zer egin.

Laugarrenge: egiten dabe pekatu, otseinai soldatak, eta alogerekuai alogerak pagetan ezteutsezanak. Aloger oneek ainbat lasterren pagadu biar dira, bada benturaz zure biarra egin dabeenake eztabe eukiko, zer jan, eta egongo dira zuk emon deujozunen begira ogi kopau bat jateko. Pekatu onek diadar egiten dau Jaungoikuaren aurrian pagadu nai eztabenen kontra. Bardin egiten dau pekatu zorrak pagetan eztituzanak. Zenbat atxakija ifinten ez oi dira onetan? Ikusi daigun onak dirian, ala ez. Jauna, zorrak daukadaz, baña eztira txikijak baño. Zapatarijai zapata batzuk, denderubari oijala, miesia, edo pañuelua, jostunari jake, edo almillia, eta beste onelako gauza txiki, edo txutxerija batzuk. Zuk

txutxerija dei egiten deutzazu, baña zuk, eta zu lezko askok dauke dendari, zapatari, edo beste zazailia estura, eta premina andijan: zuk zor deutzazuna legez, beste askok bere zor deutsee. Pagadu biar dau zapata, jake, edo txupa geija, eta zuk, eta zulakuak pagetan ezteutzazubelako, eztauka zegaz pagadu, edo zegaz erosi. Bardin egiten dozu denderubagaz bere, eta orra zelako kaltiak datorkijozan zuk txutxerija ori denporaz ez pagetiarren.

Beste batzuk eranzun oi dabe: Jauna, uxala baneuka zegaz pagadu, bake obian egongo nitzateke, baña ezin dot. Zenbat ete daruaz atxakija onek infernubetara? Daukazu tabernarako, jokorako, zeure seme alabak polito polito janzirik erabilteko, jan edanetarako: eta eztaukazu zorrak pagetako? Etxian mugaldi, edo okasinoerik bada gastetan da benturaz al deitiana baño geijago bestiak baño gitxijago ez izaterren; egingo dira konbitak, ifiniko dira edanak ugari, eta kostu andikuak: eta eztago zorrak pagetako? Biar geijago eginagaz, etxeko gauzak ardura obiagaz begiratubagaz, egunian eguniango gastuba gitxitubagaz pagadu leitekez zorrak, baña

ezta onelakorik egiten, eta lan gitxitubagaz jua
biarrian, azi, eta geitubagaz duaz. Jakin egizube
bada, zorrak daukezanak al daijen guztija egin
biar dabeela eurak pagetako, edo biar geijago
eginagaz, biar biarreko eztirian gastubak kendu-
bagaz, jan, edan, eta janzijan al dedin guztija
estutubagaz. Jakin begije onelako zordunak, au
egiten eztabeen artian pekatu mortalian dagoza-
la, eta ezin esan leijela eztaukela zegaz pagadu.
Bostgarrengo: egiten dau pekatu zerbait erosten
dabenak besteri osturiko gauzia bada: bildurra
beukan ostuba zala erosi ebanian, egin eban
pekatu; baña uste beeban beria ebala salzailiak,
eta gero badaki ostuba zana, edo norena dan,
biurtu biarko deutsa jaubiari, galduko badau
bere beragaitik emon eban diru, edo balijua.
Zenbat pekatu egiten ete dira onetan? Guztijak
nai leuke merke erosi. Dator lapur bat zerbait
salzera; onelako eskubetan gauzia ikustiak, ain
merke salzeiak, eta beste gauza askok sospetxa,
edo bildurra emoten dabe, eta benturaz argi,
edo klaru adi erazoten dabee ostuba dana, eta
alanbere erosten jakee, merke dalako. Onela-
kuak pekatu mortak egiten dabe.

Mandamentu onetan galazoten dan irugarren gauzia da, gatx egitia proximuari bere ondasun, edo gauzetan, kalte egiten dabenak probetxurik ateraten ezpadau bere gatx onetatik; eta alan egiten dau pekatu mortal, inoren etxe, baso, lasto, garitza, edo artatzaren bat erretan dabenak, edo ebagiten dabenak; idi, bei, egazti, edo beste abereren bat ilten dabenak, edo beste edozeinbere kalte andi egiten dabenak bere guraz, edo berak nai dabela. Au edonok daki, baita bere biurtu, edo osotu biar deutzazana egiten dituzan kalte guztijak, beste kalte modu batzuk dagoz gitxijago ezagutubak, eta zeinubetan eztan arzen pekatu usterik, edo eskrupulurik bere. Onexen ganian orain esango dot. Lenengo: egiten dabee pekatu mortal, ofizijoren bateko lan, edo obligazinoien bat artuten dabeenak ofizijo ari dagokijona jakin baga; eta alan egiten dabe pekatu, erri edo urijen bateko mediku, zirujau, edo barberu, eskribau sarzen dirianak euren ofizijua jakin baga, ifinten dirialako uts andijak egiteko pelleburuban. Onelakuak beti dagoz pekatu mortalian, euren ofizijua ondo, edo al dedin onduen ikasi daijen artian. egingo

dabee pekatu onelakuak, leenenguan jakin arren euren ofizijua, astuten badabe euren alperkerija, eta nagitasuna gaitik, edo ez estudijetarren. Bardin izango da edozeinbere beste ofizijokuakaz, euren kontu, edo ardurara arzen badabe eztakijen gauza, edo obraren bat. Esaterako. Eztaki arotz, edo argin batek ola, errota, edo beste onelako gauzaren bat egiten; bada arzen badau bere kontura berak egitia, pekatu mortal egingo dau, aginduten deutzanari badatorkijo kalterik, gei, edo materijaletan, nai dala beste gauzatan. Ofizijo onen ganian dinodana, dinot beste guztijetan bere.

Bigarrengo; egiten dabe pekatu alogerekuak, egiten ezpadabe al daijen biarra, euren nagitasun, alperkerija, edo barriketiagaitik. Bardin da, au egiten badabe lanak geijago iraun daijan, biargeija, edo alogera nun irabazi eukiterren. irugarrengo: egiten dabe pekatu obria, edo lana biar dan moduban egiten eztabeenak. Modu onetan egin oi dabe pekatu zapatari, jostun, eta beste ofizijo askoko edozein modutan eta arrastaka, edo gei, eta material txarragaz, euren

lanak egiten ditubezanak, bardin pagadu erazoten dabeela. zein da ondo eginik balegoz. Egiten dabe pekatu, eginza, edo obraren bat abaseruan, destaju, edo onenbestian arzen dabeenak, biar dana legez, edo ajustadu ziriana legez egiten ezpadabe. Esaterako. Arzen dau argin, arotz, edo maesu batek etxe bat egitia onenbestian, eta ainbat lasterren akabadu, edo amaituterren, egiten dau arrastaka, eta txarto; edo geijago irabazterren ezteutsaz ezarten biar leukezan kare, arri, zur, edo geijak; pekatu mortal egingo dau, eta osotu, edo biurtu biarko deutsaz etxien jautiari, orregaitik datorkijozan kaltiak. Irugarren-go: egiten dabe pekatu euren ardurara ifinirik dagozan gauzen konturik eztaukenak, edo biar dan baño geijago gastetan dabeenak. Modu onetan egiten oi dabe pekatu, otsein, edo krijadubak euren erruz, edo ardurarik ez eukijagaitik, uga-zaben gauzak galzen badira; baita bere biar dan baño koipe, orijo, egur, ikatz, edo beste gauza gastetan badabe; edo euren nagitasun, alperkerija, edo ardura faltaz ezer galzen bada; edo bes-

teri emoten badeutsez etxeko gauzak ugazabak jakin baga; edo ezaguturik eztabeela ontzat eruango. Egiten dabee pekatu ikazginak, euren erruz ondo egosten ezpada ikatza, edo euren ardura faltaz erretan bada. Egiten dabee pekatu olagizonak, euren kulpaz biar dan arduria ez ifin-terren, edo ordirik dagozalako burdina onak urteten ezpadau, edo biar dan baño ikatz geijago erretan bada. Esaterako: bost ikatz kargagaz egin leitekiala kintal burdina, sei gastetan badi-ra. Berba baten, zebait daukanak bere ardurara, begiratu biar deutsa beria baleu legez. Laugarren-engo: eguten dabee pekatu tasadoriak, eurai deritzen beste tasetan ezpadabe. Esaterako: sal-zen deutsa gizon batek bestiari, edo erriyak ola-jaunari baso eta ikatza egiteko, dei egiten deu-tse gizon on, edo basoneurliari esan daijan zen-bat ikatz egon leitekian gitxi bat gora bera, ezin onek esan leike deritzan baño geijago, edo gitxi-jago daguala, eta alan usterik milla karga dago-zala, badino bosteun, edo seireun dagozala, pekatu mortala egingo dau. Esan danetik, ezagu-

tu leije beste edozeinbere ofizijokok, zer egin biar dabeen.

Erazoginza

Begiratuko balebe Kristinaubak biar dan moduban, zer egiten dabeen inoena kenzen dabeenian, edo ostuten dabeenian, ez litzatekez ainbeste lapur aurkituko bide orreetatik; ez litzatekez ikusiko ainbat ostute. Lapurretan kendubagaz, edo osturikuagaz ezin inor aberastu leike. Batu begiz gizon batek errege guztijak euki al leikezan ondasunik ugarijenak, bada modu txarrian bada, ain dago pobre zein da lauzuri ezpa-leuka; ezituz beriak, ezin egin leikez bere; biurtu biarko deutzaz bere jaubiari, eta au egiten ezpadau gurata gura ez izango da zorigaldukua beti betiko. Alperrik egingo dituz santurik andijenak egin ditubezan penitenzija, barau, gaubela, eta mortifikazinoerik andijenak; alperrik juango da basamorturik itzalsubenera, eta iragoko ditu urte luzietako gau, eta egunak negar, zotin, eta zispuru artian; alperrik egingo ditu munduban

ikusi dirian miraririk arrigarrijenak, ezteutse ezerbere balijoko inoena beragan daukan artian, eta bakotxari beria biurturik ezerbere geratu artian, Zetarako bada nekatu leiteke gizon bat ezerbere balijo ezteutsen ondasunak arzeko? Zetarako igaro leikez gau ilunak, egun astunak, bildur andijak, ibilera luziak, beriak ezin izan leitekezan gauzakgaitik.

Baña, o gizonaren itxumendija! Gurago dabe askok eta askok beti betiko pobre izan beste munduban, denpora apur puska baten mundu onetan baño. Mundu onetan ppobre izatiari deute bildur, et ezteutse bildurrik betiko infernubetan pobre, billoz, eta ezerbere бага egotiarri. Mundu onetan diru puska bat, ondasun zati bat eukitiarren, galdu gura ditubez zeruko ondasun ugari, inosbere galdu, eta gitxitu бага iraungo ditubeezanak. Ay neure Kristinaubak, nos idigiko dituguz geure arimako begijak? Nos ezagutuko dituguz zeinzuk dirian benetako begijak? Nos ezagutuko dituguz zeinzuk dirian benetako ondasunak? Nai badogu benetan aberats izan, geure eskubetan daukagu, nai izan geunkian baño aberatsako izatia. Ez begik ikusi, ez bela-

rrik enzun, ez gizonen bijotzera eldu da oraindio, ze ugari, ze andi, ze neurri baga dirian Jaungoikuak guretzat daukazan ondasunak. Oneek irabazteko, oneek geuriak bene benetan izateko, eztaukagu ze nekatu, ze adikatu, inoena kenezeko adikatu biar dan beste. Eztaukagu ze bildurrik euki lapurtzat euki ez gaijezan, ez atakotzat kastigadu ez gaijezan. Eskubidia daukagu al daigun guztija arzeko, ezteusku inok galazoten. Biztu gaitazan bada ondasun oneen jaube izateko; bada ez jakuz ukatuko, geuk nai badoguz benetan. Amen.

XLII. BERBALDIJA

Saldu erosi, eta beste tratubengania.

Jaungoikuaren legeko zazpigarren mandamentubak galazoten daben laugarren gauzia da proximua engañetia saldu erosijetan. Ainbeste dira inoena kenzeko dagozan modubak, edo tratu okerrak, ze eztago guztijak adi erazo leikezanik, eta atan bakarrik azaldu, edo explikaduko dodaz ezaunenak, eta geijen egiten oi dirianak, jakin dagizuben norzuk egiten dabeen pekatu. Lenengo: egiten dabee pekatu salzen dabeena nastetan dabeenak beste gauzaren bategaz. Zelakuak dirian tabernari ardauari ura ezarten deutesenak; errotari edo ogigin urun, edo ogijari karia, zaija, edo beste gauzarik ezarten deutesenak: eta nastetan dabeen gauzia bada osasunian gatx egin leijana, beste pekatu mortal bat egingo dabee. Egiten dabe pekatu ikazginak, edo ikatzen jaubiak ikatazari ezarten badeutse iduri, luur, edo beste gauzaren bat, eta ikatza ontzat

salzen dabeenak. Beste gauzarik izango litzateke zerbait urri dagualako, beste kalterik, edo gatzik egiten eztaben gauzaren bategaz nastadutia, merkiago salzen dala, jakinik naste au erosten dabeenak: esterako: dago urri garija, eta merkiago urten dagijan nastetan jaka arto uruna, eta au jakinik erosten dau norbaitek, merkiago urten deijon jango daben ogijak. Orduban eztago pekaturik onelako nastian.

Bigarrengo: egiten dau pekatu neurri, edo pisuban zerbait gitxitu, edo kenzen dabenak. Modu onetan egiten dabee pekatu, ardao, ogi, aragi, edo beste onelako gauzaren bat salzen dabeenak, pisuban, puska bat gitxijago emoten badabe, Bardin: oijala. sereni, edo zintia, edo beste gauzaren bat salzen dabeenak, ondo neur-tuten ezpadabe, Egiten dabe pekatu ikazginak, edo ikatzen jaubiak, biar daben moduban beteten ezpaditubez ikatz sorro, edo sakubak. Egiten dabe pekatu, kana, pisu, neurri txikijaguak daukezanak, agindurik dagozanak baño, edo biar dirianak baño. Berba baten: erosten dabenari biar leukian baño gitxijago emoten deutzanak, dan moduban dala, pekatu mortala egiten dau.

Irugarengo: egiten dau pekatu, gauza txarra onzat salzen dabenak erosten dabenak jakin baga, eta onaren prezijuan. Eta alan egiten dau pekatu, oijal, miesa, galzerdi, zinta, edo beste edozeinbere gauza mareadu, sitsak jan, edo ustelduba ezagututen eztakijanari salzen deutanak ona balitz legez, eta onaren prezijo, edo balijuan, Egiten dabe pekatu, gari kokuak jana, arto berotu, eta galduba, aragi ustela, edo erdi ustelduba, onzat salzen dabeenak. Egiten dabe pekatu, idi, bei, txal, idisko, zaldi, mando, edo beste abere tatxa, edo faltaren bat daukan, alakorik ezpaleuka legez salzen dabeenak. Ara Kristinaubak: onelako saldu erosirik egiten danian, azaldu biar dira salzen dan gaguziak daukazan utsune, edo faltak, eta guztiz obeto isilak, edo ezin ikusi, edo ezagutu leikezanak badira, bestellan proximua engañetia da.

Enzun daiguzan orain onelakuen atxakijak: Jauna, esan oi dabe ondo pisau, eta neurtuten eztabeenak, edo pisu eta neurri txikijaguak daukezanak: Jauna, au egiten ezpadogu ezin ondo urten ginaike tratuban, eta alanbere ozta ozta ateraten dogu kosta jakuna; guztija dago gora,

edo karu. Geu bere sarri eta sarri engañetan gaitube. Neurrijan barriz, eta pisuan utsune, edo falta andijak euki oi doguz; puska bat gitxijago emon arren badarue emoten deuskubenen duin, bada eskatuten badogu balijo dabena, laarregi deritzue, eta eztabe erosi gura, eta alan gitxijago emotiagaz, edo puskatxu bat kendubagaz, darue balijo dabena. Atxakija oneekaz uste dabe askok, eta askok edozeinbere naste egin leijela, eta zerbait kendu leijela pisu, edo neurrijan. Baña au ezta demoninuaren asmuba baño. Esaidazu: zer adi erazo nai dozu dinozunian, ezin bestelan ondo urten zinaijala? Esan nai dozu aragi, ardao, edo abazeria errematadu dozula, eta onelako nasterik egiten ezpadozu, edo zerbait gitxijago emoten ezpadozu, irabazi biarrian galdu egiten dozula? Onetan sartu baño leenago begiratu biar zenduban zer egiten zenduban, eta uts egin badozu, ezteutsu errurik zure gauzia eroatera doianak. Jauna, nik erremata egin ezkerro igon dau asko ardao, orijo, bakallao, edo aragijak; orduban baño geijago balijo espaleu eneuke olako gauzarik egingo. Orretan sarzen zinianian jakin biar zenduban au jazo zinaikezu-

la. Merkatu balira gauza oneek, eta ikusirik zure irabazi andija beeratu nai izan baleustsube lenenguan ifini zanetik, zer asango zenduban? Tratuba tratu da eranzungo zenduban, eta alan ezin beratu leiteke. Bada auxe berau eranzungo deustube zure gauzia erostera duazanak. Daukazun tratu ori zeure borondatez artu badozu, itxi egijozu galzen badozu, eta artu egizu beste bizi modu bat. Zeubek dakutsube bada, ze buru bagia dan atxakija au, eta ezin egin leitekiala, ez nasterik, ez pisu, edo neurri gitxijago emoterik.

Dinozunian ezin ondo urten zinaijala tratuban naste baga, eta ondo neurtu, eta pisadubagaz, esan nai dozu ezin irabazi zinaijala gura zeunkian, edo uste zenduban beste? Auxe izan oi da geijenetan esan nai dana. Au demoninuaren lakijua da, dino San Paulo Apostolubak, zeinetan jausten dirian aberastu gura dirianak. Ara zer jazo oi dan onetan, Ikusi zenduban norbaitek eukan tratuban ondo irabazten ebala. Artuten dozu zuk bere onelako saldu erosija, baña ezta-kizulako zelan egin biar dan, edo eztaukazulako bestiak lezko modurik ezin aurreratu dozu berak beste, edo benturaz atzera zuaz aurreratu bia-

rrian. Orduan irabazteko gurarijagaz asten zara nastiak egiten, eta pisu, eta neurrija txikituten. Jauna, bestiak bere alaintxe egiten dabee. Bestiak egitiak ezteutsu zuri eskubiderik emoten egiteko. Bestiak txarto egiten badabe, ezin zuk orregaitik egin zinaike. Jauna, neuri bere alaintxe egiten oi deuste, eta orregaitik kalte andijak euki oi ditudaz. Bestiak zu engañadu bazaituz, pekatu egin dau, eta zuk enagañetan badozu pekatu egingo dozu. Zer eritzi deutsu engañadu zaituzanak? Eztozu esan, lapur, pikaro bat dala? eztakizula zelako konzienzija daukan ezin beragaz tratirik euki leijala, eta beste aora etorri jatzun guttija? Bada, zer nai dozu esan daijan zugaitik, zuk engañadu dozunak? Zuk bestiagitik dinozuna, eta alan bestiagaitik dinozuna dinozu zeure burubagaitik.

Ikusirik nok egiten daben pekatu saldu erosi-
jan, ikusi daigun nok egiten daben beste tratube-
tan. Egiten dau pekatu, gauzia salzen dabenak
balijo daben baño geijaguan, epian emoten
dabelako; edo erosten dabenak, balijo daben
baño gitxijaguan., diruba eskuban emoten dabe-
lako. Onetarako jakin biar da, iru balijo, edo pre-

zijo daukela gauzak bata goren gorena, bestia beren beerena, eta irugarrena onen bijoen erdikua. Esaterako: Buztar idi batek balijo dau geijen geijen eun da berrogeta amar dukat, auxe da goren gorena; balijo dau gitxijen gitxijenez eun da berrogei, auxe da beerena, eta onen bijoen artian daguana da erdikua. Orain bada buztar idija epian emoten, edo salzen dozulako bada-ruazuz eun da berrogeta amar dukat baño geijago, pekatu mortala egingo dozu. Bardin: diruba eskuban emoten dozulako, erosten badozu eun da berrogei dukat baño gitxijaguan, pekatu mortal egingo dozu; eta biurtu biarko dozu geijago eruan diozuna, ego gitxijago emon dozuna. Egiten dabe pekatu, gauziak balijo daben baño guztiz geijago eskatuten dabeenak, daukela gogo, edo gurarija al daijen goren salzeko. Esaterako: dakizu gauziak eztabena balijo ogei baño, eta zuk eskatuten dozu berrogei, Zetarako? ogeta amarrian salzeko. Ez Jauna orretarako, ezpada balijo dabenian geratuteko: beti nai dabee erosten dabeenak al daijen guztija beeratu, eta orregaitik geijago eskatuten dot. Nok au sinistu leijue? Esaizu: arako zure gauzia preminaz biar

dabenen batek, balijo daben baño geijaguan eruan deutsunian, edo eztakijalako balijua geijaguan saldu deuitsazunian, biurtu deuitsazu larregi eruan dozuna? Eztakit azartu, edo atrebiduko zarian baijetz esaten. Ikusten dana da, bakotxak salzen dabela al daijan goreen, mila guzur esaten diriala orretarako.

Ementxe, neure Kristinaubak, gauza bat esan nai deutsubet, Beti gagoz entzuten: Jauna, guzur batzuk esan ditudaz saldu erosijan, baña eztira gauza nagusi, edo grabian izan. Ze guzur modu izan da bada? Jauna, esatia ori baño geijago opa izan deuste: orretan emon nai izan baneu, guztija neukan saldurik: ori baño geijago neuri kosta jatan, neuk poz pozik orretan erosiko neuke. Eta txikijak diriala dinozube guzur oneek? Zuk guzur orreekaz salduten badozu gauzia balijo daben baño geijaguan, pekatu mortala egingo dozu. Eta salzen ezpadozu bere, bildur izan zinaitekez pekatu mortal egin izango dozula. Ara zegaitik. Mandamentu onetan ez bakarrik galazoten jaku inoena kenzeia, edo eukitia, baita bere inoena nai izatia. Zuk guzur orreek dinozuz eroslarija, edo erosten dabena engañetako; eta alan au

baño geijaguan, nai dozu bestien gauzia, eta egiten dozu mandamentu onetan eragozten dana. Jauna, guzur orreek ezpadinoguz ezin ezer saldu ginaike. Ze zorakerija! Sinistuten deutsu erosten datorrenak, ala ez? Sinistuten badeutsu, eta gora eritzirik arzen ezpadeutsu, eztozu guzurragaz ezer aurreratuten. Erosten badeutsu balijo daben baño gorago, engañetan dozu, eta au ezin zinaike. Sinistuten ezpadeutsu, guzurtizat zaukaz, eta auxe da bakarrik guzurraz aurreratuten dozuna. Auxe jazo oi da; edonok daki esakune oneek salzailiak guzurragaz esan oi ditubezana, eta ez oi jake inos sinistuten. Orregaitik eskatu egizube ondo deritzubena, eta itxi egizube itzkune guzurti ori. Ara, esazu beti egija, eskatu egizu ondo dana, eta ikusiko dozu zelan guztijak juango dirian zugana.

Egiten dau pekatu prestetan dabenak diru, gari, arto, edo beste gauzaren bat, ifinten badeutsa prestetan deutsanari emoten deutsan gañetik zerbait geijago biurtuteko premina, edo obligazioa. Esaterako: biar dituz zure auzo, edo adiskide batek eun dukat esku artian, eskatuten deutsuz zuri, eta zuk ezteutsazuz emon gura,

ezpadeutsu emoten berbia biurtuko deutzuzala eun eta iru. Eskatuten deutzuz beste batek anega bi, edo iru gari, nai arto, eta moten deutzuz, iru anega, eta iru zelemen biurtuteko biar edo obligazinoiagaz. Au lukruba, edo usuria da, eta pekatu mortala. Zerbait prestetan danian ez bakarrik ezin eruan leiteke prestetan dan diru, arto, gari, edo beste gauzarik baño geijago, baño ezin ifini bere leijo beste obligazinoerik. Esaterako: zure adiskide batek biar dituz premina bate-tik urteteko eun dukat; eskatuten deutzuz, eta dirautsazu: gura badozu eun dukatak prestadu deizuzadan, ezteustazuz biurtu biarko eun dukatak baño; baño saldu biarko deustazuz zeure arto, edo garijak, beste bati emongo zeuskijozana legez; bota biarko deustazuz olara zeure ikatzak, etorri biarko zara alogerian. Modu onetako obligazinoiak lukruba, edo usuria dira, eta pekatu mortal. Jauna, bestek emongo leuskijona emongo deutzuz, eta eztau ezer galduko, gari, arto, ikatz, edo alogerian. Ezta inport; ezin ezer kendu leijo, ezta bere gauzakaz nai dabena egiteko eskubidia bere. Ain modutan, ain estu au jaon biar da, ze ezin ezerbere eskatu leiteke

prestetan dana uts utsik, eta bakar bakarrik baño.

Jauna, nik diru orregaz geijago irabazi neukian; merkatari bati, edo tratuban dabilen bati emon baneutsaz, euneko sei emongo eustazan. Irabazi zinaikiana gaitik ezin ezer eruan zinaike, bada onetara begiratuko balitz, nork esango dauzer irabazi leitekian? Eta errazua au emon leike bere diruba geldi daukanak bere. Beste gauzarik litzateke diru ori tratu on, edo artez batez ifinterra bazinuaz, eta bestiari mesede egiterren, eta bere erreguz itxiten badozu irabaziko zendubana, edo prestetia gaitik kalteren bat etorriko balijatzu, eta berari esanagaz osotu nai baleutsu; bada orduban emongo baleutsu nai dala irabaztera zuazana, nai dala datorkizun kaltia, au ezator prestetarik, edo ezta presteetan dozunen sarija. Bada Jauna, ezin ezer eruan al baleiteke prestetiagaitik, eztau inok prestadu gurako, eta alan guztijak, edo geijenak darue zerbait presteiagaitik. Badakit ori. Baña zegaitik ezta aurkituko prestadu gurako dabenik? Karidaderik ezta gualako, edo otzitu dalako; baña ara zer dinuan Jesu Kristok: prestadu egizube, emoten dozube-

na baño geijaguen itxoromen, edo esperanza baga. Geijago eruate au lukrerija, edo usuria da, eta dago eragotzi, edo galazorik. Eskritura Sagradubak, Ebanjelijauk, eta beste lege guztijak kondenetan dabe. Ori geijenak egiten dabee, dinozu. Larregi; uxala inok eruango ezpaleu prestetan dabena baño geijago. Ara Kristinaubak, berez txar, donga, edo pekatu dana ezin ondu leiteke, mundu guztijak egin arren bere. Esaizu: egin zinaike lapurretan askok eta askok egiten dabeelako? Edo esanik zuri zegaitik lapurretan zabilzan, deritzu atxakija ona izago litzatekiala eranzutia beste askok bere lapurretan egiten dabe? Auxe berau eranzuten dozu dinozuan, askok daruela zerbait prestetia gaitik.

Bildur izateko da, askok eta askok bide bagako irabazijak daukezala zensuetan. Onelako irabazirik euki eztaizuben, jakin biar dozube modu bitakua dala zensua; bata etxe, solo, edo frutue-maile dan gauzaren baten ganian ifinten dana, eta deritza erriala. Zenso onetan euneko iru baño geijago ezin eruan leitekez, dinue España-ko legiak. Bestia da gizonaren irabazi, edo tratu, nai komerzijuan ifinten dana. Oni deritzo perso-

nala. Esaterako: emongo balijakoz milla dukat gizon bati tratu, edo merkataritzan egin daijan. Zenso onetan eruan leikez euneko sei. Baña milla dukat oneek aseguetan badira hazienda, fijadore, edo beste gauzagaz, ezin eruan leitekez euneko iru baño. Onelako traturik ez eikezube egin ondo dakijanakaz itundu, edo akonsejadu baga.

Egiten dabe pekatu: garija, artua, edo beste biar biarreko gauzak erosirik batuten dirian denporan eskutetan ditubezanak, modu onetan karutu dedin laboria, gero eurak nai dabeen bestian salzeko. Onelakuak madarikatubak izango dira erri, eta urijetan, dino Espiritu Santubak. Egiten dabe pekatu mortal, arako gizon gogor, eta krubelak, zeinzuk jakinik eurak baño bestek eztaukala biar biarreko gauzia, euren borondatera ifinten daben prezijua. Modu bitan jazo leiteke gogorkerija au. Egin leiteke au batek bakarrik. Esaterako: daki gizon aberats batek gordetan badira erri bateko amarrenak, gurata gura ez laboria guztiz urri ibiliko dana; bada zer egiten dau? Erosten dituz al daizan gari, eta arto guztijak, errematetan dituz amarrenak, eta gordetan

dituz guztijak, aurkitu eztedin errijan bere arto, eta garijak baño, eta modu onetan ifinten dautsa nai daben balijua. Onek pekatu mortal egiten dau. Beste modu baten au egin leiteke. Eztauke gauzia, edo jenerua sei, edo zorzik baño: oneek guztijok alkar artuten dabe, eta dinue: geuk baño bestek eztauka onelako gauzarik, bada eztoгу salduko onenbeste baño merkiago.

Esaterako: daukez sei, zorzi, edo amar gizonen artian, bost, sei erri, edo merindade bateko amarren guztijak, eta ikusirik murrutubagaz duazala gari, arto, edo eurak daukezan labore, edo frutak, guztijak alkar arturik konponduten dira eztabeela arto, edo gari anegia onenebeste baño gitxijaguan salduko: au pekatu mortala da. Bardin da euren artian konponduten badira, urlija denporara artian eztoгу salduko, urriturik laboria guztiz gora igon dagijan. Bildurtu, eta larritu bediz onelakuak, enzunik Jaungoikuak berak egiten deutsan biraua Amos Igarla, edo Profetiaren aotik. Zubek zatituten dotuzubez pobriak, dino, eta gosiak ilik daukazubez preminaz bizi diriak: dinozubela: nos iragoko da ila, eta salduko dituguz merzerijak? Nos elduko da denporia

geure altegi, edo troxak idigiteko? Orduban txikituko dogu neurri, eta pisuba, eta goratuko dogu balijo, edo prezijua. Larrin ondokoginokua salduko dogu nai dogun bestian. Ara bada; neuk juramentu egiten deustubet, eztodala inos aztuko zuben gogorkerija au, eta urolak legez etorriko diriala gatx guztijak zuben ganera.

Erazoginza

Kristinaubak, nor bildurtuko ezta Jaungoikua-
ren aotik zematute, edo amenaza au enzunik?
orregaitik etzaikez engañadu irabazi guriak. one-
lako saldu erosi, edo tratuben baten sartu baño
leenago, ondo ondo itundu, edo akonsejadu
zadiz zeuben konfesore, edo gizon jakitunen
bategaz, zeubek zeuben burutik erabagi baga
Teologu andi batzuk bazina legez, eta ondo ondo
begiratu, itundu, edo akonsejadu ezkeroraindio
dudan geratuten bazara al zinaikian ala ez, ona
da bertan beera istia, irabazi pelleburuzko, edo
dudazkua ateratia baño. Zer balijoko deusta
gizonari mundu guztija irabaztia, bere arimia

galzen badau? Ay neure enzula maitiak! irabazi andi bat begijen aurrian ifinten bada, guztiz da erraz itxututia, eta traturik okerrena on eta arteztat eukitia. San Paulo Apostolubak zirautsan bere ikaslari, edo diszipula Timoteori. Aberastu gura dirianak jausi oi dira tentazinoe andijetan, diabrubaren lakijuan, eta gurari txar, oker, eta galgarrijetan, zeinzuk ondatuten ditubezan euren erijotzan. Zekenkerija, miskenkerija, edo ondasun gurari larregija da gatx guztijen susutraiija; bere jarrai dabilzan askok fedetik uts egin dabee, edo fedia galdu dabee; eta jausi dira min, ala, eta gatx andijetan. Egin begi bakoitxak biarra, jan, janzi, eta beste biar dabena irabazteko, ez bakarrik beretzat, baita bere seme, eta beste etxeko, eta bere ardurara daukazanentzat; egin begi alegina itxiteko semiai zegaz bizi: au gauza ona da, Jaungoikuak aginduba esan eutsanian Adani, eta beragaz bere seme guztijoi: zeure arpegiko izerdijagaz jango dozu ogija; baña ez bedi au izan ardura larregijagaz, ez ondasun pilo andiak batuteko gurarigajaz, ez hazienda zabalak ifinteko uste erriagaz; bada sarzen bajatzu bijotzian ondasunen zaletasun laarregija, zeure

arimia bere salduko dozu eurak batuteren: saldu erosi, edo traturik okerren, eta bide bage-
nak bere ontzat eukiko dozuz. Egizube alegina
zeuben bijotzetik kenzeko gurari laarregi au,
billatu egizube lenengo Jaungoikuaren erreinu-
ba, eta berak emongo deustube gorputzerako
biar dozuben guztija: beak dauka bere berbia
emonik, eta leenago galduko da zero luur, eta
euretan dagan guztija, bere esana baño. Bera
da guztijoen Aita; baño zelako Aita? Munduko
aita guztijak ezitubez ain laztan euren semerik
maitienak, zen da berak gu; biar badituguz
ondasunak, berak emongo deuskuz, eta emoten
ezpadeuskuz izango da konbeni ez jakuzalako.
Ezarri daiguzan bada beragana geure gogo, eta
uste guztijak, eta onexegaz bakarrik biziko gara
mundu onetan poz pozik Jaungoikuak emoten
deuskunagaz, eta artuko doguz bestian neurri
bagako ondasunak. Amen.

XLIII. BERBALDIJA

Zorzigarren legeko mandamentubenganian.

Iru oi daukaz gizonak mundu onetan, gorputza, edo gorputzeko osasun, ondasun, edo bizitza au iragoteko biar dabena, eta izen on, edo honra, eta famia. Iru onetan gatx egitia galazoten jaku Jaungoikuaren legian. Bostgarenian aginduten jaku, ez gatxik egitia gorputzian, edo osasunian, dirauskunian ez inor iltia. Zazpigarrenian galazoten jaku gatx egitia ondasun, edo beste gauzetan, esaten jakuninan ez inori ezer ostutia, eta zorzigarrenian eragotziten jaku gatx egitia izen on, edo honra, eta faman, agindubagaz ezteijogula inori guzurrezko testimonijorik eregi, eta eztaigula guzurrik esan. Mandamentu onetan galazoten jakuz lau gauza. Ienengua: errazua baga, edo fundamentu baga uste iztaia, edo sinistutia norbaitek egin dabela gauza txar, edo dongaren bat: bigarrena: isilian eukiteko esan deuskubena agirira ateratia, edo publike-

tia: irugarrena guzurra esatia; eta laugarrena inorgaitik dongaro esatia, edo murmuretia. Auxe da azaldu, edo ezplikadu nai neuskezubena; baña izanik laarregi Berbaldi, edo platika baterako, itxiko dogu murmurazinoia beste baterako.

Juizijo txar, arin, bide baga, edo esan oi dana legez, juizijo temerarijua ezta beste gauzarik, ezpada ziur, edo ziertutzat eukitia, norbaitek egin dabela gauza dongaren bat, euki baga fundamentu, edo errazoerik alan uste izateko. Esaterako: dakutzuz gizon, eta emakume bat duazala bide batetik, eta beste fundamentu baga daukazu ziur, edo ziertutzat pekatu egitera duazala. Eukitia, norbaitek gauza dongaren bat egin izango dabelako sospetxia, edo dudan geratutia, egin izan daben ala ez, ezta pekatu mortal, ezpada benial. Egija da onelako sospetxia fundamentu bagia nosbait izan leitekiala pekatu mortal bere, eta izango da arako fundamentu baga gizon andi, eta beneragarri bat gaitik sospetxetan danian gauza txar, edo pekatu egin dabela, edo egitera doiala. Esaterako: dakutzu Arimazain edo Kura, Sazerdote, Obispo, edo beste gizon beneragarri izen oneko, eta guztijak ontzat

daukena berbaz daguala kalia, edo bidian andra edo señora bategaz, eta beste baga egiten dozu sospetxa, gauza txarren bat egin dabeela, edo egitera duazala. Au pekatu mortala da, onei zor jaken itzal, edo errespetua gaitik. Izan bere leiteke pekatu mortal besteri esaten bajaka daukan sospetxia. Esaterako: falta jatzu; edo ostuten deustube etxetik urre, zirar, edo beste balijo andiko gauzaren bat, eta dirautsazu bste bati: urre, zirar, diru zati andi bat ostu deuste, enago ziertu ziertu nok ostu, edo kendu izango deustan, baña neure iritzijan urlijak, edo urlizijak izan biar eban lapurreta au egin eustana. Au pekatu mortal da, bada urlija, edo urlizija orrek galdu ezpadau bere zuri enzun eutsun orrentzat bere izen on, edo honria, eta famia, beti itxiten jaka.

Esan da, juizijo dongia pekatu mortal izateko, izan biar dala fundamentu, sustrai, edo errazoe baga; bada onelakorik badago, ezta pekatu mortal izango. Jakin gurako dozu, ze errazoe, edo fundamentu biar dan juizijo dongia arina ez izateko, edo nos esango dan, errazoe, edo fundamentuba daguala egiten dogun juizijua pekatu

mortal ez izateko? Ezin onetan gauza zierturik esan neikezu, ezin erregela segururik emon neikezu. Jazo leiteke egite, edo obra bat, berba bat, edo ibilera bat bategan errazoe, edo fundamentu izatia beragaitik juizijo txarra egiteko, eta auxe berau ez izatia beste bategan. Dakutsu mutil txoriburu bat, ez ain izen oneko, edo fama-kua erri, edo urijan doiala gaberdijan isil isilik, lagun dabela bera leezko neskabila bat; ziurtzat eukitia, oneeek eztuazala gauza onera, ezta juizijo arina izango; bada euren bizi modubak, dan ordubak, ain isilik juatiak, eta dauken enzute, edo fama txarrak emoten dabe fundamentu, edo geija, juizijo dongia egiteko. Baña ikusiko bazendu erriko Arima-zain, edo Kuria, ejenplu oneko gizona, guztijak Sazerdote onzat daukena. eta inos zer esanik emon eztabena, doiala emakume kristinau on, eta Jaungoikuaren bildurti bategaz gaberdijan modu onian, eta sinistuko bazendu gauza txarrera duazala, juizijo arina, edo temerarijua izango litzateke, eta pekatu mortala egingo zeunke. Onduen onduena da ez ibiltia inoren bizitzak juzgetan; baña nosbait egiten badozu onelako juizijo, nai sospetxarik, edo badaukazu

dударик, esaijozu argi, edo klaru zeure Konfesoriari, eta berak erabagiko dau.

Jauna, egija da juizijo donga asko egindodazana, baña ezteutsat inori bere esan eta alan ezitudaz pekatutzat euki. Ezta inport. Juizijo dongia egin bazenduban, gauza nagusi, edo grabian bazan, eta errazua, edo fundamentu бага, pekatu mortal egin zenduban. Edonok dauka eskubide, edo deretxua, guk onzat euki daigun, ezteuskun artian emoten errazoe, edo fundamenturik txarra dala sinsitu, edo uste izateko, eta bestelan austen dogu karidadia, zeinek eginguten deuskun ez deungarorik pensetia geure proximuak gaitik. Orregaitik zirautsen San Paulo Apostolubak Erromatarrai: ez eikezube batak bestiagaitik dongaro juzgadu. Juizijua burura etortia ezta pekatu, borondatiak bairik emoten ezpadeutsa, edo konsentietan ezpadau, eta juizijo, uste, edo sospetxetan, jarraitu biar jaka, pensamentu loijen ganian emonik daguan ikasbide, edo doktriniari; eta alan gauzarik oneena da, onelako juizijorik datorrenian ainbat lasterren botatia. Egin bere biar da alegina, ikusten dan gauzia alde onera ezarteko: bada alan eginagaz

etzatorku gatxik, ez kalterik; baña txarrera botateko ekanduba daukanak, sarri eta sarri uts egingo dau, eta batian ezpada bestian pekatu mortal egin leike. Barriz onera botiagaz, uts egiten badogu bere ezatorkigu gatxik, eta azertetan badogu eztoigu onik galzen.

Ezta mandamentu onen kontra, bildur izatia gatxen bat jazo leitekiala, eta bildur onegaz ardura arzeia etorri ezteikijon; bada onetan ezta juizijo txarrik inorgaitik egiten. Eta alan ezta pekatu otsein, edo krijadubai kontu arzeia, jakiteko leijalak dirian ala ez; eurai fijetia urre, zirar, doru, ardao, gari, arto, edo beste gauzaren batzuk, edo gilzpian eukitia eurak kendu eztaije-zan; eztauzunen bat etxera datorrenian, ardu-ra eukitia zerbait ostu ezteizun; bada gauza guzti oneek, eta beste onelakuak eginagaz, ezta juzijo txarrik egiten, ezpada kenzen da egiteko okasinoia, etea au ezta pekatu. Gurasuak barriz, ugazabak, eta besteen arduria daukeenak, ez bakarrik eztabe pekatu egingo bildur izanagaz galdu ezteitezan euren seme, otsein, eta agindupekuak, ezpada guztiz da gauza biarra eukitia, eta pekatu mortalen beian alderatu, edo aparta-

du biar ditubeez pelleburubetatik. Begiratu biar dabe nora duazan, nundik dabilzan, zelako lagunakaz batuten dirian, eta nogaz dirian adiskide; eta bildur badira, urlija, edo urlizigagaz batuten diriala, edo onegaz, edo bestiagaz diriala adiskide, eta eurak galdu leijeza euren ume, otsein, edo agindupekuak, galazo biar deutsee eurakaz lagundu, edo batutia; bada gauza bat da, bildur izatia seme, edo agindupekua urlija, edo urlijagaz batuten badira galdu leitekezala, eta beste bat, urlija, edo urlizijak dongatzat eukitia. Zuk zeure semia onzat daukazu, urlija neskatilla onzat daukazu, eta nai badozu santatzat; baña alanbere errazoe andijagaz bildur izan zinaiteke, alkarregaz adiskide badira, eta denpora luzian badagoz, galdu leitekezana, eta guztiz ondo egingo dozu galazoten badeutsazu zeure semiarri daukan adiskidetasuna, edo beragaz egoten. Bardin dinot otseinak gaitik. Zuk leijaltzat daukazu zeure krijaduba, baña bildur izan zinaitekez juzijo donga baga, okasinoiak emon leijola egiteko bestelan egingo ez leukian lapurretia, edo ardaua librian itxiten badeutsazu orditu leitekiana, eta zeure gauzaak gordiagaz, eztozu beste

gauzarik egiten, ezpada kendu pelleburu, edo okasinoia.

Ondo begiratuten badogu zein dan juizijo txarren sustrija, ikusiko dogu bi diriala; bata donga eta txarra izatia bide bagako juizijua egiten dabena: bestia proximuari jakan gorroto, edo enbidija. Deritza txarrari bera leezkuak diriala beste guztijak, dino Espiritu Santubak, eta bera bide oker, eta galdutik dabilena legez, andisek dabilzala beste guztijak; eta alan lapurrak guztijak daukaz lapurtzat, ordijak orditzat, loijak loitzat, guzurtijak guzurtitzat; eta alan onelakuentzat gerizarik txikijena, euren begitandurik arinena, edo irudirik urrinena da asko ziertu ziertu sinistuteko, edo juizijo egiteko bera dan modukua dala bestia bere, eta bera erraz jausi oi dana legez, alaintxe au bere jausiko dala. Eta zer jazo oi da onelakuakaz? Egin begi edonok zerbait, esan begi berba gatxera, edo onera aitu, edo ezarri leijan bat; bada geijenian, beti ezpada, ezarriko dabee txarrera. Eztabe egingo uste, edo juzijo onik. Eztago eurakganik seguru, gizonik ez anrarik, ezkondurik ez librerik, mutilik ez neskatilarik, Frailerik ez Monjarik, Abaderik ez gizonik

andijenik. Betor santurik andijena, egin begiz miraririk arrigarrijenak, bada eurak gaitik egingo dituz juzijo txarrak. Bigarren sustraija izan oi da persona ari jakon gorroto, ezin ikusi, edo enbidi-ja. Egunian egunian ikusten da egija au. Beukaz gizon batek arerijo bat eta adiskide bat; asi bedi norbait berbaz gizon onen ganian adiskide, eta arerijo oneen aurrian, bada ikusiko da, arerijuak bertatik sinistuten dabela bere kontra esaten dan guztija, eta ez ain erraz esaten dan ona: adiskidiak, bestera, bertatik sinstuten dau bera-gaitik esaten dan ona, eta ez ain laster dinuen txarra. ain da ezagun egija au, ze norbait gaitik ezer esaten danian, bertatik da ezagun nor dan arerijo, eta nor dan adiskide. Auxe berau jazo oida juizijuan bere; egin begije gauza bat arerijo danak, eta adiskidiak, bada guztiz da erraz adis-kidiena onera ezartia, eta dongara arerijuena. Kontu bada arerijuak gaitik juzgetan danian.

Mandamentu onetan aginduten jakun biga-rreren gauza da, isilik eukitia isilik eukiteko eskatu-ten jakuna, ez zabaldutia, edo inori ez esatia. Esaterako: jazoten jako noribait gatx andi bat, zein ez leukian nai inok jakin dagijan. Dator

zugana erremedijo billa, edo konseju arzera zer egin leikian, eta onetarako dirautsu ezteijozula inori bere esan; bada ezin zuk inori bere esan zinaijo, eta esaten badeutsazu, pekatu mortal egingo dozu. ain modutan isilik euki biar dozu, ze kontu egin biar dozu ezteutsula esan, edo ezta-kizula. Onezaz ostian, dagoz ofizijoko batzuk, zeinzuk ezin esan leijen pekatu mortalen beian dakijen gauzia, isilik egoteko barbarik emoten ezpadabe bere. Salatu edo akusetan dabe gizon bat egin daben txarkerija bat gaitik: dua au Letrau bat gana, eta itanduten deutsa zer egin leikian; dirautsa onetarako jazo dan guztija; bada ezin Letradu onek esan leike arek esan deutsan gauzarik. Dauka gizon, edo emakume batek lotsarizko gatx bat, nai dau Mediku, Barberu, eta beste dakijanen batek isilian osatu dagian; bada ezin onek esan leije euki daben gatxa. Geratuten da seindun neskatilla bat, eta bere izen on, edo honria ez galzerren dua eskutuban dagan etxe batera. Denporia eldu deian dei egiten deutsa Andra-maestriari sein-egiten lagundu deijon, bada ez Andra-maestriak, ez etxe atakok esan leijue inori neskatilla agaz jazo

dan gauzarik. Oneek guztijok beti beti isilian euki biar dabee dakijen guztija inori bere esan baga, eta esaten badabe pekatu mortala egingo dabe; bada da gauza nagusi, edo grabian; baña isilik eukiteko esan, edo agindu zana, txikija bazan, edo kalterik ezpadator, bakarrik izango da pekatu benial.

Mandamentu onetan aginduten jakun irugarren gauzia da, ez guzurrik esatia. Iru modutakua da guzurra. Bata da txantxetan, eta barre erazoteko esaten dana. Bestia zerbait erremedijetako esaten dana. Oneek bijok pekatu arin, edo benialak baño eztira, inori eurak gaitik gatx, edo kalte andiren bat ezpadatorkijo; baña alanbere guzurra beti da guzur, eta orregaitik mundu guztija gaitik bere ezin guzur bat esan leiteke. Gauza txikitzat daukaguz orain guzur oneek, baña eldu deinian arako juizijo estu, zeinetan artuko jakun berbarik alpertxubenen kontu zia-tza, ezagutuko dogu uste genduban baño andi, eta pisutsubago diriala. Irugarren moduko guzurrak dira kaltetsubak, eta da, arako esaten dan guzurretik norbaiti kalteren bat datorkijonian: kalte, edo gatx au andija bada, izango da peka-

tu mortal, baña txikija bada bakarrik izango da benial. Egiten dau pekatu mortal, bere proximuari eregiten deutsanak guzurrezko testimonioren bat bere honra, izen on, edo fama, nai ondasunen kontra. Onelako falso testimoniorik ezin eregi leiteke, bakotxak bere bizitzia jaoteko balitz bere. Zagoz kartzela baten erijotzara kondenadurik, bada bazenki zu akusadu zaituzanari falso testimonio bat eregirik andik libre urtengo zeunkiala bere, ezin olakorik egin zinaike.

Bigarrenengo: egiten dau pekatu mortal, ezkonzako berbia noribiat emonik gero ukatuten deutsanak. Bardin egiten dau pekatu mortal dinuanak, norbaitek emon deutsalaz ezkonzako berbia, izanik au guzurra. Irugarrenengo, egiten dabe pekatu mortal, asko doian guza baten ganian zerbait jakin nai dabenari, eta onetarako itanduten dabenian, guzurra esaten deutsenak. Esaterako: dabil ezkonza bat, eta itanduten deutsune zuri zelakua dan ezkondu nai leukiana, eta zuk jakinik eztala ona, edo ekandu zitalekua dala, andiztu, edo ponderetan dozu al daizun guztija: pekatu mortal egin dozu. Neskati la bat sartu nai da krijada etxe baten, itandu deutsu etxe atako

nagusijak zelakua dan neskati la ori; zuk jakinik lapur andi bat dala, zirautsazu guztiz dala leijala. Jauna, nik egija badinot neskati la arek galduko dau ezkonza on bat, eta erruki emon eustan. Bestiak barriz, ez eukan nun sartu buruba, ortxe ebilen batetik bestera, eta euki eijan zer jan esan neban guzur ori, Zuk alde batetik baño eztozu begiratuten gauza ori. Begiratu egizu bestetik bere; eta ikusiko dozu zelako kaltiak datorkijozan bestiari zure guzur orretatik, eta zuk ezin bati lagundu zinaijo bestien kaltian, errukijagaz bada bere. Onetan dinodana dinot beste edozein bere ofizijo, edo gauzatan bere, bati mesede egiterren jakon errukijagaitik, guzurra esaten bada besteren baten kalte andijan, pekatu mortal izango da. Gauza bi dira egija estaldutia, eta guzurra esatia. Konbeni leiteke nosbait, baita biar izan bere egija ez esatia, edo estaldutia, baña ez inos guzurra esatia, bada au beti beti da pekatu, mortala ezpada gitxijenez beniala, orregitik eztau Kristinaubak inos esan biar.

Erazoginza

Bagina benetako kristinaubak, sinistuko bageuntza Ebanjelijuari biar dogun sendotasunagaz, eta bageunka begijen aurrian Jesu Kristok ain sarri dirauskuna, ez ginaitekez ain errazak izango juizijo oker, edo txarrak egiten guere proximuak gaitik, eta alegin guztija egingo geunke proximuagan dakuskun guztija onera ezarteko. Zetan dago gure zorion guztija? Jaungoikuak artuko deuskun kontuban ondo urtetian. Orduban ondo urteten badogu, ezteusku ardurarik emongo mundu onetako auzi, eta beste gauza guztijetan txarto urtenak. Emon bediz mundu onetan gure kontra sentenzijarik gogor, eta krubelenak, banatu gagijez, zatitu gagijez, urkamendi baten ifini gagijez, bizirik erre gagijez; au ezta ezer; bertatik iragoten dana da; artuten badau Jaungoikuaren aotik il da bertatik sentenzija ona, lenago dongaro urtetiak ezteutse ardurarik emongo. Orregaitik gure alegin guzti guztija, gure ardura guztija izan biar da Jaungoikuaren juizijo atan ondo urtetia. Eta badakizube zein dan moddurik artezena, errazena, eta segruru-

bena orduban ondo urteteko? Geure proximuak bigun, eta errukijagaz guztija onera ezartia. Auxe da biderik artezena.

Ez eizube uste au nire burueraren bat dala, edo gizon santu, ta jakinsuben baten esana; Jesu Kristo gure Jaunak bere a irakasten deusku. Ara zer dinuan bere Ebanjelijuan: ez eizube inor juzagadu, eta etzare juzgadubak izango, ez eizube inor kondenadu, eta etzare kondenadubak izango. Zeubek zeuben proximuak juzgadu daikezu-bezan moduban zeubek bere izango zare juzgadubak. Zeubek bestiak neurtu daikezubezan neurrijagaz neurtuko zaitubez zeubek bere. Zeubek bigun, erruki, edo miserikordijagaz juzgetan badituzubez zeuben proximuak, alaintxe bigun, eta miserikordijagaz juzgaduko zaituz Jaun zerukuak bere. Baña zubek gogor, eta erruki baga juzgetan badituzubez gatxera ezarten dozubela eurretan dakutsubena, gogortasun bildurgarri bategaz, erruki, edo miserikordija baga juzgaduko zaituze zeruko Aitak bere. Ezta emen geratuten Jesu Kristo gure Jaunaren ontasuna bigun, eta miserikordiagaz juzgetan dabenanzako; bada dino pekatuz beterik badago bere, dirianak

parkatuko jakazala, bada dino, parkatu eijezube eta parkatuko jatzube. Baña bestera, parkatuten eztabenari etzako parkatuko.

Orain bada, neure enzula maitia, zelan nai dozu juzgadu zaizan Jesu Kristok mundu onetatik urten daizunian? Nai dozu bigun, amodijotsu, eta errukiz beterik juzgadu zaizan zeure pekatu guztijak parkatubagaz? Bada egizu auxe berau zeure proximuagaz: juzgadu egizu bigun, karidadez beterik, eta miserikordijagaz. Nai dozu juzgadu zaizan gogor, eta laztasun ikaragarri bategaz, erruki baga, miserikordija baga, eta pekatu-rik parkatu baga? Ze Kristinau fededunak gura leike? Bada auxe jazoko jatzu zeure proximua gogor, latz, eta miserikordija baga juzgetan badozu. Bai Kristinaubak, auxe da jazoko jatzuna dongaro juzgetan badozuz bestiak, dino San Paulo Apostolubak. Bestia juzgetan dozunian, dino, zeure buruba kondenetan dozu. Bildurrez ikara Jesu Kristoren sentenzija onegaz, ez gaizan azartu, edo atrebidu bestiak juzgetan, itxi deiogun Jaunari beretzat bakarrik gorderik daukan ofizijo au, ezteijogun guk kendu. Ezagutu daiguzan geure pekatubak, eta humildurik ezauera

onegaz euki daiguzan geu baño obetzat; orregaz
eztoguz juzgaduko, eta eukiko dogu eurakaz
miserikordija, Jaunak euki dagijan gugaz azke-
nengo egunian. Amen.

XLIV. BERBALDIJA

Murmurazinoiaren ganian.

Zorzigarren mandametuban galazoten jakuzan gauzetatik bat da murmurazinoia; zein eztan beste gauzarik ezpada dongaro esatia proximua gaitik, berak eztanzubala, edo bere atzetik esatia bere utsune, edo faltaren bat. Esaten dan gatxa andija bada, eta galdu, edo gitxituten bajaka honria, eta enzute on, edo famia, izango da pekatu mortal. Baña bada gauza txikija, eta galzen ezpajaka honria, bakarrik izango da beniala. Jakin biar dozube, batentzat txikija dana izan leitekiala andija beste batentzat. Esatia mutiltxu bat gaitik guzurti bat dala utsune edo falta txikija da; baña auxe berau esatia Obispo, Jaun, edo diñade andiren baten daguana gaitik, izan leiteke, gauza nagusi, edo grabia. Guztiz dira asko murmuretako dagozan modubak, baña guztijak sartu leitekez zorzitan. Murmuretan da bada. Lenengo: egin eztaben gatxen bat eregijagaz, edo guzurragaz. Bigarrengo: egija izan

arren zerbait geitubagaz, Irugarrenko: isilik eguana zabaldubagaz, Laugarrenko: egin daben onen bat dongarora ezarrijagaz, Bostgarrenko: eginiko obra onen bat ukatubagaz, Seigarrenko: egitade, edo obra onian gatxen bat billatubagaz. Zazpigarrenko: alabetan dabeenian isilik egonagaz: eta zorzigarrenko: epeltasunagaz alabandubagaz. Edozein modu oneetatik murmuretan dabenak egingo dau pekatum ortal, egiten deustan kaltia andija bada, eta benial txikija bada, eta biurtu biarko deustaz etorri jakazan kaltiak. Esan dabena egija bada, biurtu biarko deustas esanagaz ez eguala beragan, ez ekijala zer zinuuan, edo beste al daijan modurik onenian, Guzurra esan beban esan biar dau, guzurra esan ebela. Ain da estuba onetarako daukan obligazioa, ze biurtu biarko deustas galdu daben honria berak beria galdu biarko badau bere; edo hazienda, eta ondasuna beria galdu biarko badau bere, eta ifinten badau bere falso testimonio, edo deungari esanagaz erijotzako pelleburuban, atera biarko dau andik bera beria galzeko pelleburuban ifiniko bada bere; bada lenago da

errubaga, edo inozentia, errudun edo gatzkina baño.

Ez Jauna olakorik, esan oi dabe, eztot inos guzurrik eregi, nosbait ezer esan badot enzuna edo ikusija izan da. Ezta inport: zeuk bakar baka- rrik bazenkijan bere, ezin besteri esan zinaijon eta zuri enzun eutsubenak ezpekijen, pekatu mortal egin zenduban zabaldubagaz; bada edo- nok dauka eskubide, edo deretxua inok kendu ezteijon daukan izen on, edo fama, eta honria, eta alan biurtu biarko deutzazu kendu deutzazu- na. Beste murmurazine modu bat dago guztiz txarra, baño sarri egin oi dana. Dagoz lau, edo bost norbait gaitik dongaro esaten; eta urteten dau beste batek: ori baño eztakizube? Ori ezta ezer, Esango baneu nik dakidan gutija. Baña gagozan isilik, orretarako da obia, eztaigun mur- muradu. Itanduten deutse bestiak zer dan, eta berak eztau esan gura. geijen geijen bere dinua- na da, etzaitudaz eskandalizadu nai; eztaigun murmuradu. Ze karidadia! Ze eskrupulosua! Ezteutzazu azur osorik isten, eta eztozula mur- muradu gura dinozu? Esaizu dakizun guztija berba erdi orretan itxi baga; bada benturaz kalte

gitxijago egingo deutzazu guztija argitan ifinijagaz, isilian itxijagaz baño. Zuk dakizun guztija ezta benturaz elduko bestiak dinuenera, eta zuk zure esan ez nai orregaz sinistu erazoten deutsezu, guztiz diriala andjiak zuk esan nai eztituzun orreek. Onelakuak pekatu mortal egiten dabe. Beste batzubeta, jazo oi da egotia lau, edo bost norbait alabetan; elduten da beste bat, eta asten da irribarreka, burubari eragiten, lastima baleuka legez engañadurik dagozalako, eta dirautse; ori alabetan zagoze? Eztaukazube ze egin txarra; bazenkije zelakua dan, etzeunkee orretan denporia galduko. Batzubetan ementxe itxiten dabe, eta geijen bere eztabe erdiz erdizko berbaren bat baño esaten. Berba onekaz galdu erazo beutsen alabetan egozanai bestiagaitik euken uste ona, eta sinistuten badabe esan auzgaitik, txarra dala, pekatu mortala egin eban. Beste batzubetan aurrera dua itzketa, edo konbersazioa, eta zabalduten dau euren aurrian bestiagaitik dakijan gatx guztija, eta galzen dabee leen beragaitik eukeen uste on, edo estimazioa; orduban pekatu mortal egiten dau.

Dagoz gizon, eta emakume miin dongakuak ze eztago eurentzat, ez gizon, ez obra artetik. Guztijak gaitik dauke zer esan, estago seguru euren niin infernukotik, ezkondurik, ez librerik, Abaderik, ez Frailerik, donzellarik, ez Monjarik, Obisporik, ez Aita Santurik, andirik, ez txikirik. Egiten dirian obrarik oneenak gaitik dauke zer esan, Badakuse norbait astegun guztijetan meza enzuten, dinue, oba leukiala etxeko arduria euki. Errezetan badau, simple bat dala. Limosna emoten badau, arrokerija, edo sobrebijaz, eta ikusi daijen emoten dabela. Taberna, joko, eta beste okasinoe txarretatik alderatu, edo apartetan bada, zeken bat dala, ez gastetarren egiten dabela; jolas, erromerija, danza, eta beste zorakerijetara ezpadua, txorakerijetan dabilela; isilik badago motz, eta motela dala; berba egiten badau barretzuba dala; eta ikusiko balebe norbait miraririk andijenak egiten, esango leukee sorgina dala, familiarijak, edo demoninuak daukazala. Oneek Fariseuak leezkuak dira. Gizon galdu oneek egonik eurak pekatuz beterik, Jesu Kristo gure Jaunak egiten zituzan eginza, edo obrarik andi, santu, eta miragarrijetan aurkitu-

ten ebeen zer esan. Bildur izan leitekez onelakuak, Fariseuai jarraituten deutsena legez murmurazinoian, jarraituko deutseela euren amai, edo erijotza zori galdukuan. Bildur izatekua da miin luze, eta txar oneek beti dagozala pekatu mortalian.

Murmurazinoia sarri eta sarri asi oi da alabanziagaz. Urlija, esaten da, ze gizon ona dan. Eztozu ori tabernan, jokuan, ez edanik ikusiko: gizon zinzua, prestuba, eta biargina; eztago bera lezkorik adiskide bati mesede bat egiteko: ezteutsu orrek egunik itxiko meza enzun baga, ezta luzaro egongo konfesadu, eta komulgadu baga. eneuke nai bera baño adiskide oberik. Baña. Baña madarikatuba! Baña infernukuba! Onetanxe ezagututen da zetarako dan alabanza ori. Ezta bestetarako, ezpada sinistu deijuen bere kontra esatera doijan guztija egija dala. Eginik alabanza au uste dabe seguru dagozala, eta alan abijetan dira bere kontra murmuretan. Aintxe ateraten dabee dakijen, eta ezta kijen guztija. Ezer ikusi badeutse horako gauzia izan, eta bestek jakin ez arren aintxe urteten dau argitara; ezer enzun badabe, aintxe zabalduten dabe.

Eztan onelako batek itxiko beragaitik egiten daben sospetxa txikijenik bere. Ezin aurkitu badau beste modurik murmuretako, artuko deutsa eskuba Jaungoikuari, eta sartuko da gizonaren bijotzeko bazterrik ezkutubenan, eta billatu naiko dau aintxe bere esan, eta egite, edo obretan eztakusan txarkerija, eukiteko zegaitik deungaro esan, edo murmuradu; eta esango dau, egin, eta esaten daben guztija ona dala, baña intenzinoe okerragaz egiten dabela guztija.

Baña ez oi da emen geratuten alabanzakaz asi zan murmurazinoia. Obeto eta obeto sinistudaijen egija dala esan dabena, esaten oi da azkenian; ezteust niri inos gaxik egin, eztaukat nik ezer beragaz, izan bedi nigaitik nai daben lezkua, ez juat niri orretan ezer; baña ezin nik itxi neike egija esan baga. Eztakit zetarako dirian ainbeste konfesinoe, ainbeste komuninoe, ainbeste errezu; oba leuke bere etxeko arduria euki, daukazan tratu modubak itxi, eta puska bat humilago izan, nai daben guztijagaz urteteko enpeñubak artu baga. Santuba, Santuba: neu bere santu izango naz, gura dodan guztija egiten itxiten badeuste. Eztot nik olako santidaderik

gura. Orra zetan geratu dan lenengoko alabanza guztija. Badakizube zer deriztan egiten dozubela modu onetako murmurazinoiagaz? Palanka bategaz egin oi dana. Zulo bat luurian egin nai badozube arzen dozube palanka bat eta eragiten dozube gora. Baña zertarako? Ez an goijan itxiteko, ezpada luurian sarzeko; eta zenbat eta barrurago sartu nai dozuben, ainbat eta gorago eregiten dozube, modu onetan indar andijaguaz sarzeko. Auxe berau egiten dozube bada alabanziaz asiriko murmurazinoiagaz. Lenengo eregi gora alabanziaz al daizuben guztija, eta gero sartu murmurazinoiagaz luurian, eta zenbat eta indar andijaguagaz murmuradu nai dozuben, ainbat eta gorago eragiten dozube alabanzagaz.

Ez Jauna olako gauza andirik. Egija da sarri eta sarri murmuradu doguna; baña ez oi da izan sinpleza bat baño. Bada ezin au beti sinistu leikezube; bada bein abijau ezkeror norbaitgaitik dongaro esaten, ezta erraz bakotxak dakijan guztija esan baga egotia, nai dala txikija, nai dala andija. Batak dino lenenguan gauza txikitxu bat, bestiak eranzuten dau bestetxu bat. Onek aurreratuten dau puskatxu bat, arek beste pus-

katxu bat; aurrerago eta geijago, eta bein miina berotu ezkerro ezta begiratuten, ez zer esaten dan, ez nogaitik esaten dan, ez gauza andija, ala txikija dan. Sinpleza bat dala dinozu zuben murmurazinoia. Zer da bada esaten oi dozubena? Urija neskatila urlizija mutilegaz dabilela, seindun dala; onek seinia egin dabela, arek galdu dabela. An bota zan umia onena dala. Arako gizona lapurra dala. eta beste emakumia galdu bat dala. Onexek izan oi dira zuben murmurazi-noiak. Bada oneek ezpadira gauza andi, pisutzu, edo grabiak, nos izango da murmurazinoe andi, edo honraduen ganian? Esaidazu, Jakin dozunian norbaitek zugaitik esan dabela orrelako gauza-ren bat, zelan artu dozu barri au? Zelako atsakabia artu etzenduban? Zelan aserratu zinian? Sinisturik zengozan zeure honra guztija galdu eutsula. Diadar egiten zenduban ez eukala konzienzजारिक, eta biurtuten ezpeutsun miin zitalagaz kendu eutsun honra, eta enzute on edo famia, ezin salbadu leitekiala, Beraz zuk pisu bi daukazuz. Batian pisetan dozu zeuk bestia gaitik dinozuba, eta orduban arin, eta txikija deritzu; bestian pisetan dozu bestek zugaitik dinuana,

eta orduban andija da, izanik bijak pisu bardinekuak. Pisadu egizuz bijak pisu baten, ta ikusiko dozu eztala andijagua bestiak zugaitik dinuana, zuk bestiagaitik dinozuna baño.

Beste batek esango dau: Proximuagaitik murmuradu, edo esan dodana gauza nagusi, edo grabia izan da, baño zabaldurik eguan, guzijak ekien. Eta badakizu zuri enzun eutsuben orreek bekijen ala ez? Ori ez Jauna. Bada ezpekijen orra nun pekatu mortal egin dozun. Bardin da guztijak jakin arren, isilik, eta asturik legez baguan, eta zuk esanagaz barriztadu bazan. Baita bere badinozu berari deutzazun gorroto, eta ezin ikusija gaitik, edo zure murmurazinoe orregaitik gatx, edo kalte andiren bat badatorkijo. Baña onelako gauzarik ezpalego bere, zuk ezin eskubiderik euki zinaike inoren kontra dongaro esateko, bestiak bere murmuretan dabelako. Balego gizon bat plazien erdijan guztijak arrika dirautsela, zuk bere arrika egin zinaijo guztijak arrika esetsiten deutzelako? Bada auxe berau da zuk ifinten dozun atxakija. Guztijak dakijen gauzia da, dinozu: eta nok zabaldu dau? Zu leezko miin luze batek. Zuk dinozun gatx ori etzan egingo

guztijen aurrian, bik, edo iruk, eta benturaz batek bakarrik ikusiko eban. A, edo areek isilik egon balira ez eban jakingo eurak baño bestek. Areek esan eutseen beste bati, bestak bestiai, eta oneek egin dabeena, egin dozu zuk bere, eta orra zelan lagundu dozun zabalduen. Txarren dana da, enzuten dabeenak, edo geijenak puskatxu bat geituten deutsela, eta modu onetan gauza gitxi bat baño eztana eldu oi da honrako gauzia izatera.

Nire esanetik ezta olako gatzik etorriko, esango dozu, bada bati bakarrik baño ezteutsat esan, eta guztiz estu agindu neutsan ez egijola inori esan. Ze zorakerija! Ezin zeuk isilik euki dozu, eta nai dozu bestiak isilik euki dagijan? Zugaz jazo dana, aregaz bere jazoko da. Zuri esan eutsunak agindu eutsun ez inori esateko, eta alanbere esan deutzazu bestiari. Beste onenbeste jazoko da bestiagaz bere; esango deutsa beste bati, bestiak bestiari, eta gitxijago uste danian urtengo dau guztijen aurrera, eta jazoko da eurigajaz jazoten dana. Isil isilik arzen dau telliak euri tangia, isil isillik emoten deutsa onek urrenguari, eta alaintxe dua puntan dagan

tellaraño; eta orra nun gitxijago uste darian jausten dan kalien erdijan, ots andijagaz guztijak danzubela, eta dakusela. Alaintxe zuk isilian jakin zenduban proximuaren gatx, edo dongaro egina; isilian esan zeuntsan zeure ediskidiari; bada arek isilian esango deutsa beste bati, eta gitxijago uste dozunian, urtengo dau guztijen aurrera, eta guztijak jakingo dabe. Azkenengo atxakija izan oi da: eneukan nik intenzinoe dongarik, eneutsan gatxik gura. Bada zergaitik dongaro esaten zenduban? Zan benturaz asko gura zeuntsalako? Edo asko ametan dozulako? Eztakit naiko zeunkian bestek onelako amodijo, edo on gurarik euki deizun. Baña nai borondate ona euki deijozula, nai txarra, murmurazinoia gauza nagusi, edo grabian bada, pekatu mortala egingo dozu.

Pekatu mortal egiten dau honrien kontrako murmurazinoia enzuten dabenak, bere guraz, edo borondatez badago enzuten, eta eztau pekatu gitxijagua egingo danzubanak dinuanak baño. Murmuretan dabenak miinian dauka demoninua, enzuten dabenak barriz belarrijan. Zer egin leike bada murmurazinoian aurkituten

danak? Edo bere aurrian abijetan bada murmurazinoia? Guraso, ugazaba, edo nagusijagua bada, agindu biar dau isilik dagozala, edo ezta-jala inok murmuradu, eta galazoten ezpadau pekatu mortala egingo dau; bada dauka obligazioe estuba bere eskupe, edo agindura dagozan guztijen pekatubak galazoteko. Nagusi edo agintari ezpada, egin biar dau alegina bestera eruateko al daijan modurik onenian konbersazioa. Au bere ezin badau alderatu, edo apartadu biar da andik. Au bere ezin badau, edo erazo biar dau bere arpegi ilun, eta astunagaz, edo beste al daijan moduban, eztala bere gogokua bestiak dauken murmurazinoia. Espiritu Santubak dino: Ifarrak kendu eta desegiten dituz odei eta eurijak; eta arpegi astunak isilduten dau murmuretan daguean miina. Badakizu barriz norzukbait diriala murmuralarijak, edo batuten dirianian daukeela proximuaren kontra dongaro esateko ekanduba, etzaitez lagundu eurakaz, iges egizu onelako miin galdubagakandik. Espiritu Santubak dirautsu: Etzaitekez batu murmuretan oi dabenakaz, bada beingo beinguan jausiko da euren ganera ondamendija, eta nok daki

zelakua izango dan dongaro esan, eta enzuten dabeenen amaija?

Erazoginza

Enzun dozube, neure enzula maitiak, zer dan murmurazinoia, eta bertan esan jatzunetik eza-gutu zinaike eztaguala munduban bera baño zabaldubago dagan pekaturik; eztago sarrijago egiten danik, ezta beragandik gitxijago libretan danik bere. Aurkituko dira Kristinau asko beste agindu, edo mandamentubak jaoten ditubeez-anak, eta ez bakarrik iges egiten dabenak beste pekatu guztijetatik, baita bere eurretan jausteko pelleburubetatik. Asko eta asko dagoz alegin guztijagaz iges egiten dabeenak aragijazko pekatutik; pensamentu loitxu bat sentietia da asko guztijak bildurtuteko, eta ardura andi bate-gaz alegin guztija egiteok barrura sartu eztakijon. Askok eta askok eztabe inos guzurrezko juramenturik egin izango. Askok eta askok eztabe inoenik kendu izango. Askok eta askok ezteutse gatx egin deutsenai gorrotorik euki izango.

Baña guztiz gitxi izango dira murmuradu eztabeenak. Espiritu Santubak dirausku: Nor ete da miinagaz pekatu egin eztabena? Eta Santiago Apostolubak dirausku: eztago miina ezi leikeian gizonik. Eziten dira abererik uzubenak, leoe, katamotz, arz, otso , eta arranuak; baña ez inosbere miina. Bada au badino edozeinbere miin gaitik, zer izango da arako miin gesto suguien benenoz beterikuagaz, zein beti daguan prest edozein gaitik dongaro esateko? Nor bildur iango ezta pekatu onetan jausten?

Alanbere dakuskuna da eztala ezetanbere ardura gitxijago ifinten edozeinbere modutan murmureetian baño. Izan bedi murmurazinoerik gogorrena, atera bediz argitara gauzarik eskutubenak, izan bedi esaten dana al dedin lotsagarriena, ez bekijo itxi proximuari azur osorik; bada ezta faltako nundik edo andik atxakijen bat uste izateko eztala gauza nagusi, edo grabia esaten dana. Emetik dator ain bildur бага murmuretia, eta edonun, edonorgaitik, eta edozein modutan murmuretia. Begiratuten badogu nun murmuretan dan, ikusiko dogu eztaguala au bagako lekurik. Mendi, baso, solo, etxe, kale, plaza, Elexa.

bide, eta beste leku gutxiak dagoz beterik. Begiratuten badugu norgaitik dongaro esaten dan, ezagutuko dogu eztaguala seguru miin zitalak-gandik andirik, ez txikirik, ilik, ez bizirik, ezta zeruban dagozan santubak bere. Zenbat ete dagoz orain zeruban Jaungoikua arpegiz arpegi ikusten, seguru demoninuak euren kontra al dai-zan alegin guztijetatik, eta alanbere euren kon-tra miin gestuak zorrotzen dirian? Begiratuten badugu zegaitik dongaro esaten dan, aurkituko dogu, Jesu Kristoren egitate edo obrarik arrigarrrirenak eztagozala libre murmuralarijen miinetarik.

O miin zitalaren azarkera, edo atrebimentu-ba, zerubak, luurrak, itxasuak, osasunak, bizi-tziak, erijotziak, mundu guztijak, eta demoni-nuak eurak ezagututen dabee Salbagilia euren Jaun, eta Jaungoikotzat; baña miin murmuralari-jak dinue, dala gizon gesto, galdu, guzurti, eta engañalari bat. Eta alanbere eztau Kristinau batek aleginik egingo ekandu zital au kenzeko? Zer aurreratuten dozube, gizon itxubak, zeuben proximuagaitik dongaro esanagaz? Zegaitik jatzu ain gozo murmuretia? Deritz, au ezta,

ezpada demoninuaren tentazinoia zubek galze-ko. Iges egizube bada ekandu zital onetatik. Jakin egizube bada zeuben burubai kalterik andijena egiten deutsezubela zeuben proximuagaitik dongaro dinozunian. Ez egizube bada inorgaitik dongaro esan; bada pekatu au kenzen badozube, erraz izango jatzube beste guztijak goitutia, eta biziko zare garbirik, alan elduteko Jaungoikua ikustera. Amen.

ELEXAKO BOST MANDAMENTUBAK

XLV. BERBALDIJA

*Domeka, eta Jaijetan Meza osua
enzutia.*

Elexa Ama Santubak aginduten deuskun lenengo mandamentuba da, Domeka eta Jai guztijetan Meza osua enzutia. Kristinau guztijak zenzuna argitu, edo errazoi en usura elduten dirianetik enzun biar dabe Mezai Domeka, eta Jaijetan. Onetarako euren gurasuak ardura andi bat euki biar dabe eurakaz, agindu au bete, edo kunplidu daijen, eta geratuten badira ardura onen faltaz meza enzun baga, eurak pekatu egingo dabe. Agindu au beteteko asko ezta edozein modutan Mezan egotia, eta alan enzun biar da osua, atenzinoe, eta debozinoiagaz. Lenengo: enzun biar da osua; ezta asko erdija, edo laurena enzutia. Eztago izentadu, edi seña kadurik, nostik, eta noraino enzun biar dan osia izateko; baña geijetan esan oi da Epistolatik, eta amaitu, edo

akabadu artian; edo lenengotik, eta Sazerdotiak hostija, eta ardao konsagradubak artu artian enzuten dabenak ezabela pekatu mortalik eiten, benial bakarrik baño uts egiten badau bere guraz Ebanjelioraño, edo Sazerdotien komunioetik aurrera. Bardin izango da, beste onen beste itxiten badau Meza artian, edo erdijan; baña uts egiten badau konsagrazinoia bakarrik, nai Sazerdotien komunioe, edo gorputz, eta odola arzeia, eztau Meza anzungo, onek bijok dirialako Meziaren alde, edo parterik lenen, edo prinzipalenak.

Meza anzuteko bigarren biar dana da atenzi-
noe, eta debozinoia. Modu bitakua da debozioe
au, kanpotikua, edo gorputzekua, eta barrukua,
edo arimakua, eta bijok biar dira Mezia ondo
enzuteko. Biar da lenengo gorputzeko, edo kan-
pokua, au da, euki biar dau gorputza modu
onian, adi erazoten dabela sinistu, eta ezagutu-
ten dabena Jaungoiko guztiz alsu, edo poderoso
baten aurrian daguala, eta bere begijakaz bale-
kusaz legez zeruban, eta luurrian aurkitu al leite-
kezan misterijorik andi, arrigarri, eta miragarrije-
nak. Zelakua izan biar dan Mezako denporan

euki biar dan gorputzeko egoera, edo posturia irakasten deusku Elexa Ama Santubak Misalian, nun dinuan: Meza enzuten dabeenak egon biar dabe dirauban denpora guztijan belauniko; ezpada Ebanjelijo bijak esaten dirian artian; bada orduban egongo dira zutunik; baña lenengo Ebanjelijua amaitu deinian, biurtu bediz belau-niko ifintera. Au alan agindurik, eztakit nundik urten ete leikian Kristinau askotan ikusten dan oituriak. Ifinten dira zutunik Ebanjelijorako, eta eztira geijago belauniko ifinten Santuseraino. Daukanak nun jarri jarten da, eta dago zabal zabalik misterijorik ikaragarrirenak egiten dirian artian. Eztaukanak nun jarri dago zutunik, galaa-zoten deusela atzekuai sazerdotia ikustia, Ezta au mezan egotia, Jaungoikuak Elexiaren bitartez aginduten deuskun moduban.

Eztauke gorputzeko debozinoia bankubetan etxunik dagozanak, euren beso, eta oñak luzaturik, plaza , edo taberna baten balegoz legez ozta ozta belauniko ifinten diriala hostija, eta kalizia eregiten diranian. Eztabe goprutzeko debozinoerik jaoten euren siñu, eta egon modubagaz adi erazoten dabeenak, luze egiten jakeela mezia,

luze ezpada bere; eta estu dagozala mezia amaitu, edo akabatu artian, etxeko arazu, taberna, joko, jolasera ainbat lasterren juateko. Eztauke biar dan debozinoe, eta erreberenzija barriketan, eta barreka dagozanak, eta onek denpora luzian irauten badau eztabe mezarik enzuten. Eztabe meza enzuten batera bestera begira dabilzanak, ozta ozta dakijela zetan doian mezia. Eztabe meza enzuten, egonik lekuba Elexan, euren borondatez geratuten dirianak korupe, edo ate onduan, ikusi, eta jakiterren nok sartu, eta urteten daben, edo zer iragoten dan kanpuan. Eztabe meza enzuten, euren guraz, edo erruz geratuten dirianak, mezia esaten daben sazerdotia ikusi ezin leijan lekuban, edo Elexatik kanpora, baña euren erru baga, Elexia txikija dalako, edo jente andija dagualako geratu biar badira altara, edo Sazerdotia ikusi ezin leijen lekuban, nai Elexatik kanpora, enzungo dabee Meza beste danzubenakaz bat eginik badagoz biar dan atenzioe, eta debozinoiagaz. Begira zer dinodan, zeuben erru baga geratuten bazare Elexatik kanpora; bada jakinik au jazoko jatzula enzun nai ezpadozu lenago mezia, al daizula,

zeure erruz izango da, eta alan lenago enzun biar zenduban.

Bigarren atenzinoia, eta debozinoia da barru, edo bijotzekua. Au da, euki biar dau bere gogo, zenzun, edo memoriya Jaunogoikuaren gauzetan, Jakin gurako dozu zelako gauzetan, edo zetan eukiko dozun gogo, edo sentimenduba. Iru modutan au izan leiteke. Lenengo: Sazerdotiak dinozan berba, eta zeremonijai jarraitubagaz, eta eurak adi erazoten ditubezan misterijuak aratubagaz. Esaterako: sarzen da, edo dua Sazerdotia mezatara, fifinten dozu zuk bere intenzinoe, edo uste osua al daizun onduen enzuteko. Siñatuten da Sazerdotia, siñatuten zara zu bere. Egiten dau konfesinoia, dinozu zuk bere Ni pekatariya, Jaunari zeure pekatuben parka eskatuten deutzazula. Dino kredua, dinozu zuk bere; sinsituten dozula bertan dinozun guztija. Modu onetan jaraituten badeutzazu Sazerdotiari, enzungo dozu ezia biar dan moduban. Onetarako dagoz liburutxu batzuk, eta eurakaz baliya leiteke irakurten dakijana. Bigarren moduba da pensetia Jesu Kristoren bizitza, pasinoe, eta erijotzan; bada mezia ezta beste gauzarik ezpa-

da eurak barriztetia; eta onetarako ifini eban Jasu Kristok bere Elexan. Au egin leiteke, edo jarraitubagaz Jesu Kristok erabili zituban pausubai, jaijo zanetik, eta zerubetara igon eban artian, edo pausuben baten ondo pensadubagaz, esaterako: bere azoetan, kurutzia kalbariora eruatian, erijotzan, edo beste debozinoerik andijena emoten deutzanen baten. Irugarren moduba da, errezetia errosarijua, estazinoia, edo beste debozinoeren bat. Modu onetan mezia enzuten dabenak, eztau alderatu, edo apartadu biar bere gogoz mezatik, eta adi egon biar da zetan doian.

Emetik ezagutuko dozube eztabela enzuten; bere borondatez, edo berak nai dabela beste gauzatan pensetan daguanak; esaterako: bere etxeko zereginetan daukan premina, edo nezesidadian, saldu erosi, edo tratuban, joko, jolas, edo beste edozeinbere gauzatan; pensamentu onetan badago mezako parte, edo alde andijan bere guraz, pekatu mortala egingo dau. Baña pensamentu oneek badatorkijoz berak nai eztabela, eta egiten badau alegina kenzeko, eta al daijan debozinoiagaz egoteko, eztau orregaitik galduko

mezia. Eztan meza enzuten, Elexara doianak jakiterren urlija, edo urlizija an daguan; edo jakinik meza atara jua oi dana, bera an ikusi, eta berari begira egoterren, edo ezin egon leitekialako beragaz beste lekutan, aintxe egoterren, edo berba egiterren doianak. Eztabe meza enzuten umiakaz duazanak, eukiarren nori itxi, edo nok jaon. Oneek mezarik geijenian, guztijan ezpada, egon oi dira umiari adi, orain mosuka, gero siñuka, ain laster barreka, eta ain laster laztanga. Batzubetan dago umnia negarrez, beste batzubetan diadarrez; ija nai dau alzuana, edo lepuan egon, ija nai dau batetik bestera ibili; ona etorri, ara jua, eta eurak umiari begira adurra darijuela, ez eurak enzuten dabe meza, ez bestiai itxiten deutse enzuten, Guztiz da gatx, edo ezin leitekiana, obeto esaterren, umiagaz daguanak meza enzutia, eta alan itxi etxian, edo emon beste bati, eta ezpadauka nori, obe da ez juatia mezara, ze ez Elexa guztija errebolbietia euren negar, diadar, eta ibilerakaz.

Ez bakarrik egiten dau pekatu mezia enzuten eztabenak, baita bere galzeko pelleburuban ifinten danak. Modu bitan ifinten oi da mezia galze-

ko pelleburuban. Batzuk Jaijegunetarako itxi oi ditubez euren ibilera, eta beste errijetan daukezan zereginak. Eztabe itxaron gura errijan meza enzun artian, eta urteten dabe bestian enzuteko ustiagaz, edo benturaz enzungo eztabenen bildurragaz, edo mezarik eukiko daben dudiagaz; eztira denporaz elduten, eta galzen dabe mezia. Datoz konfesetara, eta esan oi dabe: Jauna, Jaijegun batzubetan egon naz meza enzun baga, baña ezta nire erruba izan; bada beste erri batera euki neban zer jua; uste neban an eukiko nebala, baña irago zan ni eldu orduko, Oneek geijenok pekatu mortal egiten dabe; bada egija esan gura badabe, beuken elduko etzirianen bildurra. Oba litzateke jaijeguna Jaungoikuari emon, eta jua, edo ibili biarra preminazkua bada, enzun meza urten baño leenago. Beste batzuk dabilz arrastaka euren arazu, edo zereginetan mezarako denporara artian, eta esku artian dauken zeregina ez itxiterren, eso akabertarren eurrera darue, dinuela euren barruban: oraindio denporia dago ezta oraindio mezia sartuko. Duaz gero mezara arrastaka arnasa baga, baña eztira denporaz elduten, irago zan mezia.

Modu ontan sarri eta sarri geratu oi dira meza enzun baga. Zelako atxakijak gero kofesetara duazanian? Enekijan ze ordu zan, uste neban goxago zala. Atxakija oneek utsak dira. Esaidazu: bazeunkan zeure barruban mezia sartutera joianen bildurrik? Etzenduban zeure bijotzian esaten galduko ete dot mezia? Ete da juateko orduba? Ezin ukatu zinaike auxe geijenetan jazo jatzula. Orregaitik jakin begije onelakuak pekatu mortal egiten dabeela.

Iru gauza gaitik geratu leiteke meza enzun baga. Ezin enzunagaitik, karidadiagatik, eta ofizijuagaitik. Lenengo: ezin enzunagaitik: eta alan eztabe pekatu egiten ez enzunagaz gexorik oian dagozanak, edo etxetik urten ezin dabeenak gatx andi baten jausteko pelleburu baga, zelauak dirian gexo ostian erdi osaturik dagozanak, zaarrak, ado atso agura urte asko daukenak, guztiz nekez baño ibili ezin badira, eta guztiz Elexatik urrin badaukez etxiak. Norbait geratu biar bada etxia jaoten, meza bat baño geijago dagozan lekubetan bialdu biar da norbait goxeko, edo lenengo mezara, bera denporaz biurturik bestiak juan deitezan beste mezara. Au alan

egin al deila, guraso, eta ugazabak ardurarik arzen ezpadabe, eta orregaitik seme, alaba, edo krijaduben bat geratuten bada meza enzun baga, eurak gegingo dabe pekatu mortal. Itxi leiteke mezia honra, izen on, edo fama, nai hazien da, nai ondasun andijen bat galzeko pellebruban ifini biar badau bera enzuteko. Bigarren: egon leiteke meza enzun baga karidadia gaitik, eta alan eztau pekatu egiten ez enzunagaz gexo bati lagunduten daganak, bildur bada bakarrik geratuten bada gatxen bat etorriko jakala, eta ezpadago besterik nor itxi lagunduten. Eztau pekatu egiten mezia isten dabenak aserre andi bat galazoterren, su andi bat amatetarren, edo beste gatx andiren bat proximuari etorri dakijon eragotziterren.

Irugarren: egon leiteke meza enzun baga ofizijua gaitik, eta da arako norbaiten ofizijuari dagokijona ez egiterren, edo mezia enzuterren isten bada, kalte andi bat datorrenian, eta alan egon leiteke meza enzun baga arzain bat, ezpauka nori itxi bere ardurara daukan talde, edo errebañuba; eta bildur bada ostuko deutsezala ardi, ari, idi, edo beijak; edo otsuak jango dituzta-

la bakarrik itxiten badituz. Eztau pekatu egiten gurasuak mezia galzen badau, bere seme, edo alabaren pekatuba galazoterren, beste modutan eragotzi ezin badau. Bardin dinot guraso, eta inude seiña asten dagozanakgaitik. Oneek bada-kije lenagotik Elexara doian guztijan bere umia negarrez egon oi dala, edo ezabela geldirik, edo isilik egon gura, ezpadauka nori itxi, obe da bera bere etxian geratu dedin; bada Elexara badarua, ez berak enzungo dau meza, ez bestiai itxiko deutse enzuten. Meza ezin enzun dabenak egin beike orazinoe bere etxe, edo daguan lekubetan, dino San Agustinek, ta egin begi alegina Jaijegu-na santututeko al daijan modutan, errosarijua, eta debozinoien batzuk errezadubagaz, edo obra onen batzuk eginagaz. Lenagotik dakutzunian onelako preminaren baten aurkitu zinaitekezala, egin biar dozuna da itandu zeure Konfesore, Arima-zain, edo Kuriari, nai gizon jakinsu, ea Jaungoikuen bldurti bati zer egin zinaikian, zeurez, edo zeure burutik erabagi baga; bada ikusten dana da geijago begiratuten jakala irabazijari, ondasunen aurreratutiari, eta gorputzaren ondo egonari Jaungoikuaren legiari baño; eta

orregaitik guztiz da erraz, norberak bere buruba enagañetia.

Azkenez, biar dogun leezko Kristinaubak bagara, ez gara geratu, edo kontentadu biar meza bat enzunagaz Jaijegunetan. Jakin biar dogu Jaungoikuak, eta Elexiak ifini badituz Jaijegunak, eztala beste gauzatarako ezpada Jauna alabetako, eta geure arimia santuteko. Baña ze negargarrizkua dan Kristinaubetan dakuskuna! Pekaturik geijen, eta andijenak egiten dira Jaijetan. Aste guztijan egongo zare zeuben solo, baso, edo mendijan, atxur, askora, eskubara, edo laijia eskuban dozubela, eta eztozube pekaturik gomuta izango. Eztozube beste gauzarik goguan eukiko, zeuben lana, zeuben biarra, eta zeuben aurrerapidia baño. Dator Jaijeguna, eta esan leiteke infernu guztija libre dabilela. Enzuten da meza bat arrastaka, eta bera bere al deitian arinena, ta onegaz amaituten da Jaijeguneko zeregin guztija. Enpatetan dan denporia emoten da astegunian egin ez oi dirian pekatubetan: orduban tabernia, orduban ordikerija, orduban berba loi, eta ezainak, eta orduban astegunian egin ez oi dirian pekatu guztijak, Obeto dei egin leijue

demoninuaren egunak Jaunarenak baño. Modu onetan jaongo badira Jaijak, kendu bediz guztiz, zuaze biarrera, eta zeuben arazubetara; eztozube ainbeste pekatu egingo. Onelako Jai gordetiai bere maldizinoia ezarten deutse Jaungoikuak. Zetako ditudaz onelako Jai eta Domekak? Dino Isaiasen aotik. Gorroto deutset, ezin ikusi ditudaz. Astunak dira niretzat. Antoxu emoten deuste, eta modu orretan iragoten badozubez, neure ezpata zorrotzak zatitu, birrindu, eta ilgo zaitubez. Kristinaubak, bildur izan gaitezan gure Jaungoikua aserratuten.

Erazoginza

Aserraturik badaukagu jaungoikua geure pekatubagaz, badaukagu zegaz bigundu. Altarako sakrifizijuagaz egin ginaikez bakiak beragaz, eta ekarri gugana zeruko bendizinoerik ugarijenak. Ezta meza, neure enzula maitiak, gizon santuben batek ifiniriko debozinoeren bat, ez Aingeruben batek zerutik ekarririko eskabide, edo orazinoeren bat; da Jesu Kristo gure Jaunak berak

bere Elexa maitiari emoniko, esan, eta pensadu bere ezin leitekian ondasun miragarri bat. Da, Jesu Kristo gure Jaunak azkenengo afarijan egin zituzan mirari arrigarri guztijak egitia. Da, kalbarijoko mendijan kurutzian aita betikuari mundu guztijen osasunerako sakrifikadu jakazan gorputz berbera, odol berbera, eta erijotza berbera opa, edo ofrezietia, Ez, ez, ezta emen egiten dan sakrifizijua, an egin zana baño txikijagua; ezta au a baño balijo txikijagokua. Auxe berbera da. Begira orain zelan aurkitu biar zarian zeruban, eta luurrian egin leitekian misterijorik andijean. Esaidazu: zelan egongo zinian aurkitu bazina Jesu Kristok bere eskubetan ogija zinuanean: artu egizube, auxe da nire gorputza? zelako negar, zelako zizpuru, zelako debozinoe, eta mirariz beterik egongo zinian aurkitu bazina kalbarijoko mendijan, arako Jaungoikuaren semia kurutze baten ulze gogorrakaz josirik, bere Aitari pekatubakgaitik ofrezietan zanian? Arako bere zanetako odol guztija emoten ebanian, eta negarrez eta diadar andijakaz gugaitik erregututen eutsanian? Zelan geratuko zinian ikusi bazendu zeure begijakaz azkenengo arnasia emoten?

Bada neure Kristinaubak, eztaukagu zer juan Jerusalemgo apaltegi, edo zenakulura, ez kalbari-joko mendira mirari oneek ikusteko: ortxe altara orretantxe ikusi ginaikez mirari arrigarri guzti oneek. Meza bakotxian egiten dira guztijak. Ez apaltegi, ez KalbariJuan egin zan emen egiten dana, idigi egizubez fedeko begijak, eta ikusiko dituzubez Salbagiliak gugaitik egin zituzan miraririk andijenak. Begiratu dozube nosbait biar dan moduban meziaren anditasun au? Ifini zare nosbait ondo ondo, eta aldaizuben adin, edo atenzi-noe guztijagaz begiratuten zer dan mezan sakrifiketana? Nok sakrifiketana daben? Nori sakrifiketana jakan? Eta zegaitik sakrifiketana dan? Ezetz deritz: bada zelan egongo zinaiteke bestelana ain debozinoe gitxigaz, zeuben zereginetan dozubela gogua? berbetan, eta albora begira? Ay neure Kristinaubak, bageunka biar dogun fede bizija, geure Elexak ikusiko geunkez zeru biurturik, bada eztago zeruban, or eztaguan gauzarik: ortxe dago Trinitate guztija, Aitia, Semia, eta Espiritu Santuba. Ortxe dago Jesu Kristoren gorputz benetakua, ortxe mundu guztija garbitu, eta santutu eban odola. Altara orren inguruban

dagoz ainbat milla millinoe Aingeru, auspaz luurreraño makurturik, adoretan dabeela humiltasunik andijenagaz gugaitik opa, edo ofrezietan dan sakrifizio ori. Eta alanbere, ze otzik, ze debozinoe baga gagozan ainbat milla Aigeruben erdijan, luurian, eta zeruban aurkitu leitekian misteriorik andijena egiten dan artian! Neure Kristinaubak, iratzartu gaitezan nos edo nos geure lozorrotik; idigi daiguzan arimako begijak, biztu daigun fedia, eta eldu gaitezan mezatara zeruban bertan sartuko bagina legez; gagozan Jaungoiko bat geure begijakaz bagenkuz legez; bat egin gaitezan an dagozan Aingerubakaz, eta kantadu deijoguzan eurak kantetan deutsezan alabanzak, gero kantadu deijoguzan zeruban. Amen.

XLVI. BERBALDIJA

Zer dan Mezia, eta ze miragarrijak bere eginza, edo efektuak.

Ain da Jaungoikozkua mezia, ain miragarrija, ain esanezgarrija, ze Aingeru baten miinagaz berba egingo baneu bere, eninzateke elduko bere anditasunik txikijen txikijena bere adi erazotera. alanbere jakinik ze on andijak dakarzan jakitiak zer dan mezia, esango dot zerbait al dodan moduban azaldu, edo explikadubagaz. Lenengo: zer dan mezia. Bigarreno: zelakuak dirian bere egitade, edo efektuak. Da mezia sakrifizijo bat, zeinetan opa, edo ofrezietan jakan jaungoikuari Jesu Kristoren gorputz, eta odol benetakua ogi, eta ardauren anz, edo irudipian, Au obeto ezagututeko jakin biar dozube mundubaren asijeratik abijadu ziriala gizonak opa, edo ofrezietan Jaunari sakrifizijuak, au da, fruta, abere, edo animalija, egazti, edo beste gauzaren batzuk, adi erazoteko bera ezagututen ebeela euren Jaun, eta Jaungoikotzat, eta kofesetako

ziriala bere menpeko, edo agindupeko. Opa, edo ofrezidu bere oi zitubezan sakrifizijo oneek Jauna bigundu, edo gozatuteko ekijenian aserraturik eguala eurakaz euren pekatubakgaitik. Beste batzubetan egin oi zitubezan sakrifizijo oneek, berari mesederen bat eskatuten eutsenian. Gogo, eta borondate onagaz artu oi zituzan Jaunak; eta obeto egin zeitezan, berak irakatsi eutsan Moisesi zelan egin biar zirian, norzuk ofreziduko zitubezan, ze lekutan, zer gauza, eta beinguan guztija esateko, Jaungoikuak berak agindu eban sakrifijuetan egin biar zan guzti guztija.

Alanbere, sakrifizijo oneek utsak zirian, eta orregaitik ez euken ez pekaturik parkatuteko indarrik, ez euren opazaile, edo ofrezietan zitubezanak garbituteko eskubiderik, ez Jaungoikuaren aserrakunza amatetako podererik, eta alan beti egozan zarraturik zeruko atiak. Parkatuko bazirian bada gure pekatubak, egingo bazirian Jaungoiko, eta gizonen arteko bakiak, idigiko bazirian zeruko atiak, biar zan sakrifizijo guzti oneek baño andijago bat; baño ez eguan onetarako duin izanzatekianik, ez zeruban, ez luurrian

Jaungoikua bera bakar bakarrik baño. Orregaitik bialdu eban Aita betikuak bere seme bakarra eginik gure sakrifizijok berak goitu, edo benzidu egijan demoninua, erbestetu, edo desterradu egijan pekatuba, garbitu egizan gure arimak, eta idigi egizan zeruko atiak. Egin eban Jesus lazta-nak bere Aitaren borondatia, eta ilik kurutzeko altaran ofrezidu eban bere buruba sakrifizijo miragarri, modu onetan egiteko gizonai beste sakrifizijo guztiak ezin leijuezan mesede pare bagak. Baña izanik Jesu Kristo Sazerdote, edo Aita Sntu beti betikua, biar bere zan, beti beti iraungo eban sakrifizijo bat. Ezin betiko sakrifizijo au Jesu Kristoren erijotzia bera izan zatekian, bestelan egunian egunian il biarko litzateke, dino San Paulo Apostoluabk, eta ezin bein bakarrik baño galdu leija bizitzia. Zer egiten dau bada beti beti iraun daijan kurutzian egin zan sakrifizijuak? Bere arerijuen eskubetan ifiniko zan gabian, zarratuten dau bere gorputz, eta bere odola ogi, eta ardauen anzpian, emoten deutse Apostolu, eta euren ondoren etorriko zirian Sazerdotiai, beste onenbeste egiteko eskubidia, modu onetan batriztadurik, berak

kurutzeko altaran opa, edo ofrezidu eban sakrifizijua, beti beti iraun daijan bere Elexa maitian.

Orra neure enzula maitiak zer dan mezia. Da Jesu Kristo gure Jaunak bere Aita betikuari gure pekatuben ordian ofrezidu eutsan sakrifizijua berbera opa izatia. Da orduban Salbagiliak erijotzara emon eban bere gorputza berbera, eta gorputz atatik urten eban odola berbera Aita betiko, edo Eternuari ofrezietia: eta alan mezia, eta kurutzian egin zan sakrifizijua eztira bi, bat baka-rik baño. Mezia ezta kalbarijoko mendijan egin zan sakrifizijua baño, eta orduban berak berez egin ebana berbera, egiten dau orain gure altaretan, Abade, edo Sazerdotien bitartez. Meziaren aurkile, ipinzaile, edo autore da Jesu Kristo bera; bada berak esan eban lenengo munduban esan zan mezia, berak itxi eutsan bere Elexiari, eta berak irakutsi eutsen Apostolubai zelan meza esango eben. Sakrfizijo onen iskinzalile, edo Ministro lenen, edo prinzipalena da Jesu Kristo bera. Dago altaran gure bitarteko eginik, eta erreguka bere Aitari gugaitik. Berak opa, edo ofrezietan deutsa bere gorputz, eta odola, kurutzian iskini eutsana legez; eta alan meza esaten

dabena eldu deinian konsagretara, dinuanian, au da nire gorputza, au da nire odola, eztituz berba oneek esaten bere izenian, ezpada Jesu Kristore-nian. Onen urrengo da meza esaten daben Abade, edo Sazerdotia; bada eurai bakarrik autortu, edo konzedidu eutsen Jesu Kristok ogi, eta ardaua bere gorputz, eta odol biurtuteko eskubide, edo potestadia. Azkenez, meziaren opaile, sakrifikadore, edo ofrzietan dabeenak dira, meza enzuten dagozan guztijak; eta alan, meza esaten daben Sazerdotiak eztituz orazi-noiak esaten bere izenian bakarrik, ezpada enzu-ten dagizanenian. Ezteutsa Jaunari esaten, opa deutsut Jauna, zeure seme Jesu Krsitoren gor-putz, eta odola; ezpada opa deutsugu, eta alan beste orazinoe guztijak. Orregaitik meza enzu-ten dabeen guztijak meza esaten dabe moduben baten, eta guztijak dira Sazerdote.

Jaungoikuari bakarrik ofrezidu leijo mezia, ez besteri, ezta Ama Birjiniari bere, eta mezia ate-raten danian nai berari, nai San Migel, nai San Jose, nai beste Santuben bati, edo bere altara, edo aurrian esaten danian, etzako santu aren honra, gomuta, edo erreberenzijan, ta bere

bitartez, eta erregubakgaitik emon deigun Jaunak mezan eskatuten doguna. Orregaitik, ezta inosbere esaten mezan opa deitsut zuri Pedro, edo zuri Paulo Jesu Kristoren gorputz, eta odol au; ezpada opa deitsugu zuri Jauna, San Pedro, edo San pauloren gomuta, edo memorijan. Mezia esan, nai ataraten daben, baita bere enzuten dabenak, ofrezidu leiyo Jaunari edozeinbere gizon, edo emakume gaitik, nai dala txarra, edo dongia, nai dala ona, eta santuba, izan deila Kristinauba, Judeguba, edo Jentila. Opa leiyo Jaunari onak gaitik obak izan deitezan: Judegu, Jentil, eta Herejiak guztijak gaitik il zana legez, gura dau guztijak gaitik Altarako sakrifizijo au iskini daki-jon. Ofrezidu bere leikijo purgatorioko arimak gaitik, ainbat lasterren urten dagijen ango neke, eta ala, edo tormentubetatik, eta eldu deitezan zeruko atseginetara. Ofrezidu bere leiteke zeruko Santubak gaitik, ez pekatuben batetik urte daijen, ez nekeren bat kendu dakijuen; bada eztauke pekatu, eta nekerik, ez euren gloriya azi, edo geitu dakijuen, bada au ezin leiteke; ezpada Jaunari eskerrak emoteko, mundu onetan bere grazijagaz irabazi zitubezan biktorijak gaitik, eta

orain dauken gloriya gaitik. Demonino, eta kondena-
dubak gaitik bakar bakarrik ezin ofrezidu
leiteke, eztagualako erremediorik oneentzat.

Lau dira miragarritzko sakrifizio onen egita-
de, edo efektuak. Lenengo: beragaz emoten
deutsagu Jaungoikuari zor deutsagun honra, eta
alabanzia, baita bere eskerrak egin deuskuzan
mesediak gaitik. Bigarrenengo: beragaz bigundu,
eta gozatuten dogu Jaungoikua, gugaz aserratu-
rik daguanian geure pekatubak gaitik, eta alkan-
zetan dogu euren parkazinoia. Irugarrenengo:
pagetan deutsaguz pekatu oneekaz egin ditugu-
zan zorrak. Laugarrenengo: bere bitartez merezi
ginaike artutia Jaungoikuagandik mesede ugari-
jak, ala arimakuak, zein da gorputzekuak. Lenen-
go: emoten deutsaguz Jaunari honra, alabanzia,
eta eskerrak; baña zelakuak? Batu bediz mundu-
ben asijeratik, eta eternidade guztijan gizonak
luurrian, Santu, eta Aingerubak zeruban emon
deutsezan honra, alabanzia, eta esker guztijak,
Martirijak euren ala, neke, min, eta erijotziagaz,
Konfesore, eta Birjinak euren gaubela, baru,
penitenzija, garbitasunagaz, eta Apostolubak
euren ibilera, predikazinoe, eta mirarijakaz; eza-

rri bediz oneen ganera bere Ama guztiz santu-
bak emon eutsazanak, bere arrigarrizko santida-
de, eta mirarizko egitade, garbitasun, amatasun,
eta eutsan amodijo erriagaz emon deutsazanak,
eta orain zeruban emoten deutsazanak; bada
dirianok eztira elduten, meza bategaz emoten
jakezanera; zegaitik andijagua da oneek guztijok
baño kurutzian ilagaz emon eutsana bere
semiak. Izanik auxe berau mezan emoten jako-
na, andijaguak izan biar dau, beste emon al lei-
kijozanak baño. Bigarrenko: meziagaz bigundu
edo gozatuten dogu Jaungoikua gugaz aserratu-
rik daguanian bere kontra egin dituguzan peka-
tubak gaitik, kastigadu ez gaizan eurakgaitik.
Trentoko Batzar, edo Konzilijuak dirausku: eldu-
ten bagara sakrifizijo onetara bijotz on, fede
artez, biar dan bildur, eta itzalagaz, bertan aur-
kituko dogu grazija, eta erruki, edo miserikordi-
ja; bada bigundurik beragaz gure Jaungoikua,
emongo deusku penitenzijako doia, eta parkatu-
ko deuskuz gure pekatu guztijak, ikaragarrijenak
badira bere.

Irugarrenko: meziagaz pagadu ginaijoz Jau-
nari, deutsaguzan zor guztijak. Sarri esan dogu,

pekatu bakotxian artuten dogula geure ganian zor bat, zein pagadu biarko deutsalgun Jaungoikuari, edo mundu onetan obra onakaz, edo bestian purgatorijoko pena, eta su bildurgarrijen artian. Zor oneek pagadu ginaijok jaunari meza-ko sakrifizijuagaz; bada, emen gure pekatuben ordian ofrezietan deutsalguna, izanik kurutzian opa izan jakan gorputz, eta odola berbera, orduan asko izan ziriana legez mundu onetako pekatubak kenzeko, eta euren zorrak pagetako, orain bere dira duin guk pekatubak gaitik daukaguzan zorrak pagetako. Laugarrenengo: meziaren bitartez alkanzadu ginaikez mesede andijak, alan arimarako, zein da gorputzerako. Lenengo: arimarako, zelakuak dirian Jaungoikuaren grazija, eta laguntasuna pekatutik urteteko, euren ekandu zitalak kenzeko, demoninuaren tentazi- noien kontra irrima pelietako, aragijaren gurari- jak eciteko, eta pekatuben pelleburubetatik iges egiteko. Barriz grazijan bagagoz, alkanzadu ginaike Jaungoikuaren adiskidetasunian irme egoteko sendotasuna, santidadian aurrera juate- ko indarra, onoidade, edo birtute geijago, eta geijago irabazteko arduria. Bigarrenengo: alkanza-

du bere ginaikez gorputzeko onak; zelakuak dirian, bizitzia, osasuna, janarija, jastekua, eta bizitzia iragoteko biar dogun guztija. Alkanzadu bere ginaike kendu dagizala Jaungoikuak gugandik, geure pekatubak gaitik biladuten deuskuzan kastigubak, zelakuak dirian, gerrak, gosiak, gatx, edo pestiak, ekatxak, urolak, labore faltia.

Mesede guzti oneek eskatu ginaijoz Jaunari, ez bakarrik geuretzat, baita bere geure proximuentzat. Au egin leiteke modu bitan. Mezia ateriagaz nai dogun gauza, edo mesedia alkanzetako, edo mezia enzunagaz gogo, edo intenzi-
noe onegaz, ofrezietan deutsagula, autortu, edo konzedidu deigula eskatuten deutsaguna geuretzat, edo bestientzat. Onetarako jakin biar dogu, mezako sakrifizijuan dagozala frutu bi, bata da berezko, edo espeziala, bestia guztijena, guztikenzakua, edo jenerala. Frutu berezko, edo espezialak balijo deutso mezia atera dabenari, edo norgaitik mezia esan daben Abade, edo Sazerdotiak; baita bere alkanzetako arako mesede, zein alkanzetarren esaten dan mezia. Esate-rako: dago bat gexorik, ateraten dau berak, edo bere guraso, seme, nai adiskide batek meza bat

osatu dedin; gexo arexentzat da berezko frutuba. Dabil gatx, edo enfermedade andi bat abere, edo animalijetan, ateraten dau errijak meza bat gatx au kendu dedin; onetarakoxe da frutu au. Frutu guztijenzakua, edo jenerala da Elexa guztijena. edo bere seme guztijai balijo deutsena; baña onek ezteutse guztijai bardin balijo, bada mezia enzuten dabenari geijago balijo deutsa eztabenari baño; eta geijago beste batek bera-gaitik enzuten dabenian, enzuten eztanian baño. Frutu au ezta gitxituten meza enzulak geitu arren; nai batek bakarrik enzun daijala, nai millak enzun daijela, bardin bakotxak artuko dau bere frutuba.

Erzazoginza

Ementxe nai neuke euki Apostolu baten miina, edo obeto aingeru batena adi erazoteko, ez bakarrik zubei, baita mundu guztiko Kristinaubai bere, meziaren anditasun pare baga, neurri baga, eta kabu bagia, guztijak biztu deitezan al daijen sarrijen enzutera. Guztijentzat dagoz idi-

girik zeruko ondasun ugari guztijak, altara orretatik urteten dau iturri ugari batek jente guztijen onerako. Erdu bada guztijok arzera nai zeunkezan baño bere ondasun geijago. Gizona artez, edo justu, santu, eta Jaugoikuaren bildurtijak, nai dozube azi, edo geitu zeuben santidadia? Sakrifizijo onetan dukazube neurri, eta kabu bagako santidadia berbera; idigirik daukaz zubentzat bere Jaungoikotasunaren ondasun guztijak. Eldu zaiteze altara orretara, eta artu egizube nai dozuben on guztija, ezteutsu inok galazoko al daizun guztija arzen: Daukazube zeruko janarijen gosia? Mezako sakrifizijuan daukazube Jaungoiko baten aragija, beragaza ase zinaike zeuben gurari guztija. Daukazube zeruko edarijen egirrija? Sakrifizijo orretan ezarten da, arako mundu guztiko pekatubak itoteko asko izan zan odola. Ortisek urteten dau ibai andi bat legez, nai dabeen guztijak amatadu daijen euren egarrija. Erdube erdube diadar egiten deustube mezan sakrifiketari dagan artian: ara emen nun nagan zuben bitarteko eginik zubei santidadia geijago, eta geijago geituteko gurari bizijan errerik. Ase zaiteze zeruko ondasunez; artu, artu,

naiko beste; bada eztira orregaitik urrituko: ikusiko dozube zelan poztuko dan eurakaz zuben bijotza, eta biziko dan zuben arimia.

Pekatari, tristia, zagoz guztijori nekaturik, eta desesperadurik legez zeure pekatuben ikaragarriko anditasunagaz? Erdu sakrifizijo onetara, erdu mezara, ementxe aurkituko dozu zeure erremedijua. Nai dozu euren parkazinoia? Erdu mezara, ortxe aurkituko dozu arako jaungoikua-ren bildots munduko pekatubak kenduten dituzana. Andijak dira, ikaragarriak dira zure pekatubak? Andijagua da altaran zugaitik ofrezietan dan sakrifizijua. Larritu, eta bildurturik zaukaz zeure pekatuben ezaintasun itsusijak? meza daukazu arako testamentu barriko odol Jaugoikozkua, zein izan zan duin mundu guztiko pekatuben loikerijak garbituteko. Zaukaz estaturik, eta preminaz beterik Jaunari deutzazun zor andijak, euki baga zegaz pagadu? Erdu mezara, ortxe daukazuz zeure aukerara, eta borondatera Jesu Kristoren merezimentu guztijak: artu egizu nai dozun guztija, eta pagadu egijozu Aita betikuari deutzazun zor guztija. Deritzu eztozula eukiko indarrik pekaturako daukazun etxunta-

sun, eta ekanduba goituteko? Mezako dakrifizijuan emongo jatzu sendatasuna demoninuaren, eta aragijaren alegin guztijak azpiratuteko; bada beronek kendu eutsezan gure arerijo onei euren indar guztijak, eta ifini zituzan loturik. Baña. zer aurkituko eztoigu mezan? Gexo bagara, ortxe daukagu osasuna; triste bagagoz, ortxe daukagu poz, eta atsegina; pobre bagagoz, ortxe daukagu ondasuna; itxurik bagagoz, ortxe daukagu argija, eta beinguan esaterren: mezako sakrifizijo miragarrijan aurkituko dogu geure gatx, eta premina guztijen errmedijua; bada ezin ukatu leikegu jaugoikuak, bere bitartez eskatu deiogun gauzarik.

Antxinako legeko sakrifizijuak utsak zirian; bada etzirian altarako onen geirizia baño, eta alanbere mesede guztiz andijak egiten eutsezan Jaunak, eurak opa, edo ofrezietan eutsezanai. Aserraturik eguan israeltarrakaz, eta Aaronek egin eban sakrifizijuagaz geratuten zan amaturik bere aserria. Aserraturik eguan David erregegaz, jakin nai izan ebalako zenbat gizon eukazan bere agindura, eta opa izan jakan sakrifizijuagaz geratu zan gozaturik. Beste sarri askotan

dakusku Eskritura Sagraduban, mesede andijak egin eutsezala Jaunak sakrifizio areek gaitik, eta enzun zituzala euren bitartez egiten eutsezan esakarriak. Bada ain gogo onagaz arzen bazituzan sakrifizio areek, mezak sakrifiziuaren irudi, eta geirizia zirialako, zelako borondatiagaz artuko eztau egijazko sakrifizio au? Zelan enzungo eztituz onen bitartez egiten jakazan eskabidiak? Etzakaz emen opa orduban legez ari, eta zezenen aragijak, ez txal, eta akerren odola, ezpada arako bere seme maitiaren gorputz Espiritu Santubaren obraz eta birtutez sortuba: arako odol, zeru luurrak santututeko duin izan zana. Andija bada sakrifizio au, ezta txikijagua bera ofrezietan dabena. Sazerdote meza esaten dabena ofrezietan badau bere, Sazerdote lenen Aita betikuari opa deusana, da Jesu Kristo bera, eta alan bera da gure hostija, bera Sazerdotia, eta bera altaria. Berak ifinten dituz bere Aitaren aurrian guk mezan egiten dituguzan erregubak, berak gure bitarteko eginik erregututen deusna, arren autortu, edo konzedidu dagigula eskatuten doguna.

Zelan bada enzungo eztituz alako Aita batek onelako seme batek egiten deutzazan erregubak? Zelan gorrik egongo da ain maite daben semiaren deijetara? Urrin gugandik onelako bildurrik. Enzun zituzan Abelen odolak bere anaije Cainen kontra egiten zituzan diadarrak. Zelan bada enzungo eztituz bere semien odolak gure onerako egiten dituzan diadarrak, izanik onenak senduaguak, eta zolijaguak arenak baño? Beti enzun zituzan bere seme onek mundu onetan egin eutsazan erregubak; enzun eban arako kurutzian gugaitik sakrifketan eguanian diadar andijakaz, eta negarrez egin eutsazanak, eta eztau enzun gurako, orain altaran sakrifketan daguanian? Ezin Kristinauk sinistu leike onelakorik. Kristinaubak; idigi daiguzan nos edo nos geure arimako begijak, biztu daigun geure fedia, eta ezagutu daigun meziaren anditasun pare bagia; ezauera onegaz egin daigun alegina al daiguzan meza guzijak enzuteko; baño ez edozein modutan, ezpada geure begijakaz bagenkus legez Jesu Kristo gure Jauna bere gorputz, eta odola ofrezietan gugaitik. Modu onetan itzal, bildur santuz, eta debozinoez beterik bat eginik an

dagozan Aingerubakaz bedeinkatuko dogu Jauna
luurrian, eta gero inos amaitu etzirian soñubak
kantaduko doguz zeruban. Amen.

XLVII. BERBALDIJA

Elexako bigarren mandamentubaren ganean, zein dan, urtian bein konfesetia, erijotzako pelleburuban ifinten bada, edo komulgadu biar bada; nun adi erazoten dirian sarri konfesetiak dakarzan onak.

Elexa Ama Santubak aginduten deuskun bigarren mandamentuba da, *urtian bein edolabere konfesetia, edo lenago erijotzako pelleburuban aurkituten bagara; baita bere komulgadu biar bagara.* Lenengo: Kristinau guztijak konfesadu biar dira urtian bein gitxijenez. Obligazinoe au asten da errazoe, edo zenzuna argituten jakenetik, edo errazoen usura elduten dirianetik. Orregaitik gurasuak ardura andi bat euki biar dabe euren seme alabai irakasteko umetxu dirianetik, eta errazoera eldu baño leenago, zelan konfesaduko dirian, eta eruateko euren Arima-zain, edo Kura Jaunak gana ikusi dagijen konfesadu biarrik badauke;

bada uste arren gurasuak eztaukela pekatu mortalak egiteko biar dan argi, eta maliziarik, jazo leiteke pekatu mortalien egotia umia, eta konfesinoien biarra eukitia. Emetik ezagutuko dabe gurasuak zelako pekatu dan eukitia bederatzi, amar, edo urte geijagoko seme alabak inos konfesadu baga, eta benturaz jakin baga zelan konfesaduko dirian.

Jaungoikuak dauka agindurik pekatu mortalien daguan Kristinauba konfesetia, bada bestelan etzako parkatuko bere pekatuba; baña ez eban izentadu Jesu Kristok nosik nora konfesadu biar zan, au itxi eban bere Elexiaren ardura, edo borondatera; eta gure ama arduratsu onek, bere semiak egon etzeitezan denpora luzian, edo benturaz euren bizi guztijan konfesadu baga, agindu eban urtian bein gitxienez konfesadu zeitezala, urte au aituten da Paskua batetik bestera, edo Parrokijagaz kunplietan danera; bada auxe da Alexa guztijetan jaoten dan oitura, edo kostunbria; eta Trentoko Batzar, edo Konzilijuak nai dabena da, iraun daijala beti oitura onek. Denpora atan konfesetan eztanak peatu mortal egingo dau, eta konfesadu biarko da al daijen

lasterren. Dakijanak, edo deritzanak ezingo dabela bere, edo kunplidu Elexiaren agindu au izentadu, edo señaladurik daguan denporan, konfesadu biar da lenago. Esaterako: dauka batek zer jua itxasotik, eta deritza ezin konfesadu biar da onzijan sartu baño leenago. Eztau agindu au bete, edo kunplietan dongaro konfesetan danak, eta ez bakarrik eztau beteten, ezpada egiten dituz pekatu mortal bi, bata txar-to konfesetan dalako; eta bestia Elexiaren agindu au jaoten eztabelako. Au egiten dabenak, aibat lasterren biurtu biar dau konfesetara, eta eztau asko akto kontrizinoeko bat egitia, bada onegaz eztau beteko Elexiaren mandamentu au. Bein ondo konfesadu ezkeru urte barruban, pekatu mortalian jausten bada, guztiz ondo litzateke bertatik konfesetia, baña eztau pekatu barririk egingo konfesadu ez arren: egin biar dabena da, artu benetako damuba Jaungoikua aserratu dabelako, ta euki gogo, edo borondatia konfesetako Elexa Ama Dantubak aginduten dabenian.

Elexiak mandamentu onetan aginduten deuskun bigarren gauzia da, konfesetia erijotzako

pelleburuban gagozarian, eta alan konfesadu biar dira soldadubak batalla baten sarzera duazarian, pekatu mortalien badagoz, eta al badaije itxasuan dagozanak, ekatxen batek onzija ondatu, edo galdu aginien darabilenian; emakumiak seinginza oker, eta estuban dagozarian, eta gatx, edo enfermedade pellebururuzkuan dagozanak. Medikubak agindu ezkerro gexo bati konfesadu deila, ezta luzatu biar. Sarri eta sarri ikusi oi da itxirik bijaramonerako, edo arratsalderako, konfesinoe, eta beste Sakramentu baga iltia. Beste batzubetan Medikubak esan arren txarrik daguala, etzakala sinistuten, eta gero arrastaka artu biar izatia Sakramentubak gertu, edo prestadu baga, edozein modutan. Beste batzubetan usterik oraindio denporia daguala itxiten da geroko, galzen dira, edo ilunduten dira zenzunak, eta uste arren bestiak euren senzun, edo adinien dagozala, arzen dira Sakramentubak, eta egiten dira testamentubak jakin baga zer egiten dan, askori eta askori jazo jakana legez; bada gero osatu ezkerro, ez eben gomuta onelako gauzarik egin beben ala ez. Baleuke Kristinaubak euren arimeen arduria, ezagutu

ezkero gatx pelleburuzkua daukela, edo pelleburuzkua izan leitekien bildurra daukala, ez leuke Medikuben esanetik biarko ainbat lasterren konponduteko euren arimako gauzak, eta prest egoteko Jaugoikuak dei egiten deutesenian eranzun, eta berari kontu emotera juateko. ezta inor au egina gaitik ilgo leenago.

Mandamentu onetan irugarrenago aginduten jakuna da, komulgadu nai badogu, edo biar bagara, lenago konfesetia pekatu mortalien dagagoz; eta alan akto kontrizinoeko bat egitia asko bada bere pekatubak parkatuteko, eta Jaungoikuaren grazija, eta adiskidetasunian ifinteko, ezta asko komulgetako, Elexiak alaintxe agindurik daukalako. Trentoko Batzar, edo Konzilijuak dirausku. Pekatua mortalien daguanik ezin komulgadu leiteke, lenago konfesadu baga. Baderitza bere, bere pekatuben damu benetakua daukala, eta akto kontrizinoekua egin dabela, konfesadu biar dau. Au eskatuten dau Altarako Sakramentuben santidadiak, au San Paulo Apostoluak dinuanian: Sakramentu au artutera duazanian, begiratu beike bakotxak zelan elduten dan; eta au Elexan beti iraun daben oitura,

edo kostunbraik. Konfesinoe au pekatu guztijena izan biar da, eta alan norbaitek isten badau pekatuben bat konfesadu baga bere erru baga astu jakolako, konfesinoe ona egingo dau, eta parkatuko jako asturik geratu jakan pekatuba; orregaitio bere gomutatu, edo akordetan bajaka komulgadu baño leenago konfesadu biarko dau asturiko pekatuba bere.

Eztau Elexa ama Santubak aginduten bein bakarrik baño urtian konfesetan; baño gura leuke ainbat sarrijen konfesadu deitezan bere semiak. Bagina benetako kristinaubak, eta bageunka geure arimiaren biar dogun arduria, ez bakarrik ez geunke biarko Elexiaren aginduba urtian bein konfesetako, ezpada al daigun sarrijen elduko ginaitekez Salbagilien iturri onetara, geure arimia garbitutera, eta bertan emoten jakuzan zeruko ondasunak artutera. Bagenki beste aldetik, zelako gatx ikaragarriak datorkiguzan kofesadu baga luzaro egotetik, ez geunke besterik biarko bildur izateko urte betian konfesadu baga egoten. Biztu daitez anbat sarrijen konfesetara, nua zubei begijen aurrian ifintera, ze kalte, eta gatx dakarzan arimiarentzat beran-

durik berandura baño ez konfesetiak, eta zenbat on datozan sarri konfesetatik. Lenengo: luzaro daguana konfesadu baga, dago kondenazinoeko pelleburuban: ara zegaitik; onelakuak ezin denpora luzian iraun leike pekatuban jausi baga. Lenengo pekatubak darua bigarrenera bere pisubagaz, oneek bijok irugarrenera, eta modu onetan sartuten da pekaturako ekanduban, eta zenbat eta luzaruago iraun daijen pekatu oneek, ainbat eta gogor, eta senduago egiten da euren oituria, eta zenbat eta senduago ekanduba, ainbat eta gatxago bera kenzeia. Edonogaz da gatxkenzeia bein arturiko ekanduba; baña guztiz geijago berandurik berandura baño konfesetan eztanagan, edo obeto esaterren, eztago onelakuentzat erremedijorik. Ara zegaitik. Eztago onelakuak osatuteko beste osagei, edo medizinarik, sarri konfesetia baño: alperrik egingo dira beste alegin guztijak, eztabe ezer balijoko berandurik berandura konfesetan bada. Eta orra nundik datorren egunian egunian dakuskun gauzarik galgarrijena. Guztija dago ordi, lapur, biraokari, aragizko pekatubetan sarturik dagozanez beterik. Zegaitik deritzube dagozala oneek guztijok

euren ekandu zitaletatik urten baga? Eztaukazu-
be begiratu baño nosik nora konfesetan dirian,
eta ezagutuko dozube. Urterik urtera baño eztira
elduten konfesetara, eta orduban bere arrasta-
ka, eta ezin luzatu leijelako. Orra nundik dato-
rren ainbat denporan irautiak oneen ekandubak.
Baña sarri konfesetan dana berandu elduko da
ekandu zitala eukitera; zegaitize pekatu baten,
edo beste baten jausten bada, bertatik kenduten
dabena legez, eztau bere ekandurik arzen, eta
artuten badau sarri konfesadubagaz kenduko
jaka; bada alde batetik Jaungoikuak emongo
deutsa konfesetian daukan humiltasunen sari
indarra goituetko, eta bestetik Konfesoriak
mediko legez emongo deutzaz biar dituzan osa-
gei, edo medizinak.

Bigarreno: berandurik berandura baño kon-
fesetan eztanari, guztiz astun, eta garratz egiten
jaka konfesetia, eta zenbat eta berandubago,
ainbat eta astunago. Onei jazoten jake alperrai
jazo oi jakena. Nai dau eta eztau nai alperrak,
dino Espiritu Santubak. Alde batetik ikusirik
pekatuban daukan egoera, edo estadu negarga-
rrija; sentidurik bere bijotzian emoten deutzazan

aginkadak, eta ezguturik infernuban jausteko daukan pelleburuba, nai leuke konfesadu; baña besterik, daukan nagitsuna gaitik, usterik etzakola erraz izango ondo egitia, eztau nai. Ara zelan engañetan oi dituzan demoninuak. Dator jai andi bat, eta arzen dau egun batzuk lenago konfesetako gogua. Elduten da eguna, eta etzaka faltako atxakijen bat beste Jairen baterako luzatuteko. Elduten da beste eguna bere, baña zereginik txikijena izango da asko osteria isteko, Modu inetan dua luatubagaz. Elduten da aste santuba, eta orduban dira larriak, orduban esturak eta orduban nekiak. Ze astun egiten dan konzienzija aratu, edo examinetia. Konfesetan da, baña eztakijana legez examina ain luzian itxi daben pekaturik, onelako konfesinoiak atsegin emon biarrian bildur andijaguan ifinten dau. Baña sarri konfesetan danak eztauka onelako esturarik, bada jausten bada pekatu mortalen baten, bertatik gomuta dau nun, zelan eta nogaz egin eban. Sarri orraztuten bazara erraz izango jatzu orraztutia. baña urte bete osuan bazagoz orraztu baga, guztiz gatx izango jatzu ulia solte-tia, eta eztozu orraztuko min andi baga. Auxe

berau jazoten jaka sarri, eta berandurik berandura konfesetan danari.

Berandurik berandura konfesetiak dakarren irugarren gatxa da, poz eta atsegin benetako baga iragoten dan bizitzia. Euki begiz gizon batek nai dituzan jan, edan, eta olgura guzijak; izan bedi diru ugari, eta ondasun zabalenen jaube; ez begije ukatu bere gurarijai nai leikien gauzarik; bada ezteutse emongo poz benetakorik: zorion guztijonen erdijan egongo jaka aginka bere konzienziako aarra. Enzungo dituz ots krubel, eta gogorak, zeinzuk mingoztuko ditubezan daukazan olgura, eta zorion kanpotiko guztijak. Eztot zeubek baño egija onen beste testigurik gura. Zelan aurkitu oi zara arako konfesetia luzatu arren, pekatuban aurkitu zarianian? Zelako iluntasun, eta mingotztasuna etzeunkan zeure bijotzian? Ez eutsuzan garrartzuten zeure olgura, eta zeure jan edanik gozuenak? Etzenduban uste, zeure ganian zeunkala pisu ikaragarri bat, zeinek makurtuten zenduzan luurreraño? Arako gomuta zendubanian pekatuban zengozala, etzenduban esaten; niri emoten badeust aldi gesto batek, eta Jesus bere esateko denpora

baga ilten banaz, zer izango da nizaz? Etzenkusan zeure aurrian infernuba idigirik? Zelako atsa-kabez, zelako larriz, zelako bildurrez beteten etzinduzan gomuta onek? Ez eutsuzan laztuten zeure uliak? Ez jatzun bildurrez ikara ifinten zeure gorputz guztija? Ezin au ukatu zinaike, egija esan nai badozu. Barriz arako konfesadu zarianian, alegin guztijakaz gertu, edo disponidu ezkeru, eta ondo zeure eretzijan, zelako poz, eta atsegina euki eztozu zeure bijotzian? Etzenduban uste pisu eskerga bat bota zendubala zeure ganetik? Edo urraturik katee astun batzuk, urten zendubala kartzela ilun batetik, eta argi barri bat zenkusala? Edo urten zendubala infernutik, eta idigi jatzuzala zeruko atiak? Euki dozu inos ordu-ban lezko pozik? Ezin au ukatu zinaike. Eta alanbere luzatu nai dozu konfesetia? Nai dozu egon pekatupian? Zorakerija andija benetan! Itxumendi sinisezgarrija!

Konfesinoia luzatutiak dakarren laugarren gatxa da, egin deizan obra on guztijak pekatuban dagan artian, bapere ez balijotia. Ekarzuz federa Apostolubak baño gizon geijago, irago egizuz Martiri guztijak irago ditubezan baño su,

ezpata, kañubita, presondegí, zauri, eta berun urtu geijago. Egizuz Santurik andijenak egin ditubezan baru, gaubela, penitenzija, mortifikazinoe, limosna, etabeste obra on guztijak; bada pekatu mortalian zagozala egin badituzuz, ezteutsube ezer balijoko, eta ain utsik aurkituko zara juizijuan zein da bapere egin ezpazendu. Bostgarren gatxa da infernu baten bertatik jausteko daukan pelleburuba. bertatiko aldi gesto batek emongo baleuskijo, edo jausiko balitz leku eregi batetik, edo zerbait jausiko balitz bere ganian Jesus esateko bere lekurik emon baga, zer izango litzateke berandurik berandura konfesetan danagaz? Eztakit, zelan fedia daukan Kristinauba egon leitekian infernuban jausteko pelleburu onetan: eta alanbere dakusku berandurik berandura konfesetan dirianak dagozala sei, zorzi, amar ilabete osuan pelleburu onetan; naijago dabeela infernuko su ikaragarrijetan jausi aginian bizi, konfesinoe on bategaz euren arimia garbitu baño.

Azkenez konfesinoia luzatutiak dakarzan gatx guztijen artian geijen bildurtu biar dabena da, onelakuak eldu oi dirian gogortasunak. Esan dogu guztiz dala gatx, edo ezin leitekiana dala

onelakuak denpora luzian irautia pekatuban
jausi baga, eta pekatu onek bere pisubagaz
daroiala beste pekatubetara, eta modu onetan
ondatuten dala pekatarija bere pekatuben azpi-
jan. Bein eldu ezkerro gizona negargarrizko ego-
era, edo estadu onetara, eztago bera andik ate-
rateko modurik, Eztau sentietan bere bijotzian
pekatubaren aginkada, edo erremordimenturik,
eztau enzuten Jaungoikuaren diadar, ez deirik,
eztauka infernubaren bildurrik, eztauka zerura
juateko guraririk, eztauka beste gogorik, beste
pensamenturik, ez beste usterik, ezpada nundik
nora aseko dituzan daukan ekandu zitalen gura-
ri, edo gustuak. Zenbat onelako ikusten ez ete
dira berandurik berandura baño konfesetan ezti-
rianen artian? Urte guztijan dagoz Jaungoikua
gomuta baga, arimiaren jaramonik egin baga,
eta demoninuaren menpeko, edo esklabo; eldu-
ten da aste santuba, eta datoz konfesetara kate
bategaz loturik legez. Baña ze astun? Ze otz? Ze
gogor? Ze arrizko? Eztago eurak bigunduteko
modurik, surbil bat eginik dagoz konfesorien

oñetan. Konfesetan dira zelan edo alan, edo ezti-
ra konfesetan biar leukien moduban. Onegaz
aurrera darue euren ekanduba, eta beti dua
geitu, azi, eta sendatubagaz, eta eurak gogortu-
bagaz. Bizi modu onegaz elduten dira erijotzako
ordura. Deritzube erraz izango jakola berandurik
berandura baño konfesadu ez danari, ordu atan
ondo konfesetia? Edonok daki guztiz dala gatx,
beingo beginguan sarri egiten dan pekatubaren
damu artutia; guztiz dala gatx zale dan gauzia
istia; guztiz dala gatx orduraño gogorturik egon
dan bijotza bigundutia, eta eztala erraz konfese-
tako oiturarik eztaukana estura arzen artian
ondo konfesetia. Bildur izateko da, eztala obia
izango orduko konfesinoia, lenagokuak izan
dirian baño. Orra zetara dakarren berandurik
berandura konfesetiak. Baña sarri konfesetan
danak eztauka onelako ekandurik; bada ezteu-
tsana legez isten pekatubari denpora luzian ego-
ten, eztauka beraren oiturarik, eta eginik dagua-
na legez konfesetara, guztiz jaka erraz azkenen-
go orduban bere konfesetia.

Erazoginza

Orra ze arrigarri, eta ikaragarriak dirian berandurik berandura konfesetiak dakarzan gatzak, eta ze miragarriak sarri konfesetiaren onak. Eta alanbere ze atzerakunzia? ze nagitasuna konfesetako? Sinistu egidazube, neure Kristinaubak, auxe da demoninuak ifini al leizun laki-jorik pelleburusuena, auxe tentazinoerik gogorena. Daki gure arimen arerijo onek Sakramentu onek ateraten dituzala gizonak bere agindupetik, eta iragoten dituzala Jaungoikuaren seme izatera. Dakus Sakramentu onetan daukezala gizonak armarik segurubenak bere tentazinoien kontra pelietako, eta ezin ezer dabela Salbagilien iturri onetan garbitutera sarri datozenen kontra, eta orregaitik Sakramentu oni deutsa arrabiarik andijena. Albalegi mundutik erbestetu, edo desterraduko leuke, eta guztiz dira andiak onetarako egin dituzan indarrak. Baña ikusirik ezin onegaz urten dabela, zer deritzu egiten dabela bere malizijak? Ifinten dau gizonakan konfesetara juateko atzerakunza, eta nagitasun

andi bat, modu onetan berandurik berandura
baño ez juanagaz luzaruago egon deitezan bere
azpijan, eta gatzako izan dakijuen bere lakijuak
urratutia, edo benturaz inos urten eztaijen. Sinis-
tu egidazube, neure enzula maitiak, arako nos-
bait datorkizunian konfesetara juateko gogua,
Jaungoikuaren deija da. Bera jaotzu diadarrez:
urratu egizuz deoninuak ifini deutsuzan katee
orrek, eta erdu neugana. Zetako nai dozu izan
ugazaba ain gogor orren menpeko, edo esklabo,
neure seme maite izan zaitekezala? Erdu bada,
erdu nigana konfesinoe on baten bitartez. Baña
bertatik demoninuak ifinten deutsu atxakija bat,
beteten zaituz nagiz, ifinten deutsuz bere guzu-
rrak begijen aurrian, eta zuk gorturik zeure bela-
rrijak Jaunaren deijetara, egiten dozu demoni-
nuak dirautsuna, adi erazoten dozula naijago
dozula zeure arerijuen menpe gogor, eta krue-
lian geratu, zeruko erregeren seme izan baño.
Etzaiteze, Kristinaubak, zoruak izan. Eranzun
eijezube Jaunaren deijai, eta urraturik demoni-
nuak ifini nai deutsubezan atzerakunza, nagi,
eta atxakijen kateiak, urten egizube bere agindu
astunetik. Bein urten ezkeru bere buztarritik, eta

eldurik Jaunaren seme izatera, eldu zaiteze aibat sarrijen sakramentu onetara, bertan artutera semetasun onetan irauteko indarrak, iragoteko beti betiko zorioneko izatera zeruban. Aman.

XLVIII. BERBALDIJA

*Elexako irugarren
mandamentubaren ganian, zein dan
Paskuetan komulgetia, eta ze gauza
ona dan sarri komulgetia.*

Elexako irugarren mandamentuban aginduten jakuna da, Paskua Erresurrezinokuetan komulgetia. Agindu au bete, edo kunpkietako komulgadu biar da Erramuko Domekatik, eta urrengo amabost egunen barruan Obispo Jaunak luzatuten ezpadabe denpora au. Amabost egun onetatik edozeinberetan kunplidu leiteke Parrokijagaz. Dakijanak lenagotik ezingo dabela komulgadu amabost egun oneetan, edon bedi ber Arima-zain, edo Kura Jaunagaz, eta komulgadu bedi leenago. Amabost egun oneen barruban komulgetan eztanak, bere erruz, edo kulpaz bada, pekatu mortal egingo dau, eta komulgadu biarko da ainbat lasterren. Norbait ezin komulgadu bada egun oneetan, al daijan lasterren bete, edo kunplidu biar dau Elexiaren agindu au. Eztau

jaoten Elexiaren agindu au pekatu mortalian komulgetan danak, eta ez bakarrik eztau gorde-tan, baña egiten dituz pekatu mortal bi; bata dongaro komulgetan dalako, bestia Elexien agin-duba austen dabelako. Onelakua bere ainbat las-terren ondo komulgadu biar da. Bakotxa komul-gadu biar da bere Alexa nagusi, edo Parrokijan, eta ezin bada eskatu beijo Arima-zain, edo Kuria-ri lizenzija, eta eukirik edonun artu leike Paskua-ko komunioia. Baña badago bere erritik kanpo-ra, eta ezin biurtu al bada bertara amabost egu-nen barruban, daguan errijan komulgadu biar da. Bizi lekurik eztaukenak, edo erririk erri dabil-zanak komulgadu biar dira egun areetan dago-zan erriko Alexa nagusi, edo Parrokijan.

Kristinaubak obediu biar deutsa Elexiaren agindu oni daukanetik zenzuna ezagututeko, ze miragarri, ze neurri baga, eta kabu bagia dan hostijan arzen dan Jaunaren anditasun, eta daki-janian zelako gertuera, edo prestasunagaz, zela-ko garbitasunagaz, eta zelako amodijuagaz eldu biar dan jaungoikozko Aingeruben janarija artu-tera. Jakitia nos dagozan mutil, edo neskatillak gertu, edo prest eztagokijue gurasuai, ezpada

Arima-zain, edo Kura Jaunai. Gurasuak egin biar dabeena da, irakatsi euren umiai zer daguan Altarako Sakramentuban, ze miragarrija dan an daguan Jauna, ze mesede andija dan Jangoikua bera bularren barruban artutia, zelako garbitasun, humiltasun, eta itzal, edo debozinoiagaz eldu biar dan bera artutera; ze ikaragarritzko pekatuba dan pekatu mortalian komulgetia. Modu onetan irakatsi biar deutse umetxubai gazte dirianetik gertu, edo prestadubagaz duazan sakramentu au artu biar dabeeneko; eta denporia eldu deinian eruan Kura Jaunagana, berak erabagi daijan komulgaduko dirian ala ez. Onezaz ostian komulgadu biar da Kristinauba erijotzako ordu, edo pelleburuban, eta au Jesu Kristoren aginduz. Berak dirausku: jaten ezpadozube nire gorputza, eta edaten ezpadozube nire odola, eztozube eukiko bizitzarik zeubekan. Inos estututen badau gizona agindu onek, ez inos obeto, ez inos biarrago mundu onetatik bestera irago biar danian baño, orduban dalako inos baño gogorragua demoninuak egiten daben gerria, eta andijaguak bialduten dituzan tentazi-noiak; eta alan biarren dau euren kontra senda-

tuteko, eta eruateko janari au sarzera doian bidian: eta dei egiten jaka orduban artuten danian bide-ornija, biderako jatekoa, edo biatikua. Orreagitik, ordu atan komulgadu nai eztabenak, pekatu mortala egingo dau, eta pelleburu andijan ifiniko dau bere salbazinoia.

Ezteusku aginduten Elexiak bein bakarrik baño urtian komulgetia; baño ezta au nai ez leu-kialako bere semiak ainbat sarrijen eldu deitezan altarako maira Jaungoikua bera artutera; ezpada ikusirik euren atzerakunzia Aingeruben janari au artutera juateko urte bete baño geijago luzatu eztaijen, esango baleu legez; gitxijenez urte beterik urte betera komulgadu deitezala. Elexia jaijo barri zanian ez eguan onelako agindu biarrik; bada ezaguturik bere semiak Sakramentu onetan arzen zirian neurri bagako ondasunak, egunian egunian komulgetan zirian. baño otzitzen abijadu ezkeru Kristinauben karidadia, abijadu bere zirian mai Jaungoikozko onetatik atzeratuten. Ikusirik Elexiak bere semien oztasuna, agindu eutsen komulgadu zeitezala iru bidar urtian, Gabonetan, Erresurrezinoe, eta Maijatz Paskuetan. Larregi eritzi eutsen askori eta asko-

ri iru bidar urtian komulgadu biarra. Ikusirik gure Ama errukior onek bere seme askok eta askok naijago ebeela pekatu mortal egin iru bidar urtian komulgadu baño, ainbeste galdu etzeitez agindu eban urtian bein gitxienez komulgadu zeitezala. Onetan egin dau Elexiak bere semiakaz ama amodijoz beteriko batek bere seme laztan gexo dan bategaz egin oi dabena. Dauka ama onek seme erikin, kaden eta indar baga bat, daki ondo jango baleu osatu, eta sendatuko litzatekiala; baña ain dago jangarsu, edo desgandurik, ze ezin inundik bere jan erazo deutsa. Zer egiten dau orduban? Arzen dau bere eskubetan janari gozo gozo bat, dua bere semia-gana, eta dirautsa: bazenki ze gozua dan janari au, poz pozik artuko zeunke; artu egizu kopautxu bat gitxienez, onexek osatuko zaituz, eta kenduko deutsuz zeure gatx guztijak. Au dirautsa, ez nai eleukialako geijago jan daijan, ezpada ija kopau aregaz geijago jateko gogua artu al daijan.

Auxe da Elexiak bere Kristinaubakaz egiten dabena. Nai leuke, dino Trentoko Batzar, edo Konzilijuak, meza guztijetan komulgadu deite-

zan. Erregutu, eta eskatuten dautse Jaungoikua-
ren erruki, edo miserikordijaren erraijetan, arren
ainbat sarrijen komulgadu deitezala; dirautse,
janari orrek kenduko deutsezala euren arimako
gatx guztijak, berak emongo deutsela arimako
osasuna, sendotasuna, eta indarrak demoninua-
ren kontra pelietako, eta eruango dituzala zeru-
ko erreinura. Ikusirik bere alegin guztijak eztiria-
la asko sarri komulgadu erazoteko, aginduten
deutse urtian beinedolabere eldu deitezala, ikus-
teko, al badagiz modu onetan eruan sarrijago
jatera zeruko ogi gozoz beteriko au. Alanbere
Kristinau askorentzat eztira duin euren amaren
erregu, eskari, eta alegin guztijak, eurai ogi osa-
sunsu, gozoz, ondasunez, eta zorionez beteriko
au jan erazoteko. Nundik, edo zetatik etorri al
leiteke atzerakunza, ozatasun, eta nagitasun au?
Fede utsune, edo faltatik. Eztabe begiratuten, ez
zer dan hostijan artuten dana, ez zelako ondasu-
nak dagozan bertan biar dan moduban elduten
danentzat, ez zelako zorion pare bagara igoten
dan bera artubagaz, ez ze mirarizko gauzak egi-
ten dirian bera jaten dabenagan. Orregaitik
dagoz ain atzera komulgetako. Seguru nago,

baleuke Kristinaubak biar dan fedia, sinistuko balebe zer jazoten dan Sakramentu ori sarri artuten dabenagaz, luze egingo litzakijue, ez tinot urte bete, baita aste bete bere komulgadu baga egotia. egija au ezagutuko dozube irudi onegaz.

Kontu egizu dirautsula Errege Españakok, zuazala jatera beragaz nai dozun guztijan: beragaz mai baten jango dozuzala goguak emon al daizuzan baño bere janari gozuaguak; zuazala ardura baga, bada ezteutsula inok galazoko ez bere Jauregi, edo palazijuan sartuten, ez bere maira elduten. Ez bakarrik jango dozula beragaz, baita jaten dozun guztijan aberastuko zaituzala ondasun andijakaz, eta zenbat eta sarrijago zuazan, ainbat eta poz andijagua emongo deutzazula, ainbat eta bere adiskide andijago izango zariala. ainbat eta geijago gurako deutzula, eta ainbat eta ondasun geijago emongo deutzuzala. Baña onetarako jua zaitezala al dozuzan erroparik ederrenakaz; bada zenbat eta apaindubago zuazan, ainbat eta ondasun andijaguakaz aberastuko zaituzala. Zer egingo zeunke orduban? Luzatuko zeunke egunerik egunera, asterik aстера, ilerik ilera, eta urterik urtera Erregegaz

jaten juatia? Ibiliko zinaitekez atxakija billa ez juaterren, edo al daizun guztija luzatuterren? Ifiniko zinaitekez Erregeren albuan erropa zatar, urratu, eta atsitubakaz? jarriko zinaitkez arpegi loijagaz, eta esku bustina, eta kakatzaz betiakaz? Edo ezarriko zeunkez Erregek berak jan biar daben platerera esku loikeriz asitubak? Ezetz deritz: lenago sinistuko neuke, egun bat bakarrik bere luze egingo litzatekezula Erregek egin nai deitsun honria artuterren. Egunian egunian juango zinaitekezala mai atara Erregek emoten deitsuzan ondasunakaz aberastuterren. Itxiko zeunkezala beste zeregin guztijak mai atara ez uts egin, edo faltetarren. Garbituko zinaitekez guztijori al daizun onduen, eta billatuko zeunkez erroparik ederrenak, prestadurik baño ezpada bere, ainbat apaindu, eta ederren erregeren aurrera juaterren.

Orain bada, neure enzula maitia, auxe berau dirautsu, ez Españako Errege, ez beste erreinu batekuak, ez luur guztijen jaube danen batek, ezpada zeru, luur, eta izatia daukan guztija daukanak. Erdu erdu, dirautsu Jaungoikuak berak, erdu neure Jauregi, edo Palazijora, zein dan Ele-

xia, jarri zaitez neugaz batera altarako maijan, eta jan egizu, ez idi, bei, eta arijen aragi, eta odola, ez egazti gozuen; ez Aingeru, Kerubin, edo Serafinen bat, ez neure Ama maite miragarrija, ezpada neu nazan Jaungoiko guztja, Aita, Seme, eta Espiritu Santuba. Erdu ainbat sarrijen, bada zeinbat eta sarrijago jan nagizun, ainbat eta arimako ondasun, grazija, santidade, onoidade, edo birtute geijagogaz aberastuko zaitut; zenbat eta sarrijago zatozan, ainbat eta laztanago, eta maitiago izango zaitut; ainbat eta nire asidkidiago izango zara. Baña begira zelan zatozan; loirik bazagoz garbitu zaitez leenago penitenzijako iturrijan, ez egizu zeure ariman itxi loikerijarik txikijenik; bada zenbat eta garbijago eldu zaitez nire maira, ainbat eta ugarijaguak izango dira emongo deusudazan zeruko ondasunak. Apaindu egizu zeure arimia al daizuzan birtutien erroparik ederrenakaz, eta ezpadaukazuz, eskatu egidazuz humiltasun, eta uste osuagaz, eta neuk emongo deusudaz.

Eta orregaitik bere eztogu egingo Jaungoiko batek opa deuskuzan ondasun, eta zorionagaitik, geu lezko gizon auts puska bat baño eztanak

iskini leikeguzan bertatiko ondasun apur puska bat gaitik egingo geunkiana? Erregerik alsu, edo poderosuenak emon al leikeguzan anditasun, ondasun, eta subertiak, zer dauke zer ikusi Jaungoikuak Sakramentu orretan bera artuten dabeneztat daukazan zorionakaz? Eztira areek onen gerizia bere. Mundu onetako erregerik andijenak emon al leikeguzan diru, aberastasun, eta honra guztija, al deitezan andijenak izan da bere, ezin irago leitekez geure erijotzara baño, eta dirauben artian eztira buruko min puskatxo bat kenzeko duin. Baña Jesus onak altarako maijan emoten deuskuzan ondasun, eta honriak, beti beti iraungo dabe. Ezteuskuz kenduko geuk nai ezpadogu, ez erijotziak, ez demoninuak, ez infernubak, ez beste arerijok. Geugaz eruango dituguz beste mundura bere. Barriz mundu onetan bizigarian artian, Sakramentu orretan artuten dogun janarija gorputz, eta arimako gatx guztijen erre-medijua da. Jesus onak dirausku: ni jaten nabe-na neugan dago, eta neu nago beragan. Ze gatx! Ze neke! Ze lan! Ze gexo! etorri leikijo Jesu Kristogan daguanari, edo Jesu kristo beragan daukanari? Jagi bedi bere kontra mundu guztija, bota

begijez demoninuak euren indar guztijak, artu begiz infernubak al daizan asmurik txarrenak, zer egingo dabe Jesu Kristo beragan daukanen kontra? Ezerbere ez: arerijo guzti guztijak gera-tuko dira deseginik keia legez jaun onen aurrian. Mesede guzti oneek, eta guztiz andijaguak opa deutzaz Jesu Kristok komulgetan danari; eta alanbere ze nagitasun! Ze atzerakunzia komulgetara juateko! Ze astuntasuna Jaungoiko andijagaz mai baten jarririk, luurrian, eta zeruban dirian ondasunik andijenak arzeko!

Kristinaubak, Jaungoiko baten dei guzti oneek, opetsi, edo promesa oneek, alegin oneek, eztira asko izango bera arzeko gurarija gugan biztuteko, bere maira gu eruateko, zeruko ondasunak arzera elduteko? Ay neure enzulia, komunoe bakotxa gaitik emongo baleutsubez eun dobloe, eukiko zeunke orain daukazun nagija altarara elduteko? Egongo zinaitkez urte osuan eun dobloe oneek artu baga? Billatuko zeunkez orain ifinten dozuzan atxakijak, urterik urtera luzatuteko? Obeto sinsituko neuke aste bat bere luze egingo zeunkiala astian sarri komulgadu,

ainbat sarrijagotan arzerren emon nai deutsuben diruba. Ezlegoke orain dagan nagitasunik, ez oraingo atzerakunzarik, ez orain billatuten dan atxakijarik. Nun da bada zure fedia? Nun da zure kristinautzia? Geijagotan daukazuz eun dobloe, zeruban dagozan ondasun guztijak baño? Diru apur puska bat gaitik egiten dozu Jaungoiko berbera gaitik egin nai eztozuna? Ez egizu esan fedia daukazula. Ez egizu esan Kristinau zariala. Ez egizu esan sinistuten dozula Sakramentu orretan, hostija orretan artuten dala bene benetan, eta egija guztijagaz Jaungoikua berbera, eta beragaz batera begik ikusi, belarrik enzun, eta gizonen gogora eldu al leitekezan baño bere ondasun, doe, grazija geijago; bada bestelan egingo zeunke euren jaube egiterren, mundu onetako ondasun, eta zorijona gaiti egiten dozuna. Etzinaitekez elduko ain otz, ain debozinoe baga, ein gertuera, prestaera, edo preparazinoe gitxigaz, eta benturaz arima loijagaz, modu onetan irunziten dozula zeure kondenazinoia, zeure bizitzia artu biarrian.

Erasoginza

Begira bada Kristinauba, zelan elduten zarian altarara. Begira zelako garbitasuna daruazun Jesu Kristoren gorputza artutera zuazanian. Bildurrez ikara geratu biar zara, San Paulo Apostolubak dinuanagaz. eta bildur onegaz egin alegina pekatu baga, eta al daizun garbitasun guztijagaz elzeko. Jesu Kristoren gorputz, eta odola artuten dabenak pekatu mortalien daguala, bere kondenazioa irunziten du, dino Apostolubak. Zegaitik? Jaunaren gorputz, eta odolaren errugarri egiten dalako. Au da, dino San Juan krisostomok, aain pekatu andija egiten dabela, zein da kurutzian josi ebeenak. Zenbat bidar aserratu oi zara Judasen kontra Jesu Kristo saldu ebalako, eta Judeguben kontra Jesus ona kurutze baten josi ebeelako? Bada zeure kontra biurtu biar dozu aserre guzti au, pekatu mortalien zagozala zeure bularreko simaurza atsituban botaten badozu Salbagiliaren gorputz, eta odola. Ay neure Kristinauba, lupatza, edo kakatza loiatatik diadar egingo dau odol arek zure kontra, Abele-

nak Cainen kontra egin eban baño bere gogorra-
go; eta enzun bazituban Jaunak Abelen diada-
rrak, zelan enzungo eztituz bere semiarenak
zure kontra egiten dituzanak? Eta ain gogor ben-
gadu beban aren erijotzia; zelan bengaduko
eztau bere seme maitiari egiten deutzazun lotsa-
bagakerija? Enzungo dituz, eta zure ganera eto-
rriko da kastigurik ikaragarriena.

Bildur izan zinaitekez esan eztaijan Jesus
maitiak zugaitik, Judasgaitik esan ebana. Ay ze
zori gogorrekoa dan, ni neure arerijo gogorrenen
artian ifini nabena; oba leukian jaijo ezpalitz
gizon madarikatu au; bada nire gorputz, gizonen
on, eta osasunerako kurutze baten josi zana, jos-
ten dau bere kondenazinoerako kalbarijoko
kurutzia baño lotsagarrijago baten; arako nire
odol mundubaren salbazinoerako ain ugari luu-
rrera bota zana, botaten dau lekurik loi, eta ezai-
nenian bere kondenazinoerako. Odol au izango
da zure kondenagarrija, beragaz eskribiduko da
zure kondenazinoeko sentenzija; bada nai izan
dozu zeure ganian artu Judegubak artu eban
baño itxumendi andijaguagaz; zeure bularrian
pekatubagaz batera ifini dozunian, esan dozu

areek baño gogortasun andijaguagaz: odol au izan deila nire kontra: betor betor nire ganera. Eztakutsu zure zori galdu au itxurik zagozalako, enzuten eztozuz Jesu Kristoren odolak zure kontra emoten dituzan diadarrak gorrik zagozalako, baña idigi al bazinaiz zeure arimako begijak, arako pekatuban komulgatera zuazanian, ikusiko zeunke daguala zero luurren egilia guztija irriturik zure kontra suzko begijakaz zu erre, eta kiskilduteko, bere eskuban dabela justizijako ezpata zorrotza zu erdibituteko, bere gorputz, eta odolari egitera zuazan lotsabagakerija gaitik. Enzungo zeunke dirautsula: nora zuaz madarikatubori? Orrako zeure bijotzeko pekatu artian ifini nai dozu nore gorputza? Orrako karkaba ustel, atsitu, eta loi orretara bota nai dozu nire odola? Zatoz oin azpijan zapaldutera Jaungoikuaren semia? Etzaitez aurrera igaro; zuaz ortik, kendu nire begijetatik erre etzgidazan arraijuen bategaz, edo erdibitu etzagidazan neure ezpata zorrotzagaz.

Kristinaubak, ez egizube uste au ponderazi-noeren bat dala, edo ezabela merezi onelako kastigu ikaragarririk pekatu mortalian komulge-

tiak. Sinistu egidazube: eztago leku atsitubago-
rik Jaunarentzat, pekatu mortalien daguanen
bularra baño, karkabarik ustelenak, sekretarik
loijenak, lekurik ezainenak guztiz dira garbi bere
parian, bada onei ezteutse Jaunak gorrotorik,
pekatubari bakar bakarrik deutsa gorroto; auxe
da bere arerijua. onexegaz batera eztau egon
gura, eta orregaitik ezin egin leikijo lotsabaga-
kerija andijagorik bere albuan ifintia baño. Begi-
ra bada zer egiten dozun pekatuban komulgetan
zarianian, eta guztijori bildurrez ikaraturik, garbi-
tu zaitez Jaungoikua artu baño leenago. Modu
onetan elzen bazara altarara, artuko dozuz zeru-
ko ondasun miragarriak, egingo zara Jaungoiko
esan bere ezin leitekian moduban, artuko dozu
indarra demonino, eta beste arerijo guztijen kon-
tra pelietako, eta ibilliko zara mundu oonntan
zeruko bidetik, bertara eldu artian.Amen.

XLIX. BERBALDIJA

*Elexako lau, eta bostgarren agindu,
edo mandamentuben ganian.*

Elexako laugarren mandamentuba da, baru egitia berak aginduten dabenian. Baruba da jatordu bat baño ez egitia, eta aragirik ez jatia. Baruba abijetan da gabeko amabijetan, eta dirau urrengo gabeko amabijetaraino. Jatorduba egin biar da bazkarija egin oi dan orduaban; baña preminazko zer eginen bat daguanian, aurrera-tu, edo atzeratu leiteke. Dauka norbaitek preminzako ibilera, edo biajeren bat; bada gabez ez ibiliterren egin leike jatorduba amarretaruntz, eta bardin atzeratu leiteke, ibilera, edo biajia ez galduterren. Baru egunian ezin aragirik jan leiteke, Aita Santubak autortu, edo konzedietan ezpadau lizenzija. Aragija esaten danian aitu biar da koipia, saldia, beragaz eginiko salzija, edo beste edozeinbere gauza, eta alan ezin jan leiteke aragija eragotzitik dagunanian. Garizuman ezin jan leite arrautza, ez esne gauzarik bere,

eta jan nai dabenak artu biarko dau buldia. Aita santubak emoten dabenian lizenziya aragija jateko, egin biar da berak aginduten daben guzija, nai dala limosnaren bat emotia, nai dala Aita guria, eta Abe Marija errezetia, nai dala beste edozeinbere gauza. Orduban aragija jaten dabenak baru egin biar dau onelako lizenziarik ezpa-leuka legez, eta ezin nastadu leike jatordu baten aragija, eta arraina; baña bai bitan, eta alan jan leike eguberdijan aragija, eta arratsian arraina, eta bestera. Onelako lizenziarik daguanian itandu eikijozube zeuben Arima-zain, edo Kura, Konfesore, edo dakijanen bati, zer egin biar dozuben.

Jatordu bat baño ezin egin al baleiteke bere baru egunian, egin leiteke kolazinoe. Eztago izentadurik, zenbat jan leitekian kolazinoian iru, lau, ez bost onza, eta alan artu biar da gizon konzienziya oneko, eta Jaungoikuaren bildurtijak artu oi dabeena. Gabon egunian gabez egiten bada kolazinoe, artu leiteke zerbait geijago; baña ez beste egunetan, ez Eguberen santuz, ez Idulenzijaz, ez Zapatu santuz, eta Maijatz Paskua bisperan. Kolazinoian ezin artu leite ez aragirik, ez

aragi gauzarik, ez arrautzarik, ez esnerik, ez oneekaz egingiko gauzarik. Kristinau guztijak ogeta bat urtera eldu ezkeru egin biar dabe baru Elexiak aginduten daben egunetan; baña ogeta bat urtera eldu ez arren, ezin orregaitik jan leije aragirik eragotziriko egunetan, ez nastau aragi, eta arraina jatordu baten, ez jan arrautza, esne, ez eurakaz konponduriko gauzarik garizuman bulda baga. Eztago gauza ziur, edo zierturik nosgino baru egin biar dan, irurogei urteraño ala aurrerago, eta alan emetik aurrera urtetan sarturik dagozanak, edo atso, eta agurak, itundu, edo akonsejadu bediz euren Konfessoriakaz, euren burutik erabagi baga, eta baruba austen azartu baga. Baru danak zerbait arzen badau gomuta baga, edo aragirik jaten badau, eztau pekaturk egingo; baña jaon biarko dau enparauban. Artu leiteke zerbait goxian, edo arratsaldian, guztitan iragoten ezpada onza, edo onzaterditik aurrera.

Iru gauza gaitik itxi leiteke baruba, edo ezta pekatu baru ez egitia; gorputzeko gexo, edo argaltasunagaitik, biar, edo lana gaitik, eta karia gaitik. Lenengo: gexo, edo argaltasunagai-

tik: alan eztauke baru eginenik gexorik dagozanak, gexo ostian kaden, eta erkinik dagozanak, eta barubak gatx egiten deutsenak baderitzo medikubari ezin baru egin leijela; eta alan, eurai itandu biar jake baru egingo badabe ala ez; eta mediku, eta barberu, edo zirujauba dudan badagoz, esan Arima-zain, edo Konfesosriari, eta bere lizenzijagaz itxi leije baruba. Aragija jan biar dabenak baru egin al badai, egin biar dau; bada agindu guztija ezin jaon al daijanak zaindu biar dau al daijan zati, edo partia. Bardin, barurik ezin dabenak ezin orregaitik aragirik jan leike. Seindun diran, edo seinaz azten dagozan emakumiak eztauke baru egiteko biar, edo obligazinoerik. Aterik ate dabilzan pobriak ezin egin al badaije egun guztija iragoteko asko dan jatordu bat, eztauke baru egin biarrik, eta bardin euren pobrezia gaitik eztaukenak janari segururik, ez jateko ordurik. baita bere bidian ibili biar dabenak, ezin aurkitu al badau zer jan, ezpada puskatxu bat leku baten, beste puskatxu bat beste baten, jan leike leku oneetan aurkitu al daijana, ezin aurkitu al badau janari bat egiteko duin.

Bigarrenko: itxi leiteke biarra gaitik. Modu bitakua da biarra. Bata da ezin egin leitekiana gorputzaren neke andi baga. Onelakuak dira baru egiteko obligazinoerik eztaukenak; zelakukak dirian atxulari, olagizon, argin, zapatari, arotz, errementari, eta beste edozeinbere biar gogorreko nekezaliak. Oneek, ez bakarrik eztauke zer baru egin biarra egiten dabeen egunian; baña ezta egiten eztabenian bere. Esaterako: dator garizuman Anunziazinoeko jaija, zeinetan eztan biarrik egiten; bada egun atan bere eztauke baru egiteko obligazinoerik. Baña ofizijo onetakuak izan arren, ezpadabe eurak biarrik egiten, edo ezpadabe euren krijadubai agindu baño beste gauzarik egiten, baru egin biar dabe. Beste ofizijo, edo lan batzuk dagoz, zeinzuk egiteko eztan ainbeste nekatuten. Onelakuak dira Eskribau, Prokuradore, Letrau, joskile, dendari, eta eskribietan dabeenak; oneek baru egin biar dabe. Krijadubak ezpadabe egiten etxe-zereginak baño; baña oneek badauke neke andiko biarrik egun atan, itxi leije baruba. Jakin begije uga-zabak ezin agindu leijuela euren otsein, edo krijadubai baru egunian beste egun batera luzatu

al leitekian biar neketsurik. Esaterako; ezin agindu leijo otseinari egun guztijetan egon deila lexiba, edo bogada joten baru egun oso baten, baru ezin dagijan moduban, beste egun baterako luzatu al daijala; baña balitz garizuman, zeinetan ezin egon leitekian lexibia egin baga, orduban agindu leijo.

Bide, edo ibilera premiazko, edo biar biarrekua egiten dabenak, ausi leike asko nekatu, edo adikatu biar bada. Eztago gauza zierturik zenbat bide ibili biar dan onetarako; bada begiratu biar da zelakua dan bidian dabilena, zelakua dan bidia, eta eguraldija; bada jazo leiteke legua bi asko izatia gizon argal, eta gexoti batek baruba galzeko, eta ez asko izatia iru gizon sendo baten-tzat; eta negu gogor, eta euri andi bategaz asko dana, ez izatia eguraldi onagaz, eta geijago nekatutia bide garratz, aldatz baten, lau, eta zelai baten baño. Onetan esan leitekiana da, Aita Santu Alexandro zazpigarrenak kondenadu ebala esatia: zaldiz dabilenak egun baten bakkarririk bada bere, nai dala bere guraz, nai dala preminaz, eztaukala baru egiteko biar, edo obligazi-noerik. Eta alan zaldiz dabilenak egun bat, edo

bestian, preminaz bada bere, neke andi baga, baru egin biar dau; baña egun askotan ibili biar baleu, eta bide luzia egin biar baleu egun bako-txian nekatuten dala, jazo leiteke baru egiteko onligazinoerik ez eukitia; bardin jazo leiteke ibili biar baleu edur, ekatx, eta euri andijakaz. Bide, edo ibileria borondatezkua bada, asko nekatu arren, ezin galdu leiteke baruba; eta alan kasan dabilzanak egun guztijan, erromerijara duazanak, jolasian dabilzanak, eta euren gogoko guraarjetan izerditu, birrindu, eta guztiz nekatu-ten dirianak, ezin orregaitik baruba galdu leike; bada oneek euren eskuban eukeen ibilera oneek itxita, eta nekatu badira euren borondatez izan da, eta ez daukee modu onetan nekatu biarrik.

Irugarrengo: obra on errukizko, edo karida-dezkoren bat egitiagaitik; ez obra onak, kenzen deusalako baru egin biarra, edo baru egiteko obligazinoaia, ezpada obra au eginagaz ezin baru egin leitekialako dakarren neke, ta lan andi-jagaitik. Esaterako: dago bat gexotegi, edo hos-pitale baten gexuai lagunduten, edo etxeren baten egunez eta gabez; eta onetan daukan nekia andija dalako, ezin baru egin leike, edo itxi

biar deutsa gexuai lagunzai, ausi leike baruba. Bardin, dabil gatx, edo enfermedade itzatzikor, edo laster itzatziten dan bat; dauka batek zer lagundu, senar, emazte, guraso, seme, edo bes-teren bati; deritza bestetan ikusi danetik, baru egiten badau itzatziko jakala gatxa; ausi leike baruba. Norbaitek ezin bete, edo kunplidu al badituz bere estadu, edo ofizijuari dagokijozan lanak baru eginagaz, edo baderitza osasuna orregaitik galduko dabela, edo ezin egin badituz biar dana legez, eztau pekatu egingo baruba ez jaoterren. Onelako gauzarik jazoten danian onen onena da itandutia Konfessoriari zer egingo daben, guztija argitan ifinten jakala, ezerbere geitu, eta gitxitu baga. Bildur danak arrain, orijo, eta beste bijilijako janarijak gatx egingo deutsa- la, itandu beijo mediku, edo barberu, edo zirujaubari, eta egin begi berak dirautsana.

Baru egin biar da garizumako egun guztije- tan, Domeketan ezpada, lan-denporetan, edo kuarta denporetan, eta Santuben batzuben jai besperako egun aurrekuetan. Zeinzuk dirian oneek Meza nagusijan esan oi da Domeketan: orregaitik guztijak ezin juan badira, bialdu biar

dabe norbait, edo etxekoren bat jakiteko ze
baru, eta jaijegin dagozan astian. Onezaz ostian
dagoz egunen batzuk, zeinzubetan baru egin
biar ezpada bere, ezin aragirik jan leitekian zela-
kuak dirian garizumako Domekak, eta urte guz-
tiko barijakubak; Letañetako egunetan bakoxtak
jarraitu biar deutsa erriko oitura, edo kostunbria-
ri. Ez bakarrik egingo dabe pekatu mortal baru
egiten eztabeenak, edo aragija jaten dabeenak
jan ezin leiken egunetan, baita bere onei jaten,
edo aragija emoten deutsenak. Esaterako: daki
ostatari, edo ardaozain, edo tabernarijak, urlijak,
edo urlizijak eztaukela gatzik, edo beste gauza-
rik zegaitik jan leijen aragija, eragotzirik dagan
egunetan; dua au taberna, edo ostatura onelako
egunen baten, eskatuten deutsa ostatari, edo
tabernarijari ifini deijola aragija, ezin ifini, edo
emon leijo, eta emoten badeutsa pekatu mortal
egingo dau. Bardin da, jaten emoten deutsanak,
jakinik baru egin biar dabela egun atan, eta
emoten jakan janarigajaz galduko dabela baru-
ba. Egingo dabe pekatu ostatari, tabernazain,
edo beste edozeinek baru egun, edo bijiliakuan,
aragi, eta arraina jatordu baten emoten deutsa-

nak. Eztinot datoazan, eta duazan guztijai itandu
biar jakela baru egin biar badabe, ala ez, edo
jakin biar dala norzuk egin biar daben; eta alan
dinot jakin ezkerro baru egin biar dabela, eta aus-
tera duazala; bada orduban emoten badeutse,
euren pekatuben lagun egiten dira.

*Bostgarren mandamentuba:
Amarren primizijak pagetia.*

Elexako bostgarren mandamentuba da, ama-
rren primizijak pagetia. Amarrenen izenian aitu-
ten da amarrik bat. Primizijak gaitik aituten da,
lenengo arbola, solo, edo aberiak emoten daben
frutuba, edo errijetan oneen orde emon oi dana.
Lege guztijak aginduten dabe oneek pagetia.
Aginduten dau lege berez jakinak, edo natura-
lak; bada edonok daki bakotxari emon biar jaka-
la bere biar eginaren sarija; eta Elex gizonak bia-
rra egiten badabe bestien arimien onerako, erra-
zua andija da, oneek biurtutia, gorputzerako biar
dabeena. Aginduten dau Jaungoikuen legiak;
bada Jaungoikuak berak agindu eban, Sazerdote,

eta Levitai amarren primizijak emotia. Aginduten dau Elexako legiak; bada dakusku, Batzar, edo Konzilijo askotan agindu au ifini dabela. Auxe berau dirausku San Paulo Apostolubak. Altaran serbietan dabenak, Altaratik jan biar dau. Orregaitik amarren primizijak pagadu biar dira, eta pagetan eztituzanak pekatu mortal egingo dau. Amarrenak pagadu biar dira Jaungoikak emoten daben moduban, ez txarrena, ez kaskarrena; baña eztago obligazinoerik oneena emoteko, ezpada arzen dana legez, ona arzen danetik ona, ontxubagua arzen danetik ontxubagua, eta txarra arzen danetik txarra. Amarrenak biar dan moduban pagetan eztituzanak, ez bakarrik egingo dau pekatu, ezpada biurtu biarko deutsa eurak arzeko eskubidia daukanari kendu deutsan, edo gitxijago emon deutsan guztija. Amarena pagadu biar da oso osorik, ezerbere kendu baga, ez erin dan azija, ez erin, batu, eta konponduteko kosta dana, ez besteri emon jakona.

Emetik ezagututen da nok pekatu egiten daben mandamentu onen kontra. Lenengo: egiten dau pekatu mortal soluan artuten daben arto, gari, edo beste laboren amarrenak pagetan

eztituzanak; bardin da bildots, auma, edo abere-
nik pagetan ezpadau, edo sagar, gaztaña, edo
beste edozeinbere gauzarena. Onetan begiratu
biar da ze oitura, edo kostunbre dagan errije-
tan, eta ze gauzak pagetan daben amarrena, eta
zek pagetan eztaben. Bigarrenago: egiten dau
pekatu artu daben baño gitxijago emoten dabe-
nak. Irugarrenago: txarrena emoten dabenak.
Esaterako: larrin ondokua, lastoz, edo luurrez
beteriko arto, edo garija; bildotsik, edo aumarik
erkin, kaden, edo argalena. Sagarran barriz, txar-
txar, edo txikinena, jenerorik txarrena, dagokijon
beste emon arren bere. Esan gura dot; daukazuz
eun zaran sagar, berrogeta amar jenero ederre-
kuak, eta berrogeta amar ez ain onekuak, edo
benturaz txatxarraguak; bada eztozu beteten
agindu, edo mandamentu au, amar zaran jenero
ez ain oneko, edo txarrekuak amarrenari emona-
gaz; emon biar dozuz bost onekuak, eta bost ez
ain onekuak: bardin beste edozeinbere gauza-
tan. Aginduten badau bere Elexiak primizijak
pagetia, eztau inos izentadu, ze gauza, edo zen-
bat, ez ze modutan pagadu biar dan, eta alan
onen ganian gorde biar da erri bakotxian dagan

oitura, edo kostunbria. Bardin dinot frutu batzuk pagetian, eta beste batzuk ez pagetian.

Amarren primizijak Jaungoikuari berari emoten dakaz, nai Abade, edo Sazerdote, edo beste Elexgizonak artu daijezala, nai Elexa, altara, edo beste tresna, apaingarri, edo ornamentubak egiteko izan deitezala, nai Patroe, edo besteren batzui emon dakijuezala; bada modu onetan errepartietan badira amarrenak, Elexa Ama Santubaren aginduz egiten da, eta zubei eztagokizube jakitia ondo, edo dongaro egingik badago; biar dan moduban gastetan badira ala ez: zubentzat asko da jakitia Elexa Santubak alan agindu dabela. berari ez eskurik arzeko, eta ziatz, eta biar dan moduan zor dozubezan Amarren primizijak pagetako. Jakin egizube bada au eztala beste gauzarik, ezpada Jaunari berak ugari emoten deuntsunetik puskatxu bat biurtutia, onetan adi erazoteko, sinistu, eta konfesetan dozubela, beriak diriala daukaguzan gauza guztijak; bera-gandik datorkuzala, eta bera бага ezin ezer euki ginaijala. Alaintxe zirautsen antxinako legian: Gauza guztijen Amarren primizijak emongo deutzazubez, bada guztijak dira neuriak.

Erazoginza

Eztago zerura elduteko beste modurik, geure aragija ezitia baño. Onen gurarijak azpiratuten eztituzanak eztauka ze itxaron Jaungoikua arpegiz arpegi ikustia. Auxe nai leuke Elexa Ama Santubak egin daijen bere semiak, aginduten deutesenian baru egin daijela. Baña zenbat atxakija billatuten ez ete dira agindu au ez jaoteko? Batzuk ozta ozta egiten dabe legua bat, edo bateterdi, uste dabe eztaukela zer egin barurik. Beste batzuk buruko min puska bat daukeneko, austen dabe baruba. Askok eta askok jan ala jan arren, ase ase egiten ezpadira, edo geiago jan al leijela geratuten badira, uste dabe baru egiten dabeela. Sarri eta sarri naiko beste lo egiten ezpada, bertatik isten da baruba. Askok nekezale izan ezkerro, edo baserriko modura bizi badira, eurak biarrik egin ez arren, eztabe barurik egiten. Krijadu, eta otsein askok ez euki arren etxe-ko arazubak, edo etxe-zereginak baño, eztabe barurik egin gura. Batzuk eztauke pekatutzat

koipe gauzia arrain egunian jatia, orijo orde arrainagaz beragaz bada bere. Bete batzuk uste dabe ez tala pekatu puskaka puskaka jatia, dinuela, puska onek eztau baruba austen, ezta beste puska onek bere. Baña oneek guztijok ez tira bide bagako atxakijak baño. Beti beti dago Jaungoikua aginduten baru egin daigula, berak izentadurik baru egunak. igarla, edo Profetak ez bakarrik esanez, edo berbaz, baita euren egite, eta ejenplubagaz bere irakatsi euskuben baru egiten. Moyses berrogei eguneko barubagaz gertu, edo prestatu zan legia artuteko. Elias beste ainbeste eguneko barubagaz disponidu zan Jaungoikua ikusteko.

Baña itxirik beste guztijak, ikusi daigun zelan santutu eban baruba Jaungoikuaren semiak. bere Jaungoikotasuna mundubari adi erazoko eutsanian, baztertu, edo erretiretan da basamortu ikaragarri batera, ta dago bertan berrogei egun osuan ezerbere ezerbere jan, eta edan baga. Kristinauben lotsarija benetan! Jaungoiko benetako, zeru luurreko, Aingeru, gizon, abere, txori, eta arrainai emoten deusana dago berrogei egunian ogi kopau, eta beste gauzarik bere

auan sartu baga, ez bere aragija ezi biarrik eukalako, ez pekaturik eukalako, ez bere Aita betikua aserraturik eukalako, ezpada gizonen bitarteko eginik, euren pekatuben zorrak bere ganian artu zitubalako; eta gizon pekatuz betia, aragi ezi bagaz ingiraturik daguana, Jaungoikoa aserraturik daukana, dago atzera baru egiteko, dabil al daizan atxakijen billa, ez jaoteko? Pekaturik eztaukana, eta euki bere ezin leijana, dago aragija eziten ezi biar baga, eta pekatuz beterik daguana dago bere arerijo aragijari, nai daben janari guztija emoten? Ze bildur izan leitekezan onelakuak, jazo eztakijen San Paulo Apostolubak dinuana. Asko dagoz Jesu Kristoren kurutziaeren arerijo dirianak, eta euren sabela Jaungoikotzat daukenak; baña oneen amaija zorigestokua izango da, eta euren gloriya lotsari biurtuko jake. Onelako gatx negargarrizkorik jazo eztakizuben, ezi egizubez zeuben gorputz, edo aragijak baru-bagaz, eta ezin dabenak egin begiz beste al daizan onbra onak; opa, edo ofrezidu begijoz Jaunari bere neke, eta lanak; pazienzijatan eruan begiz jazoten jakazan gatxak, artuten dituzala Jaunaren eskutik etorrijak legez. Baña barurik

onen onena da pekaturik ez egitia, bere pellebu-
ru guztijetik iges egitia; bada alperrik gorpu-
tzari kenduko jaka janarija, borondatiari ukatu-
ten ezpajaka pekaturako gurarija. Baru au egiten
badozu, zabal eukiko dozu zerurako bidia. Amen.

KRISTINAUBAREN IKASBIDE,
EDO DOKTRINIAREN
LAUGARREN ZATIJA

Zein dan, zer eskatuko daben,
eta ze orazinoe egingo daben.

L. BERBALDIJA

Aita guriaren ganian.

Kristinau batek jakin biar daben laugarren gauzia da, zer orazinoe egin, edo zer eskatuko daben. Au jakingo dau jakinik Aita guria, Abe Marija, eta beste Elexako orazinoiak. Ain da argala gizona, ain itxuba, ain ezetarakoeza Jaugoikua baga, ze eztaki ez zer, ez zelan eskatu, dino San Paulo Apostolubak. Ezauturik egija au Apostolubak esan eutseen euren Maesubari: Jauna irakatsi begigu orazinoe egiten; eta ontasun, eta biguntasunez beteriko Jaunak eranzun eutsen: ara bada; modu onetan zeuben orazi-

noe, edo eskabidia egin eikezube: Aita guria, zerubetan zagozana, santutu, edo santifikadu bedi zure izena, betor gugana zure erreinuba, egin bedi zure borondatia zelan zeruban alan lurrian: egunian eguniango geure ogija egun iguzu; parkatu eiguzuz geure zorrak, geuk geure zordunai parkatuten deutseguzana legez; ez eiguzu itxi jausten tentazinoian; baña libradu gaizuz gatxetik Amen. Berba oneetan irakatsi euskun Jaungoikuaren semiak, ez bakarrik nori eskatu biar deutzagun, ze eskatu biar dogun, eta zelan eskatu biar dogun, ezpada ifini bere zitudan gure auan berbak eurak, zeinzukaz esaktuko genduba. Orregaitik eztago zeuban, ez lurrian eskabide oberik berau baño, iru gauza gaitik.

Lenengo: Jesu Kristok berak bere aotik irakatsi ebalako. Ez, ezta orazinoe au Aitalenen, edo Patriarkaren batek irakatsija, ez Igarla, edo Profetaren batek konponduba, ez Aingeruben batek zerutik ekarrija, Jaungoikuak berak bere ao bedeinkatutik irakatsija da. Bigarrengo: bere laburtasuna gaitik; bada gizon atzeratuben, eta zenzun gitxijenekuenak ikasi leike buruz, eta eztauka sorrik sorrenak atxakijarik buruz ez jaki-

teko, guztiz dalako erraz berba gitxi oneek ikas-
tia. Irugarrengo: bertan eskatuten jakolako Jaun-
goikuari, eskatu al leijon guztija; bada bere zazpi
eskari, eta petizinoietan zarratuten da karidade
guztija, alan Jaungoikuaganako, zein da proxi-
muaganako. Lenengo irurak dagokijoz jaungoi-
kuaren honriari, eta agindu bi oneetan zarratu-
ten dirian legez lege, eta Igarlak aginduten deus-
kuben guztija, alaintxe Aita gurian eskatuten
dogu, lege, eta Profetak eskatuteko aginduten
deuskuben guztija. Izanik bada orazinoe au ain
miragarri ain zeruko, ain Jaungoikozkua, guztiz
da biarra jakitia zer eskatuten dan eskabide, edo
petizinoe bakotxian, eta zer esan gura dan berba
bakotxian; bada daukazan guztijetatik eztago
bat bakarrik bere utsian. Auxe da urrengo ber-
baldi, edo platiketan azaldu, edo esplikadu nai
neuskezubena.

Aita guria zerubetan zagozana.

Eskari, edo petizinoiak egiten abijau baño
lenago aginduten deusku Jesu Kristok, esan dai-

gula: *Aita guria, zerubetan zagozana*, eregirik geure bijoza Jaungoikuagana, uste, edo konfianza oso oso, eta humiltasun andi bategaz berari egin eijoguzan geure eskarijak. Benetan zek obeto sendatu leike gure uste, edo kofijanzia jakitiak baño geure Aita dala guere eskarija emon biar deuskuna? Nogana juan ginaitekez uste betiaguagaz geure Aita maite, laztan gaituzanagana baño? Orregaitik agindu euskun Salbagiliak dei egin deijogula ao betian Aita. Geijago eta geijago azi dedin zuben itxoromen, edo konfianza orazinoe au esatera zuazanian, begira ze errazoe andijagaz dei egiten deusagun Aita. Lenengo: berak emon deusku izatia bere anz, edo irudira. Gizon bat bada beste baten aita izatia emon eutsalako, zenbat eta errazoe andijaguagaz izango ezta gure Aita Jaungoikua? Gizon batek ezin emon leijo beste bati gorputza, eta arimia. Orregaitik Jaungoikua obeto da gure Aita, izatia emon deuskuben gurasuak baño. Bigarreno: da gure Aita gugaz daukan arduria gaitik. Berak zainduten dau gure bizitzia, berak emoten deusku janarija, jaztekua, osasuna, bizi lekuba, eta beste biar dogun guztija, ain modu-

tan ze eztaukagu, eta ezin euki bere ginaike bere eskubetatik ezatorkigun gauzarik. Irugarrengo: da Aita berak erosi genduzalako bere odolagaz. Ementxe bai ezagututen dala ze Aita maite, Aita errukior, edo miserikordiosu, ze on, ze biguna dan. Ondo eta ondo ezagututen da gure Aita dana, izatia emotian; ondo eta ondo ezagututen da gure ardura eukitian; baña ez ain ondo inun, zein da gu pekatupetik bere erijotza, eta odolagaz ateratian baño. Ementxe, ementxe inun baño obeto ezagututen da, ze Aita benetakua dan eta ze errazua andijagaz dei egin biar deutsalgun.

Aita Guria.

Eztirauzku Jesu Kristok esan daigula aita neurija, ezpada Aita geuria, adi erazoteko sinistu, eta konfesetan dogula, guztijok gariala Aita baten semiak, eta bata bestijen anaijak; eta alan Kristinau guztijok gara bardinak jaijotza onetan, andijak, eta txikinak, gizonik eregijenak, eta pobretxurik pobrienak, Erregerik alsu,edo pode-

rosoenak, eta eskian dabilzanak. Alaintxe dirausku Jesu kristok. Zubek guztijok anaijiak zare eta eztaukazube Aita bat baño, zein dan zeruban daguana. Baña zer diñot? Ez bakarrik, mundu onetako Lenen, edo Prinzipe, Agintari, eta Erregiak dira gure anaije; baña Jesu Kristo gure Jauna daukagu geure anaije nagusi; eta alan dino San Paulo Apostolubak: Eztala lotsatuten Jaungoikua-ren semia guri bere anaije dei egiten. Izanik bada gu guztijok anaijiak, maitetu, edo amadu biar dogu alkar zeruko Aita baten seme legez. Dinogu bere, Aita guria, adi erazoteko eztogula geuretzat, eta guztijentzat nai dituguzala emen eskatuten dirian ondasun, eta mesediak. Au irakatsijagaz estutu nai gaituz Salbagiliak Kristinau, eta gizon guztijok alkarganako amodijo, eta kari-dadian.

Zerubetan zagozana.

Leku guztijetan dago gure Jaungoikua; berak beteten dituz zeru luurak, eta alan eztago bera eztaguan lekurik; alanbere dinogu zerubetan

zagozana, eurretan ezagututea dalako inun baño obeto bere anditasun neurri bagia, bere eskubide alsu, edo poderosua, bere jakituri miragarrija, eta bere onoidade beste guztijak. Orregaitik dinogu Jaungoikua leku guztijetan badago bere guztiz, edo espezialmente, edo berezko moduban daguala zeruban, eta Altarako Sakramentuban. Dinogu bere zerubetan zagozana, gomuta daigun nundik gatozan; zeruko Errege gandik jaijuak gara, bere odola daukagu, eta kasta erriala gara; eta orregaitik lotsa izan biar gara infernuko urdekerija, eta pekatuben zikinkerija bilauben artian ibilten. Dinogu bere zerubetan zagozana, ezaguturik berba egiten guazan Jaunaren anditasun pare bagia, eldu gaitezcan humiltasunik beeren, edo andijenagaz. Orra zelan berba onen bitartez biztuten dan gure uste, edo konfianza, eta geitu, edo aziten dan gure humiltasuna. Esanik Aita, artuten dogu seme batek bere Aita maitiagan euki al leijan usterik oso, eta betiena, eta esanik zerubetan zagozana, beteten gaituz bere anditasun pare bagiak humiltasunez. Aita gurien sarrera onetan ezagututen dogu, bera dinoguan Jaungoikuagaz berberagaz gagozala ber-

baz, berari arteztu, edo dirijietan deutsaguzala geure eskari, edo petizinoiak, ta beragandik itxaroten dogula eskatuten doguna.

Santutu, edo Santifikadu bedi zure izena.

Gertu, edo prestadu ezkerro guere bijotza eskabide, edo orazinoerako, lenengo egiten dogun eskari, edo petizinoia da, *santutu, edo santifikadu bedi zure izena*. Errazoe andijagaz asiten gara orazinoe egiten emetik; bada lenengo billatu biar doguna gauza guztijetan da Jaungoikuaren honra, eta alabanzia. Dinogunian santifikadu bedi zure izena, eztogu eskatuten Jaungoikua dan baño santubago izan deila, edo bere izenaren santutasuna azi edo geitu deila; bada ezin inundik bere dan, edo izan dan baño santubago izan leiteke gure Jaungoikua; bada beti izan da neurri baga, azken baga, eta kabu bagia bere santidadia. Eskatuten doguna da, mundu onetako gizon guztijak ezagutu, eta euki daijela Jauna euren Jaungoikotzat; honradu, eta alabadu daije-

la bere izen santuba, ez bakarrik miinagaz, ezpa-
da obrakaz, edo bizitza santu bategaz bere.
Eskabide au eginagaz erregututen deutzagu;
lenengo: Jentil guztijak ekarri daizala bera eza-
gututera, arturik bateo, edo bautismua sartu dei-
tezan Elexa Sntuban, eta izanik bere seme bene-
tako, alabadu daijen bere izen santuba miina-
gaz, eta honradu euren bizitziagaz. Bigarren-
go: idigi deijuezala herejiai euren arimako begijak,
ezagutu dagijezan euren utsune, edo siniskera
okerrak, eta biurturik euren Ama Elexara, alaba-
du deijela bere izen santuba. Irugarren-
go: eztai-
jela pekatarijak blasfemadu Jaunaren izen bene-
ragarrija, ez bakarrik euren juramentu, eta
birauakaz, baña ezta euren pekatu, eta bizi
modu txarragaz. Ekarri dagizala onetarako peni-
tenzijako bidera, garbiturik euren arimak bede-
inkatu, alabadu, eta honradu dagijeen bere izen
santuba, alan berbaz, zein da egitade, edo
obraz. Laugarren-
go: santubagao egin daizala
santubak, obiago onak, artezago, edo justubago
artez, edo justubak, obeto, eta geijago santutu,
edo santifikadua izan dedin eurretan on guztijen
emoilia. Berba baten: eskabide onetan erregutu-

ten deutsalgi Jaungoikuaru munduko gizon guztijak, on, eta santubak izan deitezala, guztijak santifikadu daijen esate, eta egitiakaz bere izena.

Betor gugana zure errinuba.

Bigarren eskari, edo petizinoia da; *betor gugana zure errinuba*. Ezgaututeko zer erregututen deutsalgun Jaunari, jakin biar dogu iru modutan aitu leitekiala Jaungoikuaren erreinuba: bata da naturalezakua, au da, zeru luur, eta eurretan dagozan gauza guztijak; bigarrena grazijakua, eta irugarrena glorijakua. Eskabide onetan ezteutsalgu jaunari erregututen emon, edo bialdu deigula lenengua; bada au munduba egin zanetik beti dago, eta irauten dau, eta bakarrik eskatuten deutsalguz bigarren, eta irugarrena. Lenengo bada: dirautsagunian betor gugana zure erreinuba, eskatuten deutsalgu bialdu deigula bere grazija geure arimetara; modu onetan erreinadu dagijan gure arimetan. Gauza jakina da, grazijan dagan arimia Jaungoikuaren bizi,

eta jar lekuba dana, bera dauka erregetzat, bera jauntzat, bera agintaritzat. Orregaitik dirautsagunian betor gugana zure erreinuba erregututen deutsaluna da, datorrela bera gure arimara, agindu daijala bertan, errege batek bere erreinuban legez, eruan gagizala bide artezetatik, eta izan deila grazijaren bitartez gure arimia bere erreinuba. Bigarrenago: emen eskatuten deutsaluna da zeruko erreinuba, edo gloriya, nun agindu, edo erreinetan dabeen Santubak Jesu Kristogaz batera. Erreinu auxe da geure gogo guztijagaz nai izan biar doguna, auxe gauza guztijak baño leenago billatu biar doguna, eta zeingaitik galdu biar dituguzan mundu onetako gauza guztijak. Au eskatubagaz erregututen deutsalubanatu, edo desegin daijala demoninuaren erreinuba, zein dan pekatuba, agindu eztaijan, ez gure bijotzian, ez gure gorputzian, eta kendu dagiguzala bere erreinura juateko arerijuak ifintzen dituzan estropezu guztijak.

*Egin bedi zure borondatia, zelan
zeruban, alan luurrian.*

Irugarren eskabide, edo petizinoia da, *egin bedi zure borondatia, zelan zeruban, alan luurrian*. Erregutu ezkerre Jaunari biagarren eskari, edo petizinoian emon deigula zeruko erreinuba, irugarren onetan eskatuten deusagu erreinu onetara elduteko biar doguna, bada nai badogu eldu zerura, zaindu biar dituguz legeko agindubak, eta onexek jaotia da Jaungoikuaren borondatia, da erregututia emon deigula bere grazija, berak bere legian aginduriko mandamentubak gordetako. Ain da biarra, ain premiazkua bere eskabide au egitia, ze ezin inundik bere egin ginaike Jaunaren naija, edo borondatia, berak emoten ezpadeusku bere laguntasuna, eta grazija. Ain gara argalak, ain ezetarakoezak, ze dino San Paulo Apostolubak, ez gariala duin geurez pensamentu ontxu bat bere eukiteko, eta gure duintasun guzija Jaungoikuagandik datorkigula. Ezin inos Jesus bere esan leike biar dan moduban, Jaunaren grazija baga, dino Apostolubak berak. Orregaitik, beti beti egozan Santubak

eskari, edo petizinoe au egiten Jaunari. Batzube-
tan zirautsen irakatsi eijuela bere borondatia
egiten; beste batzubetan eruan egizala bere
borondateko bidetik; orain, idigi eijuezala arima-
ko begiak ezgtututeko berak zer nai eban; eta
gero adi erazo eijuela bere borondatia.

Dinogunian, zelan zeruban, alan luurian:
eskatuten deutsalgu Jaunari emon deigula grazi-
ja luurian gagozanoi, egiteko bere borondate,
edo aginduba zeruban dagozan santu, eta Ainge-
rubak egiten daben poz, bizitasun, eta gogo ona-
gaz. Baita bere erregututen deutsalgu, zerutar
areek ezin alderatu, edo apartadu al leitekezana
legez bere borondatetik, ezin ezer egin leikiena
legez bere agindubaren kontra, alaintxe gu bere
ez gaitetzala inos juan bere borondatiaren kon-
tra. Denpora guztijetan euki biar dogu ao, eta
bijotzian eskabide au; beti beti esan biar deutsal-
gu Jaunari: *Egin bedi zure borondatia*; baña
arako gatx, neke, lan, eta atsakabez ingiraturik
dagozanean da, nos sarriago, eta bijotz barruba-
gotik esan biar dogun: onetarako begiratu dai-

gun nundik datorkiguzan gatzak, ta gurata gura ez konfesaduko dogu eztaguala bat bakarrik Jaungoikuaren borondatetik eztatorrenik. Datorrela demoninuagandik, datorrela geure arerijuakgandik, datorrela gorrotorik andijena deuskubenakgandik, beti beti dator Jaungoikuagandik. Eztago bere eskubeetatik eztatorren gatzik. Auxe da begiratu biar doguna, eta esan Jaunari: *Egin bedi zure borondatia*. Sikate, euri, edo izotzak galzen badituz laboriak, esan deijogun Jaunari: *Egin bedi zure borondatia*. Gatz, edo enfermedadiak bagaukaz oe baten, esan deijogun Jaunari: *Egin bedi zure borondatia*. Pobreziak, estura, edo premina andijan ifinten bagaituz, esan deijogun: *Egin bedi zure borondatia*. Gizonak deuskuben gorrotuak, edo borondate okerrak kenduten badeusku daukaguna, zauritu, eta gatxez beteten bagaitu, esan deijogun Jaunari: *Egin bedi zure borondatia*. au egiten badogu biar dan humiltasun, eta debozinoiagaz ikusiko dozu-be zelan poztuko gaituzan gatz, eta lanik andije-

nen erdijan; bada ezagutuko dogu Jaunak deus-
kun amodijotik datozala guztijok.

Erazoginza

Lenengo iru eskabide oneetan eskatuten doguna da, gizonak honradu daijela Jaungoikua; baña ez gara berbetan bakarrik geratu biar. Nai badogu benetan, bete dedin lenengo eskabide, edo petizinoia, santutu, edo santifikadu daigun jauna geure bizi modu onagaz. Jesu Kristok dirausku baktxari: Argi egin begi zuben bizi modu onak, ikusirik gizonak zuben obra onak, bedeinkatu, eta alabadu daijen zeruban dagan zuben Aita. Bestelan, zelan esan zinaike santifikadu bedi zure izena, zeubek dehonretan badozube zeuben bizi modu txarragaz, zeuben pekatubagaz, zeuben ekandu zitalakaz? Errazoe andijagaz esan leikezube: zubezgaitik blasfemetan da jaungoikuaren izen santuba. Badakizube zelan? Ezekiel Igarla, edo Profetiak dirautsube: Ikusirik jentil, eta herejiak Kristinauben bizi moduba, ain diriala loijak, ain lapurak. ain irritu-

bak, zeinda eurak, edo benturaz geijago, ezin sinistu dabe Jaungoikuak aginduriko legia, obia dana euren baño, edo gure erlijinoe, gure siniskera, eta Elexa santubak irakasten dabena artezago dana eurak daukena baño. Modurik onena bada esateko Jaunari, santifikadu bedi zure izena, da bakotxak santututia bere bizitza onagaz. Bestelan, judegubai baño errazoe obiagaz esango deusku Jaungoikuak: Oneek miinagaz alabetan nabe; baña euren bijotza urrin dago niganik.

Bigarren eskabidia biar dan modunban egiteko geure aldetik, artu biar ditugu erreinu au irabazteko modubak. Eztaigun uste esanagaz Jaunari: betor gugana zure erreinuba, eta alperrik egon, eta nai dogun moduban bizi izanagaz emongo jakula. Ezin erreinu atan sartu ginaitezke, lan, neke, negar, zizpuru, eta gatxen bide garratzetik baño. Jesu Kristok irakatsi euskun egija au, ez bakarrik aoz, edo berbaz. baita bere egitade, edo obrakaz. Berak biztu gura izan genduzan bere ejenplubagaz bide onetatik ibiltera. Izanik glorijako Jaun, zerubaren jaube, eta Jaungoikauren seme, bera juan zan gure aurretik.

irago eban pasinoerik gogorrena, eta erijotzarik krubelena bere Aitaren glorijara elduteko. Bada konbeni bazan erru baga, pekatu baga, eta berez santu, eta artez, edo justuba onelako bide astunetik iragotia, zer uste dogu guk pekatari errukarri, eta auts puska bat baño ez garianok? Neure kristinaubak, ezin Kristogaz batera egon leiteke zeruban, bera ibili zan bidetik eztabilena munduban. Alperrik billatuko dozu kurutziaeren baño besterik zeruko erreinura elduteko, eztozu aurkituko; beste guztijak infernurakuak dira, araxe duaz.

Astun egiten bajaku bide onetatik ibiltia, egin daigun biar doguna legez irugarren eskari, edo petizinoia, eta guztiz gozo egingo jaku. Ain da andija Jaunak deuskun amodijua, ze ikusirik ez gariala borondatez sartu gura bide onetatik, indarrez eruan nai gaituz , eta bialduten daeuskuz geure borondatez artu gura eztituguzan nekiak. bai Kristinaubak, sinistu egidazube, auxe da Jaunaren borondatia lan, eta naibagiak bialduten dituzanian. Ezteuskuz oneek bialduten gorroto deuskulako, ez ezin ikusi gaituzalako. Gugaz daukan arduriak, deuskun amodijuak bial-

du erazoten deutzaz. Bide okerretik guaz, bide
galdutik guaz; emoten deuskuzan azote onekaz
sartu gura gaituz zeruko erreinurako bidian.
Esan deijogun bada: *Egin bedi zure borondatia,*
zelan zeruban, alan luurrian, eta ikusiko dozube
zelan ezaguturik zeruko Aitaren eskuba dala
joten zaituzan zigorra darabilena, ez bakarrik
ezteutsuben nekerik emongo, ezpada poz andi
bategaz artuko dituzuzan Aita maitiak deutzun
amodijuaren ezaugarrik, edo señaletzat, eta guz-
tijak diriala bere asmubak gu eruateko zerura.
Amen.

LI. BERBALDIJA

*Azkenengo lau eskari, edo
petizinoien explikazioa.*

Laugarren eskabide, edo petizinoian dinogu: *Egunian eguniango geure ogija egun iguzu, edo gaur emon eiguzu.* Bizitza bi daukaz gizonak: bata gorputzekua, bestia arimakua. Ez bata, ez bestiak iraun leije janari baga, eta au ezin eukirik gizonak zeruko Aitak emoten ezpadeutsa, orregaitik esatuten deitsagu. Jakin dagizuben ze janari dan emen eskatuten doguna, azaldu, edo ezplikaduko dot, lenengo, zer dan gorputzarentzat eskatuten dan ogija, eta gero arimarentzat nai doguna. lenengo: eskatuten dogu ogija gorputzarentzat. Ogijaren izenian aituten da bizitzia iragoteko biar dogun guztija, artua, arraina, oke-lia, eta frutia, nai beste edozeinbere janari, eta edari. Aituten bere da erropa, edo soñekua, bizi lekuba, edo etxia, eta beste biziteko biar dogun, guztija. Baña begira zer dinogun, *egunian eguniangua*; esan gura dau, eguna, edo bizitzia ira-

goteko biar doguna, eta alan petizinoe onetan ezteutsaguz eskatuten Jaunari janari gozo, ez erregalubak, ez edari edo ardao ugarijak, eurekaz aseteko, ez erropa urre, zirar, sedazko bali-josuak, eta ederrak, ez Jauregi, edo Palazijo zabal, eta ederto apaindubak, ez diru, eta ondasunak; bada oneek бага bizi leiteke, edo irago leiteke bizitzia; bakarrik eskatuten deutsalugu biziteko biar doguna. Onexegaz duin dauka Kristinaubak. Eukirik zer jan, eta zegaz estaldu aragijak, eztoгу besterik gura, zinuan San Paulo Apostolubak.

Dei egiten deutsalugu ogi geuria: au da ondo irabazija, eta modu onian etorrija, ez lapurretan ostuba, ez tratu okerrakaz irabazija, edo beste bide txar, edo okerretik artuba; bada modu onetan daukaguna ezta guria, ezpada inoena, eta alan Jaunari eskatuten deutsalugun ogija da, edo geuk geure lan, neke, ta izerdijagaz irabazija, edo norbaitek emona, edo gure gurasuakgandik etorrija. Dinogu gaur emon egiguzu, gaur dinogunian aitu ginaike mundu onetan biziko garian denpora guztija; esango bagendu legez; ezteigula ukatu mundu onetan gagozan artian bizikaija,

edo biziteko biar doguna; bada zeruban eztago onen biarrik. Aitu bere ginaike gaur dinoguanian, emon daigula Jaunak gaur biar doguna, bijar-kuen ardurarik artu baga, edo bildurrik euki baga bijar eukiko dogun ala ez: bada eztagigu bijarre-ra elduko garian. Etzaku emen galazoten gerorako biar doguna gordetia, edo batutia nai dala modu onian irabazijagaz, nai dala soluan batuten dana gordiagaz geuretzat, edo geurientzat. Jesu Kristok berak gorde oijeban enparetan jakona ongiliak emoten eutsenetik. Eragotziten jakuna da, ondasunen ardura larregija, eta ondasunak batuteko arrastaka ibiltia, Jaungoikuak ezpaleuka legez beste modurik emoteko guri biar doguna. Biarra egin begi bakotzak biar daben janari, eta jaztekua irabazteko; baña izan bedi arimia aztu baga, eta gorputzak biar dabena batzeko bera galdu baga.

Petizinoe onetan eskatuten deitsagu Jaunari arimako janari, edo ogija bere. Iru gauza artu ginaikez ogijaren izenian, eta irurak eskatuten deitsaguz Jaunari berba oneetan. Lenengo: sermoia, edo Jaungoikuaren berbia: au da, eztagigula falta nok irakatsi deigun doktrina kristinauba,

eta zer egin biar dogun; bada onixe dei egiten deutsa Jesu Kristok Jaungoikuaren, edo Jaungoikuak emoniko ogija. Bigarrenengo: bere grazija, eta laguntasuna; bada gorputzak ezin bizitzarik euki leikiana legez janari baga, alaintxe gure arimiak bere ezin bizitzarik euki leike bere grazija baga, eta au faltako balijako, bertatik ilgo litzateke. Irugarrenengo: ogijen izenian aituten dira Sakramentubak, bada janari baga ezin jaijo, azi, eta iraun ginaikiana legez; alaintxe gure arimia bere Jaungoikozko izatian ezin jaijo, azi, eta iraun leike Sakramentu baga. Baña sakramentu guztijen artian dei egiten jakan bestiai baño obeto, da Alatarako Sakramentuba; bada Jesu Kristo gure Jaunak dirausku; bera dala Sakramentu onetan zerutik jatsiriko ogija, bera dala benetako janarija, berak emoten dabela betiko bizitzia. Iru arimako janari onexek eskatuten deutsaguz Jaungoikuari, dirautsagunian: *Egunian eguniango geure ogija gaur emon eiguzu.*

*Parkatu egiguzuz geure zorrak, geuk
geure zordunai parkatuten
deutsegubezana legez.*

Bostgarren eskari, edo petizinoia da: *parkatu egiguzuz geure zorrak, geuk geure zordunai parkatuten deutsegubezana legez.* Emen eskatuten deutsagu Jaunari parkatu deiguzala geure pekatu guztijak, alan mortalak, zein da benialak; bada onexek aituten doguz zorren izenian, Zegatize pekatu egiten dogun bakotxian, arzen dogu geure ganian zor bat, zein pagadu biarko deutsagun Jaunari, mundu onetan penitenzija, eta obra onakaz, edo bestian, mortalak badira infernuko su ikaragarrijetan, eta benialak badira Purgatorijuan. Erregututen deutsagu bada Jaungoikuari lenengo: parkatu deigula pekatuba bera, eta irago gagizala bere arerijo bagara bere adiskide izatera, eta gero parkatu deiguzala pekatu oneek gaitik merezi izan dogun kastigu, edo zorra. Baña nai badogu enzun dagijan Jaunak gure eskabide au, eta parkatu deiguzan geure pekatuben zorrak, egin biar dogu bera aserratu dogulako damubagaz; bada bestelan eztau Jaun-

goikuak enzungo gure orazinoia, edo obeto esateko, pekatuben parkazinoia eskatu, ta euretan irauteko ustiagaz, edo eurak isteko borondaterik ez eukitia, orazinoe baño geijago da, Jaungoikua tentadu, eta berari burla egitia.

Begira zer dinozuben eskari onetan: *Geuk geure zordunai parkatuten deutsegubezana legez*. Gura dozu parkatu deizuzan Jaungoikuak zeure pekatubak? Parkatu eijezu zeuk bere zeuri gatx egin deutesuben guztijai; bestelan eztau Jau-nak enzungo zure eskari au. Jesu Kristok dino: Nai dozube Aita zerukuak parkatu deizubezan deutzazubezan zorrak? Parkatu eijezube zeubek bere zor deutesubenai; bada zeubek parkatuten ezpadeutzazubez zeuben zordunai, ezteutsubez zubei parkatuko Aita zerukuak. Auxe berau dino-zube zeubek bere, zeuben arerijuai parkatu baga, eta parkatu bere gura baga, aita guria errezetan dozubenian; bada esatia parkatu egi-guzu geuk parkatuten doguna legez, da eskatu-tia zeubeek zeuben zordunai parkatuten badutsezube, parkatu deizubezala zeuben zorrak; eta zeubek parkatuten ezpadozubez ezteizubezala parkatu: auxe da zeubek parkatuten dozubezana

legez parkatutia. Ay neure Kristinauba, ze bildur izan zinaitekezan zeure proximuaganako gorrotuagaz esaten badozu Aita guria, zeure kontra biurtu eztedin zure eskarija, jazoten jatzula David erregeren biraua: pekatu biurtu dakijola bere orazinoia? Zeuk zeure buruba kondenetan dozu. Alanbere esan begije gorrotuan dagozanak bere Aita guria, bigundu deijuen Jaunak euren bijotza parkatuteko gatx egin deutsenai. Zorren izenian ezta emen aituten norbaitek zor deuskun diru, ondasun, edo beste gauzaren bat, eztana legez aituten beste Ebanjelijoko leku askotan; bada etzaku inos aginduten zor oneek parkatutia, ezpada, esan deuskubezan berba astunak, edo euki deuskuben ezin ikusi, eta aserrakunzia.

Ez eiguzu itxi jausten tentazinoian.

Seigarren eskabide, edo petizinoia da: ez *eiguzu itxi jausten tentazinoian*. Emen eskatuten deusagu Jaungoikuari, euki gaizala sendo konsentidu eztaiguzan demoninuak bilduten deuskuzan pensamentu txarrak, zeinzukaz jausi

erazo nai deuskun pekatuban. Gerra bizi, eta gogor bat da gizonaren bizitza guztija luurraren ganean: dino Job Santubak. Daukaguz iru arerijo krubel, zeinzuk dirian demoninua, aragija, eta munduba. Ain modutan egiten dabe iru areriko oneek alegina gu galzeko, ze egunez, ez gabez, etxian, ez kanpuan, mendijan, ez errijan, ezta Elexan bertan bere itxiten deuskube bakian. Eztogu pausutxu bat emoten, eztogu zirkintxu bat egiten tentazinoe artian baño; alde guztijetatik gagoz lakijoz ingiraturik. Ain dogu biar Jaungoikiaren grazija, eta laguntasuna tentazinoe, edo lakijo oneetan ez jausteko, ze bera baga ezin puntutxu baten bere egon ginaitez euretan jausi baga. Grazija auxe bada eskatuten deutsagu Jaunari eskari, edo petizinoe onetan, jakinik argal, eta kadenak bagara bere, ezin arerijorik sendo, eta indartsubenak goitu, edo benzidu al ginaizala, berak lagunduten badeusku bere grazijagaz.

Ezteutsagu Jaunari eskatuten eztaigula tentazinoerik euki, eztaijuela itxi arerijuai gu tentetan; zegaitize on, eta probetxu andijak datorkiguz tentazinoietatik. Lenengo: eurak ezagutu erazo-

ten deuskube ze argalak, eta gitxirakuak garian, ezauera onegaz humildu, eta beeratu daigun geure arrokerija, edo soberbija. Bigarrenengo: tentazinoiak egiten gaitu zur, eta arduratsu; bada ikusirik zelako pelleburuban gagozan pekatuban jausteko, pelleburubak gaukaz iratzarri, eta arduratsubago. Irugarrenengo: pelleburu, eta tentazinoie oneek goitu, edo benzidubagaz irabazten dogu zeruba, norako eztaguan biderik tentazinoien erditik baño. Laugarrenengo: tentazinoian ezagututen da nor dan, eta zelakua dan bakotxa: ona, santuba, eta Jaungoikuaren bildurtija obago, santubago, argijago, eta garbijago egiten da tentazinoian; eta txarrago, gestuago, eta dongago egiten bada pekatarija, ezta tentazinoiaren erruba, beria baño; bada eskatu baleutsa Jaunari bera azpiratuteko grazija, dudatzaka emongo eutsan, eta ez bakarrik etzan jausiko tentazinoian; baño irabaziko zituzan merezimentu andijak. Eskatu deijogun bada Jaunari ez kendu deiguzala tentazinoiak, ezpada emon deigula eurak goitu, edo benzietako grazija. Baña ez gaitzezan geratu orazinoian bakarrik, egin bere daigun alegina pelleburu guztijetatik iges

egiteko, eta aragijaren gurarijak eziteko, eta iku-
siko dogu zelan azpiratuko dituguzan geure are-
rijo guztijak.

Baña libradu gaizuz gatxetik.

Zazpigarren, eta azkenengo eskari, edo peti-
zinoia da: *Gorde, edo libradu gaizuz gatxetik.*
Gatx batzuk dira arimakuak, beste batzuk gorpu-
tzekuak. Nai batekuak, nai bestekuak dira guk
neurtu al ginaizan baño andijaguak. Arimakuak
dira: Lenengua, eta andijena, eta guztijen sus-
traija da pekatuba. Bigarrenengo: demoninua, nori
dei egiten jakan Eskritura Sagraduban dongia,
txarra, gestua, tentalarija, eta gatxkina, norga-
nik asi zan, eta datorren gatx guztija. Irugarren-
engo: Jaunaren aserrakunzia, edo bere arerijo iza-
tia: eta bostgarrenengo, infernuko su, eta azken
bagako ala, edo tormentubak. Onenxek dira gatx
benetakuak, eta euretatik zaindu gaizala da
lenengo eskatuten doguna. Beste gatx batzuk
dira gorputzkuak. Oneek dira gexua, osasun
faltia, ekatxak, trumoia, luikaria, arraijuak, uro-

lak, labore faltia, edo urritasuna, gerria, pobrezia, eta beste esan bere ezin leitekezanak. Gatx guzti oneetatik jaon gaizala erregututen deutsagu Jaunari, alan arimakuetatik, zein da gorputze-kuetatik. Baña eztoigu bardin eskatu biar gorputzeko gatxetatik, eta arimakuetatik libretia. Arimako gatxak beti dira gatxak, eta beti dira gure kalterako: orregaitik beti eskatu biar dogu euretatik urtetia, edo euretan ez jaustia. Barriz gorputzekuak, guk uste arren gatxak, edo gure kalterako diriala, sarri eztira onak baño. Pobrezia, esaterako, uste ginaike gatx, edo kaltia dala, eta alanbere izan leiteke gure onerako: eta bestera, guk uste arren ondasunak onak diriala guretzat, jazo leiteke benetako gatxa izatia, eta kalte andijak guri ekartia. Orregaitik biar dan moduban egin nai badogu eskari au, nai izan biar dogu Jaungoikuak kendu deiguzala gorputzeko ondasun, osasun, zorion, poz, atsegin, eta beste guk ontzat daukaguzan gauza guztijak, gure arima, eta bere salbazinoiaren kalterako izango badira; bada orduban bene benetan gatxak dira. Onetan uts egin nai ezpadogu, eskatu biar deutsaguna da libradu gaizala, ez bakarrik guk gatxak diriala

uste dogunetatik baita bere berak gatz diriala dakijenetatik, eta onelakuak badira guk zoriontzat daukaguzanak, libradu gaizala euretatik bere.

Amen.

Berba onexegaz zarratu eban Jesu Kristok mirarizko orazinoe au. Orregaitik nai izan dau, alaintxe, eta aldatu baga geratu dedin bere Ele-xan. Esan gura dau alan deila, edo alan izan deila: au da, Jaungoikuak autortu, edo konzedidu dagijala orain eskatu jakan guztija, eta alan Amen esanagaz barriztetan dituguz, edo barriro egiten dituguz zazpi eskari, edo petizinoiak. Baita bere esan gura dau: Alaintxe da: au da, enzun dau Jaunak zure eskabidia, eta autortu deitsu zure erreguba; guri adi erazoteko, leijala dala Jaungoikua bere iskini, edo promesetan, eta guk geure aldetik egiten badogu eskabide, edo orazinoa, lenago faltaduko dabela zerubak, eta luurrak, berak ukatu deigun baño gure eskabi-

dia. Modu onetan aituten dau izen au S. Paulo Apostolubak.

Erazoginza

Orra, neure enzula maitiak, azaldurik, edo ezplikadurik, laburrian baño ezpada bere, zeruban, eta luurrian aurkitu al leitekian eskabide, edo orazinoerik miragarri, andi, eta onena, jakin dagizuben gitxijenez abasberuan, edo ilun abarrian, zer eskatuten dozuben bera errezetan dozubengan; bada bertan zarraturik dagozan eskabide guztijak argitan ifintia ezta gizonentzat. Guk asko dogu jakitia arako Jaungoiko, antxina Igarla, edo Profeten bitartez berba egin oijebanak berberak ekarri euskula zerutik, berak irakatsi euskula bere aoz, berak agindu euskula esaten, eta berak opa euskula enzuna izango zala zeruban bertan, beragaz eskatu gengijana. Orregaitik egunian egunian, edo sarri egunian esan bar dogu Aita guria; bada betikua izanik gure biar, edo nezesidadia, eta ezin eukirik geurez, edo geugaz zegaz bete, edo erremedijau;

beti egon biar gara eske biar doguna emon al,
eta agura deuskunari.

Baña, esango deustazube; egunian egunian,
eta sarri, egunian esaten dogu Aita guria, eta
geure premina, eta esturetan esaten oi dogu;
baña alanbere ezteusku emoten Jaungoikuak
eskatuten deutsalaguna. Badakizu zergaitik?
Gauza bi gaitik. Lenengo: eztozulako esaten Aita
guria biar dozun moduban. Ifinten zara esaten,
edo errezetan arrastaka, arin aringa, begiratu
baga, ez nogaz zagozan berbaz, ez zer dan eska-
tuten dozuna, ez zelan daukazun zeure arimia,
bazagoz ala ez guztiori pekatuz atsitu, usteldu,
eta Jaungoikuaren arerijo eginik; eta orregaitik
bere anditasun neurri bagiari zor deutsalazun
itzal, edo erreberenzija baga; eta bera zeure
humiltasun, eta bildur santubagaz, gozatu bia-
rrian, bere aurrera daruazuzala pekatu-
rik ikaragarriena bere justizija aserratuteko. Zelan
nai dozu enzun zaizan Jaun onek badaruazuz
bere aurrera zeure eskubak bere seme maitiaren
odolez orbandu, edo mantxadurik? Zelan
nai dozu emon deizun eskatuten deutsalazuna
badaruazu zure bijotzian zeure pekatuben
kurutze lotsaga-

rrijenian josirik bere seme bakar maitia, eta bazagoz berari burlaz? Eta pekatuban ezpazagoz bere, zelako oztasun, zelako epeltasun, eta zelako nagitasunagaz esan oi dozu Aita guria? Geijenetan zeure goguz beste lekutan dozula, zeuben arazu, zeregin, tratu, edo jolas, eta olguretan. Orra zegaitik enzuten etzaizuzan Jaungoikuak Aita guria errezetan dozunian, dirautsu Santijago Apostolubak. Eskatuten dozube, eta eztozube arzen dongaro eskatuten dozubelako.

Bigarrengo: eskatuten dozu, eta ezteutsu Jaungoikuak emoten konbeni etzatzulako eskatuten dozun gauzia, edo emongo baleutsu zeure gatx, eta kalterako izango litzatekialako. Nai badogu enzun dagizan Jaunak gure eskarijak, egin biar dituguz Jesu Kristoren izenian, eta konbeni ezpajaku eskatuten doguna, eztogu eskatuten Kristoren izenian. Gexorik gagoz, eskatuten deusagu Jaunari osasuna; bada konbeni ezpajaku pekatubetan irago, edo emongo geunkialako, eztogu eskatuten Kristoren izenian; eta orregaitik ezteusku emoten Jaunak. Eskatuten deusazu il aginian daukazun seme, edo alabiaren osasuna, etzazu konbeni dakijalako Jaungoikuak biziko

balitz, bere, eta zeure kondenagarri izango litza-
tekiala, eta ukatuten deutsu. Eskatuten deutsa-
zu atera zagizala zeure pobreza, estura, edo pre-
minatik, dakus Jaungoikuak autortu, edo konze-
diduko baleutsu zeure eskarija, galduko zeunkia-
la humiltasuna, beteko zinaitekiala arrokerija,
edo soberbijaz, eta kondenaduko zinatekiala, eta
etzaituz enzuten. Eskatuten deutsazu emon dei-
zula, edo zeuri, edo seme, edo aidiari leku eregi,
ofizijo, edo enpleo onen bat, ezteutsu emoten,
dakijalako emongo baleutsu zuri, zure seme, edo
senidiari, galduko zinaitekekezala, eta etzaituz
enzuten. Sarri eta sarri jazo oi da guk uste izatia
konbeni jakula au, edo beste gauzia, eta eskatu-
tia Jaunari; baña Jaunak ezaguturik gure gatx,
edo kalterako izango dala, ukatuten deusku.
Orduban ukatutia bere erruki, edo miserikordija
andja da, eta autortu, edo konzedietan badeus-
ku dakijana gure gatxerako izango dala, bere
justizija beragandik arteza, baña guk ezin ezagu-
tu ginaijenetik dator.

Nai badoguz bada artu Aita gurian egiten
doguzan eskarijak, esan daigun orazinoe au
debozinoe andi bategaz: begiratu daigun oneta-

rako, gagozala berbaz ez luurreko erregeren bategaz, ez Apostolu, Aingeru, edo Ama Birjinia-gaz, ezpada zero luurrak bere anditasunez beteten dituzan Jaungoikuagaz; noren aurrian bildurrez ikara dagozan zeruba euren ganian daukenak, eta noren izena enzunagaz luur joten dabeen luur, zero, eta infernuban dagozan belaun guztijak. Bete gaitezan begiraune onegaz debozinoe, itzal, edo errespeto, eta bildur santuz, egin daigun eskari au al daigun humiltasunik beerenagaz, baita bere uste, edo konfijanzarik osuenagaz, jakinik geure Aita maite, bigun, eta maitetsubena dana. Eztaigun duda, ez bildurrik euki ukatuko deuskula gure onerako bada, eta ukatuten badeusku ziur ziur gagozan bere gurarija dala gure salbazinoia emotia zeruban. Amen.

LII. BERBALDIJA

*Nun azaldu, edo ezpliketan dan
Agur, edo Abe Marija.*

Da Abe Marija orazinoe bat, zeinetan emoten jakazan Ama Birjiniari emon al leijozan alabanzarik andijenak, eta nun dagozan zarraturik bere anditasun miragarri, eta onoidade, edo birtuterik arrigarrijenak. Daukaz iru zati, edo parte. Lenengua dira berba oneek: *Abe Marija grazijaz betia, Jauna da zugaz, bedeinkatuba zara anra guztijen artian.* Oneek esan zituzan San Gabriel Aigerulenen, edo Arkanjelubak, zerutik jatsi zanian esatera Birjina txito doasubari: bere errai garbijetan gizon egin nai zala arako Jaungoiko zero luurrak ezin kabidu dabeena. Bigarren zati, edo partia dira berba oneek: *Bedeinkatuba zara anra guztijen artian, eta bedeinkatuba da zure sabeleko frutuba Jesus: oneek esan zituzan Santa Isabelek, bere lengusina Marija Santisimia bisitetara Juan jakonian, eta bere lenengo berbiagaz geratu zan santuturik erraijetan eukan seme San*

Juan. Irugarren zati, edo partia dira berba oneek: *Santa Marija, Jaungoikuaren ama, erregutu egizu gu pekatarijok gaitik, orain, eta geure erijotzako orduban.* Oneek esan, eta konpondu zituzan Elexa santubak, Ama Birjiniaren alabanza au berari eginiko eskabide bere izan zedin; baita bere lotsatu, eta isilduteko hereje batzuk, zein-zuk ukatuten ebeen Marija guztiz doatsuba zala Jaungoikuaren Ama benetako. Aingeru bat, emakume bat, eta Elexia badira bere berba oneek esan zitubezanak, Jaungoikua bera da euren aurkile, edo autore. San Gabriele esan eutsazan birjiniari Jaunaren bialdu, edo enbajadore, et bitarteko legez bere izenian: Santa Isabelek esn zituban Espiritu Sntuz beterik eguala, eta berak erazo eutsalako. Elexiak badinoz, da Espiritu Santubak argiturik dagualako. Orregaitk egijagaz esan ginaike, Jaungoikua ber dala Abe Marijaren ipinle, edo autore, eta berak irakatsi deuskula.

Ezin esan, edo errezadu ginaijo gure Erregina andi, gure ama maitetsu oni orazinoe bere gogokuagorik, beretzat gozuagarik auxe baño; bertan zarratuten dirialako emon al daijoguzan ala-

banzarik andijenak, bertan dinoguzalako Jaungoikuak beragan egin zituzan miraririk arrigarri-jenak, eta bere bitartez zabaladuten dirialako mundu guztitik bere onoidade, edo birtute, bere diñade pare baga, et zero luurrian, eta gizon Aingeru artian aurkitu al leitekian andijena. Egija au ezagutu daizuben, berba berbaz azaldu, edo explikadu nai deustubet orazinoe miragarri au, errezadu daizuben al dozun debozinoerik isijue-nagaz.

Agur, edo Abe.

Berba onetan egiten deustagu Agur, ez baka-rrikadi erazoteko ezagututen dogula, eta bere ezagun gariala, baita bare dirautsagu poztu deila Jaungoikuak beragan egin dituzan mirarijakaz, bera eregiteko gizon, eta Aingeru guztijen gane-ra. Geuk beragz batera atsegin dogula, daukagu-lako Erregina alsu, edo poderoso bat, Ama laztan bat, ongile asko gura deuskun bat, eta mesede andijak egiteko. Mila esker deustaguzala Jaunari bera geure Amatzat, geure jaoletzat, geure Erre-

ginatzat emon deuskulako; bada beragandik itxaroten dogula arzeia ugari bere agindura ifini dituzan zeruko ondasunak, eta berba baten esateko, bera egin dabelako bigarren Eva, erbestetu, edo desterretako mundutik lenengo Evak ekarri zituzan aijari, zispuru, zotin, eta negarrak, eta idigiteko arek zarratu zituzan zeruko atiak.

Marija.

Izen gozo, eztitsu, pozgarri, eta atseginzu onetan dirautsagu emakume miragarrizko Jaungoikozko oni, bera dala mundu, eta zeru, gizon, et Aingeru guztijen Anra, edo Señora, eta Erregiña. Itxasoko izar, munduko gau ilunian argi egiten deuskuna. Argi emoilia, bada mundu guztija pekatubaren iluntasunik itxubenian eguala, ekarri eutsan zerutik osasuneko eguzki ederram zein dan Kristo gure Jauna. Dirautsagu dala grazijaren itxasua; bada luurreko erreka guztijak ara duazana legez, duaz beragana santu, eta asingeru guztijen grazija, santidade, onoidade, edo birtutem eta merezimentu guztijak, oster

gugana bere eskubetik etorteko, itxasotik urteten dabeen legez ibai, eta iturri guztijak. Au guztijau, eta esan al daigun guztija baño geijago dinogu esanagaz Marija. Izen au ez eutsen ifini gizonak Jaungoikuaren Amamri, ez ebeen aurkitu Aingerubak, Jaungoikuak berak Aitak, Semiak, eta Espiritu Santubak, Irukada, edo Trinitade guztijak ifinija da. Jesusen izenen ostian eztago Marija baño izen santubagorik, gozuagorik, pozgarrijagorik, ez luurrian, ez zeruban: bera da beste izen guztijen ganian. Izen santu au da nekatuben atsegina, trsiten poza, gexuen osasuna, itxuben argija, argalen sendagarrija, pekatarijen uste, edo esperanzia, justuben honria, santuben glorija, zeruben edertasuna, eta demoniuen bildurra. Ze olgura! Ze gozatasun! Ze poza eztau arzen Kristinau baten bijotzak Marija bere ezpanakaz esanagaz, edo belarrikaz enzunagaz bakarrik? Uste leiteke ezin kabidu dala bularren barruban pozen pozez. Begira orain zelako debozinoe, zelako erreberenzija, zelako humiltasunagaz erabili biar dozuben zeuben ao, eta ezpanetan zero luur, gizon, eta Aingerubak poztuten dituzan izen au.

Grazijaz betia.

Agur egin ezkerro, edo saludadu ezkerro San Gabrieleke Marija guztiz doatsuba, emon eutsazan iru alabanza, oraindio inori emon ez jakazan, eta inos emongo bere ez jakazanak, eta onexek berberok emoten deutsaluz guk Agur edo Abe Marija dinogun bakotxian. Lenengua da, *grazijaz betia*. Berba oneetan dirautsagu, beti beti bere sorrera, edo konzepzinoetik aurkitu zala Jaungoikuaren *grazijaz* beterik, inosbere utsunerik euki baga. Ez bakarrik ez ebala inos galdu *grazija* au; baña etzala inos gitxitu. Eztala inos beragan aurkitu pekaturik, ez mortalik, ez benialik, ez orijinalik. Ain izan zala ugarija Jaunak beragan ifini eban *grazija*, ain modutan bete ebala bere arimia Jaunak doe onegaz, ze andijagua izan zala bere konzepzinoian euki ebana, Santu, eta Aingeru guztijena bat eginik baño bere. *Grazija* onegaz batera aurkitu ziriala beragan birtute, edo onoidade guztijak, fede, esperanza, karidade, garbitasun, humiltasun, erruki, edo miserikordi-

ja, eta beste luurrian eta zeruban aurkitu al leitekezan guztijak. Ain daguala apaindu, eta ederturik grazia, santidade, eta onoidadez, ze dala bere semiaren urrengo zeruko edertasunik andijena, ain modutan, ze mirariz beterik Aingerubak itanduten deutsela batak bestiari: nor da onako emakume bere semiaren albuari jarriarik daguan au, alba-izarra baño argijago, ilargija baño ederrago, eta eguzkija baño autu, edo eskojidubago? Trinitade guztijak dirautsa: guztijori zara ederra, neure laztana, neure maitia, neure usua, neure bakarra; eta eztago zugaran pekatubaren orbanik, ezta motarik txikijenik bere. Edertasun pare bage au ikusteko gurariz beterik zeruko erregek dirautsa: biurtu zaitez onuntz ikusi zaiguzan; bada guztiz da ederra zure arpegija; Jaungoikozkuak zure begijak, eta grazija guzija dago zuri, edo itzulirik zure ezpanetan. Bedeinka milla bidar emakume ain eder, ain zoragarri, ain ikusgarri egin eban Jaungoikua.

Jauna da zugaz.

San Gabrielelek Ama Birjiniari emon eutsan bigarren alabanzia izan zan, *Jauna da zugaz*. Berba oneetan dirautsagu beti beti aurkitu zala beragaz Jaungoikua, ez bakarrik grazija, eta laguntasunen bitartez, sarri pekatarijetan aurkitu oi dana legez, ez bakarrik bere adiskidetasunagaz artez, edo justubetan legez, ez bakarrik bera jaoten dabenagaz zerurako autu, edo eskojidubetan legez; baita bere berezko modu gizon, ez Aigerutan egon, eta egongo eztan modu miragarri baten; bada berak bakarrik merezi izan eban bere erraijetan zarraturik eukitia bederatzi ila betian arako Jaungoiko zero zabalak kabidu ezin dabeena, berak bere ugatz gozuagaz azi eban mundu guztijari jaten emoten deutsan Jauna. Beragaz bizi izan zan ogeta amairu urtian; baña ez edozein modutan, ezpada seme humil, maite, laztan legez, bere ama bigun amodijotsu bategaz. Beragaz bizi etxe baten, beragaz jan mai baten, beragaz ibili, beragaz euki berbaldi, edo konbersazinoe luziak, eta enzun bere aotik ezti abaoa baño gozuago dirian berbak.

*Bedeinkatuba zara anra guztijen
artian.*

Aingeru San Gabrieleke Ama Birjiniari emon eutsan irugarren alabanzia izan zan: *Doatsuba, edo bedeinkatuba zara anra guztijen artian.* Auxe berau emon eutsan Santa Isabelek bere. Emen dirautsagu zeruko erregina oni, bera dala izan dan, izango dan, eta izan leitekian emakumerik andijena, santubena, eta miragarrijena; bada berak bakar bakarrik nerezi izan eban bere erraijetan sortu, eta beragandik jaijotia Espiritu Santubaren egitez, edo obraz, zeru, ta luurraren jaubia. Berak bakarrik merezi izan eban Birjina, eta Ama batera izatia; Birjina, bere semia beragandik jaijo baño leenago; Birjina, bere semia jaijo zanian, eta Birjina jaijo ezkerro. Berak bakarrik merezi izan eban aita Eternuagaz seme bat bakarrik eukitia, ain modutan, ze Aita betiko, eta emakume onen semia eztira eme bi, bat bakarrik baño: arako Aita betikuak munduba baño lenagotik euki eban semia berbera, axe bera da Marijarena bere. Berak merezi izan eban enzutia Jaungoikuagandik Ama ao betian, eta dei egitia

semia arako zero luurrak ezerberzetatik egin zituzanari. O Marijaren anditasun pare bagia! O diñade inoren gogora bere ezin eldu leitekiana! Ze Aingeru, ze Serafin, edo ze Kerubini esan deutsa oraingino Jaungoikuak emakume oni legez, zu zara nire Ama? Edo ze Aingeru, edo Serafinek esan leijo Jaunari emakume onek legez, zu zara nire seme neuk neure erraijetan sortuba, eta nigandik jaijua? Ementxe bai arritu, mututu, eta konkorturik geratu biar gariala, ikusirik ez gariala duin diñade kabu baga onen alde-rik txikijena bere adi erazoteko.

*Eta bedeinkatuba da zure sabeleko
frutuba Jesus.*

Auxe da Santa Isabelek bere senide Marija txito doatsubari emon eutsan alabanzia. Berba oneetan dirautsagu, bera dala arako paradisu-ben erdijan daguan zugatz, edo arbola ederra, zeinek emon euskun luurrian, eta zeruba aurkitu al leitekian frutarik gozo, bigun, osasunsu, eta ederrena. Frutu au ekarri euskula Aita betiko,

edo Eternuen al Zotik. Frutu au dala Jesus lazta-
na, zein emon euskun geure janaritzat, izan
zedin gexuen osasuna, pekatarijen erremedijua,
tristien pozgarrija, nekatuben atsegina, eta on
guztijen iturri ugarija. Orain bada, frutatik ezagu-
tuten bada zelakua dan arbolia, begira zelakua
izan biar dan Jesu Kristo Jaungoiko, eta gizon egi-
jazkua emon euskun arbolia. Alabadu, eta
bedeinkatu daigun geure indar guztijakaz, onela-
ko arbolia geure Elexako ortuban ifini euskun
Jauna.

Santa Marija Jaungoikuaren Ama.

Elexa santubak ifiniriko berba oneetan konfe-
setan dogu, Marija guztiz Santuba dala Jaungoi-
kuaren Ama benetakua, beste ama guztijak
euren semien ama benetako diriana legez, eta
onegaz batera emoten deusagu gizon, eta Ain-
geru guztijak emon el leijuen alabanzarik andije-
na; bada esanik dala Jaungoikuaren ama, dinogu
beragan ezarri zituzala jaunak berak emon, eta
kriatura batek artu leizan santidade, grazija,

onoidade, edo perfekzinoe guztijak. Zelan uste ginaike ukatuko eutsala Jaungoiko batek bere Amari emo al leijon anditasun, eta edertasunik? Zelan sinistu ginaike zeken, eta miskin izango zala bera Amagaz, arako Jaungoiko ain ugari botaten dituzana bere ondasunak bere kriatura guztijen ganera? Eztakit azartuko dan norbait onelako buruerarik eukitera. Guztijok sinistu biar dogu eregi ebana legez Jaungoikaren beian aurkitu al leitekian diñaderik andijena, alaintxe jaso ebala Jaunaren beian aurkitu al leitekian santidaderik andijenera. Poz andi bat emon biar deusku-be berba oneek; bada ezin dei egin ginaijo Jaungoikuaren Ama gomuta erazo baga berari gure Ama dana. Jaungoikuaren Ama benetako bada, da Jaungoiko gizona bere erraijetan sortu, eta beragandik jaijo zalako; eta izanik bere seme au gure anaije nagusi, eta gu bere anaijak, ezin aren Ama izan leiteke gure bere izan baga.

Erregutu eizu pekatarijok gaitik.

Berba oneetan eskatuten deutsagu izan deila gure bitarteko bere seme maitiagaz; seguru gagozala berak erregututen badeutsa, ezteusku-la ukatuko gorputz, eta arimarako biar dogun onik; bada alako seme batek, zelan ukatu leijo bera lezko Ama batek eskatu deijon gauzarik, ikusirik beragan arako sabel garbi bederatzi ilabetian erabili ebana, eta arako bular gozo, nun artu eban ugatz zerukua? Obeto eta obeto gure erruki izan dedin gure Ama maite au, dirautsagu, *gu pekatarijok gaiti*, modu onetan irakusten deutsaguzala geure zaurijak, geure gatxak, geure argaltasuna, ta geure premina, edo nezesidadiak. Onetan egiten dogu eskeko pobriak egin oi dabeena. batek irakusten dau oin ebagija, bestiak beso sikatuba, beste batek epai andi bat, dakusenak errukitu deitezana, eta limosna emon deijuen. alaintxe bada guk ere limosna eskatutera guazanian Ama karidade, eta ontasunez beteriko onegana, irakusten deutsaguz gure gatx, ta neke andijak, esanagaz gu pekatarijok gaitik.

Orain, eta gure erijotzako orduban.

Amen.

Orain dinogunian, artu biar dogu gure bizi-tziak dirauben denpora guztija. Esango baleutsa-gu legez; mundu onetan bizi garian arte guztijan, erregutu deijola bere semiari, ezteigula itxi jausten geure arerijuen eskubetan. Baña gure bizi guztija gerra bizi bat bada bere, geure erijotzako orduban da nos indar geijago egiten dabeen, nos asmurik okerrenak arzen ditubezan gure arerijuak gu galzeko. Orregaitik orduban inos baño geijago biar dogu geure Ama onaren laguntasuna. Orduko premina, eta estura artian biar dituguz bere erregubak, eurak gaitik emon deigun bere seme bakar maitiak geure arerijuak goitu, edo benzietao biar dogun indarra. Bada orduban azpiratuten badogu geure arerijua, beti betiko zorioneko izango gara, eztagualako geijago gerrarik, ez ostera pekatura biurtuteko pellebururik. Baña orduban goituten bagaituz arerijuak, galdu ginian betiko; eztago penitenzijarik, eztago atzera biurtuterik, eztago inundik bere erre-

medijorik. Orregaitik dirautsagu, erregutu daijala gugaitik gure erijotzako orduban.

Erazoginza

Orra neure enzula maitiak, ze eskabide gozua, ze eztitsuba, ze alsu, edo poderosua ifini deuskun ezpanetan geure Ama Elexiak, eskatuteko mesediak Jaungoikuaren amari. Poztu gaitazan guztijok, jakinik zelan eskatuko deutsagun zeruko Erregina oni biar dogun guztija. Poztu bedi ona, eta Santuba; bada nai badau iraun daukan grazijan, eta aurreratu santidadian, dauka nori eskatu, eta zelan eskatu. Esan begijo Abe Marija grazijaren amari, eta beragandik artuko dau egoera zori onekuan irauteko sendatasuna, eta itxaso onetatik etorriko jako naiko beste santidade. Poztu bedi pekatarija; bada bildur badeutsa Jaungoikuaren justizijari, eta azartuten ezpada ain loi, eta atsiturik ifinten Jaungoikuaren aurrian, bijua bere Amagana, Abe Marijaren bitartez. Ez ez, ez begi bildurrik euki, eztau beragan aurkituko, ez laztasunik, ez aserrerik, ez

bekoki astunik, ez berba garratzik. Guztija da ona, biguna, errukiorra, samurra, ta leuna. Pekatuz beterik badago bere, dei egin begijo ao betian Ama; bada eztago beretzat izen gozuagorik pekatarijen Ama baño; onexek beteten deutsa bere gogua, onexek emoten deutsa pozik andijena, eta auxe da gure aotik enzun nai dabena.

Orregaitik, zeuben gatx guztijetan, zeuben neke, eta premina guztijetan, eldu zaiteze bera-gana, dei egijozube bijotz guztitik, esan egijozube: Abe Marija, eta ikusiko dozube ze laster enzungo zaituzan pekatarijen Ama onek. Demonino, mundu, eta aragijak estututen bazaitube, ezaizu Abe Marija, eta berak banatuko ditu zure arerijo oneen aleginak; bere izena enzunik baka-rrik geratuko dira desegin, eta banaturik. Pobrez-a, ez euki, eta edozeinbere gauzaren faltiak, preminiak bazaukaz larriturik, ezaizu Abe Marija, et zeruko ondasunen jaube onek emongo deutsu biar dozuna. Zeure pekatuben astuntasun pisutsubak makurturik bazaukaz lurreraño, eta desesperadu aginian bazagoz, infernuba zeure aurrian idigirik dakutsulako, dei egijozu pekatari-

jen ama oni, ezaijozu Abe Marija, ikusiko dozu zelan eguzki eder batek legez argiz beteko daben zure bijotza, aterako zaituzan arimako pozez. Eztago, neure Kristinaubak, mundu one-tan gaxik, nundik urtengo eztogun Abe Marija-ren bitartez. Bera esanagaz guaz geure Amaren egapera, eta nun dago beragandik atera al ginai-zan indarrik, ez munduban, ez gizonetan, ez infernuban, ez demoninuetan?

Orra zelako Ama emon deutsun jaunak. Orra zelako jaolia ifini deuskun geure Jaungoikuak. Miserikordija andija benetan, dino San Bernar-dok. Ez bakarrik izan nai izan eban gure aita, ez bakarrik emon euskun bere semia gure anaije-tzat; baña ikusirik gozuagua, bigunagua, amodi-jotsubagua zala Amaren izena beste guztijak baño, bere Ama emon euskun geure Amatzat. Baña zelako Ama? Eztago Ama, bere semia ain laztan, ain maite dabenik, zein da gu gaituzan zeruko Ama onek. Betor mundu guztija Ama ona-gana. Erdu erdu gizon guztijok, andi, eta txiki, zar, eta gazte, santu, eta pekatari, pobre, eta aberats, ez inor geratu etorri baga. Erdu erdu

Ama maite onen alzora, eta berak eruango zaitu
zeruko atseginetara. Amen.

LIII. BERBALDIJA

Zer dirian Aingerubak, eta zelan daukagun bakotxak Aingeru jaolia.

Jaungoikuak egin deuskuzan mesederik andijenentian artian ezta txikijena, bakotxari emotia Aingeru bat bere jaoletzat. Mesede au obeto ezagututeko, ikusi daigun lenago zer dirian Aingerubak. Dira bada gorputz bagako espiritu uts, edo puru, zenzun, edo entendimentu, eta borondate daukeen batzuk. Jaungoikuak berak egin zituzan ezerberzetatik mundubaren asijeran. Urten ebeen Jaunaren eskubetatik grazijaz apaindurik, jakiturijaz argiturik, eta onoidade, edo birtutez ederturik. Ifini zituzan zeruban bera beti beti alabadu agijen, eta berari obediuen. Baña ez ebeen guztijak iraun Jaungoikuaren aginduban. Arroturik Luzifer beragan ekusan edertasunagaz, artu zituzan Jaungoikua bera beste izateko asmu zoruak, eta jagi zan bere egiliaren kontra beste asko bere lagun zituzala. Aserraturik Jauna lotsabakerija onegaz, bota zituzan zerutik infernuko

ondarretara, beti betiko kondenadurik ango su
ikaragarrietara. Onexek dira demoniuak.
Oneen zeregin guztija da gu pekatura eruatia,
modu onetan beti betiko zorigaldukuak izan gai-
tezan.

Aingeru onak dira Jaungoikaren agindu, eta
obedienezian iraun ebeenak, eta orregaitik Jau-
nak sendatu zituzan grazijan, egin zituzan betiko
zorieko, zeruko lenen, edo prinzipte, eta bere
erreinuko andi, edo nagusi. Ain dira jakitunak, ze
mundu onetako jakiturija guztija iluntasuna baño
ezta eurenaren albuak. Ain dira alsu, edo pode-
roso, ze mundu onetako indar guztija ezta argal-
tasun baño euren parian. Ain dira ederrak, ze
agertuko balitz luurrian Aingeru bat bakarrik
daukan argi guztijagaz, eguzkija bera geratuko
litzateke ezain, eta ilundurik. Onexei bada agin-
du deutse Jaungoikuak, zaindu gaijezala geure
bide guztijetan. Bakotxari ifinten deusku Aingeru
jaole, edo guardako bat geure arerijuakgandik
gorde gaizan, ezek gaxik egin ezteigun, eta beti
beti guri lagun egin deigun, inosbere inosbere
gugandik alderatu, edo apartadu baga. Ez baka-
rrik ifinten deusku geure Jaungoiko maitiak Ain-

geru guardako bat gizon bakotxari, baita bere Erreinu, Probinzija, eta uri, edo erri bakotxari. Egija au dakusku sarri eta sarri Eskritura Sagraduban. Dakiguna da, San Migel Aingerulenen, edo Arkanjeluba izan zala Israelgo Elexa, edo Batzarren jaole, eta orain dala Elexa Santubaren gordezaille.

Jakin gura badogu zer egiten daben gugaz Aingeru guardakuak, eta zer egin biar dogun guk bergaz, eztaukagu enzun baño zer dirautsan Jaungoikuak Moisesi, eta Moisesegan guri bakotxari. Neuk bialduko deutsut neure Aingeruba; bera juango da zure aurretik; berak zainduko zaituz daruazun bidian, eta sartuko zaitu zuretzat prestadurik daukadan lekuban. Zagoz berari adi, enzun egizuz bere esanak, eta ez eikezu gitxitan euki, edo despreziadu; bada pekatu egiten badozu, ezteutsu bakian itxiko. Enzuten badozu bere aginduba, zure arerijuen arerijo izango naz, eta gogor artuko ditudaz zuri gatx egin deizubenak. Lenengo dirausku; zetarako emoten deuskun Ainegru guardia. Bigarrenago: zer egin biar dogun Aingeru onegaz, nai badogu berak zaindu gai-zan. Iru gauzatarako emoten jakula, dino Jaun-

goikuak berak; gure aurretik juan dedin bidian, zaindu gaizan, eta sartu gaizan berak iskiniriko lekuban. Au da irakatsi deigun bidia, eta nosbait bide okerretik baguaz, artezera biurtu gaizan; zaindu gaizan bide onetan urteten deuskuben arerijuakgandik; eta azkenez sartu gaizan zeruban, zein dan leku iskinija, edo promisinoeko erri benetakua. Aingeu guardakuak egiten deuksuzan iru on onexek jakinagaz, ezagutuko dogu ze mesede andija egin deuskun Jaungoikuak bera laguntzat emonagaz.

Lenengo: emoten deusku Jaunak geure Aingeru guardia, gure aurretik juan deitian, au da, irakatsi deigun zerurako bidia. Au egiten dau guri bialdubagaz bijotzera gurari santubak, borondate onak, gogo artezak, euren bitartez egin daiguzan obra on, eta santubak, zeinzuk dirian zerurako bide artezak. Nosbait itxirik bide au sartuten bagara pekatuko bide okerrian, ze aleginak eztituz egiten atzera biurtu gaitez, eta bide onian ifini gaitez? Bialduten dau gure bijotzera Jaungoikuaren justizijaren bildur santuba, itxi erazoteko infernura garuazan bidia. Ze deijak berari jarraitu deijogun? Ze erregubak

penitenzijaiko iturrijan garbitu daiguzan pekatubaren loikerijak? Ze agirakak kondenazinoeko pelleburuban gagozalako? Sinistu egizube arako konfesetako gogua daukazunian, Aingeru guardiak bialduba da. Arako pisuba sentidurik, pekatubak triste zaukazanian, Aingeru jaoliak bialdu deutsu atsakaba ori, urten dagizun naibaga ori emoten deutsun pekatutik. Demoninuak tentetan bagaituz pekaturako, aintxe dago prest gure Aingeruba pensamentu on, eta santubak gure bijotzera bialduteko, sarzaijerarik emon ezteijogun gure arerijo oni, begijen aurrian ifinten deuskula zelako gatx, eta kaltiak dakarguzan emoten badeutsagu baija, edo konsentimentuba geure arerijo oni. Auxe da Aingeru zain, edo guardia aurretik juatia.

Bigarrengo: emoten deusku Jaungoikuak Ainegruba, zaindu gaizan geure arerijuakgandik. Gure bizi guztija da gerra bizi bat. Gerra au egiten deuskuna da demoninua. Eztago arerijo au puntutxu baten bere geldi, Etxian, eta kanpuan, kalian, eta mendijan, soluan, eta basuan, egunez, eta gabez, goxian, eta arratsaldian, edonun, edozein denporatan dago pelietan; eztauka

janen, ez luaren biarrik, ezta inos arikatu, edo kansenan, eta alan eztago inos geldiik. Baña zelako arrabijagaz, zelako indarragaz, zelako asmubakaz pelietan dau? Eztago munduban bere kontra ifini leitekianik. Zer egin ginaike guk argalok, kadenok, eta erkinok arerijo ain indarsu, ain sendo, ain gogor onen kontra? Baña, ez Kristinaubak, ez, ez gagoz bakarrik, geure albulan daukagu beti geure Aingeru jaole, edo guardia gu ainduteko. Berak pelietan dau gugaz batera, berak kenzen deutzaz daukazan armaak, berak kenzen deutzaz bere indarrak, berak azpiratuten dituz bere alegin guztijak; senduago, indarsubago, errutsubago da bera bakarrik infernuko demonino guztijak baño. Ez bildurrik euki: geuk nai ezpadogu ez gaituz goituko: deseginik geratuko dira bere asmu guztijak; obediu deijogun Aingeru onen agindubari, eta orra irabazirik goitute, edo biktorijarik andijena. Zagoz seguru zeu beragandik alderatuten ezpazara, eztala bera zure albotik kenduko. Zeuk beragandik iges egiten ezpadozu, etzaituzala bakarrik itxiko, eta zure arerijo guztijak ikusiko dozuzala zure oñetan etxunik, zatitu, birrindu, eta lotsaturik.

Irugarrengo: emoten deusku Jaungoikuak Aingeru guardakua, eskiniriko luurrian, zein dan zeruba, sartu gaizan: auxe da gauza lenen, edo prinzipalena. Onetarako dua gugaz bizi onetako bidian, onetarako zainduten gaituz geure arerijuakgandik, onetarako da gure bide-lagun, onetarako dira bere ardura guztijak. Gu sortu, eta bertatik emoten deusku Jaunak Aingeru jaole, edo guardakua, eta ordutixek asten da gugaz daukan arduria. Geure amaren sabelian gagozala, eta argitara urten baño lenago daukagu geguz Aingeru au. Ordutixek abijetan dira gu zeruruntz arteztuten. Nai leuke demoninuak bautismoko ura artu, eta Jaungoikuaren seme izatera eldu baga il gaitezana; baño gure Aingerubak galazoten deutsa onelako gaiztakerijarik, edo beste gatxik guri egiten. Jaijo, eta batiatu ezkerro, zelako arduria arzen eztau Aingeru onek guk zaindu daigun orduban arturiko grazija? Berak guraso, maesu, eta beste gure ardura euki biar dabenai adi erazoten deutse doktrinia, eta zerurako bidia guri irakasteko dauken obligazioa. Berak bialduten dau gure bijotzera Jaunaren bildur santuba, berak alderatu, edo apartetan gai-

tuz pekatubaren pelleburubetatik. Onetarako gure bitarteko eginik erregututen deutsa Jaunari, ezteigula ukatu bere laguntasuna, ezteigula itxi jausten demoninuaren menpian.

Eta ze atsakabe, ze neke, ze naibagia arzen eztau gu pekatuan jausten garianian? Ze alginak eztituz egiten ainbat lasterren urten daigun pekatupetik? Ze deidak, ze diadarrak gure bijotzera, daukagun lo zorrotik iratzartuteko? Ze otsak gure arimako atetan, idigi deijoguzan Jaunari bertan sartu dedin? Ze erregubak bota daigun andik geure arerijua? Ez egunez, ez gabez dauka atseginik guri Jaungoikuagana biurtu erazo artian. Guk enzuten badituguz diadar oneek, eta egiten badogu penitenzija benetakua; Ze poza? Ze atsegina? Ze olgoria gure Aingerubena? Dei egiten deutse, edo konbidetan dituz beste Aingerubak, eta dirautse: poztu gaitez an guztijok; bada aurkitu dot galdu jatan ardija. Zelako arduria ifinten eztau ostera galdu eztakijon? Ifinten deusku poz, eta gozo andi bat modu onetan gozatu gaitez an artu dogun grazijaren atsegina. Modu onetan garuaz geure Aingerubak Jaungoikuak izkinirik deuskun luurrera. Baña nos

ardura andijagua ifinten daben gu zainduteko, da geure erijotzako orduban. Demoninuak ikusirik denpora gitxi daukala gu tentetako, botaten dituz bere indar guztijak, geituten dituz bere asmu txarrak, eta artuten dituz bere enbidijak al daizan modu guztijak gu goituteko, jakinik orduban urteten badau beriagaz, eruango gaituzala bera erre, eta kiskilduten daben su ikaragarrira; baña gure Aingerubak bere artuten dituz inos baño ardura andijaguak demoninuak goitu, edo benzidu ez gaizan. Nok esan leike? Nok adi erazo leike Aingeru on, eta donga oneen artian orduban egiten dan gerra bizija? Onak gu zerura eruateko, eta dongiak gu infernuban ondatuteko gurarijagaz? Eztago gizonen artian bera azaldu, edo explikadu leikianik.

Baña ezta emen geratuten gure Aingerubak gugaz daukan arduria, ezta eriotziagaz amaituten bere gu zaindutia, geugaz dua Jaungoikuak egiten daben ikaragarritzko juizijora. Aintxe egongo da gure albuan; bera izango da bitarteko, edo abogadu, berak berba egingo dau gugaitik. Aintxe aterako dituz gure onerako aurkitu al deitezan errazoe guztijak; aintxe eranzungo deu-

tsee demoninuaren salakera, edo akusazioe guztijai. Ifiniko dituz geure bizi gutzijan egin dituguzan obra onak bapere itxi baga; ezta geratuko isilian txikijen txikijenik; ezkuturik ezkutubean egin dituguzanak aterako dituz argitara. Ze poza gure Aingerubena, zerurako sentenzija emoten badeusku il, eta bizien Juezak? Garbirik bagagoz berak garuaz zerubetara, ifinten gaituz Jaungoikuaren aurrian, eta egiten dau fiesta andi bat beste Aingerubakaz batera gugaz geitu dalako zerutar bat. Guztiz garbirik ezpagagoz berak garuaz Purgatorijoko garbitegira, poztuten gaituz zerura elduteko esperanziagaz, eta emoten deusku berbia egingo dabela alegina ainbat lasterren urten daigun ala, eta tormentu areetatik zeruko atseginetara. Ifinirik Jaungoikuaren aurrian erregututen deutsa arren atera gaizala ainbat lasterren leku atarik, eta eruan gaizala bera arpegiz arpegi ikustera. Onetarako ifinten dituz bere aurrian gugaitik luurrian egiten dirian eskabidiak, ateraten dirian mezak, emoten dirian limosnak, eta irabazten dirian induljenziak. Oneek ainbat lasterren, eta geijen izan deitezana, biztuten dituz gure aide, adiskide, eta

ezagunak al daijen gutzija gugaitik egitera. Arako guztiz garbirik gagozanean, ze prest, ze pozik jasten dan garbitegi, edo purgatorijora gu andik ateratera? Berak garuaz zerura, eta ifinten gaituz Jaugoikuaren aurrian beti betiko alabadu daigun zeru luurren egilia. Orra ze lagun leijala emoten deuskun Jaungoikuak sortuten gariantetik, eta bere glorijan sartu artian, infernuban geure erruz jausten ezpagara.

Erazoginza

Enzun dozu neure Kristinauba, zer egiten daben zugaz Aingeru guardakuak: enzuzu orain zer egin biar dozun zuk beragaz. Iru gauza egin biar dituzala beragaz, dirautsa Jaunak Moisesi, eta beragaz guri: Zagoz berari adi, edo bardin dana, euki egijozu itzal, edo errespeto andi bat: egizu bere aginduba, eta ez egizu gitxitan euki, edo despreziadu. Iru gauza aginduten jakuz berba oneetan: berari eukitia itzal, edo errespetua beti aurrian daukagulako; debozinoe guztizko bat deuskun onguria gaitik, eta itxoromen,

edo esperanza oso bat beragan, gure jaole dala-ko. Lenengo: itzal, edo erreberenzija beti geure aurrian daukagulako. Gagozan lekuban gagozala aintxe dago gure Aingeruba, eta dakus egiten dogun guztija. Orregaitik bakarren bakarrian zagozanean, etzara azartu biar egiten besteren aurrian lotsatu zinaitekezan gauzarik. Esan egidazu: egingo zeunke itzal, edo errespeto andi bat deutzazunen aurrian, bera asko aserratuko leukian gauzarik? Egingo zeunke plaza baten erdijan ainbat gizonen aurrian zeuk zeure bakarrian egin oi dutuzuzan loikerija, eta zikinkerijak? Azartu, edo atrebiduko zinateke zeure guraso, zeure anaije, edo zeure nagusiak zakusela egiten arako lotsariz beteten zaitubezan pekaturak? Ezetz deritzat. Bada, neure Kristinauba, eztozu inos uste biar zeure bakarrian egiten dozula pekaturik. Lekurik ezkutubean, iluntasunik itxubean, gelarik zarratubean, aintxe daukazu zeure Aingeruba, dakus egiten dozun pekaturik lotsagarrijena, bere begijen aurrian egiten dozu ezaintasunik itsusijena, ezin bera-gandik ezer ezkutadu zinaike. Zer dinot egin? Ezin euki zinaike berak eztakusan pensamentu-

rik txikijenik bere. Arako gauza lotsagarrijen bat egiteko pensamentubari baija emoten dautsazunian, edo konsentietan dozunian berak dakus. Orregaitik demoninuak pekatura tentetan zaituzanian esaizu: ementxe dago neure Aingeruba, eta berak ikusiko dau egiten dodan pekatuba. Arako zeure aragijak tentetan bazaituz loikerijen batera, lotsa izan zaitez Aingerubak dakusala olako gauzarik egiten.

Bigarreno: euki biar deutsegu debozinoe andi bat, eurak deuskuben ongura, eta borondate onagaitik. Aingeruba da geure adiskidia; baña ez edozein modutakua, ezpada aurkitu al ginaijian leijal, eta zinzuena. Asko eta asko irakusten jakuz adiskide, askok eta askok egiten deuskubez mesediak; baña ezta erraz jakitia benetako adiskide badira, edo egiten deuskubezan mesediak badira gugandik itxaroten daben beste mesede andijagoren bat gaitik. Baña Aingerubak gure adiskide badira, mesediak egiten badeuskubez, bakarrik da deuskuben amodijuagaitik. Ze mesede egin ginaijue, guk Aingeurbai? Geitu ginaijue dauken glorijs? Azi ginaijuez auren ondasunak? Egin ginaikez dirian baño ederrago,

zorionsubago, jakinsubago, senduago, edo andi-jago? Zer gara gu luurrian gatzazan gizon pobre, argal, itxu, kadenok zeruko prinziipe andi arei mesederen bat egiteko? Zer itxaron leije Jaungoikuaren aurrian gloria, atsegin, eta ondasunez alde guztijetatik inguraturik dagozan Aingerubak, luur, auts, eta zimaaur puska bat gandik? Orregaitik, seguru egonbiar gara geure adiskide benetakuak diriala; egiten badeuskubez ainbat mesede, ainbat on, dala deuskuben amodijo, asko gura, eta borondate ona gaitik. Jaungoikuak agindu deutse jaon gaijezala, eta agindu auxez zainduterren dira gure ongile.

Irugarrengo, guere Aineru zainzaile, edo guardiagan euki biar dogu uste, edo konfianza oso bat, eztagualako mundu onetako guztijak, infernuako demonino guztijen aleginakaz; artu begijez dakijezan, eta al daijezan asmu guztijak; bota begijez gure kontra euren indar guztijak; bada guzti guztijak eztira asko izango gatxik txikijenik bere egiteko, ezta uletxu baten ukututeko bere, egonik gugaz Aingeru guardakua. Ez urak, ez subak, ez eurijak, ez ekatxak, ez leoe, ez artz, ez beste gauzak gatx egin leikegu. Isio

begi Nabukodonosorrek laba ikaragarri bat; igon begi zeruraño garrak; bota begiz iru mutil gazte Jaungoikuaren bildurtiak su onen erdira, bada ezteutse alsitxu baten bere garrak ukutuko. Bota begije Daniel Igarla, edo Profetia leoe gosez amurratukuen erdira, bada leoe gosiak iliko oneen artian bat bakarrik ezta azartuko berari ukututen bere. Eta zegaitik deritzazube ez eutsela gatxik egin subak, ez leoiak Jaungoikuaren serbizaile onei? Eurakaz egualako euren Aingeruba. Eneuke amaituko ekarri gura baneutsuz Eskrituran dagozan ejenplu guztijak egija au sendatuteko.

Bada, neure Krsitinauba, zeure premina guztijetan zeure estura, biar, eta pelleburubetan nai gorputz, nai arimakuetan dei egijozu zure Aingerubari, zeure zainzailiari, zeure jaoliari bijotz oso osotik, debozinoe al daizun andijenagaz; eskatu egijozu atera zaizala daukazun esturatik, eta berak aterako zaitu konbeni bajatzu. Arako tentazinoiak estututen zaitubezarian, eta pekatuban jausteko pelleburuban zaukezarian, diadar egijozu: salbadu nagizu; bada galduba naz bestelan; ikusiko dozu zelan zeure Aingeurbak lagunduko deutsun zeure arerijua goituten. Ez

inos bildurrik euki Aingeru guardiaren aldetik utsune, edo faltarik izango dala; eta nosbait emoten ezpajaku geure eskarija da, edo konbeni ez jakualako, edo biar dan moduban eskatuten eztogulako. Nosbait goitu, edo benzietan bagaituz tentazinoiak ezta Aingerubaren erruz, ezpada geuk jausi gura dogulako. Jarraitu deijogun geure Aingerubak irakusten deuskun bidiari, goituko dituguz arerijuak, eta elduko gara geure Aitaren etxera. Amen.

BIGARREN LIBURUBAREN AZKENA